IRUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

G DOKUMENTUA
HERRITARREN PARTE HARTZEAREN MEMORIA
ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2015EKO URTARRILA

AURKIBIDE OROKORRA

A DOKUMENTUA
ANTOLAMENDUAREN MEMORIA

B DOKUMENTUA
HIRIGINTZA ARAUAK
PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (I. LIBURUKIA)
PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (II. LIBURUKIA)

C DOKUMENTUA
ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOA
ARKEOLOGIA ONDAREAREN KATALOGOA

D DOKUMENTUA
EKONOMIA-FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN
ETA EKONOMI IRAUNKORTASUNAREN MEMORIA

E DOKUMENTUA
ANTOLAMENDUAREN PLANOAK
ANTOLAMENDU XEHEA 1:2.000
KATALOGO PLANOAK

F DOKUMENTUA
INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA
NEKAZARITZAREN ALORREAN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA
ONDORIOEN NEURRIAK JARRAIPENERAKO
LABURPEN EZ TEKNIKOA
ADIERAZPEN ARGIA ETA ULERGARRIA

G DOKUMENTUA
HERRITARREN PARTE HARTZEAREN MEMORIA
ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

ERANSKIN OSAGARRIA
IRUNGO HAPNaren DIAGNOSTIKOA, EBALUAZIOA
ETA EGOKITZAPENA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNARI BURUZ

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

G DOKUMENTUA
HERRITARREN PARTE HARTZEAREN MEMORIA
ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

IRUNGO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSPENA
PARTE HARTZE PUBLIKOAREN MEMORIA

HASIERAKO ONARPEN DOKUMENTUAREN PARTE HARTZE PUBLIKOAREN MEMORIA

AURKIBIDE OROKORRA

SARRERA 3

1.- PARTE HARTZE PUBLIKORAKO PROZESUAN SORTUTAKO GAIAK 6

1.1.- ESPARRUEKIN LOTUTAKO ALEGAZIOAK.....6
1.2.- ALEGAZIOAK ZORU URBANIZAEZINEAN.....55
1.3.- TALDEEN ETA ELKARTEEN ALEGAZIOAK.....59
1.4.- ALEGAZIO PUNTUALAK – ORUBEAK – ERAIKUNTZAK.....74

2.- EPEZ KANPO AURKEZTUTAKO ALEGAZIO IDATZIAK.....87

3.- HASIERAKO ONARPENA BAINO LEHENAGOKO IDATZIAK 97

SARRERA

2011ko martxoaren 22an eginiko Osoko Bilkuran erabaki zuen Irungo Udalak Planaren Berrikuste Proiektua, Ingurumen Inpaktuaren ebaluazio-azterketarekin batean, hasieran onartzea. Erabaki horretan zehaztu ere egin zen proiektua jendaurreko informazio-tramitera eramatea, eta beharreko iragarkiak argitaratu ziren horretarako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (GAO, 69. zenb, 2011 apirilak 11), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 88. zenb., 2011ko maiatzak 11), eta lurraldean gehien zabaltzen diren egunkarietako bitan (Diario Vasco, 2011ko apirilak 20 eta Noticias Gipuzkoa, 2011ko apirilak 26).

Akordioaren arabera, herritarren parte hartze prozesu honi begira lau hilabeteko epea aurreikusten zen, azkeneko argitalpenetik aurrera, eta 2011ko irailaren amaieran bukatu zen epe hura. Herritarren dokumentaziorako sarrera erraztearren, Herriko Etxearen ondoko lokal batean, behe solairuan, egon zen dokumentazio hura epe hartan guztian, eta langile espezializatuen laguntza jaso zuten hartaraturiko herritarrek.

Herritarren informazio eta parte hartze epe hartan, **190 Alegazio idatzi** erregistratu ziren Udalean, zehazturiko epean entregatu zirenak. Horiexek dira Parte hartze Memoria honetan jaso ditugunak, bakoitzaren zenbakia, laburpena, kontsiderazioak eta erabakia azalduta. Plana Berrikusteko espedientearen barnean sartu dugu Memoria hau.

Osagarri gisa, jende aurreko informaziorako epea baino geroago, **19 idatzi aurkeztu ziren epez kanpo**, eta horien gaia Planarekin loturik zegoen zuzenean. Idatzi horiek ere aztertu egin ditugu Parte hartze Publikoaren Memoria honetan, oker materialekin loturiko kontuak izateagatik edo Planaren dokumentuaren tramitazioa aurreikusitakoa baino dezente gehiago luzatu izatean ekin beharreko beste gai batzuekin zerikusia zutelako, atzerapen hori administrazio prozeduraren arrazoiengatik izan bada ere.

Era berean, **aurreko beste 4 idatzi** jaso dira Plan Nagusiaren hasierako onarpen dokumentua idazteko lanak egiten ari ziren bitartean Udalera bidali zirenetatik, horien gaia planarekin loturik zegoelako. Egia esan, eta jende aurreko arauzko informazio prozesua hasi baino lehen aurkeztu baziren ere, konpondu beharreko kontuak planteatzen zituzten.

Aztertutako gaien ulermena eta **jarraipen bateratua** errazteko, Alegazioak **lau multzotan** bildu dira duten erreferentziaren arabera, plangintza esparruen inguruko kontuekin loturikoak, horiek zenbakiaren arabera antolatuta, zoru

urbanizaezinarekin loturiko gaiak, hiri zoruaren alderdi puntualekin loturikoak, edo taldeen eta elkarteen idatzi orokorrak.

Parte hartze Memoria honetan Alegazio bakoitza udal zerbitzu teknikoetan jaso zen **ordena zenbakiaren** arabera islatu da. Logikoa denez, zenbaki horiek ez datoz bat erregistro zenbakiarekin, era askotako idatziak eta tramiteak jasotzen baitira bertan. Ondoren, lauki barruan ageri da idatziak gai duen eremuaren edo gai dituen eremuen **kokalekua**, eta iradokitako gai motaren **oinarrizko laburpena** gero paragrafo bakar batean.

Alegazioaren Laburpena ageri da gero, eta alegaziogileek azaldutakoaren alderdi garrantzitsuenak ahalik eta zehatzen islatu nahi izan dira bertan, baina **horrek inolaz ere ezin du ordezkatu eta ez du asmorik izan** jatorrizko testua eta, hala behar badu, bakoitzak aurkeztutako eranskin grafikoak edo dokumentuak **ordezkatzeko**.

Laburpen horien helburu nagusia da iradokitako gaiak **labur deskribatzea**, Parte hartze Memoria honen irakurketa azkarragoa izan dadin, eta idatziak baino laburragoak dira logikoa denez. Era berean, laburpen horien helburua da, Udalaren iritziz, iradokitako gaiei begira **esanguratsuenak** diren alderdiak azpimarratzea, gero kontsiderazioen atalean aztertuko direnak, hain zuzen ere.

Kasu batzuetan, prozedura kontuak zehazteko edo alegazioan deskribaturikoa zentratzeko asmoz, haren formari edo edukiari buruzko **oharkizun edo informazio osagarriren bat** sartu da Laburpenetan.

Ondoren, planteatutako gaiekin loturik alegazio bakoitzerako egokitzat hartu diren **Kontsiderazioak** jaso dira. Ahaleginak egin dira, betiere, ekintzen hondora iristeko eta eskaintzen ziren **aukera desberdinak jasotzeko**. Lurren eta erabileren **interes orokor eta publikoari** eta horietarako egokienak diren intentsitateei eman zaie lehentasuna **bidezko interes partikularren eta pribatuen** aurretik.

Azkenik, **Ondorioekin** eman zaio amaiera Alegazio bakoitzarekiko erreferentziari. Aurrez garatutako kontsiderazioetan oinarriturik, eskatutakoa **onartu**, eskatzen zenaren **zati bat bakarrik onartu**, edo alegatutako guztia **ezetsi** egiten da ondorio horietan.

Alegazioei dagokienez, argi adieraz dezagun **epean aurkeztu ziren 190 alegazioetatik 128 berdin-berdinak zirela** edukiaren aldetik, haietako lehenaren testua, 30 zenbakia duena, kopiaturik ageri baita gainerakoetan. Tratamendua berdina da guztietarako, jakina. Multzoka aurkeztu zirenez

alegazioak aurkezteko legezko epean egun desberdinetan, zenbakiak ez dira elkarren segidakoak. Honako hauek dira **idatzi berdin-berdin** horiek:

30 zenbakiko alegazioa berdin-berdina da 31 - 66 zenbakikoekin, biak barne, 71 - 110 zenbakikoekin, biak barne, 115 - 126 zenbakikoekin, biak barne, 134 – 153 zenbakikoekin, biak barne, 160 - 170 zenbakikoekin, biak barne, eta 180 - 186 zenbakikoekin, biak barne.

Epean aurkeztutako gainerako 61 alegazioei, **epez kanpoko 20 alegazioei** eta espedientearekin loturiko **aurreko 4 idatziei** dagokienean, **85 idatzi ezberdin guztira**, horietako bakar bat ere ez da besteen berdina, kasu batzuetan kontu bera edo oso antzeko gaiak lantzen badituzte ere. Horiek guztiak multzoetan banatu dira, beraien inguruko kontsiderazioei dagokienean bereziki, eta logikoa denez, erabaki berdina hartu da alegazioak helburu zuen gaia berdina bazen eta argudio mota berdinetan oinarrituta planteatu bazen.

Iradokitako gaiei dagokienez, **plangintzan proposaturiko esparruekin** loturiko alderdiak zituzten mintzagai 43 idatzik eta 128 alegazio berdinek (idatzi guztien **% 80**, haien **gehiengo handia** beraz). Bestalde, 9 alegazioren xedea zen **zoru urbanizaezinarekin** zerikusia zuen zerbait (% 4), 30 idatziren helburu ziren hiru **zoru sendotuarekiko gai puntual batzuk (% 14**) eta, azkenik, **taldeek** idatziak dira beste 3 idatzi (**% 1**), eta haien helburuak gai orokorrak bezala ziren gai partikularrak.

Guztira **aintzat harturiko 213 idatzietatik**, 27 **onartu dira** (**% 13**), 160 **onartu dira zati batean** (**% 72**), eta 26 **ezetsi** dira (**% 15**). Zati batean onartu diren 153etatik, **128** zegozkien **alegazio berdinei** (**Katea aldeko** aspektu batzuk zituzten aztergai honako hauek), eta beste gai batzuk ziren gainerako 25en helburuak. Zera esan genezake, laburbilduz: idatzien **% 88k** jaso dute **aldeko edo onarpenezko iritzia nolabait**, erreklamatzen zituzten alderdi guztietan edo haietako batean edo batzuetan.

1.- PARTE HARTZE PUBLIKORAKO PROZESUAN SORTUTAKO GAIAK

1.1.- ESPARRUEKIN LOTUTAKO ALEGAZIOAK

018 0.2.01 – **Geltoki Ingurua – Blas de Lezo kalea.** Eraikin kolektibo bakan bat antolamendutik kanpo uzteagatik desadostasuna agertzeko idatzia.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Blas de Lezo kaleko 26. eta 28. zenbakietako etxebizitzen jabeak dira alegaziogileak, 0.2.01 Geltoki Ingurua esparruaren barnean, eta ukituriko eraikinak sendotzea planteatzen dute, lehen ere, Plangintzaren Aurrerakinerako proposatu zuten bezala, eraisteak baztertzeko modu gisa, Plan Nagusian orain planteatutako biribilgunea aldatzean. Antolamendutik kanpo uzte horrek sorrarazten dizkien galerak eta ziurgabetasunak ere aipatzen dituzte, espediente desberdinak oraindik ez badira gauzatu ere. Amaitzeko, antolamendu osoaren kargu egingo den Elkarte Kudeatzailea ahalik eta azkarren sortzeko eskatzen dute.

021 0.2.01 – **Geltoki Ingurua – Anaka kalea 9**. Eraikin kolektibo bakan bat antolamendutik kanpo uzteagatik desadostasuna agertzeko idatzia.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Anaka kaleko 9. zenbakiko etxebizitzen eta garajeen jabekideak eta Alai etxearen jabeak, Anaka, Blas de Lezo eta Gorostidi kaleen elkargunean kokatutako eraikinak horiek, eraikin horiek desagertzearen aurka daude, eta ukituriko eraikin horiek sendotzea planteatzen dute, lehen ere, Plangintzaren Aurrerakinerako proposatu zuten bezala, hiri sarearen barnean sartuta eta kostuak saihestuta. Gainera, adierazten dute, Anaka kaleko 9. zenbakiko eraikina eraiki berria dela, 1998. urtean, hain zuzen ere, eta konponbideren bat adosteko prest leudekeela.

Antolamendutik kanpo uzte horrek sorrarazten dizkien galerak eta ziurgabetasunak ere aipatzen dituzte, espediente desberdinak oraindik ez badira gauzatu ere. Amaitzeko, antolamendu osoaren kargu egingo den Elkarte Kudeatzailea ahalik eta azkarren sortzeko eskatzen dute.

025 0.2.01 – **Geltoki Ingurua – Julian Gayarre 19-A**. Eraikin kolektibo bakan bat antolamendutik kanpo uzteagatik desadostasuna agertzeko idatzia.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Julian Gayarre kaleko 19-A zenbakian dagoen bi familiako eraikinaren jabe gisa, 2004. urtean eraikia hura, eta kale bereko 17. zenbakian dagoen bi familiako eraikina ere aipatuz, Geltoki Ingurua esparruaren diseinu berriaren aurka daude, bi eraikin horien eremuan biribilgune bat aurreikusten delako, neurri handikoa beren iritziz.

Azpimarratzen dute antolamendu berri honek aldaketa dakarrela Aurrerakin dokumentuan aurreikusitakoarekiko. Beren iritziz, horrek ez du inolako abantailarik

ekarriko, baina aldiz, areagotu egingo ditu etorkizuneko esku hartze horren kostuak. Plan Nagusiaren aldaketak, beren iritziz, kostu ekonomikoa nahiz kostu morala eragingo dizkiela diote. Halako argudio batzuk azaltzen dituzte idatziak mintzagai duen etxebizitzaren ezaugarri berezien inguruan, etxe hori mugikortasun murriztua duten pertsonentzako egokitzearekin loturik, era horretakoak baitira etxebizitza horren erabiltzaileak.

Adierazten dute udalaren aldetik ez dutela aurreikuspenen informaziorik jaso, ezta kalte-ordaina nola eskuratu daitekeen eta desjabetzea noiz egingo litzatekeen ere. Era berean, adierazten dute proiektuaren tramitazioak irauten duen bitartean jada ari zaizkiela kalteak eragiten, hobekuntza obrak ezin egin izatea edo ezin saldu izatea, esate baterako, eta galera horiek ez dira konpentsatuko.

Aurrerakinean planteatutako antolamendura itzultzeko eskatzen dute, hark ez baitzuen beren etxebizitza ukitzen. Hala eginez gero, gainera, uste dute kostuak nabarmen murriztuko liratekeela Udalarentzat eta esku hartzearen sustatzaileentzat.

026 / 027 / 029	0.2.01 – **Geltoki Ingurua – Julian Gayarre 19-B**. Eraikin kolektibo bakan bat antolamendutik kanpo uzteagatik desadostasuna agertzeko idatzia.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Beren etxebizitza, Julian Gayarre kaleko 17-B zenbakian dagoena, uztearen aurka daude, 17-A zenbakian bizi den bizilaguna bezalaxe; izan ere, uste dute badaudela beste aukera batzuk eremua bizileku esparru berriz hornitzeko, Plana idatzi zen bitartean egindako azterketetan azaldutakoak, esate baterako. Gainera, horiei esker kalte larriak saihestuko lirateke eta kostu ekonomikoa txikiagoa izango litzateke.

Aipatu ditugun Alegazio horiei, 018, 021, 025, 026, 027 eta 029 zenbakikoak, hain zuzen ere, gai berdinak lantzen dituztenez, Kontsiderazio eta Ondorio berdinak dagozkie, ondoren azaltzen direnak:

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiaren Berrikuspen honen helburu nagusietako bat da Irungo erdialdean burdinbide esparrua berrantolatzea. Esparru horretan esku hartzen duten administrazio eta erakunde publiko desberdinen jarduera konbinatua izango litzateke, berorien artean sinaturiko Asmoen Protokoloaren arabera, elkarrizketa eta adoste prozesu luzea izango denaren hasierako oinarria, hain zuzen ere.

Arestian aipaturiko Protokolo horretan aintzat hartu eta jasotako helburuen artean funtsezkotzat jotzen dira trenbideak gaur egun hirian duen arrastoa murriztea, Geltokiko eremua erabat berritzea, Euskotrenen trazatua gainerako trenbideekin batera sartzea Geltoki berrian, eta hiria zerbitzu, jarduera ekonomiko eta bizileku Zentro berri batez hornitzea.

Horrenbestez, lehen mailako helburua da trenbidea hiritik igarotzeak hainbeste denboran zehar eragin duen oztopo hori nabarmen murriztea, dagoen hiri sarea osatuko duen sarea egituratuz, burdinbideen bi aldeetan eta aldameneko auzoen

artean, orain arte fisikoki bereiziak baitaude, bide komunikazioa eta komunikazio funtzionala egoki eta behar bezala bideratu ahal izateko.

“Trenbidearen arrastoa” deitutakoa gainditzeko beharra luze eta zabal azaldu eta arrazoitu da Plan Nagusiaren egungo berrikuspena hasi zenetik gauzatzen eta onartzen joan diren dokumentu guztietan, teknikoki justifikatua egoteaz gainera, herritarrek ederki onartu baitute, eta lurralde izaera handiagoa duten beste hainbat dokumentutan ere jaso baita.

Plan Nagusiak Irungo Geltokiaren ingururako aintzat hartutako hirigintza antolamenduak helburu horiek guztiak jasotzen eta erantzuna ematen die, eta aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz Hiri Antolamendurako Plan Berezi baten bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da antolamendu xehea definituko duen eta kasu bakoitzean dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez finkatuko duena. Ez dugu ahantzi behar inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik idatzi beharko dela plangintza hori eta garapen eta kudeaketa prozesu luzea bideratu beharko dela horretarako.

Horregatik, Plan Nagusiaren Berrikuspen honetan berraztertu egin da dauden eraikinak antolamendutik kanpo uzteko adierazpena, ulerturik **antolatu gabeko esparru batean aurrez baziren eraikinak direla eta Plan Berezi bat tramitatu behar dela esparru hori garatzeko**.

Horrenbestez, eraikin horiek egungo erabilera eta eraikuntza baldintzetan mantendu ahal izango dira, antolatu gabeko esparru baten barnean daudenez, eta aurreikusitako plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan xedaturikoaren araberakoa izango bada ere haietan egin daitezkeen obren izaera eta hedadura, dagokien hirigintza fitxan jaso bezala:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenekiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikuluak xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Era berean, Elkarte Kudeatzailea eta Protokoloaren Jarraipen Batzordea osatzearen inguruan adierazitakoa dela-eta, kontuan izan behar da, elkarte hori sortu aurretik beharreko garapenerako Hitzarmenak sinatu beharko direla esku hartu behar duten administrazioen artean, behin betiko erabakitzen diren finantzazio konpromisoen arabera betiere. Kontuan izanik esku hartzea konplexua dela eta une jakin honetan

duen egoera, ez du bidezkoa ematen plangintza tresna orokor batek aipaturiko Elkarte hori osatzeko epe jakin bat zehaztea.

Horren inguruan, Irungo Udala, esparru honetarako definituriko helburuek lehentasuna dutenez eta bere eskumenek ematen dioten gaitasunaren barnean, ahaleginak egiten ari da Plan Nagusiaren dokumentua ahalik eta azkarren bultzatu eta tratatzeko behin betiko onartzea lortu arte. Dokumentu horretan Geltoki esparrurako jasotako oinarrizko burubideak derrigorrezko erreferentzia izango dira administrazio desberdinen artean sinatu beharreko konpromisoei begira.

ERABAKIA:

Aipaturiko arrazoibide horietan oinarriturik, **zati batean onartuko da** alegazioak mintzagai dituen eraikinak antolamendutik kanpo ez uzteko eskaera. Bestalde, irizten da ez dela bidezkoa Plan Nagusiak finkatzea Elkarte Kudeatzaile Mistoa osatzeko epeak.

175 0.2.01 – **Geltoki Ingurua – Beilatokia.** Beilatokia antolamendutik kanpo uzteagatik desadostasuna agertzeko idatzia

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatzian adierazten dute ez datozela bat 0.2.01 Geltoki Ingurua esparrurako planteamenduarekin, uste baitute Tanatorio del Bidasoa, S.A.ren egungo instalazioak bateragarriak direla esparruko hirigintza garapenarekin. Era berean, adierazten dute, instalazio horiek beste leku batera eraman behar badira, Plan Nagusiak adierazten duen bezala, gutxienez gaur egungo baldintza berdinetan egin beharko litzatekeela lekualdatze hori, eta bere garaian behar bezala baloratu beharko litzateke hori.

Gainera, adierazten dute egungo eremu berean egon behar lukeela kokaleku berriak, hirigunetik hurbil dagoelako eta bizileku erabilerekin bateragarria delako, beharreko aparkalekuekin azaleran, lurpean, berdeguneak eta abar. Era berean, eskatzen dute lursailean bertan errausketa labea jartzeko aukera jasotzeko, azken urte hauetan behin baino gehiagotan egin den eskaera baita.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiaren Berrikuspen honen helburu nagusietako bat da Irungo erdialdean burdinbide esparrua berrantolatzea. Esparru horretan esku hartzen duten administrazio eta erakunde publiko desberdinen jarduera konbinatua izango litzateke, berorien artean sinaturiko Asmoen Protokoloaren arabera, elkarrizketa eta adoste prozesu luzea izango denaren hasierako oinarria, hain zuzen ere.

Arestian aipaturiko Protokolo horretan aintzat hartu eta jasotako helburuen artean funtsezkotzat jotzen dira trenbideak gaur egun hirian duen aztarna murriztea, Geltokiko eremua erabat berritzea, Euskotrenen trazatua gainerako trenbideekin batera sartzea Geltoki berrian, eta hiria zerbitzu, jarduera ekonomiko eta bizileku Zentro berri batez hornitzea.

Horrenbestez, lehen mailako helburua da trenbidea hiritik igarotzeak hainbeste denboran zehar eragin duen oztopo hori nabarmen murriztea, dagoen hiri sarea osatuko duen sarea egituratuz, burdinbideen bi aldeetan eta aldameneko auzoen

artean, orain arte fisikoki bereiziak baitaude, bide komunikazioa eta komunikazio funtzionala egoki eta behar bezala bideratu ahal izateko.

“Trenbidearen arrastoa” deitutakoa gainditzeko beharra luze eta zabal azaldu eta arrazoitu da Plan Nagusiaren egungo berrikuspena hasi zenetik gauzatzen eta onartzen joan diren dokumentu guztietan, teknikoki justifikatua egoteaz gainera, herritarrek ederki onartu baitute, eta lurralde izaera handiagoa duten beste hainbat dokumentutan ere jaso baita.

Plan Nagusiak Irungo Geltokiaren ingururako aintzat hartutako hirigintza antolamenduak helburu horiek guztiak jasotzen eta erantzuna ematen die, eta aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz Hiri Antolamendurako Plan Berezi baten bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da antolamendu xehea definituko duen eta kasu bakoitzean dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez finkatuko duena. Ez dugu ahantzi behar inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik idatzi beharko dela plangintza hori eta garapen eta kudeaketa prozesu luzea bideratu beharko dela horretarako.

Horregatik, Plan Nagusiaren Berrikuspen honetan berraztertu egin da dauden eraikinak antolamendutik kanpo uzteko adierazpena, ulerturik antolatu gabeko esparru batean aurrez baziren eraikinak direla eta Plan Berezi bat tramitatu behar dela esparru hori garatzeko.

Horrenbestez, eraikin horiek egungo erabilera eta eraikuntza baldintzetan mantendu ahal izango dira, antolatu gabeko esparru baten barnean daudenez, eta aurreikusitako plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan xedaturikoaren araberakoa izango bada ere haietan egin daitezkeen obren izaera eta hedadura, dagokien hirigintza fitxan jaso bezala:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenekiko kalteak saihesteko direnak.

- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.

Kasu honetan, gainera, eta Beilatoki erabilera birkokatzeko aukera jasorik, esparru honi dagokion hirigintza fitxan aintzat hartu da esparruaren hegoaldeko muturrean, Gobaraginen kalearen ondoan eta Soroxartako poligonotik hurbil, dagoen lurzoru bat Jarduera Ekonomikoetarako zoru gisa kalifikatzeko aukera. Aurreikuspen hori argitzeko xedean, Hirigintza Erregimen Xeheari dagokion hirigintza fitxaren 4. atalean jaso da orain dagoen eraikuntzaren esparru horretan, Beilatokirako eremuan, birkokatzeko kontsiderazioari dagokion zehaztapena.

Lursail horren kokalekua guztiz estrategikoa da, kontuan izanik, inguru hurbilenean dagoen eta proposatzen den hiriarekin duen lotura egokia izateaz gainera, erdialdean dagoela udalerriaren hegoaldean eta mendebaldean proposaturiko hazkunde

berriekiko, eta lotura bikaina du gainera proposaturiko bide sistemaren bidez. Era berean, lursail horrek aukera emango du erabilera lagungarriak eta osagarriak ezartzeko, funtzionamendua egokiagoa izan dadin.

Lursail berri honetan errausketa labea jartzeko aukerari dagokionean, kontuan izan behar da Plan Nagusi honek ez duela aintzat hartzen labe hori bizileku lursailetan kokatzeko aukera. Hirigintza Arauen dokumentuan modu espezifikoan jaso da orain erabilera horren deskribapena, eta Jarduera Ekonomikoen eta, hala behar badu, Ekipamendu Komunitarioaren kalifikazio globalekiko duen bateragarritasuna. Aipaturiko kalifikazio horren definizioak, horrenbestez, erabilera hori lursail egokian jartzea aurreikusten du.

ERABAKIA:

Aipaturiko arrazoi horietan oinarriturik, **ezetsi egingo da** egun beilatokia dagoen eraikuntza sendotzeko eskaera, alegazioak mintzagai duena, ez delako Plan Nagusi honen antolamendu estrukturalaren xedea.

Hala ere, dagoen Beilatokia, hala behar badu, esparruaren Hegoaldean kokatzeko aukera jasotzen du Hirigintza fitxak.

Era berean, Plan Nagusiaren Araudian jasota dago Beilatokiaren eta Errausketa Labearen erabileraren erregulazioa. Hartan industria erabilera gisa ageri da azken jarduera hori, eta horrenbestez, kokaleku egokian ezarri beharko da jarduera hori.

020	0.2.01 – **Geltoki Ingurua – ALGEPOSA.** Trenbide esparrua Plan Nagusian eta administrazio desberdinen artean sinaturiko Protokoloan aurreikusitako moduan birmoldatzearen aurka ageri dira.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Dokumentuaren jende aurrean jartzeko epearen aurretik idatzi bat aurkeztu zen, 5 zenbakiduna, eta alegazio honekin lotuta dago. Hona hemen laburbilduta:

Udalari aurkeztutako aurretiko idatzi horretan, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Aurrerakinean, burdinbide esparru osoari begira, jasotako antolamendu proposamenen arabera, interesatuek eskatzen zuten ALGEPOSA INTERMODAL – RAILSIDER lan-talde batean sartzeko, burdinbide esparruen antolakuntzarekin loturiko aukerak aztertu eta planteatu ahal izateko. Oro har, burdinbide instalazioei begira, eta bereziki, ALGEPOSA INTERMODAL – RAILSIDER enpresarenei begira, beren iritziz, sortutako arazoaren azterketa ere aurkeztu zuten.

Idatzi horri erantzun zion Obra, Hiri Garapen eta Etxebizitza saileko Ordezkari jaunak 2010eko irailaren 1ean. Eskatutako lan-talde hori zergatik ez zen osatu azaldu zuen, eta horrenbestez, ezetsi egin zen aurkeztutako eskaera hori. Udalaren erantzun hori erantsi da aurkeztutako dokumentazioan.

Orain Alegazio osoa oinarritzat harturik, alegazio horrek HAPNaren planteamenduak zalantzan jartzen ditu Irungo Geltoki inguruko merkantzien jarduera intermodalari dagokionean, eta errepideko garraioaren estrategia logistikoarekin loturiko irizpide batzuetan oinarritzen da. Geltokiaren Mendebaldean dagoen “trenbide zaharren”

eremua kentzea proposatzen du, baina beste trenbide sortak hobetu eta handituta Plaiaundin eta “trenbide berrietan”.

1) Kontsiderazio ugari jasotzen ditu alegazioak. Horietan Lehenengoa merkantzien trafikorako jarduera intermodalerako burdinbide esparrua murriztearekin loturik dago eta gainera esaten du ez direla kontuan hartu Aurrerakinean planteatutako iradokizunak, horrekin erabat ezinezko bihurturik alegatzaileak ordezkatzen duen enpresaren jarduera. Aurrerago planteatzen du HAPNaren proposamenak agian ez datozela bat lurralde antolamendurako tresnek aurreikusitakoarekin, kontuan izanik horiek nagusitzen direla juridikoki.

2) Horren haritik, alegatzailearen iritziz, Sare intermodal eta logistikako Lurraldearen Arloko Planarekiko, Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planarekiko eta Donostialdeako Lurraldearen Zatiko Planarekiko (hasieran onartua) sortuko liratekeen kontraesanak aipatzen dira bigarren Kontsiderazioan. Era berean, aipatzen dute berrikuspena baliorik gabe gerta litekeela HAPNa ez bada behar bezala egokitzen arestian aipaturiko lurralde plangintza tresna horien zehaztapen lotesleetara.

3) Era berean, hirugarren Kontsiderazioan aipatzen da agian ez dagoela zorroztasun aski HAPNak Irungo jarduera intermodalen garapenean bat-batean halako aldaketa egin izana justifikatzeko, eta esaten dute halaber ez daudela behar adina garatuta aintzat hartutako aukera berri horiek bermatu beharko lituzketen azterketak, oraindik hasierako fasean daukala Trenbide Esparrua Birmoldatzeko Azterketa Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak eta segurtasunik ez duela beste administrazio batzuekin sinaturiko Protokoloaren garapenak.

Planteatzen dute hain azkar ez hartzeko erabakiak eta itxaroteko esparru horretan egin nahi denaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa bermatuko duten azterketak egin arte. Horren haritik, azpimarratzen dute, beren iritziz, Plan Nagusian ez dagoela esku hartze hau bermatuko lukeen ekonomia eta finantza azterketa aski edo nahikorik, eta argudiatzen dute protokoloa sinatu duten administrazioek ez dituztela beren gain hartzen esku hartze honetan kontu-sail garrantzitsu batzuen kostuak, aipatu bezala, eta esaten dute halaber ez zaiela aski iruditzen Planak aurkeztutako urbanizazio kostuen balorazioa.

4) Ondoren, laugarren Kontsiderazioan, zalantzak azaltzen ditu, esku hartzearen bideragarritasuna sortutako hirigintza gainbalioen bidez bermatzeko Plan Nagusiak higiezinen errendimenduen alde egiten duen apustuaren inguruan. Adierazten du Bideragarritasun Azterketan erabili diren salmenta prezioak gainbaloratuak egongo liratekeela, aurkeztu dituen kalkulu batzuen arabera, eta zalantzak agertzen digu planteatutako aprobetxamenduei leku egiteko lurrek benetako gaitasunik ote duten, eta ez delako jaso lurren deskutsatzetik, kalte-ordainetatik, beste bizileku bat emateko beharretik, lekualdatzeetatik eta abarretatik etorritako urbanizazio kosturik. Era berean, esaten du planteamendu hori ez dela egokia iraupen jakinik ez duen krisi ekonomiko hau bizitzen ari garen honetan. Puntu hau amaitzeko, aipatzen du 2/2006 Legearen 144. artikulua ez dela bete etekinak eta kargak berdintasunean oinarrituta banatzeari dagokionean.

5) Aurrerago, bosgarren Kontsiderazioan esaten du, bere ustez, sinaturiko protokoloa ez litzatekeela aski izango eta ez litzatekeela funtsezko oinarria izango trenbide esparruaren birmoldaketa sakon horren aldeko apustua justifikatzeko, aurretiko azterketak oraindik bukatu ez direnean eta haien emaitzak ezagutzen ez direnean geratuko liratekeen soberako esparruei begira. Horren inguruan esaten du zailtasun handiak ekarriko lituzkeela bi fasetan banatzeak eta bigarrena bideratzean ziurgabetasun handia aprobetxamenduen gauzatzeari dagokionean. Era berean,

adierazten du erabaki administratiboak aurresuposatzen ariko liratekeela oraindik behin betiko onartu gabe dauden esparruko hainbat elementuri dagokienean, azterketen emaitzen, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren, borondate politikoen eta hartu beharreko konpromiso ekonomikoen baitan baitaude horiek neurri batean.

6) Ondoren, seigarren Kontsiderazioan zalantzak azaltzen ditu hornidurei, espazio libreei, aparkalekuei eta abarri begira legeak eskatzen dituen gutxieneko estandarrak betetzeko aukeren inguruan.

7) Osagarri gisa, zazpigarren Kontsiderazioan planteatzen du urratu egingo litzatekeela Ekonomia Iraunkorraren 2/2011 Legearen 32.2 artikulua Herri Administrazioen aurrekontu iraunkortasunari eta gastuaren arrazionalizazio eta euste politika aplikatzeari dagokienean.

8) Ondoren, zortzigarren Kontsiderazioan, alegaziogileak adierazten du kontserbatu eta hobetu egin behar direla merkantzien garraio intermodalerako trenbide esparruak, eta Aurrerakinaren fasean aurkeztutako azterketa bat aipatzen du, trenbide eremu bakoitzaren jardunaren eta erabilgarritasunaren ingurukoa, hartan esaten baita ezin direla birkokatu gaur egun aurrera eramaten diren jarduerak eta haiekin loturiko espazio beharrak soilik Plaiaundiko eremuan.

Aipamen zehatza egiten zaio Oiantzabaletaren Luzapena esparruari, Plan Nagusiak trenbidearekin loturiko jarduerak birkokatzeko aukera gisa jasoa, bere iritziz, esparru horrekiko lotura zuzena Euskotrenen trenbidetik soilik egin ahal izango litzatekeenean.

9) Bederatzigarren Kontsiderazioan aipatzen du ezin izango dela Irunen aurrera eramaten den trenbideko merkantzien egungo jarduera logistikoa eta intermodala mantentzen jarraitu, horretarako aurreikusitako espazioak ez direlako aski, eta horren ondorio gisa negozioa eta enpleguak galduko lirateke eta hainbat jarduera bertan behera utzi beharko lirateke. Horretarako, Aurrerakinean jada aurkeztutako iradokizun idatzira jotzen dute, iragaite gaitasunak, negozio bolumenak eta sortutako enplegu zuzenek nahiz zeharkakoek izan ditzaketen murrizketen inguruko zehaztapenak azaltzen baitira hartan.

10) Alegazioak, oro har, zalantzan jartzen ditu, horrenbestez, HAPNaren planteamenduak Irungo Geltoki inguruko merkantzien jarduera intermodalari dagokionean, halako irizpide batzuetan oinarrituta, estrategia logistikoarekin, kokalekuaren abantailekin, lehiakortasunarekin mugaldeko beste gune batzuen eta errepideko garraioaren alde eta enplegua sortzen duen jarduera bat mantentzearekin loturikoak, hain zuzen ere. Geltokiaren Mendebaldean dagoen trenbide eremua, “trenbide zaharrak” deiturikoak, kentzea proposatzen dute, baina beste trenbide sortak hobetuta eta handituta Plaiaundin eta “trenbide berrietan”.

Ikuspegi zehatzago batetik begiratuta, idatziak halako proposamen batzuk planteatzen ditu Hamargarren Kontsiderazioetan. Horietan lehenbizikoak atoian eramaten den merkantzien materiala, gaur egun trenbide zaharrak deiturikoak erabiltzen dituena, trenbide berrien aldera eramateko beharra aipatzen du, egungo trenbide sorten egitekoa aldatuta. Bigarrenak, Wagon Litsen eraikin zaharrak trenbide Berrien burualdeak zabaltzeko erabiltzea eta azpiegitura zein gainegitura materiala eraikin horietatik Kostorbeko biltegira eramatea proposatzen du. Hirugarrenak, Kostorbeko nabeko jarduera, bidaiarien autoen tratamendua, Plaiaundiko Sektorean kokatzea planteatzen du alde hori birmoldatu ondoren, trenbideko trafikoak izan dezakeen gehikuntzari bertan leku egiteko aukera ere aintzat hartuz. Laugarrenak, berriz, planteatzen du Algeposa Intermodalerako sarbide zuzenek lagundu egingo luketela Irungo burdinbide multzoaren saturazioa arintzen.

Azkenik, alegaziogilearen iritziz, Irunen kenduko diren jarduerak Lezo Gaintxurizketan kokatzeko aukera ez da aukera errentagarria eta ezta lehiakorra ere eta halako arrazoi batzuk azaltzen ditu argudio gisa, arrazoi teknikoak, erabilitako denborak, kostuak eta desabantaila ekonomikoak nahiz jardutekoak egungo logistika enpresentzako. HAPN berria egiten dituen proposamenetara egokitzeko eskaerarekin bukatzen du.

KONTSIDERAZIOAK:

Duen garrantziagatik eta alegazio honetan jasotako alderdi desberdinei erantzun zehatza eman aurretik, egokitzat hartu dugu Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Irungo Udalaren, Adif, Renfe-operadoraren eta Euskotrenbideak erakundearen artean, Irungo trenbide esparrua berrantolatzeko, **2011ko martxoaren 11n sinaturiko Protokoloa** gogora ekartzea.

Protokolo horren oinarria da Irungo trenbide esparrua erabakigarria dela hiriaren garapenerako lurraldean duen hedadura handiagatik, egungo trenbide instalazioek lur zati handia hartzen baitute hiriko erdialdeko hiri sarean ebaki espazial eta funtzional handia eratuz.

Horregatik, Protokoloan parte hartu duten Herri Administrazioek eta erakunde publikoek, planteatzen den edozein esku hartze modu bateratuan bideratzeko beharra garbi izanik, elkarrizketa eta adoste prozesu bati ekin diote, bidaiarien eta merkantzien zerbitzua nahiz lurraldearen antolamendu osoa nabarmen hobetu ahal izateko eta trenbide espazioaren gaineko hiri sarea behar bezala elkartu eta egituratu ahal izateko, trenbidearen trazatuaren bi aldeetan dauden auzoak behar bezala lotu eta hiriko erdialdeko espazioa zabaltzeaz gainera.

Eta esparru horretan, honako jarduera hauek jaso dira Protokolo horretan:

- Trenbide esparrua berrantolatzea, trenbide instalazioak etorkizunean abiadura handia Irungo hirira iristean izango diren beharretara egokituta eta trenbide trazatu berriaren aldamenean trenbide ustiapenerako behar ez diren lurrak hiriaren garapenerako libre utzita.

- Trenbide sortaren gainean estazio intermodal berria sortzea, San Migel eta Pio XII inguruak lotzeko zubibide berriaren hegoaldean, hainbat garraiobide hartzeko –abiadura handiko trena, aldirietakoa, Euskotren eta autobus geltokia-. Merkataritza erabilerekin, hirugarren sektoreko eta aisiarako erabilerekin eta abarrekin osatuko da geltoki berriko eraikina.

- Trenen eta material gurpildunen mantenurako eta tratamendu teknikorako instalazioak egokitu eta berritzea, trenbide trafiko berrietarako zerbitzu horren eskariei erantzun ahal izateko.

- Bizitokien, jarduera ekonomikoen eta ekipamenduen programa definitzea libre geratuko diren lurzoru berrietan, Baiona – Donostia eurohiriaren esparruan hirigune berri bat egituratu ahal izateko.

- Trenbide esparruan bide lotura berriak ezartzea, egungo espazioak eragiten duen oztopo fisikoa gainditu ahal izateko, hiri sarea eraikitzen eta trenbidearen trazatuaren bi aldeetan dauden auzoen arteko lotura hobetzen lagunduz.

- Trenbide esparrua estaltzea geltoki berritik Lope de Irigoyen kalearekiko loturaraino, erabilera publikoko gune handi bat sortu ahal izateko.

- ETSren sarea ADIFen trenbideen plataformarekin elkartzea, sare horiek paraleloan iraganaraziz.

- Merkantzien gunea antolatzea Plaiaundiko egungo burdinbide multzoan, Colon Ibilbidearen eta Bidasoa gaineko zubien artean, eta instalazioak Lezo-Gaintxurizketara eramatea.

Horretarako, Protokoloak esaten du Sustapen Ministerioak beharreko azterketa teknikoak eta ekonomikoak egingo dituela trenbide instalazioak etorkizunean abiadura handia Irungo hirira iristean sortuko diren beharretara egokitzeko, eta egungo Geltokia lekuz aldatu eta Geltoki intermodal bilakatzeko eta Euskotrenen sarea ere hartzea aurreikusten du halaber.

Azterketa horien emaitzen arabera, ondorioak informazio azterketetan eta tramitean dauden Irungo eta Larramongo trenbide esparruaren proiektuetan sartu ahal izango ditu Sustapen Ministerioak, hori guztia indarrean dagoen arloko eta ingurumeneko araudian ezarritako prozedurei jarraiki. Azterketa horien onarpena, lana egiteko beharrezkoak diren finantza baliabideak beharreko hitzarmenean zehaztu ondoren gauzatuko da, kostuei eta izan daitezkeen hiri aprobetxamenduetatik etorritako finantzazio aukerei begira azterketa teknikoetan eta ekonomikoetan jasotako datuetan oinarrituta betiere.

Plan Nagusiak Irungo Geltokiaren ingururako aintzat hartutako hirigintza antolamenduak helburu horiek guztiak jasotzen eta erantzuna ematen die, eta aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz **Hiri Antolamendurako Plan Berezi** baten bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da, Informazio azterketaren eta trenbide azpiegituren eta trenen mantenu eta tratamendurako instalazioen eta merkantzien proiektuen eta Protokoloan jasotako gainerako helburuen arabera, etorkizuneko antolamendua definituko duena eta, hala behar badu, esku hartze esparruan dauden Estatuaren, ADIFen, RENFE-Operadoraren, Euskotrenen eta ETSren titularitateko trenbide zerbitzutik libre geratuko diren lurretan higiezinen garapena ahalbideratuko duena.

Horregatik, eta atariko kontsiderazio horiek kontuan harturik, alegazioan jasotako puntuen inguruan, esan behar da:

1) Zalantzarik ez dago gaur egun Irungo burdinbide-plataforma gelditurik dagoela, ez aurrera eta ez atzera, instalazioak guztiz zaharkituta daudela, eta ez direla batere egokiak gaur egun planteatzen diren zerbitzuen kalitate eta zabaltze eskaerei erantzuteko.

Horrexegatik, eguneratze eta birmoldatze prozesu batean murgildurik dabiltza dauden bi burdinbide sistemak (ADIF, ETS eta Euskotrenen titularitatekoak), bidaiarien nahiz merkantzien zerbitzuaren maila hobetu ahal izateko.

Horren haritik, azken urte hauetan, Irungo burdinbide azpiegiturak batera berrantolatzeko azterketa teknikoak egiteko agindua eman du Sustapen Ministerioak,

bi helbururekin, Euskal “Y” deituriko abiadura handiko sare berria burdinbide esparruan sartzea eta bidaiarien eta merkantzien geltokiak berritzea eta lekuz aldatzea.

Azterketa horien helburuen artean dago burdinbide azpiegiturak hiri eremuan egoki txertatzea, eskumena duten gainerako Administrazioekin eta erakunde publikoekin adostuta.

Horregatik, esparru horretan eta behar horien aurrean, Udal honek Plan Nagusiaren Berrikuspenaren lehentasunezko helburu gisa planteatzen du Irungo burdinbide esparrua berrantolatzea, eta gero 2011ko martxoan sinaturiko Protokoloan zehaztu dira helburu horiek.

Nolanahi ere, aipatzekoa da, sinatutako Protokoloaren arabera, Sustapen Ministerioaren zeregina dela burdinbide instalazioak esparru horren etorkizuneko beharretara egokitzeko beharreko azterketa tekniko eta ekonomiko berriak egiteko lana, egun gauzatzen diren jarduerak bateragarriak diren eta antolamendu berrira egokitu daitezkeen ala ez aztertuta.

Eta azterketa horien arabera, dagokion Garapen plangintza tramitatuko du Irungo Udalak. Horrenbestez, Plangintza horrek definituko du antolamendu xehea eta finkatuko du, kasu bakoitzean, dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez diren, Sustapen Ministerioak egindako azterketei eta arloko proiektuei jarraiki betiere.

2) Lurraldearen Arloko Planarekiko edo Lurraldearen Zatiko Planarekiko sor litezkeen kontraesanei dagokienean, aipatzekoa da, alegazioan adierazitakoaren aurka, Lurralde Antolakuntzarako Gidalerroen Aldaketan nahiz Lurraldearen Zatiko Planean aurreratzen den helburu estrategikoetako bat dela **burdinbide guneko izaera estrategikoko eremua eta Zubieta**, azpiegitura eraldatzeko eta hiria berrantolatzeko prozesu handiak proposatzen baitira bertan Donostialdeako eremu funtzionalean etorkizun hurbilerako aurreikusitako jardueren barnean.

Dokumentu horiek tramitean daude, baina Plan Nagusiak Geltoki ingururako proposatutakoaren ildo estrategiko berdinetik doaz betiere.

Era berean, gaur egun tramitean dagoen Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketak eguneratu egiten ditu 2001. urtean onartutako LAParen zehaztapenak, eta 2011ko martxoan onartutako Protokoloa eransteko eskatu du Udal honek.

3) Kontsiderazioen lehenbiziko puntuan adierazi den bezala, trenbide azpiegiturak batera berrantolatzeko xedean Sustapen Ministerioak azken urte hauetan idatzi dituen azterketa batzuetan oinarritu dira sinatutako Protokoloa nahiz Plan Nagusiaren Berrikuspenean jasotako gidalerroak.

Egungo egoeraren analisi zehatz eta errealetan eta etorkizunari begira aurreikusten denean oinarritu dira azterketa horiek, Burdinbideen Zuzendaritza Nagusiak berak koordinatuak, eta trenbide azpiegiturak hiri eremuan egokiago txertatzea planteatzen dute, eskumena duten gainerako Administrazioekin eta erakunde publikoekin koordinatuta.

Gainera, Alegaziogileekin ezin gara bat etorri esatean Plan Nagusiak ez duela ekonomi eta finantza azterketa aski, plangintza nagusietan ohikoa dena baino zehaztapen

handiagoarekin egin baita plan hori, eta berariazko dokumentu horrek bete egiten ditu, inolako zalantzarik gabe, duen helburua bideratzeko behar diren baldintza guztiak. Horrez gainera, Plan Nagusi horretatik bereiz egindako aurre azterketek, Udalak berak eskatuta egin direnek, berariazko Bideragarritasun Azterketa badute hain zuzen ere, eta bertan behar bezala baloratzen dira birmoldatzeko esku hartze horretatik etorriko diren kargak eta etekinak, ekonomia eta finantza mailako bideragarritasuna justifikatuz. Hain zuzen ere kalkulu horien arabera baloratu du Planeko Azterketa Ekonomikoak esku hartze osoa.

Horrenbestez, ezin da esan presa handia izan denik, berariazko azterketa horiek eskatu eta egin ondoren, egin behar zen hurrengo urratsa Plan Nagusiak egin behar baitzuen, eta logikoa denez, burdinbide esparrua eraldatzeko lanari ekiteko asmoa erakutsi behar zuen, gainerako administrazioekin bat. Horrenbestez, ezinbestekoa zen, dituen eskumenen maila espezifikotik, udal plangintzak beharreko oinarri juridikoak eta hirigintza oinarriak jartzea esku hartzeko hori, hala behar izanez gero, aurrera eraman ahal izateko etorkizunean.

Nolanahi ere, adierazi den bezala, Sustapen Ministerioak egin beharreko azterketa tekniko eta ekonomiko berrien emaitzak ikusi ondoren, dagokion Plan Berezia tramitatuko du Irungo Udalak. Horrenbestez, Plangintza horrek definituko du antolamendu xehea eta finkatuko du, kasu bakoitzean, dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez diren, Sustapen Ministerioak egindako azterketei eta arloko proiektuei jarraiki betiere.

4) Laugarren puntuari dagokionean, aipatzekoa da, salmenta prezioei nahiz kontzeptu desberdinengatik sortuko diren urbanizazio kostuei begira Bideragarritasun Azterketak erabilitako parametroak eguneratu egin direla 2013ko data honetara, eta lor daitezkeen aprobetxamenduei begira esku hartzeak duen oreka berraztertu da halaber.

Bestalde, ez dugu ahantzi behar Plan Nagusiaren aurreikuspenen azken muga-epea 2030. urtea izango dela, eta esku hartze honek denbora muga horretarako finkatu dituela bere helburuak. Horregatik, Bideragarritasun Azterketak kontuan izan behar du gorabehera hori eta baloratu egin behar ditu azken urte hauetako krisi egoera ez ezik, denbora epe horretan izango duen bilakaera ere.

Nolanahi ere, aipatu den bezala, beste azterketa tekniko eta ekonomiko batzuk egitea aurreikusi du ministerioak, egin beharreko inbertsioak hobeto zehaztu ahal izateko. Hirigintza mailako tramiteek aurrera egin ahala zehazten joango da etekinen eta kargen bidezko banaketa, eta gainera, ezinezkoa da Plan Nagusi batek nahi den zehaztapen maila horrekin egin ahal izatea.

5) Sinaturiko Protokoloak finkatzen ditu Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, ADIFen, RENFE-OPERADORAren, EUSKOTRENen, ETSren eta Irungo Udalaren arteko harremanak arautu behar dituzten esparru orokorra, jarraibideak eta metodologia, trenbide instalazioak abiadura handira egokitzeko eta trenbidea Irungo hiri barnean txertatzeko obrak gauzatu eta finantzatzeko beharreko azterketa teknikoak eta ekonomikoak egin ahal izateko.

Protokolo horretan jasotako esku hartzeak aintzat hartu beharko dira azterketa horiek egiterakoan, izaera estrukturaleko esku hartzeak eta udalerri osoan eragina dutenak, eta horrenbestez, egungo Plan Nagusiaren Berrikuspena bezalako dokumentu batean soilik jaso daitezkeenak. Egia esan hiriak egiten duen apustua da inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik burdinbide esparrua berreskuratzeko.

Horrenbestez, Udal honentzat, sinaturiko Protokolo horixe da, hain zuzen ere, esku hartzearen hasierak duen funtsezko oinarria. Jakina, hurrengo oinarria Plan Nagusia izango litzateke, bertan jasotzen direlako aurrera eraman beharreko esku hartzearen oinarrizko baldintzak eta parametroak. Prozesuak aurrera egingo du, prozesu konplexua inolaz ere, plangintza nahiz kudeaketa mailetako faseen garapenarekin eta zehaztapenekin, eta beharreko inbertsioak eta gauzatzeak etorriko lirateke gero, arestian aipaturiko Protokolo horren ardatz nagusietan eta izaera xeheagoz onartzen joango diren hirigintza zehaztapenetan oinarriturik betiere.

Nolanahi ere, eta faseetan gauzatzea dela-eta, arestian aipaturiko azterketa horien esparruan aztertuko dira fase horiek eta behin zehaztu ondoren, garatu beharreko plangintza xehean definituko dira.

6) Seigarren puntuari dagokionean, esan behar da, Plan Nagusiak izan dezakeen zehaztapen maila bitarte, hornidurei, espazio libreei, aparkalekuei eta abarri dagokienean, legeak eskatzen dituen gutxieneko estandarrak jasota daudela, noski, irudi gisa esparruko Hirigintza Fitxan, eta ondoko garapen plangintzaren egitekoa izango dela legeak aurreikusitakoaren arabera parametro horiek zehazten joatea.

7) Zazpigarren puntuari dagokionean, aipatzekoa da, alegaziogileek diotena, Ekonomia Iraunkorraren 2/2011 Legearen 32.2 artikulua urratu egingo litzatekeela Herri Administrazioen aurrekontu iraunkortasunari eta gastuaren arrazionalizazio eta euste politika aplikatzeari dagokienean, ez dagoela inolako kalkulu eta zehaztapenetan oinarritua, eta horrenbestez, baieztapen hori ez dute arrazoitu alegaziogileek.

8) Zortzigarren puntuari dagokionean, ez gatoz bat gaur egun aurrera eramaten diren jarduerak ezin direla Plaiaundiko eremuan birkokatu dioen iritziarekin, espazio beharrak aski bestelakoak izango baitira hartzen diren soluzio teknikoen arabera, eta Plan Nagusiaren egitekoa ez zen, logikoa denez, idatziak aipagai duen zehaztasun horrekin finkatzea. Nolanahi ere, Ministerioak egindako azterketetan jaso da proposamen hori eta azterketa horien esparruan aztertu beharko da sakontasunez.

Oiantzabaletaren Luzapenaren esparru berriari dagokionean, beharreko Hirigintza Fitxan jaso da lurrak zein modutan antolatu beharko liratekeen Renferen trenbideekin komunikazio zuzena ezartzeko eta esparru honek duen helburu nagusia bideragarri egiteko.

9) Bederatzigarren puntuari dagokionean, aurrekoan egindako aipamen berdina egingo dugu, ez gatoz bat esaten denarekin, hauxe da, ezin izango litzatekeela Irunen aurrera eramaten den trenbideko merkantzien egungo jarduera logistikoa eta intermodala mantentzen jarraitu, Plaiaundiko sektorea deiturikoan erabilgarri dauden eremuak behar bezala antolatu eta arrazionalizatzen badira, egoki konpondu ahal izango bailirateke jarduerei eusteko alegaziogileek ikusten dituzten arazo horiek.

10) Hamargarren eta azken puntuak, burdinbide eremua birmoldatzeko alternatiba partzial bat planteatzen du ondorio gisa, eskumena duten administrazioen artean sinaturiko Protokoloan oinarriturik Plan Nagusiak hartutakoaz bestelakoa. Soluzio partziala proposatzen da horrenbestez, trenbide zaharren eremua deitutakoa hirigintza mailan eraldatu behar dela onartuta eta Plaiaundiko sektorea zabalduta.

Soluzio partzial horrek ez die konponbiderik ematen burdinbide eremua birmoldatzeko erronka nagusiei, esate baterako, hala bidaiarien eta merkantzien zerbitzuan nola

lurraldearen antolakuntza integralean hobekuntza nabarmena lortzea, burdinbide eremuan hiri sarea behar bezala elkartu eta antolatu ahal izateko, eta burdinbidearen trazatuaren bi aldeetan dauden auzoak elkarri lotu eta hiriko erdiguneko esparrua zabaldu ahal izateko.

Irungo Burdinbide eremuan jarduera logistikoekin jarraitu ahal izateko behar diren soluzio teknikoak abian jartzea, eta osagarri gisa, horietako batzuk Lezo Gaintxurizketan egokitzeko aukera ere, bateragarritzat jotzen dira burdinbide eremurako aurreikusitako birmoldatze lanari arrakastaz ekiteko beharrarekin. Horrek horrela behar du, bestela, eskura dagoen azalera murriztuta, edo bateratzeko zailak diren erabilerak inguru berean nahasita, ez litzateke bideragarria izango Irungo erdialdea eraldatzeko, eremu hori herritarrek erabil dezaten zabaltzeko eta gaur egun burdinbidearen arrakalak bereizten dituen auzoak eta bizileku eremuak elkarri lotzeko helburu nagusia. Helburu horiek guztiek interes publiko eta orokorra dute argi eta garbi, eta lehentasuna dute interes partikularren gainetik, interes partikular horiek guztiz bidezkoak izan arren, ezin baitute aurreikusitakoaren garapena eragotzi.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa eta mantendu egingo dira burdinbide eremua birmoldatzeko Plan Nagusiaren aurreikuspenak.

007 1.1.10 – **Arasoren Luzapena.** Korridore ekologikorako espazio libreen sistema orokorrari leku egiten dioten lurrak esparrutik ateratzeko, beren jabetzako beste lur batzuk sartzeko eta eraikigarritasuna handitzeko eskatzen dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Espazio Libreen Sistema Orokorrari leku egiten dioten lurrak, 80.000 m² inguruko azalera, Arasoren Luzapena esparrutik ateratzeko eta Hegoaldean dauden lur batzuk sartzeko eskatzen dute, eta guztizko eraikigarritasuna nabarmen handitzeko eskatzen dute halaber. Bestalde, adierazten dute, Espazio Libreen lurrak ez liratekeela guztiak zoru publiko bihurtuko horietako batzuk udal lurrak direlako jada, zabortegiko lurrek beharreko neurriak badituztela eraberritzeko eta gainerako lurrek berariazko erregulazioa izango luketela nolanahi ere korridore ekologikoaren helburua betetzeko.

Adierazten dute Planak planteatutako kotak, ez oso handiak, ez liratekeela aldatuko proposatzen duten lurren zabalpenarekin. Azkenik, bat datoz beren jabetzako bi baserriak eta nekazaritza eta abere-hazkuntza jardueretarako hiru baserriak antolamendutik kanpo uztearekin, baina ez datoz bat Zabaletaberri baserria sartzearekin antolamendutik kanpo utzi gabe, esparrutik kanpo utzi bailiteke haien iritziz.

KONTSIDERAZIOAK:

Aiako Harria – Jaizkibel Korridore Ekologikoak ukituriko lurrak sartzearen helburua da, dagokion hirigintza fitxan adierazten den bezala, lur horiek doan ematea jarduera ekonomiko berrien garapenerako esku hartzearen esparruan. Horrekin jabari eta erabilera publiko gisa kudeatu ahal izango diren lur batzuk eskuratuko dira, eta horri esker, berme handiagoa izango da aipaturiko Korridore Ekologiko horretarako finkatutako helburuak betetzeko, eta gainera, ez zaio trabarik egingo jarduera

ekonomikoetarako finkamendu berriari. Eta horrek ez du zerikusirik horien egungo jabeekin.

Jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko lurzoruari dagokionean, lekuko topografia eta paisaia balioen arabera definitu da hura. Eskatutako muga aldaketa horrek eragin handia izango luke lurraldean, ingurumen inpaktu handia eramango bailuke berekin, lur iraultze handiak egin beharko liratekeelako eta gaur egun batik bat hariztiek hartutako guneak desagerrarazi beharko liratekeelako.

Zabaletaberri baserria esparruko lurretan ez sartzeari dagokionean eskatutakoari begira, kontuan izan behar da baserri hori esparruan sartzea ezinbestekoa dela bide soluzio egokia ziurtatzeko helburua bete nahi bada. Garatu beharreko plangintza xehearen esparruan soilik, eta eremura sartzeko eta eremua banatzeko bide sistema xehe zehaztu ondoren, har liteke aintzat, hala behar badu, eraikin hori mantentzeko aukera, eta hala balitz, aztertuko lirateke hura sendotzeko baldintzak.

Azkenik, eta esparruaren eraikigarritasunari dagokionean, aintzat hartu da hura handitzeko aukera eta, jarduera ekonomikoetarako gainerakorako bezala, 0,8 m²/m²-ra handituko da orain, koefiziente hori aplikatzen baitzaio globalki jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko azalerari.

Horren inguruan, aplikatu beharreko araudi orokorrean, eraikuntzaren baldintzak ere aldatu egingo dira, eraikuntzaren altuera goren gisa 12 metro (16 metro kasu berezi batzuetan) eta sestra gainean 2 solairuko profila onartuko baitira orain. Arteko solairuetarako orain % 50eko portzentaje gorena ezarri da definitutako eraikigarritasunarekiko. Baldintza berri horrek aukera emango du egon daitezkeen arteko solairuak hobeto egokitzeko; horien azalera eraikia ez da definitutako eraikigarritasunaren barnean kontatzen eta dagokion Ordenantzaren bidez arautzen da.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** esparruaren mugak aldatzeko eta Zabaletaberri baserria kanpo uzteko eskaera.

Bestalde, **onartu egingo da** esparruaren eraikigarritasuna handitzea, 0,8 m²/m²-ra handituko da orain, eta Hasierako Onarpen dokumentuan bezala, koefiziente hori aplikatuko zaio globalki jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko azalerari.

Era berean, Hirigintza Arauetan IP kalifikaziorako jasoko da arteko solairuetarako % 50eko portzentaje gorena definitutako eraikigarritasun gorenarekiko, orain arte IC kalifikaziorako soilik jasoa zegoena.

113 1.1.10 – **Arasoren Luzapena – jarduera logistikoetarako aukera.** Poligono berri osoa jarduera logistikoetarako erabiltzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

(Beste idatzi bat jaso zen aurretik, 3 zenbakiduna, eta badu lotura alegazio honekin)

Alegaziogileak 17.000 m² inguruko azaleraren jabe dira 1.1.10 Araso Iparraldearen Luzapena esparruko lurretan eta adierazten dute 10.000 eta 15.000 m² arteko lur kopurua behar dutela gaur egun Lezon duten jarduera logistikoa zabaltzeko, ulerturik

jarduera ekonomikoen esparru hori sortzeko proposamenak aukera emango liekeela enpresak bere dituen jarduera logistikoak bertan aurrera eramateko.

Zehazten dute, beren iritziz, ez dela bidezkoa jarduera ekonomikoen kalifikazioarekin planak egitea eta logistikoak bezalako jarduerak haietatik kanpo uztea, beren ustez, merkatua bera baita hori erabaki behar duena LAGen, LZParen eta Lurraldearen Arloko Planaren aurreikuspenetan oinarriturik. Horren inguruan, nabarmentzen dute HAPNa anbiguoa izan daitekeela m²-ko erabilera dentsitate handia eta enplegu aprobetxamendu handia izendatzeko beharrari dagokionean, horrek kontraesana ekar bailezake era logistikoko erabilerekin.

Eskatzen dute industria jardueretarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako kalifikatzeko Araso Iparraldearen Luzapeneko esparrua, argi eta garbi utziz zein baldintzatan bidera daitekeen nazioarteko garraioen jarduera logistikoa, eta subsidiarioki proposamen alternatibo bat planteatzen dute Irungo eremu batean lurrak trukatzeko eta bertan aipatutakoaren moduko jarduera logistikoa garatu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Kontuan izanik hirigintza garapenerako zoru eskasia dagoela udalerrian, eta plangintza nagusi honen aurreko faseetan jada azaldutako irizpideetan eta helburuetan babesturik, badirudi ez dela bidezkoa udalerriko mendebaldeko muturrean plataforma logistiko berriak ezartzeko aukera aintzat hartzea, eta gainera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean jasotako lurzoru baliabideen garapen iraunkorraren eta kontsumoaren optimizazioaren oinarrizko printzipioen aurka joango litzateke gorabehera hori.

Irunek lurzoru kopuru handia erabili du jada Zaisa inguruan dauden plataforma logistikoetarako eta garraiorako. Gaur egun ere halakoak izaten jarraitzen dute lur horiek, eta horrenbestez, lurraldearen okupazioa egokiagoa izan dadin, ez litzateke ulergarria izango eta ez legoke inolako arrazoirik daudenez gain are zoru gehiago proposatzeko helburu horretarako.

Horrenbestez, eutsi egingo zaie esparru honetarako jada aurreikusitako jarduera irizpideei. Nolanahi ere, gainera, jarduera ekonomikoetarako beste eremu batzuetarako bezalaxe, handitu egin da Hasierako Onarpen dokumentuan definitutako eraikigarritasuna, era horretako esparruetan aprobetxamendua ahalik eta handiena izan dadin lortu ahal izateko.

Proposatutako eraikigarritasun berria 0,8 m²/m²-ra handituko da orain, eta koefiziente hori aplikatuko zaio globalki jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko azalerari.

Horren inguruan, aplikatu beharreko araudi orokorrean, eraikuntzaren baldintzak ere aldatu egingo dira, eraikuntzaren altuera goren gisa 12 metro (16 metro kasu berezi batzuetan) eta sestra gainean 2 solairuko profila onartuko baitira orain. Arteko solairuetarako orain % 50eko portzentaje gorena ezarri da definitutako eraikigarritasunarekiko. Baldintza berri horrek aukera emango du egon daitezkeen arteko solairuak hobeto egokitzeko; horien azalera eraikia ez da definitutako eraikigarritasunaren barnean kontatzen eta dagokion Ordenantzaren bidez arautzen da.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** aurkeztutako alegazioan egindako eskaera, esparrua ez baita egokitzat jotzen garraiorako jarduera logistikoa bertan ezartzeko.

129 1.1.11 **– Oiantzabaletaren Luzapena.** Esparruaren sailkapenaren eta bideragarritasunaren aurkako argudioak azaltzen ditu idatzi honek.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak, 1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena esparruaren barnean dagoen Oiantzabaleta Berri baserriko jabea bera, adierazten du haren esparrua ez dela egokia, lehenengo, eta bere iritziz, askotariko tipologia efektua eragingo lukeelako baserri batzuk mantentzeagatik, esparrutik kanpo utzi direlako, eta horrenbestez, proiektatutako industria eremuaren ondoan sendotuko direlako. Era berean, efektu hori sortuko luke eta egungo landa paisaiaren funtsa hondatuko luke aldameneko industria eremuen jarraipenak. Bere iritziz, udalerriko Mendebaldeko ertzean dagoen paisaia horrek ez luke desagertu behar, kontuan hartu beharreko erreferentea izan behar luke eta etorkizuneko belaunaldientzako gorde, eta gainera, sailkapen hori ez litzateke, inolaz ere, iraunkorra izango.

Beste hainbat kontsiderazio ere aipatzen ditu, eremu hori zoru urbanizaezin gisa jotzen lagunduko luketen gainjarritako baldintzatzaileen inguruan, komunikazio sareak, ibaiak, bideak, zaratak eta beste. Era berean, aipatzen du ADIFek baldintzak jar ditzakeela esparru honetan bazterbide lotura baimentzeko, eta zalantzan jartzen du esparruaren ezaugarrietan aukera hori sartzea egokia ote den baldintza horiek ezagutu gabe.

Zalantza horiekin loturik, uste du esparruaren barnean dauden eraikuntzak antolamendutik kanpo uztea azkarregi ibiltzea izango litzateke ADIFek jarriko dituen baldintzak ezagutu gabe eta etorkizuneko Plan Partzialaren antolamendua bideratu gabe. Horrenbestez, eskatzen du Plan Partzial hori izatea aipaturiko antolamendutik kanpo uzteko adierazpen hori egingo duena, azken horrek eraikuntzan izango lituzkeen ondorioak desagerturik.

Azkenik, eremua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzeko eta halako gisa sendotzeko eskaerari dagokionean, aipatzen du ekonomia mailan esparrua ez dela bideragarria izango, egungo krisi ekonomikoaren testuinguru honetan bereziki, egin beharreko urbanizazio gastuak oso handiak izango bailirateke, dagokion Fitxan jasotako baldintzen arabera, deskribatutako betelan handi hori aurrera eramateko, GI-636 errepidearekin lotzeko, Aranibarreko zerbitzu sareekin elkartzeko, hura zabaldu edo sendotu egin beharko litzatekeelako eta baserritarrei kalte-ordainak emateko, burdinbide sarea lotzeko kostua bera ahantzi gabe.

KONTSIDERAZIOAK:

Hasierako Onarpen dokumentuan definituriko zehaztapenen aldaketa kontsideratu da esparru hori orain zoru erreserba gisa taxututa, Irungo eremuaren barnean berrezarri beharko liratekeen industria instalazioak, burdinbidera sarbidea behar dutenak, bertan birkokatu ahal izateko.

Gaur egun 0.2.01 “Geltoki Ingurua” esparruan leudeken jarduera ekonomiko batzuk izango lirateke, bere garaian lekuz aldatu ahal izateko era horretako esparru bat beharko luketenak. Alegazioak mintzagai duen 1.1.11. “Oiantzabaletaren Luzapena” esparruan jasoko litzateke aukera hori, eta hala behar badu, "Geltoki Ingurua" esparruan egongo diren beharren arabera garatuko da.

Horregatik, egokiagotzat hartu da Plan Nagusiaren dokumentuak sektorizatu gabeko zoru urbanizaezin erreserba gisa hartzea lur horiek, eta beraz, arestian aipatutako enpresa horiek birkokatzeko beharrak izatean bakarrik garatuko dira Sektorizazio Plan baten bidez. Plan horrek behar berrien arabera programatuko du esku hartzea.

Horrenbestez, eta esparru honetarako, Sektorizazio Plana izango da, Plan Nagusiko antolamendu estrukturala osatzen duen tresna gisa, sektorizatu beharreko lurzorua betiko egokitu eta haren mugaketa islatuko duena, eta plan horrek finkatuko du lurren sailkapena, ezarriko du hirigintza eraikigarritasuna, erabakiko du garatu beharreko erabilera eta finkatuko du erabilera bateragarriak zein diren.

Hain zuzen ere Sektorizazio Planaren esparruan aztertu beharko dira etorkizuneko antolamendua eta antolamendu hori lurreko topografiarekin txertatzeko modua, eta baita Loidiko errekaren ingurumen babesa osatzeko esparruaren barnean beharreko lurrak gordetzeko aukera ere; esparruaren ertzeko eremuan dago erreka hori, baina zoru urbanizaezinean jada.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, **zoru urbanizaezinaren** hirigintza erregimenean finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Oiantzabaleta Berri baserriari dagokionean, adierazitakoarekin bat eginez, Sektorizazio Plana izango da, hala behar badu, eraikuntza hau etorkizuneko antolamenduarekin bateragarria den ala ez den esango duena.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** esparrua kentzeko eskaera, baina Geltoki Ingurua eremuaren bilakaerarekin loturik dago orain eta sektorizatu gabeko zoru urbanizaezin gisa sailkatua geratuko da.

Eskaera **onartu egingo da** Oiantzabaleta Berri baserria antolamendutik kanpo ez jotzeari dagokionean, eta Sektorizazio Planak aztertuko du etorkizuneko antolamenduarekin bateragarria den ala ez den.

016 1.1.14 – **Semezarrengo Malda (lehengo Bidaurre Ureder).** TC lursailaren baldintzekiko ezadostasuna azaltzen du idatziak.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Bidaurre Ureder sektoreko 2. EUko konpentsazio proiektuan TC gisa kalifikaturiko lursaila du mintzagai alegaziogileak, Semezarrengo Malda esparruan sartu dena, eta adierazten du ez datorrela bat eman zaion 1.250 m²s-ko eraikigarritasun gorenarekin, 750 m²s bizileku erabilerarako eta gainerakoak hirugarren sektoreko erabilerarako. Adierazten du halaber bidezkoa izango litzatekeela, hark dioenez aurrez zegoena izango litzatekeen 1.680 m²s-ko eraikigarritasunarekin, horietatik 1.480 m²s bizileku erabilerarako izango lirateke.

KONTSIDERAZIOAK:

Aipatutako Bidaurre Ureder sektore horretan bideratzeko dagoen eraikigarritasuna 1.680 m^2s dira, eta indarrean dagoen plangintzaren arabera, jabari pribatuko lursailean egokitu den merkataritza/gizarte erabilerarako izango da eraikigarritasun hori, eskatzen den estandarra bete ahal izateko eta onartutako Plan Partzialarekin bat.

Plan Nagusi berriak aintzat hartu du lursail hori birkalifikatzeko aukera goiko aldean bizileku erabilera onartuta, baina hirugarren sektoreko merkataritza erabileraren zati bat mantenduz industria finkamendu honetako banaketa-bidearen ondoan.

Aurreikusitako kalifikazio bakoitzerako hirigintza fitxan definitutako erabileren bihurtzea eta eraikigarritasuna finkatzeko Plan Nagusi honen barnean dagoen D dokumentuan "Ekonomia-finantza bideragarritasunaren eta ekonomi iraunkortasunaren memoria" deskribatutako haztatze koefizienteak hartu dira kontuan, eta dokumentu horrek 0,64ko koefizientea ezartzen du TC (hirugarren sektorea merkataritza) eta RP (bizilekua lursailean) kalifikazioetarako. Irizpide hori aplikatuta eta hirugarren sektoreko erabilerarako eraikigarritasuna kenduta lortzen da bizileku erabilerarako aurreikusitako eraikigarritasunaren guztizkoa.

Era berean, esparru honen kokalekuak duen egoera berezia ikusita, hemendik aurrera eraikigarritasun kopuru txikiagoa har liteke hirugarren sektoreko merkataritza erabilerarako, 500 m^2-ko eraikin baten eraikuntza jasota bertan dagoen banaketa-bidearen ondoan.

Horrenbestez, azaldutako irizpideak aplikatuta, eta erabileren haztatzeari begira, onartuko litzateke bizileku erabilerarako 750 m^2s-ko azalera eraikitzea goiko aldean, Oiartzunekin lotzen duen bidearen ondoan dagoen lursailean. Horren haritik, eta lursail honen kokalekuak eta sestrak dituzten baldintza bereziak ere kontuan harturik, aintzat hartu da bizileku eraikigarritasun hori hiru solairuko eraikin bakar batean gauzatzeko aukera, edo bestela, okupazio txikiagoko bi eraikuntzatan eta bi solairuko profilarekin.

Gogoan eduki behar da aldameneko bizileku lursailak, RU gisa (familia bakarreko bizilekua) kalifikatuta daudenak, okupatzen dituzten eraikuntzek 400 m^2s inguruko azalera eraikia duela bakoitzak eta gehienez ere bi solairuko profila dutela sestra gainean. Alegazioak mintzagai duen lursailaren sestrak kontuan izanik, kontsideratzen da orain definituriko bizileku eraikigarritasuna modu egokian gauzatu litekeela, inguruko hirigintza eta ingurumen baldintzekin bat etorririk.

ERABAKIA:

> Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioaren edukia, merkataritza erabilerarako 500 m^2s-ko eraikuntza kontuan harturik, eta horrenbestez, bizileku erabilerarako aurreikusitako eraikigarritasuna mantenduz, baina hasierako onarpen dokumentuan finkatutako erabilerak haztatzeko irizpideari eutsiz betiere.

156 1.2.02 **– Araba Mendebaldea.** Altzolaran baserria esparrutik ateratzea eta bertan obrak egitea

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Altzolaran baserrian obrak egiteko asmoa azaldu dute alegaziogileek, Ondarearen Katalogoan dago hura, bertan bi etxebizitza egin ahal izateko, eta horretarako, uste dute tramitazioa errazagoa izango litzatekeela baserri hori sartuta dagoen 1.2.02 Araba Mendebaldea esparrutik aterako balitz, era horretan ez bailitzateke Plan Berezia egiteko zain egon beharrik izango.

KONTSIDERAZIOAK:

Egokitzat jotzen da Altzolaran baserria 1.2.02 "Araba Mendebaldea" esparrutik ateratzea, gorabehera horrek ez baitu aldatuko esparru honetarako deskribatutako helburuen gauzatzea. Horrenbestez, eraikuntza hori hiri zoru sendotuan dago gaur egun, eta RP (bizilekua lursailean) kalifikazio xehea emango zaio lursailari.

Horrenbestez, eraikin honetan obrak egin behar badira, bete egingo da aplikatu beharreko araudiak xedaturikoa, eta gainera, haren katalogazio baldintza ere aintzat hartu beharko da.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, onartu egingo da alegazio honen edukia, eta horrenbestez, 1.2.02 "Araba Mendebaldea" esparrutik aterako da Altzolaran baserria.

174 1.2.02 **– Araba Mendebaldea.** Araba kalearen zabalera handitzearen aurka ageri dira idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatzi honetan alegaziogileek adierazten dute ez datozela bat 1.2.02 Araba Mendebaldea esparruan Araba kalearen zabalera handitzearekin, horren ondorioz areagotu egingo liratekeelako zirkulazioa eta ibilgailu astunen joan-etorriak eta eragin handia izango lukeelako oinezkoak kale horretan ibiltzeko, kontuan izanik gainera handik gertu dagoela eskola.

KONTSIDERAZIOAK:

Esparru honi dagokionean, egokitzat hartu da bide hori egiteko aukerari eustea, Kateako bide sarearekin lotu ahal izateko, auzoaren inguruan zirkulazio perimetrala hobetuko duen eraztuna osa dezan Araba kale horrek. Era berean, egokitzat hartu da hasierako onarpen dokumentuan jasotako hirigintza zehaztapenak aldatzea, eta orain bide berria egokitu egin behar da Araba kalearen egungo trazatuaren eta kale honen hegoaldean eta goiko aldean dauden eraikuntzetarako sarbideen artean dauden sestra aldeetara.

Halatan, asmoa da norabide bakarreko bide bakarra egitea, 2 metroko espaloia, 3,5 metroko galtzada eta hegoaldeko ertzean metro 1 izango duen bidea, eta dauden baserrietara sarbideak mantentzea aurreikusi da halaber. Bide horrek konponbide egokiena jasoko du Porcelanasko biribilgunea deitutakoarekin uztartzeko eta mugikortasun azterketaren diagnostikoarekin eta biribilgune horretara sartzeko baldintzatzaile fisikoekin bat etorriko da beti ere.

Aurreikusi den bide mota horrek, auzoko ingurabideari jarraipena emateaz gainera, hori guztiz beharrezkoa izanik, sekzio egokia izango du, dituen neurriengatik trafikoaren ondorioz sor litekeen arrisku arazo oro baztertuko baitu, ibilgailu astunen joan-etorrietarako soluzioa bilakatu ez dadin lortuz.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia. Horrenbestez, bidea egiteko aurreikuspenari eutsiko zaio, baina azaldutako aldaketa horiek direla-eta, bateragarria izango da alegaziogileek beren idatzian aipatzen dituzten arrisku horiek saihestearekin.

155	1.3.12 **Auzolan 5.** Esku hartze Unitate bat sortzeko eta eraikin bat eraikitzeko eskaera egiten dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Auzolan kaleko 5. zenbakian dagoen Lore-Toki izeneko eraikineko jabe guztien ordezkaria dela dio alegaziogileak, eta eskatzen du Esku hartze Unitate bat sortzeko HAPN berrian, eta aurreikusita duten bezala aipatutako eraikin hori eraitsi ondoren, berreraiki egin nahi dute finken hasierako izaerari eutsita beren jabetzak elkartzeko aukera emango dien xedapen berri baten arabera, Auzolan kalearen eta Elizatxo ibilbidearen artean oinezkoentzako pasabidea eginda. Horretarako, jabetzen inguruko azterketak aurkeztu dituzte alegazioarekin batera, eta baita eraikuntzaren egungo egoera eta alegazioa onartzen bada proposatzen duten soluzioa azaltzen duten planoak ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzian azaltzen diren arrazoiak aztertu ondoren, egokitzat jo da eskatutakoa onartzea eta “Auzolan kalea, 5” izeneko esparru berria sortzea aipaturiko eraikin hori gaur egun dagoen lekuan, haren profila eta lerrokadurak ez baitira egokiak dagoen ingururako.

Esku hartze honen helburu nagusia izango da esparru honetako eraikinen lerrokadurak eta sestrak erregularizatzea, inguruarekin lotura egokia izan dezaten. Gainera, aintzat hartuko da Auzolan kalearen eta Elizatxo hiribidearen artean oinezkoentzako pasabidea egiteko aukera, horrek lagundu egingo baitu bi bide horien arteko lotura hobetzen.

Aintzat hartuko da bizileku bloke berria eraikitzeko aukera, beheko solairua eta goiko hiru solairurekin, Auzolan kalera emango duena, inguruko lerrokadurak eta profilak mantenduz. Aireko Zortasunen inguruko legeriari begira xedaturikoaren arabera definitu da profil hori, itsas mailarekiko altuera goren gisa 49,00 kota ezarri da esparru osorako, eta eraikuntza bakar batek ere ez du kota hori gainditukо, antenak, tximistorratzak, tximiniak eta gainerako elementu guztiak barne.

Kota hori finkatzeak, horixe izanik inguru osorako ezarritakoa eta eraikin bakar batek ere, ez dagoenak eta ez proposatutakoak, gainditu ezin duena, ezinezko bihurtzen du alegazio honetan eskatutako profilaren eraikuntza, eta horrenbestez, estalkipeko solairurik ezin izango da egin definitutako azkenekoaren gainean.

Adierazitakoagatik, sestra gainean 560 m^2s-ko eraikigarritasuna aurreikusi da esku hartze honetarako, eta horretan ez dago sartua estalkipeko solairuan egokitu beharreko eraikigarritasuna, alegazio honekin batera aurkeztutako eranskinean azaltzen dena. Bestalde, eraikigarritasuna onartuko da sestrapean ere, sestra gainean definitutakoaren % 100ean. Azkenik, dagokion hirigintza fitxan jaso dira orain esparru honekin loturiko hirigintza zehaztapen guztiak.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegaziogileek eskatutakoa, eta horrenbestez, beste esparru bat sortuko da planteatzen den antolamenduarekin bat eginez, baina aireko zortasunetatik etorritako mugetara egokituko da eraikigarritasuna.

014 1.3.11 - **Arretxeko Malda.** Aprobetxamendua emendatzeko eskatzen dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

NETOLE NATURAL elkarteak, Peugeot zerbitzuen lehengo lursailaren jabeak, HAPNan aurreikusitakoarekiko aprobetxamendua % 10 handitzeko eskatzen du, 2.500 m²s-tik 2.750 m²s-ra, hain zuzen ere, eta ondorioz sestrapean dagokion eraikigarritasuna ere. Horrekin, argudiatzen dute, aintzat har litekeela HAPNa ematen ariko litzatekeen estalkipeko aprobetxamendua. Gainera, esaten dute, sortuko litzatekeen koefizientea, 1.495 m²s/m²-ko, hiri zoruan gainerako lursailei emandakoa baino txikiagoa izango litzatekeela.

KONTSIDERAZIOAK:

Esparru honetarako proposatutako antolamenduak beheko solairuak eta bi goiko solairuk osatutako blokea aurreikusten du Elizatxo hiribidera ematen duena, eta beste bloke bat, beheko solairua eta hiru goiko solairu izango dituena, Auzolan kalera ematen duena, inguruko lerrokadurak eta profilak mantendu eta eratuz biak ere.

Alegaziogileek bere garaian eskatutakoaren arabera definitu zen profil hori, Aireko Zortasunen inguruko araudiak xedatutakoa kontuan harturik. Haren arabera, itsas mailarekiko altuera goren gisa 49,00 kota ezarri da esparru osorako eta eraikuntza bakar batek ere ez du kota hori gaindituko, antenak, tximistorratzak, tximiniak eta gainerako elementu guztiak barne. Inguru osorako definitutakoarekin bat dator, era berean, kota hau.

Baldintza horiek errespetatuz, ikusi da berraztertu daitekeela proposatutako eraikuntzaren okupazioa, eta horrek berekin darama hasieran definituriko eraikigarritasunaren emendioa. Horrenbestez, onargarritzat jotzen da eraikigarritasuna 2.700 m²s-ra handitzea guztira, deskribaturiko bloke horiek eraiki ahal izateko.

Bestalde, eta hirian gertatu diren beste egoera batzuetan egin den bezalaxe, sestrapeko eraikigarritasuna handitzeko aukera aintzat hartu da, eta sestra gainean ezarritakoaren % 100eko eraikigarritasuna onartzen da kalifikazio batzuetan.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegaziogileek eskatutakoa, eta horrenbestez, 2.700 m²s-ra handituko da sestra gaineko eraikigarritasuna, eta baita sestrapean eraikigarritasun berdina izateko aukera ere.

067	2.1.05 **– Urdanibia – Zubieta.** Urdanibia – Zubietako goiko aldeko proiekturako alternatiben aurka ageri dira idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak etxebizitza baten eta lur batzuen jabeak dira Iparratxiki kaleko 4. zenbakian (Garaiar), 2.1.05 Urdanibia – Zubieta esparruaren barnean, eta ez datoz bat Plan Nagusiak planteatutako antolamenduarekin, eta ezta Herri Lan eta Ingurumen Batzordeak 2008ko abenduaren 22an, Zubieta – Urdanibiako Parke Teknologikoaren proiektuaren inguruan, hartutako Erabakiarekin ere.

Proiektu horrek beren lurretan izango lukeen eragina aipatzen dute idatzian; izan ere, lur horiek murriztu egingo lirateke eta ezin izango lukete aurreikusita duten bi familiako etxebizitza eraiki lurraren aurrealdeko zatian. Gainera, adierazten dute ingurumenean kalteak eta zaratak eragingo lituzkeela, eta horren ondorioz, egungo etxearen prezioa jaitsi egingo litzatekeela besterendu behar baldin bada.

Era berean, beren iritziz, aldameneko lursaila berenarekiko zein egoeratan geratuko litzatekeen azaltzen dute. Bide azpiegituren aurreproiektuaren trazatuak HAPNan aurreikusitako mugikortasun iraunkorraren ereduarekiko izan litzakeen kontraesanak aipatzen dituzte halaber. Bestalde, informazioa eskatzen dute desjabetzeen eta ondorioz eman beharko diren kalte-ordainen inguruan, eta nabarmentzen dute gainera, berrikusten ari den plangintza honek landa zoru gisa sailkatzen dituenez lur horiek, halako zoru mota gisa dagokien zerga ordaindu dutela 2000. urteaz geroztik.

Hasieran onartuta dagoen LZPan aurreikusitakoaren inguruan, adierazten dute HAPNak aurreikusitakoaz bestelakoa izango litzatekeela, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean jasotako lurzoru baliabideen garapen iraunkorraren eta kontsumoaren optimizazioaren oinarrizko printzipioak ez liratekeela beteko. Era berean, argudiatzen dute agian ez dagoela behar bezala zehaztua edo arrazoitua Administrazioak proposaturiko desjabetzeko eta aldatzeko beharra, eta argudioak azaltzen dituzte halaber obrek irauten duten bitartean beste bizileku bat emateko beharraren eta lurraren okupazioaren aurretik lursailari emango litzaiokeen erabilera publikoaren izaera aldarrikatzeko beharraren inguruan.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazio idatzi honen inguruan, esan behar da, 2011ko ekainaren 28an Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat egin zuela eta hartan, derrigorrez eta izaera loteslez, halako kontu batzuk adierazten zirela aireko zortasunak betetzearekin loturik, Plan Nagusiaren dokumentuan aintzat hartu beharrak ezinbestean.

Txosten horrek hainbat kontsiderazio egiten zituen aintzat hartu beharreko zortasunak definitzen dituzten azaleretan dauden lurren inguruan, eta oso zehatz azaltzen zituen azalera horiek urra litzaketen eremuak edo esparruak, hala hiri zoruetan nola zoru

urbanizagarrietan eta zoru urbanizaezinetan, eta eremu batzuekiko aurkako iritzia azaltzen zuen horiek urratzen edo urra zitezkeela ulertzean.

Geroago, eta legez ezinbestekoa zenez Txostenak mintzagai zituen jarduera batzuen inguruko zehaztapena dokumentuen bidez jasotzea Plan Nagusia Behin-behineko Onarpen tramitera eraman aurretik, lan berezia egin zen Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatzeko, eta era berean hura AENArekin koordinatu zen agindutakora egokitzeko modua adostu ahal izateko.

Jarduera horien ondorioz, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren Txostena Tratatzeko dokumentua idatzi zen, behin-behineko onarpen dokumentuarekin batera doana, eta ukituriko plangintza esparruetan aurreikusitako hirigintza garapenen arabera egin litezkeen eraikuntzen mugei dagozkien zehaztapen guztiak jaso ziren bertan, eta bereziki, hurbiltze, goratze eta igarotze azaleren pean daudenei begira.

Era berean, sendoturiko zoru osoan zortasun horiek errespetatzeko betebeharra ere ezartzen du dokumentu horrek, urratzea onartuko bada ere aurrez sendoturiko eraikinak badira, zortasun horiek jadanik gainditzen dituztenak.

Era berean, dagokion kalifikazio xehea (RU alegazio idatzi honek helburu dituen eraikuntzen kasuan) aireko zortasunak urratzen dituzten edo urra ditzaketen eraikuntzetarako 1999ko Plan Nagusiak definitutakoen baldintza berdinetan mantentzeko aukera jaso da aipaturiko dokumentu horretan, Plan Nagusiak ere dagokion araudian jasotzen duena.

Horrenbestez, eta azaldutakoarekin bat eginez, jada hiri zoru gisa definituriko lursail zatian, 1999ko Plan Nagusian definitutakoen kalifikazio eta eraikuntza baldintza berdinetan mantentzeko aukera jaso da, jadanik ezarritako baldintzetan eraikitzeko aukera emango baita horrekin.

Alegazioak mintzagai duen lursailaren gainerakoa, lehen zoru Urbanizaezinean zegoena eta orain Plan Nagusi berriak zoru Urbanizagarrian sartu duena, 2.1.05 “Urdanibia-Zubieta” esparruaren barnean geldituko da. Horrek aukera emango du zoru hori aipaturiko esparru horretarako definituko diren aprobetxamenduen banaketan sartzeko, eta horri esker egoki bideratuko da bestela eraiki ezin izango zen lursail baten kudeaketa.

Azkenik, esan behar da, gaur egun indarrean dauden lurralde antolamendu eta plangintzarako tresnek ez dutela xehetasun aski ematen “Urdanibia-Zubieta” esparruan bere garaian hartuko den soluzioa baloratzeko edo baldintzatzeko. Era berean, Donostialdeako Lurraldearen Zatiko Planaren dokumentuan, haren egungo tramitazio mailan, ez da Plan Nagusiak eremu horretarako jasotako proposamenekin bateraezintzat hartzeko moduko izaera lotesleko zehaztapenik ikusi.

ERABAKIA:

> Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegaziogileek eskatutakoa, eta horrenbestez, Hasierako Onarpen dokumentuan jasotako baldintzetan mantenduko da esparruaren mugaketa eta aplikatu egingo da hiri zoruaren eta zoru urbanizagarriaren artean ezarritako bereizketa.

068 2.1.07 – **Jaizkibel – TC lursaila.** Antolakuntza proposamen alternatibak proposatzen dira idatzian aprobetxamendua handituta.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Udaletxean 2010eko ekainean aurkeztutako beste bat aipatzen dute alegaziogileek beren idatzian. Golfeko TC-01 lursailean familia bakarreko etxebizitzak eraikitzeko aurreproiektua garatzen zuten hartan, HAPNan jaso zedin. Orain berriro ere errepikatzen dute asmo hori, eta antolamendu berria proposatzen dute, hauxe da, familia bakarreko 12 etxebizitza HAPNari dagokion Fitxan jasotako 6 etxebizitza haien lekuan, 0,17 m²s/m²a-ko eraikigarritasuna, eranskin gisa aurkeztutako aurreproiektuan agortzen ez dena. Mintzagai dugun lursail honen azalera egiaz 19.817 m² direla eta ez 17.563 m², HAPNak adierazten duen bezala, egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten dute halaber.

Lursailaren mugetan desadostasuna dagoen eremuak aipatzen dira Eranskinean, eta baita planteatzen duten antolamenduaren garapen grafikoa ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Lursail honen mugei dagokienean, hura mugatzeko hainbat irizpide daudela esan behar dugu, baina azalera berdina mantenduta betiere.

Lursail honen mugei dagokienean, 1994ko azaroan onartutako Jaizkibeleko Plan Nagusiaren Aldaketa Puntualak jasotzen duen Mendebaldeko muga bat etor liteke jabeek aurkeztutakoarekin, baina Ekialdeko eta Hegoaldeko mugak bestelakoak dira. Ekialdeko muga bat dator bide pribatuarekin eta Hegoalderantz luzatzen da han dagoen bizileku lursailarekiko mugaraino, azkenean bide soluzio berezia eratzeko aukera emanez. Hegoaldean, berriz, lursailean sartzeko bide txiki bat du muga.

Lursail honen bereizketak, Urbanizadora Jaizkibelek egina 1999ko ekainaren 2an, 1994ko Aldaketa Puntual horrek jasotako muga berdinak dituela dirudi, baina Hegoaldeko mugaren deskribapenean adierazten da lursail honek A-8 autopistarako sarbideak dituela muga.

Bestalde, katastroan jasotako lursailak, azalera berdina izan arren, bestelako muga jasotzen du Ekialdean, eta bat egiten du dagoen bizileku lursailaren mugarekin, baina bide pribatuaren errematerako aurreikusitako lurraren azalera aintzat hartu gabe. Era berean, Hegoaldeko muga bat dator Europistasek bere garaian egindako desjabetzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak autopistan sartzeko bide sistemarekin loturikotzat hartua.

Horrenbestez, eta adierazitako guztiarekin bat eginez, komenigarritzat hartu da 2.1.07 “Jaizkibel bizilekua” esparruaren mugak berraztertzea, egungo lursailen errealitateari egokitu ahal izateko. Horretan oinarriturik, ontzat hartzen dira aurkeztutako Iparraldeko eta Mendebaldeko mugak, Mendebaldeko muga bat ez badator ere errekaren ibilguarekin. Ekialdeko mugari dagokionean ere aintzat hartuko da jabeek aurkeztutako muga, katastroarekin eta eraikitako errealitatearekin bat datorrelako. Hegoaldeko mugari dagokionean, berriz, katastroan jasotakoa hartuko da kontuan, hura bat baitator desjabetutako lursailarekin eta bideratutako bereizte irizpidearekin.

Horren guztiaren ondorioz, esparruaren azalera aldatu egin da, lursail hori ezarritako irizpide berrien arabera neurtu izanagatik. Halatan, 17.570,73 m^2-koa da esparruaren azalera. Era berean, esan behar da, mugatze irizpide horiek egokienak badira ere

egun dugun informazioari erreparatzen badiogu, betiere egokitu ahal izango direla, garatu beharreko plangintzaren esparruan izango den informazio xeheagoan oinarriturik aldatu behar badira gero.

Horren guztiaren ondorioz, hasieran definituriko eraikigarritasuna aldatu egin behar da orain, eta esparru honetarako 3.000 m^2s-ko eraikigarritasuna ezarriko da sestra gainean, gehienez ere 214 m^2s-ko azalera aintzat hartuta aurreikusitako 14 etxebizitzetako bakoitzerako. Halaz ere, etxebizitza horiek bi familiako zazpi eraikinetan egokitu beharko dira gehienez, kasu honetan bat etorriz aurkeztutako alegazioaren planteamenduekin.

Lursail honen okupazio gorenaren azterketaren emaitza da definitutako eraikigarritasuna eta eraikinak derrigorrez lursailaren goiko aldean egokitzeko baldintza ere kontuan hartu da horretan, dituen baldintza topografikoak eta morfologikoak aintzat harturik betiere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo dira** alegaziogileen argudioak, eta horrenbestez, esparruaren mugen aldaketa kontuan hartuko da, baina aipaturiko irizpide horiekin betiere. Aurreikusitako eraikigarritasuna aldatzea ere onartuko da, eta 3.000 m^2-ko azalera eraiki gorena finkatzen da aurreikusitako 14 etxebizitzentzat. Azaldutako baldintzetan bideratuko dira etxebizitza horiek.

017 5.1.01 – **Lopez de Becerra.** Eraikin bat esparruan sartzearen eta antolamendutik kanpo uztearen aurka ageri da alegazioan.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

5.1.01 Lopez Becerra esparruaren barnean, Mourlane Michelena kaleko 2. eta 4. zenbakietan dituen bere jabetzako eraikinak ditu mintzagai alegaziogileak. Ostalaritza eta hotel jardueretarako alokairuak daude bertan, eta ukituriko eraikin horiek sendotzea planteatzen du, lehen ere Plangintzaren Aurrerakinean proposatu zuen bezala, kostuak saihesteko modu gisa.

Adierazten du HAPNaren Hasierako Onarpen dokumentuan ez zela behar bezala justifikatu antolamendutik kanpo uzteko adierazpena, bere iritziz, eraikin horiek hiri sarean sartuak daudenean eta eraikuntzarako finkaturiko mugen barnean daudenean, eta berek Aurrerakinean aurkeztutako soluzioa emateko eskatzen dute berriro ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan eskatutakoari dagokionean, esan behar da, 5.1.01 esparru honetarako aurreikusitako lehen helburua dela Lopez de Becerra kalerako aurrealde berri bat behar bezala itxuratzea, eta kale horren bidez oinezkoentzako lotura egokia antolatzea Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren artean, Irungo hiri sareko funtsezko bi elementu baitira. Helburu hori betetzea ezinbestekoa da baina aukera hori bermatuta dago burdinbide eremurako proposaturiko birmoldaketarekin, eta gauzatu ahal izango da Euskotrenen trenbideen trazatua Renferenen paraleloan aurreikusitako trazatu berrirantz eraman ondoren.
Esparrurako aurreikusitako antolamenduan bizileku aurrealde jarraitua eratzea proposatzen da Lopez de Becerra kale aldera haren Mendebaldean, proposaturiko

eraikuntza Aduana kale inguruan dauden eraikinekin lotuta, eta Ekialdeko gune jakin batzuetan esku hartzea proposatzen da halaber, bertan dauden lerrokadurei konponbidea eman ahal izateko.

Plan Nagusiak aintzat hartutako hirigintza antolamenduak, aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz Hiri Antolamendurako Plan Berezi baten bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da antolamendu xehea definituko duen eta kasu bakoitzean dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez finkatuko duena. Ez dugu ahantzi behar inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik idatzi beharko dela plangintza hori.

Horregatik, Plan Nagusiaren Berrikuspen honetan berraztertu egin da dauden eraikinak antolamendutik kanpo uzteko adierazpena, ulerturik **antolatu gabeko esparru batean aurrez baziren eraikinak direla eta Plan Berezi bat tramitatu behar dela esparru hori garatzeko**.

Horrenbestez, eraikin horiek egungo erabilera eta eraikuntza baldintzetan mantendu ahal izango dira, antolatu gabeko esparru baten barnean daudenez, eta aurreikusitako plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan xedaturikoaren araberakoa izango bada ere haietan egin daitezkeen obren izaera eta hedadura, dagokien hirigintza fitxan jaso bezala:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenekiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikuluak xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, Plangintza xehearen esku utziko da dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez diren zehazteko lana.

178 5.1.01 **– Lopez Becerra.** Aduana kaleko 9. orubea esparru honetatik ateratzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du bere orubea, Aduana kaleko 9. zenbakian dagoena, ateratzeko 5.1.01 Lopez Becerra esparrutik, Aurrerakinari egin zion Iradokizunean eskatzen zuen bezala. Bere eskaera justifikatzeko, esaten du mintzagai dugun orube hori Aduana kalearen, Juan Arana kalearen eta Topoaren egungo trenbideen artean egon dela beti, hauxe da, Lopez Becerra kalean, eta horrek aukera emango liokeela esku hartze unitate bat osatzeko 5.1.01 esparrutik bereiz.

Gainera, esaten du, aintzat har litekeen zehaztugabetasun bakarra Ekialdeko lerrokadura dela, hauxe da, Lopez Becerra kale aldera ematen duena, eta iradokitzen du kale horren aldetik Colon Ibilbideko 43. zenbakiko eraikinak eratzen duena hartzeko erreferentzia gisa, lerrokadura hori bat etorriko bailitzateke, gainera, HAPNaren irudi planoan proposatutakoarekin.

Horrez gain, bere eskariaren alde, argudiatzen du, 1999ko Plan Nagusiaren arabera aurreko esparrutik atera zenez Lopez Becerra kaleko 9 – 19 zenbakietako eraikinen ilara, nabarmen jaitsi izango direla horrela birdefinituriko esparru horrek izango dituen kargak, oinarrizko urbanizazioari dagozkionak bakarrik izango bailirateke gainerako kargak, eta gorabehera hori dela-eta, orain ez litzateke ahalik eta zoru eraikigarri gehien hartzeko beharrik izango, kudeaketa erraztu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazioak mintzagai duen zoru hori esparru honen barnean dago gaur egun eraikia ez egoteagatik, birmoldatu beharreko lurren mugan egoteagatik, eta horrenbestez, ezinbestekotzat jotzeagatik hiriko alde hori birmoldatzeko konponbide egokia emateko helburua lortzeko.

Orube hori esparruan sartuta, eta gainera hori aintzat hartua zegoen 1999ko Plan Nagusian ere, egoki itxuratu ahal izango da Juan Arana kalearen hegoaldeko aurrealde osoa, kale horretan sortzen diren sestra aldeak behar bezala bideratuz, Ekialdeko muturrean Lopez Becerra kalearen aldera begira eraikiko den eraikuntzarekin behar bezala gauzatu ahal izango dira loturak eta Mendebaldeko muturrean ere Aduana kalean dagoen eraikinarekikoak.

Hiriko aurrealde oso honetan hirigintza azterketaren bideragarritasuna bultzatzeko dira irizpide horiek, hala behar badu, aukera emango baitute kale honen eta Lopez Becerra kalearen aurrealdean aurreikusitako oinezkoentzako plataformaren artean oinezkoentzako lotura egokia eratzeko, Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren arteko lotura eginez.

Argudio horiek guztiak gogoan izanik, eta lurzoru hori sartzen bada etxebizitzen tipologia soluzioak hobeak izango direla eta, hala behar badu, etxarte komuna eraiki litekeela etxebizitzen, lokalen eta abarren artean, Lopez Becerra esparruaren barnean mantendu behar da alegazioak mintzagai duen lurzoru hori, berrikusi den plangintzan ere halaxe baitzegoen.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, zehaztutako esparruaren barnean geratuko da eraikin hori.

179 5.1.01 **– Lopez Becerra.** Bi proposamen alternatibo aurkezten ditu alegazio honek, eta aprobetxamendua gehitzea dakarte bi kasuetan.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

5.1.01 Lopez Becerra esparruaren mugak aldatzeak ekarriko dituen alderdi positiboak aipatzen dira idatzian, beste bizileku batzuk eman behar izateagatik urbanizazio karga txikiagoa izango baita, eta oro har, ados agertzen da etorkizuneko eraikuntzarako proposatutako profilekin.

Ondoren, antolamendurako bi proposamen alternatibo aztertzea planteatzen du, eta baita baimendu daitezkeen hirugarren sektoreko erabilerarako portzentajeak ere. Lehen alternatibak profilak zuzentzea planteatzen du, eta profil horiek handitzea HAPNaren Fitxan jasotakoekiko. Era berean, Colon Ibilbidea eta Pio XII plaza oinezkoentzako lotuko lukeen zokalo – pasabidea eraikitzeko aukera azaltzen du eta hirugarren sektoreko erabileretarako izan litekeela. Horren guztiaren ondorioz, 7.600 m²s inguru handituko litzateke guztizko eraikigarritasuna, hauxe da, % 28,7 HAPNan jasotakoaren gainetik.

Bigarren alternatibak ere aldaketa bat planteatzen du profilak handituta, baina zokalo – pasabide hori eraiki gabe. Haren arabera, egungo Lopez Becerra kalearen mailan egingo litzateke Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren arteko oinezkoentzako lotura. Bigarren alternatiba honetan 6.280 m²s ingurukoa izango litzateke guztizko eraikigarritasunaren gehikuntza, hauxe da, % 23,6 HAPNan jasotakoaren gainetik.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan eskatutakoari dagokionean, esan behar da, 5.1.01 esparru honetarako aurreikusitako lehen helburua dela Lopez de Becerra kalerako aurrealde berri bat behar bezala itxuratzea, eta kale horren bidez oinezkoentzako lotura egokia antolatzea Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren artean, Irungo hiri sareko funtsezko bi elementu baitira. Helburu hori betetzea ezinbestekoa da baina aukera hori bermatuta dago burdinbide eremurako proposaturiko birmoldaketarekin, eta gauzatu ahal izango da Euskotrenen trenbideen trazatua Renferenen paraleloan aurreikusitako trazatu berrirantz eraman ondoren.

Plan Nagusiak hasieran proposaturiko antolamendu irizpideak aurreikusitako helburuak betetzeko ezarri eta kalkulatu dira, kontuan izanik hiri esparru egokiak osatu behar direla, dauden hiri inguruan egokitu behar direnak, eta gaur egun dauden eraikuntzen egiazko profilak eta altuerak hartu behar dira kontuan horretarako.

Arrazoi horiengatik Lopez Becerra kalearen Mendebaldeko aurrealdean zokalo bat egiteko aukera kontuan hartuta finkatu da Planean jasotako eraikigarritasuna; zokalo hori 20,00 kotan egingo litzateke, oinezkoentzako lotura maila berean egin ahal izateko Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren artean.

Zokalo horren gainean eraikin bat aurreikusten da, gehienez beheko solairua, goiko bost solairu eta atikoa atzera emana izango dituena Lopez Becerra kalearen aurrealdean, beheko solairua eta bost goiko solairuko profila mantenduz harekiko kale ortogonaletan, eta horrenbestez, dauden eraikinekiko loturetan, azken profil horixe bera baitute eraikin horiek ere.

Antolamendu irizpide horiekin bat eginez, guztira 27.300 m^2s-ko eraikigarritasuna kalkulatu da esparru honetarako, eta haren barnean gehienez ere % 40ko portzentajea aurreikusi da hirugarren sektoreko erabileretarako. Era berean, kontuan izan behar dugu, arteko solairuak egiteari begira, aplikatu beharreko araudi orokorrean eta zokalo horrek izango duen hirugarren sektoreko erabilerarako, gehienez ere lokalak oinean izango duen azaleraren % 50 arteko solairurako erabili ahal izateko aukera jaso dela orain. Azalera eraiki hori ez litzateke kontatuko esparruan definituriko eraikigarritasunaren barnean, eta dagokion Ordenantza aplikatuta bakarrik arautuko litzateke.

Azkenik, aipatzekoa da, esparru honen kudeaketa errazteko, aurretik baden eraikuntza, hasieran barruan zegoena, esparrutik ateratzeko aukera jaso dela orain; eraikin hori Iparraldean dago, Lopez Becerra kaleko Ekialdeko aurrealdean. Hari begira, hiri zoru sendotuan aurretik dagoen eraikina mantentzea erabaki da, beheko solairua eta hiru goiko solairu dituena, eta dagokion Ordenantza zuzenean aplikatuta arautuko da, esparrutik kanpo utzita horrenbestez.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, eraikigarritasuna pixka bat handitu egingo da Kontsiderazioetan azaldutako baldintzetan, baina eraikuntzak inguruan dauden profil gorenetara egokitzeko edo profil horiekin bat etortzeko irizpidea kontuan harturik betiere.

028 5.2.06 **– Arizmendi Almirantea.** BEPBan ageri diren azalerak mantentzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak dio Arizmendi Almirantea esparruko BEPBaren garapenean, 255 m²-ko zoru publikoa sartzen zela, ez ondarekoa, 42.4 eta 42.5 poligonoetako Plan Nagusiaren Elementuen Aldaketaren irizpideen arabera Udalak urbanizatu behar zuena. Horrenbestez, 2006ko azaroan onartu zen BEPBan 9.510,80 m²-koa da ondare azalera Plan Nagusi berrian jaso diren 9.765,80 m² horiek izan beharrean.

Adierazten du, bere iritziz, aipatutako datu horiek zuzendu egin behar liratekeela.

KONTSIDERAZIOAK:

2006ko azaroan behin betiko onartu zen BEPBaren muga jasotzen du Plan Nagusi honek, baina plangintza horren baldintza batzuk aldatzea aurreikusten du orain, esate baterako, sestra gaineko eraikigarritasunaren emendioa eta sestrapean sestra gaineko eraikigarritasunaren % 100 eraikitzeko aukera. Argi uzten du gainera aurreikusitako zokalo horretan egokituko den eraikigarritasunaren sestrapeko izaera.

Era berean, aurreikusi da esparru honetarako zehaztutako eraikigarritasun osoa etxebizitza libreak egiteko izan daitekeela, orain aurreikusitako eraikigarritasunaren emendio hori dela-eta babes publikoko erregimenen batean egin beharreko etxebizitzak beste esparru batean egin daitezkeelako, eta irizpide berari eutsi zaio hornidura bizilekuetarako derrigorrezko erreserba egiteko.

Zehaztapen horiek kontuan izanik, mugatutako azalerak bat etorri behar du, horrenbestez, garapenerako plangintza honetan jasotakoarekin, eta 9.765,80 m² dira guztira, barnean sartutako lurzoruak izaera publikoa edo pribatua izanda ere.

Alegazio honek mintzagai duen zoru publiko horren ondare izaeraren kontsiderazioa, eta horrenbestez, esparru honetan sartutako zoruaren partaidetza-indizearen zehaztapena ez da Plan Nagusi honen egitekoa eta esparruan sustatuko den Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren esparruan jaso beharko da, eta baita hura garatzeko bideratuko diren gainerako dokumentuetan eta proiektuetan ere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazio honetan azaldutakoa, eta horrenbestez, ez da aintzat hartuko aipatutako datu horiek dagokion hirigintza fitxan zuzentzeko eskaera.

171 5.2.06 – **Arizmendi Almirantea.** Fitxan / BEPBan aldaketak egitea proposatzen dute

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Esparru horretan Barne Erreformarako Plan Bereziaren Aldaketa bideratzeko proposamena da, 5.2.06 Arizmendi Almirantea esparruari dagokion Esku hartze Unitateko azaleraren % 84 ordezkatzen duten jabeek aurkeztua. Helburua da 2006ko azaroan onartutako BEPBari dagokionean bolumenaren antolamendua hobetzea, eta horrekin lortu nahi dena da etxebizitza kopurua pixka bat handitzea baina eraikigarritasuna handitu gabe. Horren haritik, proposamen hori eztabaidatzeko aukera eskatzen du Hirigintza Fitxa berri baten edukia adostu ahal izateko.

Era berean, adierazten du, egungo Fitxan, eta horixe da HAPN berriak jaso duena, 4. atalean, zehaztu behar litzatekeela Mendebaldeko ertzean dauden bost eraikinen profil gorenak zokalo ez konputagarri bat sartzea aurreikusten duela.

KONTSIDERAZIOAK:

2006ko azaroan behin betiko onartu zen BEPBaren muga jasotzen du Plan Nagusi honek, baina plangintza horren baldintza batzuk aldatzea aurreikusten du orain, esate baterako, sestra gaineko eraikigarritasunaren emendioa eta sestrapean sestra gaineko eraikigarritasunaren % 100 eraikitzeko aukera. Argi uzten du gainera aurreikusitako zokalo horretan egokituko den eraikigarritasunaren sestrapeko izaera.

Era berean, aurreikusi da esparru honetarako zehaztutako eraikigarritasun osoa etxebizitza libreak egiteko izan daitekeela, orain aurreikusitako eraikigarritasunaren emendio hori dela-eta babes publikoko erregimenen batean egin beharreko etxebizitzak beste esparru batean egin daitezkeelako, eta irizpide berari eutsi zaio hornidura bizilekuetarako derrigorrezko erreserba egiteko.

Plan Nagusi honek hirigintza zehaztapen berriak finkatu ditu orain esparru horretarako, eta esparruan sustatuko den Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren bidez garatu eta adostu beharko dira zehaztapen horiek, eta baita hura garatzeko bideratuko diren gainerako dokumentuen eta proiektuen bidez ere.

Plangintza berri horrek, egokitzat hartzen bada, aldatu ahal izango du 2006ko azaroan onartutako antolamendua, eta horrenbestez, bizileku eraikinen antolaera berria eta etxebizitza kopurua aldatzea planteatu ahal izango du. Plan Nagusi honek finkatutako gutxieneko batez besteko tamaina aintzat hartu beharko da etxebizitza kopuru hori kuantifikatzerakoan.

Hirigintza alorreko zehaztapen horiek jada jasoak daude dagokion hirigintza fitxan Hasierako Onarpen dokumentuaren barnean, eta horrenbestez, ez da egokitzat jotzen fitxa hori aldatzea. Esparrua antolatzeko proposamen berri horren inguruan eskatutako eztabaida hori esparrua garatzeko tresnak idazteko eta kudeatzeko prozesuan egin beharko da, eta prozesu hori Udal honetako udal zerbitzu teknikoen bidez koordinatu beharko da ezinbestean.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, alegazio honen edukia **onartu egingo da** ulertzen delako antolamendua idatzian azaldutako baldintzetan aldatzeko aukera jadanik jasoa zegoelako hasieran onartutako Plan Nagusiaren dokumentuan.

177 5.3.13 – **Korrokoitz.** Fitxan aldaketak egitea proposatzen da idatzian, aprobetxamendua handitzeko eta urbanizazio kostuak birplanteatu ahal izateko.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

5.3.13 Korrokoitz esparruko lurren eta eskubideen jabeen ekimenez, idatzian eskatzen da jada azaldutako zailtasunak aintzat hartzeko esparru horren garapenaren bideragarritasun ekonomikoari dagokionean, Fitxan gaur egun azaltzen diren parametroak mantentzen badira. Hori guztia, diote, urbanizazio kostuak, Dunboako kanaleko obrenak eta beste bizileku bat eman behar izatetik etorriko direnak oso handiak direlako.

Eskatzen dute denon artean eta elkarren arteko adostasunez konponbide bat bilatzeko, esparruaren garapenari behin betiko bideragarritasuna emango dion konponbidea, haien ustez, beste planteamendu bat eginda urbanizazio kostuen eta etxebizitza gehiago eraikitzeko aukeraren inguruan. Azken kontu horri begira, lehen planteamendu gisa proposatzen dute 70 m²s-tik gorakoa izan daitekeela etxebizitzen gutxieneko batez besteko tamaina.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusi berriak, sustatzaileek aurkeztutako alegazioen aurrean eta hiria antolatzeko orduan kontuan hartu eta esparruan lehentasuna izan behar duten interes orokorreko printzipioen hirigintza azterketa egin ondoren, antolamendu xehea berrikusteko aukera jasotzen du esparruak hobeto jasan ditzan bere gain izango dituen kargak.

Hirigintza erregimen xeheari dagokionean, onartutako Hiri Antolamendurako Plan Bereziak xedaturikora jotzen du, lehen esan den bezala, Plan Berezi hori berrikusteko aukera ere jasotzen duen arren bizileku antolamendua errentagarriagoa izateko, Urantzu zubiaren ondoko egungo bide sistemari beste alternatiba bat emanez, zubi horrek traba eragiten baitu ibilguan eta handitu egiten baitu eremuan uholdeak izateko arrisku maila.

Bestalde, antolamendu berrian egokitu beharreko etxebizitza kopuruari dagokionean, eta kontuan izanik zehaztapen hori hirigintza erregimen xehearen zehaztapen gisa hartu behar dela, orain aldatzea aurreikusten da Plan Nagusi honek gutxieneko batez besteko tamaina berrien inguruan jasotakoa kontuan izanik, hauxe da, 70 m^2-ko muga RA kalifikaziorako eta 85 m^2-koa RV kalifikaziorako.

Bestalde, zuzendu egingo da hirigintza fitxan dagoen okerra esparruko azalerei eta kalifikazio globalei dagokienean, azalera horiek egiaz ez baitzetozen bat aipagai dugun Barne Erreformarako Plan Berezi horretan jasotakoekin.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, kontuan hartuko da etxebizitza kopurua handitzeko aukera Plan Nagusiak jasotako estandar berriekin bat eginez.

189	5.3.19 – **Pedro Hirizar.** Esparrua osatzen duten bi orubeetan aurreikusitako antolamendua batera ez egiteko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Lau Zati ditu alegazio honek, leku desberdinetan dauden eremuei dagozkienak.

Laugarren zatiak 5.3.19 Pedro Hirizar esparrua du mintzagai, eta bertan adierazten da, bere iritziz, aurkezten duen dokumentazioan grafiatutako eraikuntzetako bat ez dela garatzen hasiko ez epe laburrean ez epe ertainean, eta horrenbestez, beste eraikuntza bereiz eta ez biak batera egin ahal izatea eskatzen du, batera egitea aurreikusten baitzen dirudienez. Horrekin dagokion bide zatiaren zesioa egingo luke interesatuak, lehenengo eraikuntzari legokiokeena barne.

KONTSIDERAZIOAK:

Pedro de Hirizar esparruari dagokion alegazio honen laugarren zatian azaldutako arrazoiak ikusirik, egokitzat hartu da hartan eskatutakoa aintzat hartzea, hauxe da, esku hartze hau lizentzia zuzeneko zoruan definitzea. Horrekin loturik, eta Pedro de Hirizar kale osoaren jabari publikoa bultzatu ahal izateko, gaur egun oraindik jabetza

pribatua duen kale-aurrealdearen zatia zesioan emateko baldintzaren pean geratuko da lizentzia.

RA (bizilekua Alde Zaharrean) kalifikazio xehearen bidez eta dagokion ordenantza aplikatuta arautuko dira eraikuntzaren baldintzak. Era berean, eraikuntza berriaren lerrokadurak eta profilak zehaztu dira, aurretik daudenen jarraipen gisa eta haietara egokitzeko irizpidearekin finkatu dira horiek.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, esparrua kendu egingo da eta Ordenantzaren bidez finkatuko dira eraikuntzaren baldintzak, baina bide publiko gisa definitutako orubearen zatia doan zesioan emateko betebeharrarekin.

189 eta 198	5.3.14 – **Papinea.** Lehenengoan eskatzen du onartutako BEPBan bezala jasotzeko Papinea eta bigarrenean eskatzen du eraikigarritasuna handitzeko.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Lau Zati ditu 189. alegazioak, leku desberdinetan dauden eremuei dagozkienak.

189. alegazioaren hirugarren zatiak 5.3.14 Papinea esparrua du mintzagai, esparru horretako BEPBa onartu zen 2008ko otsailaren 27an, eta adierazten du HAPNak ez duela zehatz jaso, haren azalera handitu egin delako, bide publikoak sartu izanagatik seguru asko, eta mugaketa aldatu delako. Horien ordez, BEPBaren zehaztapenak osorik jasotzeko eskatzen du alegaziogileak.

Horrez gain, geroago beste idatzi bat aurkeztu zuen alegaziogileak (epez kanpo eta 198. zenbakiarekin jasoa), eta haren edukia kontraesanean dago 189. alegazioan adierazitakoarekin, eta horrenbestez hura baliogabetu egiten du. Hauxe da:

Epez kanpo aurkeztutako idatzian, besteak beste, eskatzen du Plan Nagusi berriak 9.700 m^2s-ko eraikigarritasuna emateko Papinea esparruari (orain 7.700 m^2s) eta eraikuntza profil handiagoa onartzeko; 3PA+BCt-tik 4PA+BC-ra pasatuz.

KONTSIDERAZIOAK:

Esparru honek duen arazo espezifikoa kontuan izanik, Alde Zaharreko hiri ehunarekin lotzeari begira eta Korrokoitz ingururako aurreikusitako antolamenduaren ondorioz, eraikigarritasun handiagoa eman dakioke esparru honi.

Hala eta guztiz ere, leku horretan bidera daitekeen eraikigarritasuna (9.500 m^2s) ez da iristen nahi den parametro horretara, huraxe delako esparruaren gaitasunari erantzuten diona interes orokorreko printzipioen araberako antolamendua onartu ahal izateko. Hauxe da, kontsideratzen da beheko solairua, hiru goiko solairu eta atikoa atzera emana duen oinarrizko profilean oinarrituriko bizileku antolamenduak izan behar duela lehentasuna, alde zaharreko profilarekin koherentzia izan dezan, eremu horretan baitago esparrua, eta salbuespen gisa bakarrik onartuko lirateke profil handiagoak leku jakin batzuetan eta horretarako arrazoirik baldin badago, jakina.

189. Alegazioaren hirugarren zatian azaldutako arrazoiak ikusirik, Papinea esparrua du honek mintzagai, egokitzat hartzen da bertan eskatutakoa onartzea, esparruaren azalerari dagokion okerra zuzenduta. Nolanahi ere, azpimarratu behar da esparru honetarako irizpidea izan dela, betiere, 2008ko otsailaren 27an behin betiko onartutako Barne Erreformarako Plan Berezian jasotako mugaketa mantentzea, eta arestian aipaturiko oker hori izan bada ere, esparruaren mugaketa guztiz bat datorrela plangintzan grafiaturikoarekin.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioaren edukia, aipaturiko oker hori zuzenduta, eta esparruaren azalera plangintzan definitutakoaren arabera islatuta. Eraikigarritasuna handitzea onartuko da, baina eskatutakoa baino zertxobait gutxiago.

024 6.2.08 **– Alei.** Eraikina antolamendutik kanpo uztearen aurka ageri dira idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

HAPNak Alei esparrurako –Lapitze kaleko 7. zenbakiaren aldean-, Emilita Enea izeneko beren eraikinari dagokionean (eraiki berri den Patxi Enea etxearen aldamenean dago hura) egiten duen proposamenaren aurka daude alegaziogileak, eta antolamendutik kanpo uzteko aurreikuspena aldatzeko, eta horrenbestez, lizentzia kendua duten esparruen inguruko 1. Eranskinean ageri den zerrendatik kentzeko, eskatzen dute.

Horretarako, beren eraikinaren gaineko esku hartzea esku hartze bakan gisa hartzeko eskatzen dute, sartuta dagoen antolamendu esparrutik aterata. Osagarri gisa aipatzen dute lehen igarobide bat bazela beren eraikinaren eta Patxi-Enea etxearen artean, 2 – 4 metro zabalerakoa, eta hura desagertu egin dela eraiki berri den azken eraikin hori egiteko lizentzia ematean.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan azaldutako arrazoiak ikusirik, bidezkotzat jotzen da bertan adierazitakoa aintzat hartzea, eta Alei esparrutik ateratzea Lapitze kaleko 7. zenbakian dagoen eraikina, Emilita Enea izenekoa. Orain hiri zoru sendotu egoera izango du lursail horrek, eta horrenbestez, dagokion ordenantza aplikatu ondoren jasotako hirigintza baldintzak beteko dira.

Horretan oinarriturik, RP-11 (11. mailako Bizileku kolektiboa) kalifikazio xehea jasoko da lursail honetarako, eta era horretan eutsi egingo zaio 1999ko Plan Nagusian lursail honetarako jada jasotako kalifikazioari.

ERABAKIA:

Azaldutako arrazoi horien arabera, **onartu egingo da** alegazioaren edukia, eta horrenbestez, 6.2.08 “Alei” esparrutik atera egingo da eraikuntza hori.

157 eta 158 6.2.08 **– Alei.** Emilita Enea eraikina antolamendutik kanpo uztearen aurka ageri dira idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Lapitze kaleko 7. zenbakian, Emilita Enea etxea deitutako eraikina sendotzeko eskatzen da, antolamendutik kanpo ez uzteko, 6.2.08 ALEI esparrutik ateratzeko eta dagoen eremukoaren antzeko aprobetxamendua emateko, haren gainean esku hartze bakan baten bidez jardun ahal izateko. Osagarri gisa eskatzen da aipaturiko eraikin hori kentzeko lizentzia kendua duten esparruen inguruko Eranskinetik.

Era berean, udal administrazioarekin negoziazioari ekiteko aukera proposatzen dute aipaturiko jabetza hori erosteko.

KONTSIDERAZIOAK:

Aintzat hartuko da alegazio honetan adierazitakoa, eta horrenbestez, esparrutik aterako da Emilita Enea izeneko eraikina, Lapitze kaleko 7. zenbakian dagoena. Orain hiri zoru sendotu egoera izango du lursail horrek, eta horrenbestez, dagokion ordenantza aplikatu ondoren jasotako hirigintza baldintzak beteko dira.

Horretan oinarriturik, RP-11 (11. mailako Bizileku kolektiboa) kalifikazio xehea jasoko da lursail honetarako, eta era horretan eutsi egingo zaio 1999ko Plan Nagusian lursail honetarako jada jasotako kalifikazioari.

ERABAKIA:

Azaldutako arrazoi horien arabera, onartu egingo da alegazioaren edukia, eta horrenbestez, 6.2.08 “Alei” esparrutik atera egingo da eraikuntza hori.

012 7.2.05 **– Ermita.** Sestrapeko eraikigarritasuna handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

7.2.5 Ermita esparruan sestrapeko eraikigarritasunaren portzentajea handitzeko eskatzen dute, % 130 bitartekoa izatea proposatuz, eta horretarako argudiatzen dute, beren iritziz, garaje plazen eskasia dagoela inguruan, eta % 60rekin ez balitz lortuko etxebizitzako 2 garaje plazaren ratioa esparruan bertan, hurbileko esparruetako ratioak, Korrokoitz, Papinea eta Altzukaitz, esate baterako, handiagoak izatea. Azkenik, adierazten dute etorkizuneko indusketetan komeni dela gehiago sakontzea geruza freatikoa gainditu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Azaldutako arrazoietan oinarriturik, eta kontuan izanik esparru horretan Hiri Antolamendurako Plan Berezia tramitatu dela orain dela gutxi, hartan aztertu dira orain alegatzen diren kontu horiek, eta horrenbestez, Plan Berezi horrek zehazten ditu sestrapeko eraikuntzaren baldintzak dagokion hirigintza esparruaren arabera. Horrenbestez, logika osoarekin Plan Nagusi honek hartan finkatutakoa jasotzen du esparru horretarako.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioaren edukia, eta horrenbestez, 2013ko maiatzaren 29an behin betiko onartutako Plan Berezian jasotako sestrapeko eraikigarritasuna emango zaio esparruari.

019	7.2.08 – **Matxalagain.** Esparru honetan aprobetxamendua handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileek adierazten dute zalantzak dituztela HAPNak 7.2.08 Matxalagain esparruan proposaturiko garapenari buruz egiten dituen bideragarritasun ekonomikoaren azterketen inguruan, egungo ziurgabetasun orokorraren eta HAPNaren testuinguruan era honetako azterketek dakarten lehen hurbilketaren barnean. Adierazten dute, beren iritziz, egindako azterketa horiek, kalkulatutako urbanizazio kargak kontuan hartzen badira, ez dutela bermatzen ekimen pribatuak bideratu beharreko esku hartzeen errentagarritasuna, eta bestalde, esaten dute etxebizitza tasatuei eta libreei aplikatutako haztatze koefizienteek ez luketela errealitatea islatuko, gaur egun zailtasun handiak daudelako eraikuntza finantzatzeko eta etxebizitzak saltzeko.

Esparruan aurretik dauden zortzi higiezinen inguruan ohartarazten dute, ez baitira bateragarriak proposatutako antolamenduarekin, eta horien eraiste kostuak eta ordezkatzeko eraikigarritasuna gorpuzteko berreraikitze gastuak ez dira kontuan izan esparruko zoru urbanizatua baloratzeko orduan. Iruditzen zaie txikiegia dela Plan Nagusiak esparrurako proposaturiko salmenta prezioaren gaineko etekina eta baieztatzen dute azterketa batzuk egin dituztela eta horien arabera oraindik gehiago murriztuko litzatekeela etekin hori, eta ondorioz, finantzazio ekonomikoa ez litzateke bideragarria izango. Halatan, parametroak berrikusteko eskatzen diote Udalari esparru horren garapena bideratu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan azaldutako argudioak aztertu ondoren, eta esparru honen bideragarritasuna hobetu ahal izateko, inguru eraikia errespetatuz betiere, aztertu da esparruari aprobetxamendu handiagoa emateko aukera, beheko solairua, goiko bost solairu eta atiko atzeraemana izango lituzkeen profila izateko aukeran oinarriturik. Profil gorena izango litzateke hori, baina salbuespen gisa handitu ahal izango litzateke antolamenduaren leku jakin batzuetan, aireko zortasun baldintzek onartutako altuera gorenak gainditu gabe betiere.

Irizpide berri horrek aukera eman du esparru osoko eraikigarritasun gordina 0,27 m^2/m^2 arte handitzeko guztizkoaren gainetik, Sistema Orokorrak barne. Eraikigarritasun hori 0,80 m^2/m^2-ren parekoa da gutxi gorabehera bizileku kalifikazio globalari aplikatzen badiogu; orain Blaia esparrurako birdefinitu denaren antzekoa da eraikigarritasun hori, esparru horrek ere bizileku erabilera baitu eta antzeko kargak baititu proportzioan.

Esparru hau garatzeko etorkizuneko baldintzak are gehiago hobetu ahal izateko, sestrapeko eraikuntza handitzeko aukera ere kontuan hartu da, eta sestra gaineko eraikigarritasunaren % 100era iristeko aukera proposatzen da orain. Era berean, gehienez % 40 handituko da hirugarren sektoreko erabileretarako zorua, ulerturik bi

xedapen horiekin lortuko dela bizileku eremu berri garrantzitsu honen kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea.

Aldaketa horiekin, badirudi ez dela komeni hasieran osatzen zuten lursailetako bakar bat ere esparrutik ateratzea, horrek galarazi egingo bailuke proposatutako antolamendua eta hartara sarbide egokiak izateko aukera.

Nolanahi ere, Plan Nagusiak aintzat hartutako hirigintza antolamenduak, aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz Plan Partzialaren bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da antolamendu xehea definituko duen eta kasu bakoitzean dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez finkatuko duena. Inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik idatzi beharko da plangintza hori.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, eraikigarritasuna handitu egingo da hala sestra gainean nola sestrapean, baina esparruko mugaketa baldintzak, eta horrenbestez, beharreko sarbideen sareak eta espazio libreak mantenduz.

172	8.2.05 – **Blaia.** Iparraldeko ertzean dagoen lur bat trukatzea planteatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak proposatzen du, 2008an egin zuen bezala, Udalarekin lur bat trukatzea, lursail jarraitua eduki ahal izateko bertan RU-3 ordenantza aplikatu eta haren arabera beste bi etxebizitza eraikitzeko. Eskaera hori arrazoitzeko, esaten du bere garaian jarraia zela jabetza hori, baina zatitu egin zela 54. poligonoa egin zen unean. Orduan bereizi egin zen gaur egun baserriko eraikina inguratzen duen lurra oraindik ere berena den lurretik, baina jarraia ez den kokalekuan eta zoru urbanizaezinean. Era berean, adierazten du, truke hori, 1999ko Plan Nagusiarekin egitea zaila bazen ere sailkapen desberdineko bi zoru izateagatik, orain errazagoa izan litekeela plangintzaren berrikuspena aprobetxatuz.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiak zoru urbanizagarri sektorizatu sailkapena ematen dio eta Espazio Libreen Sistema Orokor gisa definitzen du orain Buenabistako muinoa; leku horretan dago, hain zuzen ere, alegaziogilearen jabetzako lursaila, trukatu nahi dena. Hirigintza zehaztapen horiekin egin daiteke orain eskatutako lurren truke hori. Nolanahi ere, definitutako Sistema Orokorraren egituraketa errazteko helburuarekin egin beharko da trukea eta dagokion balorazioa kontuan hartuta. Trukatu beharreko lurrak dauden zoru moten arabera egin beharko da, beti ere, balorazio hori.

Horrenbestez, deskribatutako udal intereserako egokia dela egiaztatzen bada, eskatutako truke hori egin liteke Plan Nagusi honek jasotako hirigintza zehaztapenen

esparruan eta, hala behar badu, truke horren gauzatzea adostu egin beharko da, azaldutako baldintzetan, ardura hori duten udal zerbitzu teknikoekin.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, truke hori egin ahal izango da Plan Nagusi honen esparruan, baina hasierako onarpen dokumentuan jada definituriko zehaztapenak aldatzeko beharrik ez dago helburu hori lortzeko.

173	8.2.05 – **Blaia.** Esparru honetarako aprobetxamendua handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatzian adierazten da halako arazo batzuk daudela, eta alegaziogilearen iritziz, arazo horien ondorioz ekonomikoki ez litzateke bideragarria izango 8.2.05 Blaia esparruaren garapena. Hasteko, aipatzen du zoru urbanizagarri gisa sailkatua dagoela eta iruditzen zaio, urbanizazio baldintzen azterketa xehearen ordez, bere iritziz horrexek eramango baitzituen sailkapen hori egitera, hiri zoru gisa har litekeela lurrak Irungo udalerriaren testuinguru zabalago batean hartuko balira, kontuan izanik duen kokaleku zehatza gaur egungo gainerako hiri sarearekiko, bi herenak sendotzeko irizpidea aplika bailiteke bertan. Era horretan hartu beharko litzateke lurzoruaren hirigintza sailkapena.

Gorabehera horrek izango lukeen garrantzia aipatzen du, hiri zoru gisa hartuko balitz, etxebizitza babestuen derrigorrezko portzentajeen aplikazioan, txikiagoak izango bailira. Aurrerakinari aurkeztutako iradokizuna aipatzen du; hartan urbanizazio gastuen estimazioa azaltzen zuten, hasieran onartutako dokumentuaren parametroen arabera zehaztu dituztenak.

Alde batetik, uste dute esparruko etxebizitzen dentsitatea oso txikia izango litzatekeela, eremurako sistema orokor handiak lortzeko nahiaren ondorioz, eta beste alde batetik, urbanizazioaren eragina oso handia izango litzateke, etxebizitza librearen eta bakoitzari legokiokeen kostuaren artean banatu behar baita, 62.000 euro/etxeb. libreko gutxi gorabehera, eta hori gehiegizkoa litzateke blokean egokituriko etxebizitza mota honetarako. Geroago esaten du inguratzeko bideak gainditu egingo lukeela, argi eta garbi, esparrua, jada hiri zoruak badaudenean eta horiei ere onura ekarriko liekeenean. Hori dela-eta, haren kudeaketa esparrutik ateratzea proposatzen dute, egungo hiri zoruarekin bakarrik utzita loturak.

Uste du, kontu horiek guztiak direla medio, eta planteatutako parametroei eusten bazaie, bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik begiratuta ezin izango litzatekeela zoru hori hirigintza garapenera bildu. Alegazioa amaitzeko aipatzen du baldintzatzaile handia izango litzatekeela Plan Nagusiak “betiko” finkatzea Espazio Libreen Sistema, dirudienez beste antolamendu proposamen batzuk daudenean, bizileku erabilera Plan Nagusiak finkatutakoaz bestelako modu batean ezartzen dutenak.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan azaldutako argudioak aztertu ondoren, eta esparru honen bideragarritasuna hobetu ahal izateko, inguru eraikia errespetatuz betiere, aztertu da esparruari aprobetxamendu handiagoa emateko aukera, beheko solairua, goiko bost solairu eta atiko atzeraemana izango lituzkeen profila izateko aukeran oinarriturik.

Profil gorena izango litzateke hori, baina salbuespen gisa handitu ahal izango litzateke antolamenduaren leku jakin batzuetan, aireko zortasun baldintzek onartutako altuera gorenak gainditu gabe betiere.

Irizpide berri horrek aukera eman du esparru osoko eraikigarritasun gordina 0,27 m2/m2 arte handitzeko guztizkoaren gainetik, Sistema Orokorrak barne. Eraikigarritasun hori 0,80 m2/m2-ren parekoa da gutxi gorabehera bizileku kalifikazio globalari aplikatzen badiogu; orain Blaia esparrurako birdefinitu denaren antzekoa da eraikigarritasun hori, esparru horrek ere bizileku erabilera baitu eta antzeko kargak baititu proportzioan.

Esparru hau garatzeko etorkizuneko baldintzak are gehiago hobetu ahal izateko, sestrapeko eraikuntza handitzeko aukera ere kontuan hartu da, eta sestra gaineko eraikigarritasunaren % 100era iristeko aukera proposatzen da orain. Era berean, gehienez % 40 handituko da hirugarren sektoreko erabileretarako zorua, ulerturik bi xedapen horiekin lortuko dela bizileku eremu berri garrantzitsu honen kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea.

Aldaketa horiekin, badirudi ez dela komeni hasieran osatzen zuten lursailetako bakar bat ere esparrutik ateratzea, horrek galarazi egingo bailuke proposatutako antolamendua eta hartara sarbide egokiak izateko aukera.

Garrantzitsua da esatea, alegazio honetan planteatutako argudioekin loturik, eta 2006ko Lurzoruaren Legea aplikatuta, ez dagoela aukera teknikorik idatziak mintzagai dituen lur horiek hiri zorutzat hartzeko. Era berean, garrantzitsua da esatea alegazio honetan planteatutako blokeak ezin direla egin Blaiako errepidearen Iparraldean, aireko zortasunak urratuko lituzketelako.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, eraikigarritasuna handitu egingo da hala sestra gainean nola sestrapean, baina esparruko mugaketa baldintzak, eta horrenbestez, beharreko sarbideen sareak eta espazio libreak mantenduz. Era berean, sailkapena mantendu egingo da zoru urbanizagarri gisa, esparru honetarako jada ezarrita dagoen bezala.

187 8.2.05 – **Blaia.** Erreklamazio puntuala biribilguneak garaje batean eragina duelako.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak adierazten du, Ibarla kaleko 3. zenbakian eraiki berri den etxebizitzako garajean, Ibarrolako errepidea zabaltzean sorraraziko den eraginaren aurka dagoela, bere ustez, bere lursailean eragin handiagoa izango baitu beste aldean dagoenean baino, eta iruditzen zaio alde hartara eraman litekeela proposaturiko biribilgune berria.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazioak mintzagai duen garaje horren kokalekuak bat egiten du Blaia esparrura sartzeko biderako aurreikusitako trazatuarekin. Altzukaitz kalearen luzapen gisa aurreikusi da bide hori, aipaturiko biribilgune horren bidez antolatuta eta bide horren iparraldean bizileku antolamendua onartuta.

Era berean, eta alegazioak mintzagai duen garaje horren gaineko eragina nahitaezkoa bada ere, aldiz bai egokitzat hartzen da bide sistema horren grafiatua egokitzea, haren bi aldeetan dauden eraikuntzekiko antzeko tartea utzita. Irizpide berri horren ondorioz pixka bat aldatu egin beharko dira esparruaren mugak.

Nolanahi ere, Plan Nagusiak aintzat hartutako hirigintza antolamenduak, aurrera eraman beharreko esku hartzearen esparru orokorra finkatzen du xehetasun osoz Plan Partzialaren bidez. Plangintza xehe horrek finkatuko du esparruaren behin betiko antolamendua orain definituriko maila estrukturaleko zehaztapenekin bat.

Horrenbestez, Plangintza hori izango da antolamendu xehea definituko duen eta kasu bakoitzean dauden eraikuntzak eta erabilerak etorkizuneko antolamenduarekin bateragarriak diren ala ez finkatuko duena. Ez dugu ahantzi behar inplikaturiko gainerako administrazioekin koordinaturik idatzi beharko dela plangintza hori.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazioaren edukia, eta horrenbestez, garaje horrek "Blaia" esparruaren barnean jarraituko du, baina esparru horren mugak egokitu egingo dira, esparruan sartzeko bide berriko lotune horren bi aldeetan dauden eraikuntzetara antzeko tartea egon dadin biribilgunearekin.

001 8.2.06 - **Gazteluberri.** Aprobetxamendua emendatzeko eskatzen dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Bi zati ditu alegazio honek.

Lehenbiziko zatian 88 zenbakidun Iradokizuna aipatzen da, Aurrerakina jende aurrean egon zen bitartean aurkeztua Gazteluberri esparruaren inguruan, hari eman zitzaion tratamendua ez dutelako jaso, Aurrerakinaren aurreikuspenak osorik mantendu baitira. Berriro ere diote 0,08 m²/m²-ko aprobetxamendua oso hondarrekoa dela eta oso urrun dagoela Lurzoruaren Legean hiri zoru sendotu gaberako aurreikusitakotik. Bi sektore egiteko eskatzen du: bat goiko aldean, Gazteluzarberri baserria sartuta ordezkatuko balitz eta baita beste 5 etxebizitza familiabakarrak edo atxikiak ere, eta bestea, Dario de Regoyos kalearen ondoan, hor 28 etxebizitza eraikita bi bloketan, bat 16 etxebizitza librekoa eta bestea 12 etxebizitzakoa, babes erregimenen batekin lotuak azken horiek.

189 8.2.06 – **Gazteluberri.** 2 sektore egiteko eta aprobetxamendua handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Lau Zati ditu alegazio honek, leku desberdinetan dauden eremuei dagozkienak.

Lehen zatian, Aurrerakin dokumentuari aurkeztu zion idatzira jotzen du oso-osorik alegaziogileak, 88 zenbakidun Iradokizuna, hain zuzen ere. Idatzi horrek 8.2.06 Gazteluberri esparrua zuen mintzagai eta esaten zuen, bere iritziz, Aurrerakinean

jasotako proposamenak urratu egingo lituzkeela Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen gutxieneko dentsitateak eta neurri bakar batekin ez litzatekeela neurtuko guztia. Era berean, bi sektore jasotzea iradokitzen zuen, horietako bat goiko aldean, Gazteluberri baserri ordezkatua eta 5 etxe berri sartuta, eta bestea beheko aldean, Gazteluberri baserria sendotuta edo sendotzen ez bada ordezkatuta, eta 28 etxebizitza eraikita bi bloketan, PB+3 profilarekin, horietako 16 libreak eta 12 babes erregimenen baten pean.

Aipatu ditugun Alegazio horiei, 001 eta 189 zenbakikoak, hain zuzen ere, gai berdinak lantzen dituztenez, Kontsiderazio eta Ondorio berdinak dagozkie, ondoren azaltzen direnak:

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzian eskatutakoarekin loturik, aipatzekoa da, beharrezkoa dela esparru honen helburu nagusia mantentzea, helburu hori baita lur bat zesioan eskuratzea, azalera hori ezinbestekoa delako bertan eskola ekipamendu bat egokitzeko asmoa izateagatik. Hornidura mota hori beharrezkoa da eremurako eta proposatutako kokaleku horixe da egokiena esparruaren goiko aldean dagoelako, puntu distantziakidea izaki Irungo Ekialdeko bizileku garapenetatik.

Helburu hori bideragarria izan dadin lortzeko aurreikusi da, hain zuzen ere, bizileku antolamendua egokitzea esparruaren beheko aldean, eta horrenbestez, esparru horretarako finkatutako mugak mantentzera behartzen gaitu gorabehera horrek. Halatan, ezin da bi eremutan banatu, alegazioan eskatzen den bezala, hala eginez gero ez bailitzateke bilduko beharreko neurriak dituen lur bat zesioan eskuratu ahal izateko aprobetxamendu nahikoa.

Hala ere, jende aurreko informaziorako prozesua zela-eta, geroago egindako azterketa baten ondoren, xeheago aztertu da esparrua, eta aintzat hartu da hasieran finkatutako eraikigarritasuna handitzeko aukera. Horretan oinarriturik, 5.121 m^2-ko eraikigarritasuna onartu ahal izango litzateke sestra gainean, beheko solairuak (erdisotoan) eta goiko hiru solairuk osatutako eraikuntza jaso izateagatik esparruaren beheko aldean, Dario de Regoyos kalera ematen duena, eta beste hiru eraikuntza bakan, aurreko eraikin horren paraleloan, sendotu beharreko eraikuntzaren luzapen gisa, beheko solairuak (erdisotoan) eta goiko hiru solairuk osatua hura ere.

Era berean, aldatu egin da lurraren sestrapeko aprobetxamenduari dagokiona, eta sestrapean sestra gainean ezarritako eraikigarritasunaren % 100 eraikitzeko aukera ematen da orain, eta baita sestra gainean finkatutako eraikigarritasunaren % 40 gehienez hirugarren sektoreko erabilerarako izateko aukera ere.

Indarrean dagoen legerian gutxieneko gisa finkatutako 0,4 m^2/ m^2-ko eraikigarritasun indizea baino handiagoa da eraikigarritasun hori, 0,68 m^2/ m^2-ko koefizientea osatzen baitu bizileku gisa kalifikatutako (Sistema Orokorretarako lurzoru azalera kenduta horrenbestez) azalerarekiko, eta esparru hau dagoen inguruarekin bat definitu da, ulertzen baita guztiz indize egokia dela eremurako deskribatutako antolamendu helburuak betetzeko.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, finkatutako eraikigarritasuna handituko da, baina azaldutako irizpideak kontuan harturik betiere. Aldiz, esparrua zatitzeko

aukera ez da aintzat hartuko eta haren mugak mantendu egingo dira hasierako onarpen dokumentuan zeuden bezala.

001	8.3.04 – **Postetxea.** Itzultzeko edo konpentsatzeko eskatzen dute idatzian.

Bi zati ditu alegazio honek.

Bigarren zatian Lastaola Postetxea esparrua aipatzen dute eta adierazten dute esparru horren zati bat jada zesioan eman zitzaiola Udalari, 0,458 m²/m² aprobetxamendua duena, eta horretan oinarriturik itzulera tramitatu ahal izango dutela alegatzaileek.

189	8.3.04 – **Postetxea**– Zesioan eman eta birkalifikatutako lurrengatik konpentsazioa eskatzen dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Lau Zati ditu alegazio honek, leku desberdinetan dauden eremuei dagozkienak.

Alegazioaren bigarren zatiak 8.3.04 Postetxea esparrua du mintzagai eta harekin loturik, Lastaolan egonik, Hirigintza Hitzarmenaren bidez 1997ko otsailaren 6an zesioan eman ziren lur batzuk, esparru hari zegozkion aprobetxamenduen arabera eta garai hartan nagusi ziren hirigintza zehaztapenei jarraiki. Aipaturiko lur horietan aldaketak izan direnez, hala aprobetxamenduan nola erabileran, hornidura erabilera izatetik bizileku erabilera izatera pasa baita, horrek aldatu egingo lituzke Hitzarmen hura sinatzeko oinarritzat hartu ziren baldintza ekonomikoak, eta horrenbestez, beste balorazio bat egin beharko litzatekeela eskatzen du.

Aipatu ditugun Alegazio horiei, 001 eta 189 zenbakikoak, hain zuzen ere, gai berdinak lantzen dituztenez, Kontsiderazio eta Ondorio berdinak dagozkie, ondoren azaltzen direnak:

KONTSIDERAZIOAK:

Egindako erreklamazio horri dagokionean, aipatzekoa da, aurreko plangintza baten gauzatzearekin loturiko kontu juridikoak esparruak garatuko dituzten kudeaketa prozesuen barnean aztertu beharko direla, eta horixe bera gertatzen da kasu honetan ere.

Hala ere, Plan Nagusiaren berrikuspen honen hasierako onarpen dokumentuan finkatutako eraikigarritasunari dagokionean, eraikigarritasun hori mantendu egin behar da, Behobia auzo osorako aintzat hartutakoarekin bat datorren profil batean oinarriturik kalkulatu baita, hauxe da, beheko solairua, goiko hiru solairu eta atikoa atzeraemana kalearen aurrealdean, beheko solairua eta lau goiko solairu Mendiperekin elkartzen den aurrealdean, eta azkenik, beheko solairua eta bost goiko solairu erdialdean, biribilgunearen ondoan.

Hala ere, eta informazio moduan soilik, adierazten da, Plan Nagusiaren hasierako onarpen dokumentuaren baldintzak berraztertu egin direla lurren sestrapeko aprobetxamenduei dagokienean, eta beste esparruetan bezala, sestrapeko eraikigarritasuna handitu daitekeela sestra gainean finkatutakoaren % 100era eta % 40an ezartzen dela hirugarren sektoreko erabilerarako portzentaje gorena.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazio hau, idatzian azaltzen den kontua esparrua garatu behar duen plangintzaren barnean konpondu beharko delako.

128 8.3.05 **- Mendipe gasolindegia.** HAPNaren aurka ageri dira idatzian, baina ez dute argudio edo planteamendu alternatiborik azaltzen.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Mendipeko aldea, gasolindegia dagoen lekua, berritu edo aldatzearen aurka ageri da alegaziogilea, baina ez du zehatz esaten zeren aurka dagoen eta ez du aurka egote horren arrazoirik ematen, eta ezta inolako alternatibarik ere HAPNan proposatutakoarekiko.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan adierazitakoari dagokionean, esan behar da, 2007ko irailaren 29an betiko onartu zen Barne Erreformarako Plan Bereziak esparru honetarako jasotako antolamendu irizpideak mantentzea jasotzen duela Irungo Plan Nagusi berriak, esparruaren Mendebaldean aurreikusitakoa izan ezik, garapen plangintza honetan definituriko 1. Esku hartze Unitatearekin loturik.

RB-1 lursailari dagokio Eraikuntza Unitate hau, bertan hirugarren sektoreko merkataritza erabilerarako hainbat lokal daude gaur egun, eta erreferentziako plangintzan xedaturikoa aplikatuta, dauden eraikinen gainean eraikitzeko aukera jasotzen da.

Esparru honetarako aurreikusitako mugaketa mantentzea erabakitzen da orain, baina eraikigarritasuna handituta, esparruaren mendebaldean beste eraikin bat egiteko

aukera izateko, beheko solairua eta goiko lau solairuko profilarekin gehienez, “Lastaola Postetxea” esparruan aintzat hartutako antolamenduarekin eta ekialdean jada aurreikusitako eraikinarekin, “Mendipe" esparru honetan sartu hura, bat etorriz.

Era berean, gainerako hirigintza zehaztapenak ere mantendu egingo dira, eta bereziki, gasolindegirako lursailari dagozkionak eta aurreikusitako sarbideei eta zirkulazioei dagozkienak, eta baita inguruko biribilguneekiko jada onartutako lotura ere. Horrek guztiak aukera emango du kokagune horretara erraz sartzeko.

Horregatik guztiagatik, ulertzen da, orain esparru honetarako aurreikusitako esku hartzeak ez dituela kaltetzen alegaziogilearen eskubideak eta haren helburua dela esparru honetarako deskribaturiko helburuak lortzea, maila nagusiko plangintza batek duen aldatzeko gaitasunaren babesean betiere, eta kontuan izanik proposaturiko esku hartzeak hirigintza mailan onura handia ekarriko diola Behobia auzoari. Bestalde, erreferentziako Plan Bereziaren aldaketak eragindako gorabehera juridikoa, hala behar badu, aztertu ahal izango da esparru honen garapenerako kudeaketa prozesuetan.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio hau, eta horrenbestez, mantendu egingo dira erreferentziako plangintzak gasolindegirako aurreikusitako esparruaren mugaketa eta funtzionaltasuna, baina esparruaren mendebaldean aurreikusitako eraikigarritasunaren aldaketa aintzat hartuta.

069 8.3.12 – **Pausu**. Aprobetxamendua emendatzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak Behobiako Merkataritza Guneko 27 jabeen komunitatearen interesak eta proiektuak defendatzen ditu idatzian, bere ustez, haiek kaltetu egingo bailirateke HAPNaren zehaztapenekin.

Alegazioan, merkataritza gunearen eta berriki aurkeztutako aurreproiektuen historiarekin hasi, eta halako argudio batzuk azaltzen dira, eta Behobiako merkataritza gune berriaren bideragarritasunaren arazoa da horien artean aipagarriena. Gipuzkoako Merkataritza Ganberari eskatu zitzaion azterketa hori eta osorik aurkezten da Eranskin gisa.

Azterketa horretatik ateratako hainbat konklusio nabarmentzen dira idatzian, inguruko merkataritza guneek eragiten duten lehiagatik berritzeko beharra, berritze horrek ez duela eraginik izango merkataritza irundarrean, merkataritza, aparkaleku, hotel eta ostalaritza eskaintzak handitzeko beharra, eta azkenik, berritze lan hori aurrera eramateko beharko den zenbateko ekonomikoaren garrantzia, horrek guztiak HAPNan aurreikusitako aprobetxamendua handitzeko beharra eragiten baitu.

Ondoren paragrafo batzuk nabarmentzen dituzte HAPNaren Memoriatik, Behobian merkataritza garapena aurrera eramateko komenigarritasuna baieztatuko luketenak, bai modu zehatzean bai, oro har, hirugarren sektoreko erabilerei dagokienean, edo mugaldeko eremuaren eta haren aprobetxamenduaren garrantzia, edo erabileren okupazioa maximizatzeko beharra, edo ekimen pribatuarekiko lankidetzaren inguruan. Alegaziogileen iritziz, irizpide horiek ez lirateke eragozpen izango Behobiako merkataritza gunea suspertzeko eta zabaltzeko orduan, alderantziz baizik.

HAPNak proposaturiko esparru berria eratzearen aurka daude alegaziogileak, Mendipe deituriko lehengoaren zati bat hartuko luke horrek, onartu bai baina gauzatu ez den BEPB batek arautzen duena, haien iritziz ez baita hori justifikatuko duen arrazoirik eman. Adierazten dute modu horretan Mendipeko eremuko jabeen mende geratuko liratekeela, eta gainera haiek gehiengoa izango liratekeela.

Era berean, errepidearen beste aldean dauden merkataritza instalazioen berrantolamendua esparruaren barnean jasotzearen aurka ageri dira alegaziogileak; gauzatze epe bat ez jartzearen aurka; baldintzak ondorengo Plan Berezi baten esku uztearen aurka; errepidearen beste aldean dauden hirugarren sektoreko erabileren bizkar ustez egiten den bizileku aprobetxamenduen bikoizketaren aurka; tratu desberdina ematearen aurka 5 solairuko profilak onartzen direlako etxebizitzetarako eta 2 besterik ez merkataritza gunerako; merkataritza eremuarekin alderatzen badugu bizileku eremuari ustez ematen zaion aldeko tratuaren aurka; beren iritziz sestra gaineko 3.800 m²-en esleipenarekin eragiten den ezintasunaren aurka, eta azkenik, batez besteko eraikigarritasunaren % 5etik gorako aldearekin bere garaian bi esku hartze unitate mugatzeko ezintasun legalaren aurka.

Alegazioa bukatzeko, eskatzen dute 8.3.12 Pausu esparrutik ateratzeko bidearen beste aldean dauden lurrak, eta HAPNak emandako aprobetxamenduen gainetik % 20 handitzeko. Behar izanez gero, hirigintza hitzarmen bat sinatzea proposatzen dute, hartan, besteak beste, Mendipen aurreikusitako jardueretako batzuk hartzearen inguruko konpromisoak jaso ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan eskatutakoari dagokionean, aipatzekoa da, Irungo Plan Nagusi berriaren jende aurreko informazio-tramitea zela-eta, esparru honetarako hirigintza zehaztapenak xehe aztertu direla berau garatzeko baldintzak finkatu ahal izateko, kontuan izanik, gainera, zailtasun bereziak egon litezkeela kudeaketan.

Horren haritik, eta alegazio honetan eskatutakoari dagokionean, mantendu egingo da lehen definitutako 3.800 m^2-ko hirigintza eraikigarritasuna sestra gainean. Endarlatsa hiribidearen aldean eta auzoko eliza dagoen eremuan beheko solairuak eta goiko solairu batek osatutako profila aintzat hartu ondoko emaitza da hori, baina antolamenduaren puntu berezi batzuetan profil hori handitzeko aukera ere jaso da, bi fatxada horiek elkartzen diren lekuan, esate baterako, aurretik dagoen biribilgunetik hurbilen egokituriko aldean.

Eraikigarritasun hori ezartzeko aukera eman duen antolamendu irizpide horrek, aurrera eramango den plangintza xehearen barnean garatu egin beharko bada ere, aintzat hartu du esparrua zer-nolako inguruan dagoen eta baita beste hainbat alderdi ere, Behobia auzoko egitura morfologikoaren zati gisa etxe sai hori berreskuratzeko helburuak, antolamendua aurretik dauden eta proposatu diren espazioekin eta eraikuntzekin txertatzeko aukera, eta esku hartze honen hirugarren sektoreko erabilerara egokitzea, eraiki beharreko solairu bakoitzerako bizileku erabilera izango balu beharko lukeena baino altuera handiagoa jasotzeko beharra aintzat hartuz.

Ondorioz, egoera partikular horiek guztiak aintzat hartu ondoren sortutako eraikigarritasuna, haren barnean sartuta sestra gainean eraikitako azalera beheko solairuetan arteko solairuak egiteko, 2.588 m^2 handituko da aurretik zegoenarekiko. Era berean, sestrapean 9.000 m^2-ko eraikigarritasuna ezarri da, hirugarren sektoreko erabileretarako eta erabilera nagusiaren erabilera osagarrietarako hura ere, batera aztertu beharko litzatekeena merkataritza proposamen berriaren zati gisa.

Plan Nagusiaren arabera, etorkizuneko merkataritza gune horren ezaugarriek, jabeen eskakizunei erantzuteaz gainera, aintzat hartu behar dituzte inguruan eta kokatzen den lekuan dauden arazoak, eta bereziki, hiri espazioa berreskuratzen eta inguruko jardueren funtzionaltasuna lortzen lagundu behar dute.

Horri dagokionean, ezinbestekotzat hartzen da halaber Endarlatsa hiribidea egokitzeko beharra esku hartze horretara ematen duen zatian, hiri espazio bat osatuz Lastaola Postetxea esparruan aurreikusitakoaren luzapen gisa eta Ekialdean dagoen biribilgunearekiko lotura ziurtatuz.

Horrenbestez, merkataritza erabilera berrien antolamenduak lerrokadura berriak finkatu beharko ditu Endarlatsa hiribiderako aurreikusitako hiri espazioarekin bat eginez; izan ere, esku hartze berri horrek behar bezala funtzionatu behar du hiri espazio horren gauzatzea guztiz egina ez badago ere.

Hala ere, eta alegazio honetan egindako kontsiderazioak kontuan izanik, Hasierako Onarpen dokumentuan esparru honetarako proposatutako mugaketa berraztertzea planteatzen da eta hiribidearen bi aldeetan dauden lurren garapena eta kudeaketa bereiz egitea proposatzen da, Mendipeko eta Pausuko esparruetarako jasotako zehaztapenak bereizita horrenbestez.

Eta hori egin daiteke, Endarlatsa hiribidearen funtzionamendu egokiaren azterketa xehea, hala behar badu mugikortasun sistema berrien koexistentzia, merkataritza establezimenduetarako sarbideak, kaleko bi aldeen arteko oinezkoentzako lotura eta abar aintzat harturik, ondo asko zehaztu daitekeelako dagozkion garapenerako proiektuen bidez, eta horiek guztiz bateragarriak izan daitezke bi esparruen garapen independentearekin.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio hau, eta horrenbestez, Pausu esparrutik aterako dira Endarlatsa hiribidearen beste aldean dauden lurrak, eta jada onartutako Mendipe esparruaren mugen barnean mantenduko dira horiek.

Alegazioa ezetsi egingo da finkatutako eraikigarritasuna handitzeko eskaerari dagokionean.

070 eta 114 8.3.12 – **Pausu.** Lur batzuk Mendipe esparrutik ateratzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du 8.3.12 Pausu esparrutik ateratzeko bidearen beste aldean dauden lurrak, hasieran 8.3.05 esparruan zeudenak. Argudio gisa adierazten du Mendipeko esparru horretarako jada hasia dela hirigintza antolamendua gauzatzeko prozesua, 2008ko abenduan behin betiko onartua geratu zelako BEPBaren Urbanizazio Jarduerarako Programa, zegokion azken antolamenduarekin.

Gainera, adierazten dute HAPNaren Aurrerakinak bereiz jasotzen zuela PAUSUko esparrua; Hasierako Onarpen dokumentuak ez dituela arrazoitzen eta justifikatzen aldaketa horiek; orain esparru bakar batean bildu diren lurren aurreko egoerak oso

desberdinak direla, jatorri publiko eta pribatu desberdinetako egoerarekin; eta aurreikusitako birmoldatze jarduerak ere garrantzi desberdinekoak direla.

Azkenik, adierazten dute merkataritza eremurako bereiz garatzeko eredua bateragarria izango litzatekeela espazio publikoa HAPNan aurreikusitako moduan bideratu eta antolatzearekin. Gero eskatzen dute 8.3.12 Pausu esparrutik ateratzeko bidearen beste aldean dauden lurrak, eta horiek berriro ere Mendipe esparruaren barnean sartzeko dagokion BEPBan jasotako baldintza berdinetan edo antzekoetan, edo hala behar badu, esparru independente batean dagozkion aurreikuspenekin.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan eskatutakoari dagokionean, aipatzekoa da, Irungo Plan Nagusi berriaren jende aurreko informazio-tramitea zela-eta, esparru honetarako hirigintza zehaztapenak xehe aztertu direla berau garatzeko baldintzak finkatu ahal izateko, kontuan izanik, gainera, zailtasun bereziak egon litezkeela kudeaketan.

Horren haritik, mantendu egingo da lehen definitutako 3.800 m^2-ko hirigintza eraikigarritasuna sestra gainean. Endarlatsa hiribidearen aldean eta auzoko eliza dagoen eremuan beheko solairuak eta goiko solairu batek osatutako profila aintzat hartu ondoko emaitza da hori, baina antolamenduaren puntu berezi batzuetan profil hori handitzeko aukera ere jaso da, bi fatxada horiek elkartzen diren lekuan, esate baterako, aurretik dagoen biribilgunetik hurbilen egokituriko aldean.

Eraikigarritasun hori ezartzeko aukera eman duen antolamendu irizpide horrek, aurrera eramango den plangintza xehearen barnean garatu egin beharko bada ere, aintzat hartu du esparrua zer-nolako inguruan dagoen eta baita beste hainbat alderdi ere, Behobia auzoko egitura morfologikoaren zati gisa etxe sai hori berreskuratzeko helburuak, antolamendua aurretik dauden eta proposatu diren espazioekin eta eraikuntzekin txertatzeko aukera, eta esku hartze honen hirugarren sektoreko erabilerara egokitzea, eraiki beharreko solairu bakoitzerako bizileku erabilera izango balu beharko lukeena baino altuera handiagoa jasotzeko beharra aintzat hartuz.

Ondorioz, egoera partikular horiek guztiak aintzat hartu ondoren sortutako eraikigarritasuna, haren barnean sartuta sestra gainean eraikitako azalera beheko solairuetan arteko solairuak egiteko, 2.588 m^2 handituko da aurretik zegoenarekiko. Era berean, sestrapean 9.000 m2-ko eraikigarritasuna ezarri da, hirugarren sektoreko erabileretarako eta erabilera nagusiaren erabilera osagarrietarako hura ere, batera aztertu beharko litzatekeena merkataritza proposamen berriaren zati gisa.

Halaz ere, Plan Nagusiaren arabera, etorkizuneko merkataritza gune horren ezaugarriek, jabeen eskakizunei erantzuteaz gainera, aintzat hartu behar dituzte inguruan eta kokatzen den lekuan dauden arazoak, eta bereziki, hiri espazioa berreskuratzen eta inguruko jardueren funtzionaltasuna lortzen lagundu behar dute.

Horri dagokionean, ezinbestekotzat hartzen da halaber Endarlatsa hiribidea egokitzeko beharra esku hartze horretara ematen duen zatian, hiri espazio bat osatuz Lastaola Postetxea esparruan aurreikusitakoaren luzapen gisa eta Ekialdean dagoen biribilgunearekiko lotura ziurtatuz.

Horrenbestez, merkataritza erabilera hauen antolamenduak lerrokadura berriak finkatu beharko ditu Endarlatsa hiribiderako aurreikusitako hiri espazioarekin bat eginez; izan ere, esku hartze berri horrek behar bezala funtzionatu behar du hiri espazio horren gauzatzea guztiz egina ez badago ere.

Hala ere, eta alegazio honetan egindako kontsiderazioak kontuan izanik, Hasierako Onarpen dokumentuan esparru honetarako proposatutako mugaketa berraztertzea planteatzen da eta hiribidearen bi aldeetan dauden lurren garapena eta kudeaketa bereiz egitea proposatzen da, Mendipeko eta Pausuko esparruetarako jasotako zehaztapenak bereizita horrenbestez.

Eta hori egin daiteke, Endarlatsa hiribidearen funtzionamendu egokiaren azterketa xehea, hala behar badu mugikortasun sistema berrien koexistentzia, merkataritza establezimenduetarako sarbideak, kaleko bi aldeen arteko oinezkoentzako lotura eta abar aintzat harturik, ondo asko zehaztu daitekeelako dagozkion garapenerako proiektuen bidez, eta horiek guztiz bateragarriak izan daitezke bi esparruen garapen independentearekin.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazio hau, eta horrenbestez, kanpoan utziko dira Mendipe esparruko lurrak.

1.2.- ALEGAZIOAK ZORU URBANIZAEZINEAN

006 Nekazaritza Jarduera osagarriak. Okupazio sozialerako baratze/aisiarako lurren gaiari alternatiba bat emateko eskatzen du partikular batek.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du kontuan hartzeko Osinbiribilen hustu diren lurrak aisiarako landa/nekazaritza jardueretarako eta osagarri ekonomikorako erabiltzeko aukera, bertan, jolas parkeak edo aisialdi baratzeak egiteko kokaleku alternatibo batean eta beste edozein ekipamendu bezala hartuta.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegaziogileak ematen dituen ikuspuntuek badute interesa izaera osagarria zuten nekazaritza jarduerak zeudela diolako. Aspalditik, herritar guztiek erabil dezaten hiri parke bilakatzeko xedea zuten lur batzuetan egiten ziren jarduera horiek.

Inolako zalantzarik ez dago jarduera horiek onura ekonomikoa ekarri dietela, maila txikian izan bada ere, Osinbiribileko lurren okupatzaileei, eta kasuren batean osagarri funtzioa izan dutela aisiarako jarduera gisa.

Halaz ere, eta abantaila horiek kontuan izan arren, hainbat arazo planteatzen dira era honetako lurretan, arauen bidez erregulatu behar dira ezinbestean, sarbideak eta gutxieneko azpiegiturak behar dituzte, baliabideak behar bezala kudeatu behar dira, batik bat ura, zaborrak eta hondakinak behar bezala bildu eta antolatu behar dira, uholdeak izateko arazoak, eta abar.

Horregatik, komenigarria litzateke jarduera horiek berregokitu ahal izateko gutxieneko hirigintza berme batzuk izatea, eta era berean, aurreko paragrafoan aipatutako arazo horiek guztiak behar bezala eta guztientzako modu egokian bideratzeko oinarriak ezartzea. Izaera soziala edo ekoizpena ere, munta txikikoa izan arren, guztiz garrantzitsua izanda ere, ezinbestekoa da hirigintza izaerako tresna batean finkatu eta arautzea kokalekua, mugak eta gainerako baldintza guztiak.

Horretarako, ahal izanez gero, Plan Nagusiak aurreikusitako Zoru Urbanizaezineko bi Plan Berezietakoren batean, bai Olaberriako Haranekoan bai Ibarrola-Meaka errekaren ingurukoan, jaso litekeen erabilera gisa har liteke. Ekimen partikularrak Plan Berezi espezifiko bat aurkezteko aukera ere plantea liteke.

Horrelako ezaugarriak dituen dokumentu batek planteatu eta bideratu behar lituzke arautu behar diren kontu guztiak eta berme handiagoa emango lioke, hala hiriari nola erabiltzaileei, baratze txikien jarduera horri berriro ekiteko, baina lur urbanizaezinetan kokaturik betiere, hasiera batean bederen Plan Nagusiaren arabera beharreko ezaugarriak izango dituzten lurrak, hauxe da, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza Eremu (RAC) gisa kalifikaturikoak, mota horretako lurretan onartzen baitira era honetako nekazaritza jarduerak Lehen Mailako Baliabideen Ustiapena – Nekazaritza Erabilera ez profesionalizatuak kontzeptuaren barnean.

Era berean, eta baterako esku hartzea planteatzean, horrek aukera emango luke Plan Bereziaren bidez, eta araudi orokorrari jarraiki, halako baldintza partikular eta espezifiko batzuk finkatzeko, esate baterako, lursailen tamaina egokitzeko, haizeetatik

eta hotzetik babesteko instalazioak ezartzeko, lanabesak gordetzeko etxolen tamaina finkatzeko, sarbideak antolatzeko eta gainerako baliabide guztiak antolatzeko ere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio hau, eta horrenbestez, jada definituriko Plan Berezietan jaso liteke eremu horietan baratze txikiak ezartzeko aukera, eta Plan Berezi proiektuak aurkeztu ere egin litezke horren haritik, Plan Nagusiaren arabera, era horretako nekazaritza erabilera ez profesionalizatuak aurrera eramateko ezaugarri egokiak dituzten lurren eremu zehatz hori bideratu ahal izateko.

112 Burdinolak eta errotak. Burdinolak eta errotak eta beste eremu batzuk eraiki / kontserbatzeko baldintzak xeheago azaltzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du, lehenengo, neurri bateko babesa behar duten burdinolei eta errotei buruzko Arkitektura Ondarearen Katalogoko Fitxan sartzeko haiek osatzen dituzten elementuak, babestu beharreko eremua eta kontrol arkeologikoa behar duen eremua mugatzeko, eta neurri bateko babes maila horretan sartu ahal izateko babes mota horrek gai dituen egiturako elementuak.

Bigarren, eskatzen du San Antongo eta Artiako ermiten inguruan kontrol arkeologikoa behar duen eremu gisa hartzeko eremu bat, eta hirugarren, hori guztia jasotzeko Katalogoko ondarearen Fitxetan.

KONTSIDERAZIOAK:

Katalogoko ondarearen Fitxetan badago zati bat, hain zuzen ere, babestu beharreko eraikuntzen edo eraikuntza multzoen deskribapena jasotzen duena, eta haien egungo erabilera ere zehazten da bertan. Era berean, kasu bakoitzean eman behar den babes maila adierazten da Fitxa bakoitzean, eta baita aintzat hartu beharreko irizpide zehatzak ere. Bakoitzari dagokion planoan adierazten da babestu beharreko elementuen jokaleku zehatza.

Babes maila bakoitzaren arabera badira Arau espezifiko batzuk, bai molde Orokorrekoak bai molde Partikularrekoak, eta zein obra egin daitezkeen eta zein esku hartze onartzen diren adierazten da horietan. Era berean, Irizpide Orokor batzuk sartu dira proiektuetan deskribatutako obrak baimentzeko eta gauzatzeko, eta baita beharreko prebentzio neurriak ere. Obrak edo egokitze lanak egiteko bere garaian egingo den eskaeraren arabera aplikatuko dira horiek.

Ulertzen da arau eta Fitxa horiek guztiak aski direla babes neurriak zehatz ezartzeko, babestutako elementuen egungo egoera aldatzeko edozein proiekturen aurrean. Era horretan egin dira funtsean Ondare Fitxa guztiak, bai babes handiena behar dutenetan, babes osoa eta monumentala, bai babes txikiagoa behar dutenetan, neurri bateko babesa edo ingurumenekoa, eta ez luke inolako zentzurik izango orain eraikin batzuentzako bakarrik aldatzeak guztietarako aintzat hartu den sistematika.

Proiektu bat aurrera eramateko eskaera egiteko bere garaian aurkez daitekeen edozein jarduera espedientek xehe zehaztu beharko du zein eremutan edo zein zatitan egin nahi den egokitze edo eraldatze lan hori, eta Udalak beharreko erabakia hartuko du Katalogoko Fitxen zehaztapenak nahiz kasu bakoitzean aplikatu beharreko

araudiak edo araudiek xedaturikoa kontuan izanik, eta egokitzat hartzen diren informazio osagarria edo miaketak eskatu ahal izango dira une horretan.

Aipaturiko ermita horien inguruan kontrol arkeologikoa behar duten eremu berriak une honetan jasotzeko eskaerari dagokionean, ulertzen da alegaziogileari iruditzen zaiola hori egitea komeni dela bere garaian babestu beharreko elementuak aurkitzen badira ere. Nolanahi ere, era horretako egoerak gerta litezke edozein unetan eta udal barrutiko beste edozein lekutan ere. Ezin denez aurreikusi nola eta zein modutan gerta daitekeen, hain zuzen ere horrexegatik jaso dira jarduteko berariazko neurri batzuk hondakinak agertuz gero aurrera eraman ahal izateko, eta hori betiere aplikatu ahal izango da horrelakoak gertatzean. Arrazoi horiengatik une honetan ez da Ondarearen Katalogoa aldatzeko beharrik ikusten.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, ez baita beharrezkotzat hartzen Katalogoko Fitxa batzuetarako proposatutako aldaketa horiek egitea.

130 Iparragirre baserria. Etorkizunean eraikiko den bidegorriak bere jabetzan eraginik ez izateko eskatzen du.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Egungo errepidetik, Belitz kaletik hasi eta ur araztegiraino bidegorria eraikitzeko proposamenari dagokionean, eskatzen du etorkizuneko eraikuntza horrek eraginik ez izateko jabetza pribatuetan. Horretarako, proposatzen du aldi berean izatea edo bestela eskuineko ertzean eraikitzea, autopistako lurren inguruan, haren lurrak hartuz.

KONTSIDERAZIOAK:

Une honetan eta Plan Nagusiaren dokumentuaren bidez ezin da eskatutako zehaztapen hori egin, etorkizuneko bidegorriak alegatzaileak mintzagai dituen lur pribatu horien zati bat hartuko duen jakiteko; izan ere, zehaztapen hori ez da Plan Nagusiaren egitekoa, eta gainera, orain ezin da jakin egin beharreko bidegorriaren proiektuaren trazatu zehatza zein izango den.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, egindako eskaera ezin baita onartu.

131 Iparragirre baserria. Etorkizuneko ur hornidurarako hodien instalazioa bere lurretan ez ezartzeko eskatzen du.

Txingudiko Urak elkarteak gaur egun okupaturikoak edo hitzartutakoak baino lur gehiago ez okupatzeko eskatzen du ez zortasuna ezartzeagatik, aldi baterakoa edo betikoa, ez desjabetuta, eta hodi horiek bide publikoetatik eramateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Une honetan eta Plan Nagusiaren dokumentuaren bidez ezin da eskatutako zehaztapen hori egin, bertan aurreikusitako hornidura Sareak alegatzaileak mintzagai dituen lur pribatu horien zati bat hartuko duen jakiteko; izan ere, zehaztapen hori ez da Plan Nagusiaren egitekoa, eta gainera, orain ezin da jakin Planean modu orokorrean jasotakoa betetzeko egin beharreko azpiegitura proiektuaren trazatu zehatza zein izango den.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, egindako eskaera ezin baita onartu.

132 Iparragirre baserria. Industria erabilera eskatzen du jada nabe zahar bat duen bere jabetzako lursail baterako.

Adierazten du, alegazioarekin batera aurkezten duen dokumentazio grafikoan jasotako lursailean, bere garaian, autopistako obrak egitean harri lanekin loturiko eraikin gisa erabili zenean, izan zuen industria izaera emateko lursailean dagoen nabeari. Bere eskaeraren oinarri gisa esaten du bere garaian ez zuela landa erabilera izan, eraikuntza mantendu egin dela, autopistatik eta Oñaurreko eta Txenpereneako garapenetatik hurbil dagoela, eta autopistarekiko Hegoaldeko lotunea egitea aurreikusita dagoela. Une honetan zehazten ez badu ere, bere eskaeran esaten du lurraldean eragin txikia izango duen industria izaerako jarduera baterako kalifikatuta uzteko lursaila.

KONTSIDERAZIOAK:

Mintzagai dugun lursail hau zoru urbanizaezinean dago, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza Eremu Kategoriarekin. Oso erregulazio zehatza du eta bertan bideratu daitezkeen jarduerak zehazten dira, industria izaerakoak besteak beste, halako ezaugarri eta baldintza batzuk betetzen badituzte betiere.

Horregatik badirudi eskaera hori egin beharrik ez dagoela, alegaziogileak mintzagai duen jarduera zehatz horrek, zer den argi esaten ez badu ere, Araudian aurreikusitakoa betetzen ez badu bederen, eta batik bat zoru urbanizaezinaren Kategoria honi dagokionean, Erabilera globaleko eremuetan –Landa eremuak – RAC – Erabilera erregimena – Erabilera Baimenduak- aplikatu beharreko eraikuntza eta erabilera erregimen orokorrari buruzko 1.2.3 artikuluan xedaturikoa.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, ulertzen delako ez dagoela egiteko beharrik, hasierako onarpen dokumentuan ondo definitua dagoelako bertan egokitu daitezkeen industria erabilera batzuen erregulazioa.

1.3.- TALDEEN ETA ELKARTEEN ALEGAZIOAK

30	**030**	**Katea auzoko biztanleak.** 30 zenbakiko alegazioa eta hurrengoak. Hainbat alegazio aurkezten dituzte zenbait esparrurekin loturik

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

A) 1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena esparruari dagokionean, esparru honetako afekzio guztiak ezesteko eta Oiantzabaletaren eta lehengo N-1 errepidearen artean sarbideak eta irtenbideak hobetzeko eskatzen da.

B) 1.1.12: Araso Sasikoburua esparruari dagokionean, proposaturiko merkataritza erabileraren aurka daude eta industria erabileretarako izatea nahi dute.

C) Araba kaleko bidea lehenbailehen egiteko eskatzen dute auzoan zirkuitu bat ezarri ahal izateko, eta hainbat eraikinetako garajeetarako sarbideak kontuan izateko.

D) 1.2.13 – **Katea Erdialdea** esparruari dagokionean**,** RENFE – EUSKOTREN baterako geralekua Irungo erdialdekoarekin batera gauzatzeko eskatzen dute eta disuasio-aparkalekua "Irun – Mobel" aldean ezartzeko, egungo geralekutik gertuena baita. Gainera, eskatzen dute, Andrearriaga kalearen eta Araba kalearen artean esparru handi bat egokitzeko, auzoan dagoen berdegune eskasia pixka bat arintzeko.

E) Uste dute Araba kalean ez direla beharrezkoak biribilgune bat edo bi eta kale horren bi aldeetan aparkaleku guztiak mantentzeko eskatzen dute.

F) 2.1.08 **– Zabaleta** esparruari dagokionean**:** Esparru honekiko afekzio guztiak ezesteko eskatzen dute eta landa eremu urbanizaezin gisa sailkatzeko agroaldea erabilerarako.

KONTSIDERAZIOAK:

A) 1.1.11 "Oiantzabaletaren Luzapena" esparruari dagokionean, Hasierako Onarpen dokumentuan definituriko zehaztapenen aldaketa kontsideratu da esparru hori orain **zoru erreserba** gisa taxututa, Irungo eremuaren barnean berrezarri beharko liratekeen industria instalazioak, burdinbidera sarbidea behar dutenak, bertan **birkokatu ahal izateko**.

Gaur egun 0.2.01 "Geltoki Ingurua" esparruan leudeken jarduera ekonomiko batzuk izango lirateke, bere garaian lekuz aldatu ahal izateko era horretako esparru bat beharko luketenak. Alegazioak mintzagai duen 1.1.11. "Oiantzabaletaren Luzapena" esparruan jasoko litzateke aukera hori, eta hala behar badu, "Geltoki Ingurua" esparruan egongo diren beharren arabera garatuko da.

Horregatik, egokiagotzat hartu da Plan Nagusiaren dokumentuak sektorizatu gabeko zoru urbanizaezin erreserba gisa hartzea lur horiek, eta beraz, arestian aipatutako enpresa horiek birkokatzeko beharrak izatean bakarrik garatuko dira Sektorizazio Plan baten bidez. Plan horrek behar berrien arabera programatuko du esku hartzea.

Horrenbestez, eta esparru honetarako, Sektorizazio Plana izango da, Plan Nagusiko antolamendu estrukturala osatzen duen tresna gisa, sektorizatu beharreko lurzorua betiko egokitu eta haren mugaketa islatuko duena, eta plan horrek ezarriko du

hirigintza eraikigarritasuna, erabakiko du garatu beharreko erabilera eta finkatuko du erabilera bateragarriak zein diren.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, zoru urbanizaezinaren hirigintza erregimenean, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza kategorian (RAC), finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Hain zuzen ere Sektorizazio Planaren esparruan aztertu beharko da esparrurako sarbideen hobekuntza, baina betiere lehengo N-1 errepideko (orain GI-636) egungo lotura aintzat harturik Zaldunbordako lotunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez baitu autopistan sartzeko bidearekiko lotunearekin lotzeko aukerarik ematen.

B) 1.1.12: "Araso Sasikoburua" esparruari dagokionean, bidezkoa da esparru horretarako herritarren parte hartze prozesuan adostutakoa mantentzea. Plangintza honen Irizpide eta Helburuen dokumentuan islatuta dago hori.

Horri dagokionean, merkataritzakoak edo industriakoak ez diren hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako erabilera proposamena jaso da. Era berean, hirugarren sektoreko erabilera, zati batean edo osorik, merkataritza izaerakoa izateko aukera jaso da Plan Nagusian, hori bateragarria baldin bada Merkataritzarako Lurraldearen Arloko Planak ezarritako mugari begira Eusko Jaurlaritzak aurreikusitakoarekin.

C) Araba mendebaldea kaleari dagokionean, Plan Nagusiaren Berrikuspenak egokitzat hartu du bide hori egitea, Kateako bide sarearekin lotu ahal izateko, auzoaren inguruan zirkulazio perimetrala hobetuko duen eraztuna osa dezan Araba kaleak. Era berean, alegazioan adierazitakoa ontzat hartu da hasierako onarpen dokumentuan jasotako hirigintza zehaztapenak aldatzeari begira, eta orain bide berria egokitu egin behar da Araba kalearen egungo trazatuaren eta kale honen hegoaldean eta goiko aldean dauden eraikuntzetarako sarbideen artean dauden sestra aldeetara.

D) 1.2.13 – "**Katea Erdialdea"** esparruari dagokionean, Renfe – Euskotren baterako geralekua egitea lehentasunezko helburutzat hartu da. Irungo erdialdean egingo dena baino lehen edo aldi berean egingo da geraleku hori.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da, esparru honen kudeaketan ez-ezik, "Geltoki Ingurua" esparruarenean ere, esku hartuko duten administrazio desberdinen baitan egongo dela hori, eta horrenbestez, baldintza hori jaso beharko litzateke adostutakoa bideratuko duten garapenerako Hitzarmenetan.

Esparru honetarako helburuen artean dago halaber, aurreikusitako bide aldaketetan babesturik berdeguneak eta oinezkoentzako guneak sortzeko aukera, eta hala behar badu, burdinbide eremuaren gainean dauden zubiak kendu eta era horretan Elizatxo hiribidea auzorako berreskuratzeko aukera ere.

Disuasio-aparkalekuaren kokalekuaren definizio zehatzari dagokionean, esparrua garatuko duen Plan Berezian definitu beharko da hori. Garbi dago, nolanahi ere, sortutako arazo zehatzari erantzuna emateko helburuarekin kokatuko dela bere garaian aparkaleku hori.

E) 1.2.14: "Araba Ekialdea kalea" esparruari dagokionean, esan behar da, etorkizunean aztertu egin beharko dela ingurabidearen egitekoa finkatzeko konponbide zehatza, auzoko zirkulazio perimetrala bideratu behar baitu, eta esparru osorako tramitatuko den Urbanizazio Obren Proiektuaren esparruan formalizatu beharko dela.

Horrekin loturik, kalearen bi aldeetan dauden aparkalekuak mantentzeko kontua ere arestian aipaturiko Obra Proiektu horren esparruan aztertu beharko da. Orain bai egokitzat hartzen da Plan Nagusiak berak jada planteatzea Ekialderago dagoen biribilgunea kentzea, eta Aldundiaren errepidearekin lotzeko biribilgunea bakarrik uztea, horrek egiten baitio sarrera Olaberriako haranari, eta ikuspegi guztietatik begiratuta ezinbestekoa baita hain hierarkia eta funtzionamendu desberdinak dituzten bideak egoki artikulatzeko helburuari begira.

F) 2.1.08 – "Zabaleta" esparruari dagokionean, aintzat hartu da halaber Hasierako Onarpen dokumentuan jasotako zehaztapenak aldatzea, eta orain zoru erreserba gisa taxutzea esparru hori, Plan Nagusiak beste esparru batzuetarako egindako jarduera ekonomikoetarako aurreikuspenak erabat betetzen badira ekoizpen jardueren erabilerak bertan ezarri ahal izateko.

Horregatik, bidezkoagotzat eta egokiagotzat hartu da Plan Nagusiaren dokumentuak lur horiek sektorizatu gabeko zoru urbanizagarriaren erreserba gisa hartzea orain, eta enpresa berriak ezartzeko interes publikoko arrazoiak egotean soilik garatu ahal izango dira enpresa horiek Plan Nagusiko beste esparru batean ezarri ezin direnean esparru horiek erabat beteta daudelako edo bateraezinak direlako.

Horretarako, Sektorizazio Plana idatzi beharko da Plan Nagusiko antolamendu estrukturala osatzeko tresna gisa. Plan horrek behar berrien arabera programatuko du esku hartzea eta garapenerako beharreko hirigintza zehaztapenak finkatuko ditu, hirigintza eraikigarritasuna zehaztuko du eta aurrera eraman beharreko erabilera eta erabilera bateragarriak esleituko ditu.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, zoru urbanizaezinaren hirigintza erregimenean, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza kategorian (RAC), finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Lur horiek agroaldea erabilerarako zoru urbanizaezin gisa sailkatzeko proposamenari dagokionean, egia dena da autopistaren Hegoaldean badirela beste lur asko, hedadura handiagokoak eta anitzagoak, nekazaritza lurraren ezaugarrien ikuspegitik begiratuta egokiagoak eta, oro har, agroaldea edo antzeko erabilerak ezartzeko aproposagoak, baldin eta, jakina, Plan Nagusiak landa zoru kategoria bakoitzerako ezarritako arauak betetzen badira.

ERABAKIA:

> ARGUDIO horietan guztietan oinarriturik, eta alderdi bakoitzerako xehe azaldu den bezala, **zati batean onartu egingo da** A eta F puntuetan eskatutakoa, **1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena eta 2.1.08 – "Zabaleta"** esparruetako lurzoruen definizioari dagokionean, horiek jarduera ekonomikoetarako zoru gisa erreserbatuta, baina interes publikoko beharrak daudenean bakarrik garatu ahal izango dira. Era berean, **onartu egingo da** C, D eta E puntuetan eskatutakoa, eta horrenbestez dokumentua aldatu egingo da. Aldiz, **ezetsi egingo da 1.1.12: "Araso Sasikoburua"** esparruan garatu beharreko erabileren inguruan eskatutakoa.

015 LANDETXA AUZO ELKARTEA

ALEGAZIOAK JASOTAKO GAIAK LABURBILDUTA

Interes orokorreko gai batzuk aipatzen ditu idatzi honek, baina Katea auzoko hainbat eremurekin loturik, eta honako atal hauetan bil daitezke:

A) Landetxako Auzo Elkartearen ordezkariek proposatzen dute iraganeko industria kalifikazioetatik etorritako espazio galera konpentsatzeko, **industria pabilioien benetako okupazioaren azterketa egiteko** eta **aprobetxamendu handiagoa emateko**, lehentasuna emateko ingurumenari begira egokiak diren eta lanpostu gehiago sortzen dituzten jardueren instalazioari, eta eremuan nekazaritza eta abere-hazkuntza jarduerak bultzatzeko.

B) Era berean, Aranibarren eta aldirietako tren geltokiaren artean dagoen lurra **kirol ekipamendurako** izatea nahi dute.

C) Era berean, **Zabaleta esparruan nekazaritza eta abere-hazkuntza jarduerak bultzatzeko** proposamena egiten da idatzian, eta alderdi hori berriro ere jaso da idatzi horren azken puntuan.

Ondoren, **halako aldaketa batzuk proposatzen dira proposaturiko esparruetarako**, eta horiek guztiz bat datoz Katea auzoko hainbat bizilagunek aurkeztu dituzten alegazio batzuekin, berdin-berdinak baitira, hauxe da, 30 zenbakiko alegazioa eta jarraian datozen beste batzuk berdin-berdinak. Horrenbestez, horren inguruan egin diren kontsiderazio berdinak dagozkie alegazio horiei ere.

D) Oiantzabaletaren Luzapena esparruz du mintzagai alderdi horietan lehenengoak, esparru horretako afekzio guztiak ezesteko eta Oiantzabaletaren eta lehengo N-1 errepidearen artean sarbideak eta irtenbideak hobetzeko eskatzen dute.

E) Araso Sasikoburua esparruan merkataritza erabileraren aurka ageri dira idatzian eta industria erabileretarako izateko eskatzen dute.

F) Araba Mendebaldea esparruan bidea egiteko eskatzen dute, auzoan zirkuitu bat ezarri ahal izateko, eta hainbat eraikinetako garajeetarako sarbideak kontuan izateko eskatzen dute halaber.

G) Katea Erdialdea esparruan baterako geralekua eta Irungo erdialdekoa aldi berean egiteko eskatzen dute, eta disuasio-aparkalekua “Irun – Mobel” eremuan egiteko, Andrearriaga kalearen eta Araba kalearen arteko berdegune handiarekin batera.

H) Araba Ekialdea esparruan kalearen bi aldeetan dauden aparkaleku guztiak mantentzeko eskatzen dute idatzian, eta hasieran aurreikusitako biribilguneak kentzeko ere.

I) Azkenik, eta **Zabaleta** esparrurako afekzio guztiak kentzeko eskatzen dute eta lurrak agroaldea erabilerarako izateko. Memoriaren 3. kapituluan hori aipatzeko eskatzen dute halaber.

KONTSIDERAZIOAK:

Industria pabilioien benetako okupazioa aztertzeko eta aprobetxamendu handiagoa emateko eskaerarekin loturik **A atalean** laburbilduta azaldutakoari dagokionean, gogora ekarri behar da jada egin dela gaur egun dauden industria pabilioien egoeraren azterketa.

Era berean, esan behar da, udal poligonoetako lokalen eta pabilioien okupazioaren inguruan aspaldi ez dela egindako azterketa batean, Udalak horien jarraipena egiten baitu, ikusi dela krisi sozioekonomikoa handia izan arren, datuak ez direla ia batere aldatu aurreko azterketei dagokienean, okupazio maila handia baitute oraindik ere.

Aldiz, bai finkatu da jarduera ekonomikoen kalifikazio globala, eta aukera ematen du, dagokion hirigintza tresnaren bidez, hasieran onartuak ez zeuden industria erabilera batzuei edo hirugarren sektorekoei leku egiteko, edo bestela, erantzun egokia emateko une hauetan aurrera eramaten ari diren erabileren nahasketari eta bateragarritasunari, horiek sartzea zaila baitzen ohiko arauetan jasotako baldintzekin.

Gainera, hasieran onartutako Plan Nagusian bereizi egin ziren jada gauzatutako industria esparru eta hirugarren sektoreko esparru bakoitzeko jatorrizko plangintzako eraikigarritasun baldintzak, zegoen lursail bakoitza xehe aztertuta eta erregulazio berria aplikatuta IC edo IP kalifikazioei zegokienean, eraikinaren tipologia kontuan harturik betiere. IC kalifikazioari dagokionean, lerrokaduren eta profilen bidez arautua hura, lursail bakoitzean dagoen eraikuntzaren benetako gaitasunaren arabera finkatu dira horiek, eta industria lursailen IP kalifikazioaren kasuan, berriz, 1,30 m²c/m²-ko eraikigarritasuna finkatu da, eta horrenbestez, handitu egin dira erreferentziako jatorrizko plangintzek jasotako eraikigarritasunak.

Gainera, bi kalifikazio horietan proposatu da definitutako eraikigarritasunaren % 50 bitarte handitzea arteko solairuak eraikitzeko aukera. Hori ez da kontabilizatuko eraikigarritasun indizean, baina nolanahi ere bai kontuan izango da lizentziak baloratzeko garaian. Zehaztapen horrek nabarmen handitzen ditu finkatutako eraikuntza aukerak eta erantzuna ematen dio udalerrian gertatzen den egiazko egoera bati.

Aranibarren eta aldirietako tren geltokiaren artean dagoen lurra **kirol ekipamendurako** izateko eskaerari begira **B) atalean** laburbilduta azaldutakoari dagokionean, aipatzekoa da, idatzian mintzagai diren lur horiek jada definituta daudela Kirol Ekipamendu gisa eta Aranibarreko plangintza berezitik kanpo geratu direla, eta horrenbestez, erabil daitezke kirol ekipamendua egokitzeko.

Zabaleta esparruak afekziorik ez izateko eta bertan nekazaritza abere-hazkuntza jarduerak sustatzeko eskaerari begira **C) eta I) ataletan** laburbilduta azaldutakoari dagokionean, Hasierako Onarpen dokumentuan jasotako zehaztapenak aldatzeko aukera planteatu da, eta orain zoru erreserba gisa taxutzea esparru hori, Plan Nagusiak beste esparru batzuetarako egindako jarduera ekonomikoetarako aurreikuspenak erabat betetzen badira ekoizpen jardueren erabilerak bertan ezarri ahal izateko.

Horregatik, bidezkoagotzat eta egokiagotzat hartu da Plan Nagusiaren dokumentuak lur horiek sektorizatu gabeko zoru urbanizagarriaren erreserba gisa hartzea orain, eta enpresa berriak ezartzeko interes publikoko arrazoiak egotean soilik garatu ahal izango dira enpresa horiek Plan Nagusiko beste esparru batean ezarri ezin direnean esparru horiek erabat beteta daudelako edo bateraezinak direlako.

Horretarako, Sektorizazio Plana idatzi beharko da Plan Nagusiko antolamendu estrukturala osatzeko tresna gisa. Plan horrek behar berrien arabera programatuko du esku hartzea eta garapenerako beharreko hirigintza zehaztapenak finkatuko ditu, hirigintza eraikigarritasuna zehaztuko du eta aurrera eraman beharreko erabilera eta erabilera bateragarriak esleituko ditu.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, zoru urbanizaezinaren hirigintza erregimenean, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza kategorian (RAC), finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Lur horiek agroaldea erabilerarako zoru urbanizaezin gisa sailkatzeko proposamenari dagokionean, egia dena da autopistaren Hegoaldean badirela beste lur asko, hedadura handiagokoak eta anitzagoak, nekazaritza lurraren ezaugarrien ikuspegitik begiratuta egokiagoak eta, oro har, agroaldea edo antzeko erabilerak ezartzeko aproposagoak, baldin eta, jakina, Plan Nagusiak landa zoru kategoria bakoitzerako ezarritako arauak betetzen badira.

Oiantzabaletaren Luzapena esparruari begira **D atalean** adierazitakoari dagokionean, egia da aztertu egin behar dela esparru horretarako sarbideen hobekuntza, baina Zaldunbordako lotunean lehengo N-1 errepidearen loturak kontuan harturik, Gipuzkoako Aldundiak ez baitu onartzen autopistarako sarbideekiko lotunearekin elkartzea. Era berean, kontuan izan behar da esparru honen sailkapenaren aldaketa, sektorizatu gabeko zoru urbanizagarri gisa proposatzen baita orain, baina burdinbide sektorearekin loturiko industria instalazioak, trenbidearekin lotura zuzena behar dutenak, bertan kokatzeko aukera galdu gabe.

Zabaleta esparruaren kasurako bezalaxe, arestian aipaturiko enpresa horiek birkokatzeko beharrak izaten diren unean bakarrik garatu ahal izango dira lur hauek Sektorizazio Plan baten bidez. Plan horrek behar berrien arabera programatu beharko du esku hartzea.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, zoru urbanizaezinaren hirigintza erregimenean, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza kategorian (RAC), finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Sasikoburua esparruari begira **E atalean** adierazitakoari dagokionean, eta bertan ez badira ere zehazten eskatzen den aukera horren alde kontuan har litezkeen argudioak, badirudi komenigarria dela Irizpideetan eta Helburuetan aurreikusitakoa zuzenean jasotzen jarraitzea, jarduera ekonomikoen erabilera aukera guztiak zabalik utzita, baina hirugarren sektoreko erabilerei uko egin gabe. Era berean, komeni da dagokion Fitxan jasotako parametroak aldatzea, altuera gorenen eta profilen irizpide berrien arabera altuera handitu ahal izateko.

Araba Mendebaldea esparruari begira **F atalean** adierazitakoari dagokionean, badirudi egokia dela bide hori egiteko aukerari eustea, baina aldameneko lursailetara eta garajeetara sarbide guztiak errespetatuz. Nolanahi ere, adierazten da esparrutik atera dela lehen etxebizitza berriak kokatzeko zen udal lursaila, eta Espazio Libre gisa kalifikatua geratuko da hemendik aurrera. Era berean, beheko aldean eta esparruaren Iparraldean bizileku eraikin txiki bat lursailean eraikitzeko aukera jaso da, ikuspegi ekonomikotik begiratuta aurreikusitako bide horren gauzatzea erraztu ahal izateko.

Katea Erdialdea esparruari begira **G atalean** adierazitakoari dagokionean, tren geralekua aldi berean egiteko aukera jasota egongo da esparru honetarako helburuen artean, baina erabakitzen den betiko antolamenduaren baitan egongo da disuasio-

aparkalekuaren kokalekua, geralekutik ahalik eta hurbilen egongo dela ziurtatuz betiere.

Esparru honetarako helburuen artean dago halaber, aurreikusitako bide aldaketetan babesturik berdeguneak eta oinezkoentzako guneak sortzeko aukera, eta hala behar badu, burdinbide eremuaren gainean dauden zubiak kendu eta era horretan Elizatxo hiribidea auzorako berreskuratzeko aukera ere.

Araba Ekialdea esparruari begira **H atalean** adierazitakoari dagokionean, esan behar da soluzio zehatza etorkizunean aztertu beharko dela. Aldiz, bai egin daitekeena da Plan Nagusiak berak planteatzea Ekialderago dagoen biribilgunea kentzea, eta Aldundiaren errepidearekiko lotunekoa, Olaberriako haranera sarbidea egiten duena, soilik aintzat harturik. Orain kanpoan utzitako biribilgune hori behar baldin bada etorkizunean, betiere sartu ahal izango litzateke esparruaren mugaketa aldatuta.

ERABAKIA:

ARGUDIO horiek guztiak oinarritzat harturik, eta alderdi bakoitzerako azaldu den bezala, kontsideratzen da hasieran onartutako Plan Nagusiak jada jasotzen zituela idatzian aipatzen edo eskatzen diren kontuetako batzuk. Horixe da, hain zuzen ere, A eta B puntuetako argudioen kasua. Beste alderdi batzuetan, F, G eta H puntuetan eskatutakoetan, esate baterako, jaso egin dira alegaziogileen arrazoiak, eta horrenbestez aldatu egin da dokumentua. Beste hainbeste C, D eta I puntuei dagokienean ere, **1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena eta 2.1.08 – "Zabaleta"** esparruetako lurzoruak jarduera ekonomikoetarako zoru erreserba gisa definitu dira, baina interes publikoko beharrak daudenean soilik garatu ahal izango dira. E puntuko proposamenari dagokionean, **1.1.12: "Araso Sasikoburua"** esparruari begira bidezkoa da onartutako irizpideetan eta helburuetan jasotakoa mantentzea.

154 EKOLOGISTAK MARTXAN

ALEGAZIOAK JASOTAKO GAIAK LABURBILDUTA:

Interes orokorreko gai batzuk aipatzen ditu idatzi honek, eta honako atal hauetan bil daitezke:

A) Idatziaren lehen atalean **HAPNan** udalerrirako **aurreikusitako biztanlearen hazkundearen** kontua aipatzen da. Alderdi horretan eragina izan lezaketen hainbat kontu aipatzen dira, Natur Ondareari eta bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legea, esate baterako, lurralde eta hirigintza antolamenduaren gainetik ingurumenarekiko babesa nagusitzeko printzipio orokorrei dagokienean, Irungo natur eta landa ondarearen gainean proposaturiko esku hartze guztietan ardura-printzipioa aplikatzera behartu bailezake, horietako batzuetan hala egin ez denean.

Idatzian esaten da HAPNaren hasierako onarpen dokumentuak ez duela biztanleria hazkunde ez begetatiboa mugatzeko aukerarik planteatu, bizi-kalitatea handitu eta hiri barnea suspertzeari begira. Adierazten dute Planak biztanleria kopuruak nabarmen gora egiten jarraitu behar duela egintzat jotzen duela, eta 2009. urtera arte izandako hazkundean oinarritu dela horretarako. Lehentasunezko hainbat helburu aipatzen dituzte, ustez jaso ez direnak, hiri barnea suspertzea, ekonomia eta gizarte alorrak indartzea, jadanik sendoturiko auzoak dinamizatzea, esate baterako. Beren iritziz, Plan Nagusi batek erabaki dezake eta erabaki beharko luke hiriak zenbat hazi behar duen,

eraiki daitezkeen etxebizitzak edo ekipamenduak kontrolatuz, esate baterako, eta HAPNan planteatzen diren 7.000 etxebizitza horiek kopuru izugarria dela esaten dute.

Lurzorua aurreztea irizpide garrantzitsutzat jotzen dute hiri plangintza iraunkorra lortu nahi bada, baliabideen erabilera eraginkorra lortuta, lurzoruaren sakabanaketa eta bereizkuntzarik gabeko erabilerak mugatuta, eta bukatzeko, esaten dute HAPN honen helburu bakarra izango litzatekeela inolako mugarik gabe haztea, plangintza serio eta arduratsurik gabe, aldez aurretik eztabaida parte hartzailea egin gabe eta hiriak dituen egiazko beharrak ebaluatu gabe.

B) Ondoren esaten dute gaur egun urbanizaezinak diren eremu batzuk, natur, paisaia eta arkitektura eta historia ondarearen alorrean balio handiak dituztenak, okupatzea proposatzen duela Planak. Horren haritik Zabaleta, Araso Iparraldea, Oiantzabaleta eta Urdanibia-Zubieta esparruak aipatzen dituzte, eta adierazten dute Udalak ez duela aurretik badiren industria pabilioien okupazioaren inguruan Aholku Batzordeak eskatutako azterketa egin, eta horrek esan nahi izango luke ez dagoela inolako borondaterik egungo industria eremuak suspertzeko eta hobeto aprobetxatzeko.

C) Era berean, esaten dute **Sasikoburua** esparrua hirugarren sektoreko merkataritza erabilerarako proposatzen bada, **kaltetu egingo litzatekeela auzoko merkataritza** eta ibilgailu pribatua erabili beharko litzatekeela ezinbestean, mugikortasun iraunkorraren printzipioen kaltetan. Mugikortasun Iraunkorraren Plana aipatzen dute hemen, eta Plan hori ez da alegazioetarako informazio publikorako prozesuaren gai.

D) Ondoren esaten da ingurumen baldintzatzaile nagusien izenak eta tratamenduak, **Memoriaren 3.2.1 atalean**, esan nahi duela elementu mugatzaile, ez positibo, gisa hartzen direla eta garapenerako aukerak bideratzeko eragozpen direla. Horrenbestez, hiriaren plangintzan ez dira aintzat hartzen ingurumen balioak. IITan jasotako planen eta babes irudien tratamenduari dagokionean, berriz, esaten dute ez dakitela zergatik hartuko lituzkeen plan batzuk bai eta beste batzuk ez, eta irudi arau-emaile gisa zergatik jasotzen duen Habitaten Zuzentaraua bakarrik.

E) Idatziaren bigarren atalean esaten da HAPNak ez duela **Irungo udalerriko natur aberastasuna** babestu beharreko elementu gisa aztertu, dituen berezko balioengatik edo hiriaren eta pertsonen garapenean laguntzeko elementua den aldetik. Ondoren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 13. artikuluko atal batzuk aipatzen dira eta esaten da horiekin kontraesanean leudekeela HAPNaren proposamenetako batzuk, zoru urbanizaezina sailkatzeko aplika daitezkeen irizpideak, esate baterako, duten nekazaritza, baso eta abere-hazkuntza balioengatik, paisaia, historia eta kultur balioengatik, fauna eta flora babesteko edo oreka ekologikoa lortzeko duten garrantziagatik, berariazko babes erregimenen baten pean daudenak horien artean sartu ahal izateko. Era berean, azpimarratzen da, artikulu berean garbi azaltzen direla, hirigintza garapenaren ereduko iraunkortasunerako tokiko estrategiaren arabera, landa izaerarekin mantendu behar liratekeen, edo hala mantentzea komeni den lurrak, hiri garapenerako erabiltzea ez dela egokia erakusteko legezko irizpideak.

Gainera, azpimarratzen dute, Udalaren betebeharra dela HAPNa prestatzean, arestian aipaturiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege horren 21. artikuluaren 2. atala betetzea, egia esan, aipaturiko artikulu horrek lurzoruaren jabetzaren legezko edukia eta haien gaitasunak baditu ere mintzagai, hauxe da, jabeentzat ezartzen diren betebeharrak, ez Udalarentzat.

F) Idatziaren hirugarren atalak Olaberriako eremua du mintzagai. **9.1.01 - Urune eta 9.1.02 – Epele esparruak zoru urbanizaezin gisa sailkatzeko** eskatzen dute, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza Eremuen gisako nekazaritza eta abere-

hazkuntza erabileretarako izan daitezen. Gainera, erabiltzen ez diren industria eremuak ingurumenaren alorrean lehengoratzea interes publikotzat jotzea proposatzen dute, aldez aurretik lur horiek deskutsatuta.

G) Idatzian proposatzen da **Aiako Harriko esparru natural babestuaren mugak luzatzeko** Olaberriako haran aldera, GI-3452 errepideraino gutxienez, inguruan babes eremu bat sortu ahal izateko, Zubeltzu eta Altamiran REP gisa kalifikatutako eremua gutxienez hartuko duena, eta hori lor dadin, ekimen hori aurkezteko Parke Naturaleko Patronatuari. Osagarri gisa eskatzen dute Babes Bereziko REP eremu gisa kalifikatzeko Olaberria – Katea haran osoa, A-8 autopistara iritsi arte. Era berean, eskatzen dute, Olaberriako Haraneko Plan Bereziak debeka dezala nekazaritza eta abere-hazkuntza jarduerarekin, natur baliabideen kontserbazioarekin eta paisaiarekin bateragarria ez den erabilera oro, Plan Berezi hori loteslea izan dadila hirigintza mailako beste edozein onarpenen aurrean, eta hura onartu dadila Urunen eta Epelden edozein hirigintza esku hartze aurrera eraman aurretik.

H) Idatziaren laugarren atalak 1.1.10 **Araso Iparraldearen Luzapena** du mintzagai, **eta esparru hori RAC moldeko zoru urbanizaezin gisa sailkatzea proposatzen du**. Natur Ondareari eta bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legea aipatzen dute korridore ekologikoei eta Natura 2000 Sareko GKL espazioen kontserbazioan korridore horiek duten funtzioari dagokienean, ulerturik Aiako Harria – Jaizkibel korridore ekologikoaren kontserbazioa eta babesa baldintza bat izango litzatekeela udalerrian dauden bi GKL gune horiek babesteko.

I) Era berean, Habitatei buruzko Zuzentarau Europarra aipatzen dute, eta zehatzago esateko, Ingurumen Eraginaren Atariko Txostena, Eusko Jaurlaritzak egina, Irungo HAPNaren aurrerakinari dagokionean, Araso Iparraldearen Luzapena esparruko esku hartzea bertan behera uztea edo berraztertzea komeni dela esaten baita hartan. Horren haritik alegaziogileek eskatzen dute **erabat babesteko Aiako Harria – Jaizkibel korridorea**, beren iritziz ez baita ezer aldatu Aurrerakinaren eta hasieran onartutako dokumentuaren artean, eta esaten dute ingurumen balio handia duten hariztiek osatutako landa eremuak okupatzen ari direla oraindik ere.

J) Idatziaren bosgarren eta azken atalak **2.1.08 Zabaleta esparrua** du mintzagai. Esparru hori oso-osorik **zoru urbanizaezin** gisa sailkatzea proposatzen dute eta mazela hori osorik jasotzea Hondarribiko udalerriarekiko bateragarritasun planaren barnean, bertan udal izaeraz agroaldea egokitu ahal izateko, gazteak egiten ari diren nekazaritza eta abere-hazkuntza lanetan hasteko eta aurretik dauden ustiapenak zabaltzeko eskariari erantzungo bailioke horrek.

K) Azkenik, Irungo HAPNaren aurrerakina zela-eta, Eusko Jaurlaritzak egindako Ingurumen Eraginaren Atariko Txostena aipatzen dute berriro ere, haren 4. puntua zehatz esateko, eta adierazten dute hura betetzeko **ahalik eta gehien mugatu behar litzatekeela landa zoruen suntsiketa eta aprobetxamendu handiagoa eman behar litzaiokeela industria zoru urbanizatuari.** Berriro ere esaten dute ez dela aurretik dauden industria poligonoen aprobetxamenduaren azterketarik egin, eta ez dela Plan Nagusiaren dokumentuetan jaso.

KONTSIDERAZIOAK:

A) atalean laburbilduta azaldutakoari dagokionean, esan behar da, Plan Nagusiaren berrikuspenerako jada egin direla, behar duten xehetasunez, alegazio honetan aipatutako alderdi horiekin loturiko azterketak. Udalerrirako espero den biztanleriaren hazkundearen proiekzioa berrikusi ere egin da, azken urte hauetan sumatu den hazkundearen moteltze horretara egokitzeko. Emaitza gisa biztanleria kopuru txikiagoa

ematen du, eta Planaren 2022ko Muga-urte berrira (Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen arabera etxebizitzen kalkuluak egiteko aurreikusitako 8 urteko denboraldia) eta Planak seguru aski izango duen Muga-epe gorena 2030ean aurreikusita egokitu da gainera. Horrenbestez, estimazioak luzatu egin dira, kopuruak nabarmen jaitsi diren bitartean.

Era berean, esan behar da, Plan Nagusi osoan, eta harekin loturiko Ingurumen Iraunkortasunaren Txosten osoan zehar ere, luze eta zabal jaso dela lurralde eta hirigintza antolamenduaren gainetik ingurumenaren babesari lehentasuna emateko beharra, eta baita horretarako bete beharreko arauak ere.

Horrenbestez, horrek esan nahi du, plangintza nagusi batek dituen aukeren eta eskuduntzen barruan betiere, kontuan izanik gainera alderdi ugari jaso eta harmonizatu behar dituela, udalerriak dituen egiazko beharrak luze eta zabal miatu eta eztabaidatu direla, eman daitezkeen erantzun hoberenak bilatu ahal izateko. Horretarako, ahaleginak egin dira eskura dagoen lurrak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, bai beharreko etxebizitza berriak egokitzeko bai jarduera ekonomiko berriak ezartzeko, eta hori ez bakarrik sortu berri diren esparruetan, baizik eta aurretik dauden industria eta hirugarren sektorerako poligonoetan ere, horietan aplikatu beharreko araudia hobetuta.

B) atalean laburbilduta azaldutakoari dagokionean, gogora ekarri behar da, Plangintzako Aholku Batzordearen bileretan jadanik aurkeztu zela gaur egun dauden industria pabilioien egituraren inguruko azterketa. Une jakin batean duten okupazioaren datuak eskuratzeko aukerari eta komenigarritasunari dagokienean, orduan saio batzuk egin ziren kasu batzuetan, baina Plan Nagusi batek dituen helburuak betetzeko ez zen beharrezkotzat jo azterketa hori osatzea; izan ere, ikusi zen haren arauditik ezin zirela uneoro okupazio gorena bermatzeko, edo erabilera jakin batzuei, hasiera batean lanpostu gehiago sor litzaketenak, beste batzuen aurrean lehentasuna emateko beharreko baldintzak ezarri.

Azkenik, esan behar da, udal poligonoetako lokalen eta pabilioien okupazioaren inguruan aspaldi ez dela egindako azterketa batean, Udalak horien jarraipena egiten baitu, ikusi dela krisi sozioekonomikoa handia izan arren, horietan ez dagoela ia inolako okupazio arazorik.

Aldiz, bai finkatu da jarduera ekonomikoen kalifikazio globala, eta aukera ematen du, dagokion hirigintza tresnaren bidez, hasieran onartuak ez zeuden industria erabilera batzuei edo hirugarren sektorekoei leku egiteko, edo bestela, erantzun egokia emateko une hauetan aurrera eramaten ari diren erabileren nahasketari eta bateragarritasunari, horiek sartzea zaila baitzen ohiko arauetan jasotako baldintzekin.

Gainera, hasieran onartutako Plan Nagusian bereizi egin ziren jada gauzatutako industria esparru eta hirugarren sektoreko esparru bakoitzeko jatorrizko plangintzako eraikigarritasun baldintzak, zegoen lursail bakoitza xehe aztertuta eta erregulazio berria aplikatuta IC edo IP kalifikazioei zegokienean, eraikinaren tipologia kontuan harturik betiere. IC kalifikazioari dagokionean, lerrokaduren eta profilen bidez arautua hura, lursail bakoitzean dagoen eraikuntzaren benetako gaitasunaren arabera finkatu dira horiek, eta industria lursailen IP kalifikazioaren kasuan, berriz, 1,30 m²c/m²-ko eraikigarritasuna finkatu da, eta horrenbestez, handitu egin dira erreferentziako jatorrizko plangintzek jasotako eraikigarritasunak.

Gainera, bi kalifikazio horietan proposatu da definitutako eraikigarritasunaren % 50 bitarte handitzea arteko solairuak eraikitzeko aukera. Hori ez da kontabilizatuko eraikigarritasun indizean, baina nolanahi ere bai kontuan izango da lizentziak baloratzeko garaian. Zehaztapen horrek nabarmen handitzen ditu finkatutako

eraikuntza aukerak, hobetu egiten du ekoizpen jarduerei jada emandako espazioaren erabilera eta erantzuna ematen dio udalerrian gertatzen den egiazko egoera bati.

C atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, Aurrerakinaren inguruko eztabaiden emaitza gisa jada azaldu eta onartu zen, eta horrenbestez, jaso egin zen Sasikoburua esparruko Hirigintza Fitxako Antolamenduaren Irizpideetan eta Helburuetan, aurretik dagoen merkataritza guneko sarbideen azpiegitura aprobetxatuz, merkataritzakoak edo industriakoak ez diren hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako erabilera proposatzea esparru horretarako.

Halaber, Plan Nagusian jaso da hirugarren sektoreko erabilera merkataritzakoa izateko aukera azter daitekeela, Eusko Jaurlaritzak horretarako baimena ematen badu etorkizunean, Merkataritzako Lurraldearen Arloko Planak une hauetan ezartzen duen muga kenduta. Muga hori desagertuko balitz edo gehiago zehaztuko balitz, azalera handiko merkataritza jarduera espezifiko batera bidera liteke esparru horretako erabilera, merkataritza jarduera horretarako kokalekua herrigunetik kanpo bilatu ahal izateko. Nolanahi ere, azalera handiko establezimenduetara mugatuko litzateke aukera hori, duten bolumetria, altuera, arkitektura tipologia, irisgarritasuna eta abar kontuan harturik, hiri sarean egokitu ezin direnean edo sartzea komeni ez denean. Horrenbestez, ezarpen berri horrek ez lioke lehiarik eragingo hiriko erdialdeko merkataritza propio eta espezifikoari.

D) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, ingurumen baldintzatzaileak lantzeko modua horien legezko eta ohiko nomenklaturaren araberakoa da plangintzako dokumentuetan, baina horrek ez du esan nahi horien balorazio positiboa edo negatiboa egiten denik, baizik eta hirigintza garapenaren aukerak, hainbat mailatan, mugatzen dituzten alderdiak besterik ez dira, horixe baita Plan Nagusi baten helburu nagusietako bat. IITak (Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena) jaso ditu derrigorrezko espediente eta dokumentu guztiak.

E) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, gogora ekarri behar da Aurrerakinaren dokumentuaren inguruko eztabaidetan jada azaldu zela, Plan Nagusi berriak, aurreko Plan Nagusia idazteko modua are gehiago garatzeko xedean, oso araudi xehea jaso duela zoru urbanizaezinak arautzeko, zoru horiek dituzten balio berezien araberako kategoriekin eta kasu bakoitzean eta kategoria bakoitzean onartzen diren erabilera eta eraldatze aukera guztietarako baldintzak aintzat hartuta. Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza Lurra, Ibilguen Babesa eta Ur Hartuneen Babesa erantsi zaio araudi horri.

Gainera, jakina, Espazio Naturaletan indarrean dagoen erregulazio guztia erantsi zaio araudi horri, eta Olaberriako eta Ibarrolako harana arautzeko bi Plan Berezi sortzeko aukera ere planteatu da, lehen jasota ez zeudenak. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren Txostenean, zoru urbanizaezinaren kategoriei eta zoru horien erregulazioari begira, agindutakoa jasoko da Behin-behineko Onarpen dokumentuan.

F) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, Aholku Batzordean Olaberriako haranaren inguruan beharreko erabakiak hartu ondoren, badirudi ez dela egokia orain erabaki horiek aldatzea aurretik zeuden Urune eta Epele esparruei sailkapena kenduta, esparru horien erabilerak behar bezala baldintzatuta geratu baitira Plan Nagusiko Hirigintza Fitxa berrietan, etorkizuneko garapena eta eraldaketa dauden ingurura egokitu daitezen bermatzeko. Zati batzuk utziak dituzten eremu batzuk ingurumenaren alorrean lehengoratzeko interes publikoa adierazteari begira, esan behar da alderdi horrek ez duela zertan azaldu behar Plan Nagusi batean, eremu horiei ekiteko momentuan planteatu baitaiteke hori, bai aurreikusitako Plan Berezietako batzuk egiten direnean bai zuzenean benetan beharrezkoa izatean.

G) Atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, ulertzen da ez dela Plan Nagusi baten egitekoa Aiako Harria bezalako natur gune bat zabaltzea, jada mugatua eta definitua baitago horretarako berariazko eskumena duten instantzien aldetik. Gainera, Plan Nagusiak Aiako Harriko natur gunearen aldameneko eta ertzeko lurretan proposatu duen zonifikazioarekin aski izan beharko luke mugako eremu horietako natur baliabideen kontserbazioa bermatzeko. Olaberriako haraneko Plan Bereziari dagokionean, hura egiten denean finkatu beharko da arau proposamen zehatza.

H) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, eta Aholku Batzordean egindako eztabaidetan onartuta geratu zen bezala, jada justifikaturik geratu da hala Plan Nagusiko nola espezifikoki Arasoren Luzapena esparruko irizpide eta helburuetan, komeni dela azkenean esparru hori osatzen duten lurren zatia sailkatzea, eta sistema orokor gisa definitutako gainerako lurrak, zesio gisa eskuratuko direnak, Aiako Harria – Jaizkibel korridore ekologikoa osatzen laguntzeko erabiltzea.

I) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, Plan Nagusi berriaren hasierako onarpen dokumentuan berregokitu egin dira Arasoren Luzapena esparruaren mugak, Korridore Ekologikoaren mugakidea izaki, eta argi eta garbi eratu da haren forma, Plan Nagusiaren eskalan ez baitago esparru horren definizio zehatza finkatua. Era berean, espazio libre gisa jaso dira edo zuzenean korridore ekologikoaren barnean geratu dira batik bat harizti basoek okupatutako eremuak.

J) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, Hasierako Onarpen dokumentuan jasotako zehaztapenak aldatzea planteatzen da, eta orain zoru erreserba gisa taxutzea esparru hori, Plan Nagusiak beste esparru batzuetarako egindako jarduera ekonomikoetarako aurreikuspenak erabat betetzen badira ekoizpen jardueren erabilerak bertan ezarri ahal izateko.

Horregatik, bidezkoagotzat eta egokiagotzat hartu da Plan Nagusiaren dokumentuak lur horiek sektorizatu gabeko zoru urbanizagarriaren erreserba gisa hartzea orain, eta enpresa berriak ezartzeko interes publikoko arrazoiak egotean soilik garatu ahal izango dira enpresa horiek Plan Nagusiko beste esparru batean ezarri ezin direnean esparru horiek erabat beteta daudelako edo bateraezinak direlako.

Horretarako, Sektorizazio Plana idatzi beharko da Plan Nagusiko antolamendu estrukturala osatzeko tresna gisa. Plan horrek behar berrien arabera programatuko du esku hartzea eta garapenerako beharreko hirigintza zehaztapenak finkatuko ditu, hirigintza eraikigarritasuna zehaztuko du eta aurrera eraman beharreko erabilera eta erabilera bateragarriak esleituko ditu.

Plangintza hori garatzen ez den bitartean, zoru urbanizaezinaren hirigintza erregimenean, Landa eta Nekazaritza eta Abere-hazkuntza kategorian (RAC), finkatutakoak izango dira lurzoru honekiko afekzioak.

Lur horiek agroaldea erabilerarako zoru urbanizaezin gisa sailkatzeko proposamenari dagokionean, egia dena da autopistaren Hegoaldean badirela beste lur asko, hedadura handiagokoak eta anitzagoak, nekazaritza lurraren ezaugarrien ikuspegitik begiratuta egokiagoak eta, oro har, agroaldea edo antzeko erabilerak ezartzeko aproposagoak, baldin eta, jakina, Plan Nagusiak landa zoru kategoria bakoitzerako ezarritako arauak betetzen badira.

K) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, esan behar da, jarduera ekonomikoetarako eremu berrien planteamenduetarako arreta nahikoaz aztertu direla udal barrutiaren barnean kokatzeko egiazko aukerak, eta lurzoruen sailkapenera jo

gabe autopistaren Hegoaldean erabilgarri dauden lur egoki bakarretara mugatu dugu era honetako eremuen etorkizuneko garapena, Aurrerakina landu zen bitartean eskatu eta luze eztabaidatu bezala. Aurretik dauden industria poligonoen aprobetxamendua aztertzeari dagokionean, gorago aipatu dugu hori.

ERABAKIA:

ARGUDIO horiek guztiak oinarritzat harturik, eta alderdi bakoitzerako xehe azaldu den bezala, kontsideratzen da hasieran onartutako Plan Nagusiak jada jasotzen zituela idatzian aipatzen edo eskatzen diren kontuetako asko. Horixe da A, B, D, E, I, K puntuetako oinarrien kasua. Halaz ere, egiten diren proposamen zehatzetako beste batzuk, eta oraintxe azaldu ditugun argudio horiek direla medio, ezin dira onartu, C, F, G, H eta J puntuak, zehatzago esateko.

159 OIASSO 2000

ALEGAZIOAK JASOTAKO GAIAK LABURBILDUTA:

Interes orokorreko gai batzuk aipatzen ditu idatzi honek, eta honako atal hauetan bil daitezke:

A) Alokairuan emateko etxebizitzak
Idatzian eskatzen da, lehenengo, HAPNak alokairu sozialeko etxebizitza erreserba handi bat egiteko aukera aurreikusteko proposaturiko esparruetan, eta hutsik dauden etxebizitzen azterketa ere egiteko, etxebizitza sozialen erabilera eman ahal izateko.

B) Hutsik dauden industria pabilioiak
Honako eskaera hauek egiten dituzte bigarren: hutsik dauden industria pabilioien azterketa xehea egiteko, gero horien okupazioari lehentasuna emateko beste lurzoru batzuk erabili aurretik; industria pabilioiei aprobetxamendu hobea emateko altueran egokituta; ingurumenari begira egokiak diren enpresei lehentasuna emateko; m²-ko enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa eskaintzeko, jarduera ekonomikoetarako lurzoruan instalatu ahal izateko; eta nekazaritza eta abere-hazkuntza jarduerak bultzatzeko, ad-hoc plana eginez eta agroalderen bat sortuz.

C) kirol ekipamenduak
Hirugarren, eta Irunek kirol eta gizarte ekipamendu estalien eskasia duela uste izanik, HAPNak behar hori jasotzeko eskatzen dute. Laugarren, garraio publikoan, eta bereziki autobusetan, inbertsio handiagoa egiteko eskatzen dute eta bidegorrien sareari hedadura handiagoa emateko.

D) korridore ekologikoa
Bosgarren eta azkenik, Aiako Harria – Jaizkibel korridore ekologikoari beharreko zabalera emateko eskatzen dute, N-1 errepidearekiko bidegurutzeari dagokion zatian batik bat.

KONTSIDERAZIOAK:

A) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, **hutsik dauden etxebizitzei** begira, esan behar da, halako etxebizitza kopuru bat alokairuan edo alokairu sozialean emateko betebeharra estrategia baten barnean dagoela, baina hori ezin dela lotu Plan Nagusiak esparru jakin batzuetarako jasotako burubide zehatzekin. Guztira eraikitzen

diren babes ofizialeko etxebizitzen % 25 alokairuan emateko izateko konpromisoa ez da Plangintza Nagusiaren hirigintza zehaztapen bat, baizik eta kudeatze baldintza bat, eta Planetik kanpo egiten den programazioren batean jaso beharko litzateke, gauzatzen diren bizileku garapenerako plangintzetara egokituta une bakoitzean.

Aurrerakin dokumentuaren inguruan egin ziren eztabaidetan jada burutu ziren une hartan hutsik zeuden etxebizitzen azterketak eta miaketak, eta ikusi zen une haietan hutsik zeuden etxebizitzen indizea aski txikia zela beste hiri batzuetakoarekin alderatzen badugu. Gainera, Irunen hutsik dauden etxebizitzen egoeraren azterketa espezifikoa egin zen 2010. urtean, eta emaitza gisa ez zuen kezkatu behar izateko moduko ikuspegirik eskaini benetan hutsik dauden eta alokairuan eman litezkeen etxebizitzen proportzioak.

Funtsean esan behar da Plan Nagusia ez dela hutsik dauden etxebizitza batzuk okupatzera behartzen duen tresna, eta horrenbestez, ezin da eskatutakoa onartu. Hala eta guztiz ere, eta etxebizitza beharren kuantifikazioa egin ahal izateko, aintzat hartu da guztira okupatutako etxebizitzen % 2 benetan hutsik dauden etxebizitza gisa jasotzeko aukera, etorkizuneko eskariaren zati bat estali ahal izango bailitzateke horiekin. Kopuru hori erantsiko litzaioke (ia 500 etxebizitza) Lurraldea Antolatzeko Gidalerroek finkatutako metodologiaren arabera kalkulatutako etxebizitza beharren kontabilitateari.

B) atalean laburbilduta azaldutakoari dagokionean, gogora ekarri behar da, Plangintzako Aholku Batzordearen bileretan jadanik aurkeztu zela gaur egun dauden industria pabilioien egituraren inguruko azterketa. Une jakin batean duten okupazioaren datuak eskuratzeko aukerari eta komenigarritasunari dagokienean, orduan saio batzuk egin ziren kasu batzuetan, baina ikusi zen haren arauditik ezin zirela uneoro okupazio gorena bermatzeko, edo erabilera jakin batzuei, hasiera batean lanpostu gehiago sor litzaketenak, beste batzuen aurrean lehentasuna emateko beharreko baldintzak ezarri.

Azkenik, esan behar da, udal poligonoetako lokalen eta pabilioien okupazioaren inguruan aspaldi ez dela egindako azterketa batean, Udalak horien jarraipena egiten baitu, ikusi dela krisi sozioekonomikoa handia izan arren, horietan handia dela okupazioa.

Nolanahi ere, eta aurretik dauden pabilioien erregulazio berriari dagokionean, bai finkatu da jarduera ekonomikoen kalifikazio globala, eta aukera ematen du, dagokion hirigintza tresnaren bidez, hasieran onartuak ez zeuden industria erabilera batzuei edo hirugarren sektorekoei leku egiteko, edo bestela, erantzun egokia emateko une hauetan aurrera eramaten ari diren erabileren nahasketari eta bateragarritasunari, horiek sartzea zaila baitzen ohiko arauetan jasotako baldintzekin.

Gainera, hasieran onartutako Plan Nagusian bereizi egin ziren jada gauzatutako industria esparru eta hirugarren sektoreko esparru bakoitzeko jatorrizko plangintzako eraikigarritasun baldintzak, zegoen lursail bakoitza xehe aztertuta eta erregulazio berria aplikatuta IC edo IP kalifikazioei zegokienean, eraikinaren tipologia kontuan harturik betiere. IC kalifikazioari dagokionean, lerrokaduren eta profilen bidez arautua hura, lursail bakoitzean dagoen eraikuntzaren benetako gaitasunaren arabera finkatu dira horiek, eta industria lursailen IP kalifikazioaren kasuan, berriz, 1,30 m²c/m²-ko eraikigarritasuna finkatu da, eta horrenbestez, handitu egin dira erreferentziako jatorrizko plangintzek jasotako eraikigarritasunak.

Gainera, bi kalifikazio horietan proposatu da definitutako eraikigarritasunaren % 50 bitarte handitzea arteko solairuak eraikitzeko aukera. Hori ez da kontabilizatuko

eraikigarritasun indizean, baina nolanahi ere bai kontuan izango da lizentziak baloratzeko garaian. Zehaztapen horrek nabarmen handitzen ditu finkatutako eraikuntza aukerak eta erantzuna ematen dio udalerrian gertatzen den egiazko egoera bati.

Agroaldeak ezartzeari dagokionean, autopistaren Hegoaldean badira lur egokiak agroaldeak edo antzekoak egokitu ahal izateko, Planak landa zoru kategoria bakoitzerako ezarritako arauak errespetatzen badira betiere.

C) atalean laburbilduta adierazitakoari dagokionean, **kirol ekipamenduei** begira, esan behar da, Plan Nagusiak hirian barrena zuzen banatuta ezartzen dituela Kirol ekipamenduetarako eremuak, baina ezin duela horien mota definitu eta ezin duela erabaki eraikin estaliak izan behar duten ala ez duten. Garraio publikoaren sarearekin loturiko inbertsioetan ere ezin da sartu, oro har, garraiorako esparrua, hauxe da, bide publikoak, mugatu besterik ezin baitu egin. Azkenik Mugikortasun Plana egin da eta hartan jaso da bidegorrien sarea, eta era berean Plan Nagusiari gehitu zaio plan hori.

Azkenik, **Korridore Ekologikoari** begira **D) atalean** laburbilduta adierazitakoari dagokionean, Plan Nagusi berriaren hasierako onarpen dokumentuan definitu da korridore ekologikoaren egitura, baina haren definizio zehatza Planaren eskalan ez dago legez ezarria. Zehatz esateko, idatzian aipatzen den zatia, N-1 errepidearekiko bidegurutzean, Hondarribiko udal barrutiaren barruan dagoena, oso meharra da berez eta beste garraio azpiegitura batzuekiko bidegurutzetik hurbil dago gainera.

Horrenbestez, azpiegiturek guztiz baldintzatzen dute zati hori, baina hala ere, eta Irungo udal barrutiari dagokionean, azkenean aukeratutako konponbideak aukera ematen du igarobidea Iparraldera bideratu eta korridorearen funtzionaltasuna ziurtatzeko beharreko zabalerari eusteko, jada udalerritik kanpo dagoen puntu horretan duen zabalera edozein dela ere, uneoro haren jarraipena berma dezan, Irizpideen eta Helburuen inguruko eztabaidan adostutakoa kontuan harturik betiere.

ERABAKIA:

ARGUDIO horiek guztiak oinarritzat harturik, eta alderdi bakoitzerako xehe azaldu den bezala, kontsideratzen da hasieran onartutako Plan Nagusiak jada jasotzen zituela idatzian B eta D puntuei begira aipatzen edo eskatzen diren kontuetako asko, eta A puntuan eskatutakoa, berriz, zati batean aintzat hartuko da. Aldiz, C puntuan eskatutakoa ezin zaio gehitu Plan Nagusiaren dokumentuari.

1.4.- ALEGAZIO PUNTUALAK – ORUBEAK – ERAIKUNTZAK

002, 003 eta 004 Urantzu kalea 9. Orubearen atzealdeko eremua berdegunea ez izateko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Urantzu kaleko 9. zenbakiko orubearen atzealdeko eremua du mintzagai; eremu hori berdegunerako geratu da 3., 5. eta 7. zenbakietarako aldatu egin denean. Adierazten da bertan beheko solairua eraiki litekeela, berdegune hori zoko gisa geraturik, eta aldameneko orubeei emandakoaren antzeko tratamendua emateko eskatzen dute.

003 eta 004 idatziek beste eskaera bat gehitzen diote 002 zenbakiko Alegazioari, atzealdean eraiki ahal izateko eta atzealdeko lur horiek berdegune izatea proposatu zenean trazatutako gidatzaile diagonala kentzeko eskaera, hain zuzen ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Hasierako onarpen dokumentuan eta alegazio honetan aipatutako orubeetarako PERCAn aurreikusitako lerrokadurak aldatzea jaso da, eta eraikitzeko aukera aintzat hartu da orain, Hirigune Historikoko profilarekin (beheko solairua eta goiko hiru solairu) Papinea kaleak finkaturiko lerrokaduraraino.

Era berean, Urantzu kalera ematen duten eraikuntzak Papinea kaleraino luzatzeko aukera jaso da, Papinea kalearen eraketa errazteko irizpide gisa, beheko solairuko eraikuntza batzuk eta leku horretarako egokiak ez diren berdegune txiki batzuk kentzeko aukera aintzat hartuz eta irizpide horrekin betiere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioaren edukia, eta gainera, aintzat hartuko da beheko solairua eta hiru goiko solairuko profilarekin eraikitzeko aukera.

008 Larruginen kalea 2. Erdisotoan 5 garaje eraikitzeko eskaera egiten da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Erdisotoan bost garajek osatutako eraikuntza egiteko aukera eskatzen dute, beren lursaileko atzealdeko lur batzuk aprobetxatuz. Lorategi tratamenduarekin estalita gera litezke horiek.

KONTSIDERAZIOAK:

Bizilekua Espazio Libre Pribatua (RL) kalifikazio xehea du alegazioak mintzagai duen lurzoruak. Jabari pribatuko lorategi espazio libreei edo gehiengoan zolatuak daudenei aplikatzen ahal zaie ordenantza, eta hasiera batean eremu horietan ezin da eraikuntzarik egin.

Horrenbestez, espazio horrek duen izaerarekin bat eginez, eutsi egingo zaio finkatutako kalifikazioari, eta ez da alegazioan azaldutako baldintzetan eraikitzeko

aukerarik emango. Era berean, kontsideratzen da ordenantzak aukera emango lukeela eremu horretan aparkaleku plaza horiek egiteko, araututako eraikuntza erregimenean jasotako baldintzetan beti ere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioaren edukia, eta ez da aukerarik emango alegazio honetan azaldutako baldintzetan eraikitzeko.

009 San Martzial kalea 10. Profila beste metro 1,00 handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

HAPNak aurreikusitako profila, RA 5 solairurekin, aldatzeko eskatzen da San Martzial kaleko 10. zenbakiko eraikinerako, eta beste metro 1 handitzeko San Martzial kaletik hurbilen dagoen estalkiko erdiko gorputzeko aldean.

KONTSIDERAZIOAK:

BEPBaren katalogoan sartuta dago alegazioak mintzagai duen eraikuntza, eta horri dagokionean Plan Berezi horrek jada finkatutako hirigintza zehaztapenak jasotzen ditu Plan Nagusiak.

Horrenbestez, aurretik dagoen eraikuntza bolumena sendotuko da eraikuntza honetarako, eta berritzen edo berreraikitzen bada, orain eraikita dagoen profilari eutsiko zaio, hauxe da, beheko solairua eta hiru goiko solairu, eta baita erdiko altxaerari ere, fatxada honen ezaugarria baita, egungo estalkiarekin batera eraikin honen bolumetria mugatzen duten elementuak izanik.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioaren edukia, eta ez da aintzat hartuko eskatutako altxatzeko aukera hori.

010 Jaizkibel Urbanizazioa. Ur hornidurarako hodietarako babesa ezartzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Jaizkibel urbanizazioa zerbitzatzen duten ur hornidurarako hodiak babesteko eskatzen dute, Olaberria Babesteko Plan Berezia, Decoexa, Mugika, Porcelanas Bidasoa eta Urdanibia-Zubieta esparruetatik igarotzean. Hainbat zehaztapen ematen dituzte aipaturiko hoditeria horren egoeraren eta igarotzen den lekuen inguruan.

KONTSIDERAZIOAK:

Udalerrian dagoen ur hornidurarako azpiegitura baten mantentze baldintza partikularrak ditu mintzagai alegazio honek, eta horrenbestez, hau ez da Plan Nagusi batean jaso beharreko kontua.

Halaz ere, egokia da azaltzea udalerri honetako azpiegiturez arduratzen diren zerbitzu teknikoek ondo asko ezagutzen dituztela dauden azpiegituren trazatua eta baldintzak, eta aldatzeko beharra sumatzen bada, aldaketa hori egingo dela beharreko neurriak hartuta eta herritarrei ur hornidura ziurtatzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, Plan Nagusi honen erreferentzia planoetan ageri da azpiegitura horren trazatua.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, haren edukia ez baita azalpen plangintza honen egitekoa.

023 Iparralde hiribidea 59 Santiagoko Zubiko merkataritza gunea. Eraikuntza baten aprobetxamendua handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatzian adierazten da ez datozela bat Iparralde hiribideko 59. zenbakian dagoen eraikina, gaur egun merkataritza jardueretarako erabiltzen dena aldameneko lursailetan dauden gainerakoak bezalaxe, besterik gabe TC-02 Ordenantzak arautzearekin, planoetan ageri diren lerrokadura, sestra eta aprobetxamenduarekin. Adierazten dute, arkitekturaren ikuspegitik nahiz hiri ikuspegitik begiratuta okupatzen duen lurrak duen garrantzia ikusita, berariazko hirigintza tratamendua beharko lukeela egoera berezi horrek.

Eraikuntza honen zabalpena antolatzeko aurreproiektua aurkezten da, jarduera mantenduta, eztabaidatu ahal izateko. Gainera, Euskotreneko sarbideak berrantolatzea eta hori guztia Aduanako eraikin zaharrarekin lotzea planteatzen da aurreproiektu horretan.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazio honek mintzagai duen eraikuntza, antzeko ezaugarriak eta profil berdina (beheko solairuak eta bi goiko solairuk osatua) duten beste eraikuntza batzuen ondoan dago; horiek beheko solairuan elementu bat dute atxikia Iparralde hiribidera ematen duen aldean, eta hark iparraldera egiten du eraikuntza ilara horri errematea emateko.

Plan Nagusi honek egungo eraikuntza baldintzak mantentzea aurreikusten du inguru honetarako, eta dauden lerrokaduren eta profilen bidez eta dagokion kalifikazio xehearen bidez arautua dago.

Egokitzat hartzen da eraikuntzaren egungo arautze irizpideei eustea, irizpide horiek aukera ematen baitute eraikin nagusia behar bezala eratzeko eta baita beheko solairuko elementua ere eraikitako ilararen erremate gisa, eta gainera, ez dute eragozpenik sortzen alegazioan azaldutako sarbide horiek behar bezala berrantolatzeko.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazioa, eta ez da aldatuko hasierako onarpen dokumentuan jada finkatutakoa.

111 Berroeta margolaria kalea. Aspaldiko urteetan jada okupatuak dauden lur batzuk kalifikatzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du jabari publikoa kentzeko eta bizileku lurzoru pribatuan sartzeko Berroeta margolaria kaleko 1. zenbakiko eraikuntzen mugan dauden lur batzuk; izan ere, lurzoru hori Udalaren jabari publikokoaren barnean sartu bazen ere 1970. urtean, inoiz ez du haren jabetzarik hartu, eta eraikineko jabeek lur horiek erabili egin dituzte bake osoan han bertan etxebizitzen erabilera eta zerbitzurako.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiak Bizilekua Blokean (RB) kalifikazio xehea finkatzen du eraikuntza honetarako.
Eraikina inguratzen duen lursailaren jabea udaletxea da, baina honek duen forma irregularra, zabalera eta kokapenagatik ulertu daiteke ez dela beharrezkoa jabari publikoaren barne gordetzea.
Hori dela eta, lursail honen kalifikazio xehetua honakoa izan daiteke: Bizilekua Espazio Libre Pribatua (RL).
Desafektazioa gertatuta, Plan Orokorraren onespenarekin, lursail hau “orube sobrante” bezala klasifikatzen da.
Udaletxeak besteretze-zuzena egiteko, Lekuko Korporazioen Ondare Erregelamenduadi heldu beharko dio, ondare besteretzeari dagokionean.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, jabetza pribatutzat hartuko da Berroeta margolaria kalean dagoen lurzoru hori.

127 Ernauteneako bidea. Goikoetxea izeneko baserriari emandako RU-02 familiabakarra ordenantza aldatzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Beren jabetza bat dute mintzagai alegaziogileek, Goikoetxea izeneko baserria, hain zuzen ere, Ernauteneako bidean dagoena, 8.2.03 Ernautenea esparruaren mugan, eta adierazten dute negatiboki baztertu dela RU-02 ordenantzarekin kalifikatzean, jada eraikitako eraikin batzuen (RU-26 eta RU-27 ordenantzak dagozkie horiei) eta 8.2.03 esparruaren artean baitago baserri hori. Aldameneko esparru horri emandakoaren garapen aukera berdina aplikatzeko eskatzen dute, eta beren iritziz, Xehetasun Azterketa beste hirigintza tresnarik ez litzateke beharko horretarako, guztia batera edo bereiz hartuta, eremua modurik hoberenean antolatzeko komeni denaren arabera.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazioak gai duen lurzorua, Mendebaldean dauden gainerako lursailak bezalaxe, RU-02 gisa kalifikatu da, dituzten baldintzak eta dauden ingurua aintzat harturik. Kalifikazio horretarako 0,25 m^2/m^2-ko eraikigarritasuna finkatzen du Plan Nagusiak.

Esan behar dugu egoera desberdinak jasotzen dituztela RU-26 eta RU-27 ordenantzek eta “Ernaute Berriko” Xehetasun Azterketak ezarritako baldintzak islatzen dituztela, 2006ko irailaren 27an betiko onartua hura. Plangintza horrek, beste betebehar batzuez gainera, guztira 0,16 m^2/m^2 eta 0,29 m^2/m^2-ko eraikigarritasuna finkatzen du lursail hauetarako.

8.2.03 esparruari dagokionean, Plan Nagusi honek 0,185 m^2/m^2-ko guztizko eraikigarritasuna finkatzen du, hauxe da, jarritako lurzoru osoaren gainean. Azkenik, mendebaldean dagoen eta RU-25 gisa kalifikatu den lursailerako 0,21 m^2/m^2-ko eraikigarritasuna ezartzen du.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **ezetsi egingo da** alegazioa, eta gainera kontsideratzen da alegazioak mintzagai duen lursail hori ez dagoela negatiboki baztertuta inguruan finkatutako eraikigarritasunak kontuan hartzen badira.

133 Tonpes kalea (Urdanibia Herrigunean). Urdanibia Herrigunean dagoen eraikin bati aplikatu beharreko araudia jasotzeko eskatzen da idatzian, eraikin horri beste solairu bat erantsi ahal izateko altueran.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Alegaziogileak eskatzen du Tonpes kaleko 7. zenbakian dagoen eraikinaren profila 3 + BC altuerarekin jasotzeko HAPNak, ulertzen baitu hori dela dagoen profila, 3 altuera izan beharrean. Dagokion informazio grafikoa aurkezten du, eta egindako kontsulta teknikoari Udalak 2011ko abuztuaren 8an emandako erantzuna aipatzen du, haren konklusioetan oinarritzen baita.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiak eremu honetarako jaso duen irizpidea izan da eraikitako egiazko egoera islatzea, eta hori behar bezala bideratu da dagokion garapen plangintzaren babesean. Hiru solairu eta estalkipeko solairua ditu eraikin honek, eta hori baieztatu egiten du erreferentziak plangintzak, egoera hori garbi erakusten baitute bertan dauden etxebizitzek eta teilatupeek.

Horrenbestez, egoera hori islatu beharko da eta erreferentziako dokumentuan grafiatutako okerra zuzendu.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazioa, eta hiru solairu eta estalkipeko solairuko profila jasoko da.

176 Olaketa kalea 1 - Iru Bide Finka. Olaketa kaleko 1. zenbakian dagoen etxe hau Ondarearen Katalogotik ateratzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatzian alegaziogileak eskatzen du Irubide finka izeneko etxea, Olaketa kaleko 1. zenbakian dagoena, Ondarearen Katalogotik ateratzeko, R-30 zenbakiarekin eta "E" babes estrukturalarekin ageri da bertan, etorkizunean esku hartze bat koordinatu ahal izateko, bere iritziz, esku hartze horrek aukera emango bailuke dauden egoeren multzoa zabaltzeko, proposamenaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatuz.

Arkitektura azterketa bat aurkeztu dute eranskin gisa eta jabeek dituzten proiektuak aipatzen dira bertan, 2.500 m² inguruko lursailean bi familiako bost etxe eraikitzeko asmoa baitute, 1999ko Plan Nagusiaren araudiari jarraiki, eta lursailaren hirigintza garapenerako proiektu horiek konprometituta geratu dira katalogazio horrekin. Era berean, aipatzen dute karga ekonomiko handia ekarriko lukeela horrelako etxe bat, beste garai bateko neurriekin eta izaerarekin, berritu eta kontserbatzeak, eta nabarmen arriskuan jarriko liratekeela haren bideragarritasuna eta mantenua.

Era berean, eranskinean esaten da beharbada ez dela neurri bakar batekin neurtu inguru hurbilean antzeko ezaugarriak dituzten beste finka batzuei dagokienean, baina ez dute esaten zeinez ari diren.

KONTSIDERAZIOAK:

Irungo udalerriko historia eta kultura ondarearen barnean sartuta dago Irubide etxea, eta Arkitektura Ondarearen Katalogo horren barnean egon behar du ezinbestean.

Oso ondo kontserbaturiko eraikuntza da, XX. mendearen hasierako estiloa du, eta landa eraikuntzetan oinarrituriko lurraldeko arkitektura berreskuratzeko xedean jasoa dago. Landu gabeko harrizko hormak ditu eraikinak eta barnealdeko egitura zurezkoa du; zurezko balaustradak ere baditu, dekorazioak egituran, zurezko kontraleihoak eta baita estilo horrek dituen beste hainbat ezaugarri ere.

Horrenbestez, eta eraikin horrek dituen ezaugarriak mantentzeko irizpidearekin, aintzat hartuko da Egituraren Kontserbazio maila. Eraikinaren egitura mantentzea jasotzen du maila horrek eta hainbat esku hartze onartzen ditu erabilera berrietara egokitu ahal izateko, eraikinaren inguratzailea osatzen duten elementuak errespetatuz betiere.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **ezetsi egingo da** alegazioa, eta horrenbestez, mantendu egingo dira eraikin honetarako jada finkatutako katalogazioa eta babes maila.

188 Alcazar Hotela. Onartutako erabilerak zabaltzeko eta aprobetxamendua handitzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Idatziak Iparralde hiribideko 11. zenbakian dauden lurrak ditu mintzagai, Alcazar Hotela dagoen lurrak, hain zuzen ere, eta adierazten dute ez datozela bat HAPNak lur horietarako finkatutako kalifikazioarekin eta zehaztapenekin. Adierazten dute ez dagoela oso garbi hotel instalazio horren egungo ustiapena mantentzen jarraitzeko aukerarik izango duten, bai arrazoi partikularrengatik bai egun dituen muga zehatz horiegatik, eta aipatzen dute halaber agian desagertu egingo litzatekeela bizilekua bezalako beste erabilera batzuk onartzen ez badira, ingurukoaren antzeko irabazizko edukiarekin.

Beren iritziz ekipamendu lursail batenaren ondorio berdin-berdinak izango lituzkeen tratamendua planteatzen du, eta horrenbestez, kargak eta etekinak berdintasunean oinarrituta banatzeko bideak jaso beharko lituzke, eta esaten dute inguruko lursailetan ez dela soilik erabilera bakar baterako izateko “karga” hori ezarri.

Amaitzeko, eskatzen du lehenengo HAPN berriak bizileku erabilera jasotzeko hotelarekin bateragarri izateko erabilera gisa, edo baimendutako beste edozein erabilera bezala, hala behar badu. Bigarren, eta orubeak hotel erabilera izaten jarraitzen badu, aprobetxamendua 0,80 m²t/m²-tik gora handitzeko eskatzen du, hotel instalazioak berritu eta egokitu ahal izateko ikuspegi berriagoa emanez, eta dagokion arloko araudia bete ahal izateko. Kasu horretan proposatzen du aintzat hartzeko, hala eta guztiz ere lursaila ez bada etorkizunean hotel erabilerarako izaten, aipaturiko kopuru horretara mugatzea aprobetxamendua.

Hirugarren, adierazten du, bere iritziz, HAPNak finka jakin batzuetan ez lituzkeela karga edo zerga batzuk ezarri behar aldi berean plangintzatik etorritako etekinen eta kargen bidezko banaketa aurreikusi gabe. Laugarren eta azkenik eskatzen du Plan Nagusian jasotako zenbaki zehaztapenak adierazle gisa hartzeko eta dagokion garapenerako tresnak gehiago zehazteko baldintzaren pean uzteko, uste baitu era horretako parametroak agian ez daudela ondo jasoak dokumentuan.

KONTSIDERAZIOAK:

Gaur egun TH-01 da lursail honi aplika dakiokeen Ordenantza, hauxe da, Hirugarren Sektoreko Hotela 1. mailakoa, eta 0,80 m²/m²-ko eraikigarritasuna ezarri da hartarako. Aurretik zegoen azalera eraikiarekiko egin zen hurbilketan oinarrituta kalkulatu zen kopuru hori.

Lursailaren ingurumen eta tipologia balioak babesteko irizpidearekin finkatu zen eraikigarritasun hori, eta inolaz ere ez da defizitariotzat jotzen udalerriko gainerako hotel lursailetarako jasotako eraikigarritasunei dagokienean, lursail bakoitzak zituen eraikuntza baldintza berezien arabera finkatu baitira betiere eraikigarritasun horiek.

Era berean, esan behar da, hotel lursail honetarako ezarritako eraikigarritasunaren tamaina aski hurbil dagoela dagoen bizileku eremurako jasotako eraikigarritasun fisikotik. Egia da RP-04 (Bizilekua lursailean 4. maila) gisa kalifikaturiko bizileku lursailen ondoan dagoela lursail hau, eta 0,70 m²/m²-ko eraikigarritasuna ezarri dela horientzat.

Halaz ere, kontuan izanik idatzian egiten den eraikigarritasuna proportzioren batean handitzeko eskaera establezimendua berritu behar bada ere, eta kontuan izanik halaber, espazio osagarriak beharko dituela berritze lan hori aurrera eramaten baldin bada, eta hirugarren sektorea – hotel erabilerarako aprobetxamendua aldameneko

lursailen aprobetxamenduarekin berdintzeko asmoz, pixka bat handitu daiteke bereziki orube honi esleituriko eraikigarritasuna, eta 1,10 m²/m²-ra igo. Inguruko lursailetan bizileku erabilerarakoari dagokionaren, RP-04 gisa kalifikatuak horiek, berdin-berdina izango litzateke orduan hirugarren sektoreko erabilerarako eraikigarritasun hori, dagokion haztatze koefizientea aplikatu ondoren.

Bestalde, esan behar da, indarrean dagoen legeriak xedaturikoarekin bat, plangintza nagusiak udalerriko antolamendu estrukturala finkatu behar duela, eta baita Plan Nagusiak hiri zoru sendotu kategorian sartzen duen hiri zoruaren antolamendu xehea ere. Lehen kasurako erabilera nagusiaren hirigintza eraikigarritasuna finkatu behar da, eta bigarrenean, eta horixe dugu oraingo honetan gai, eraikigarritasun fisiko xehea finkatu behar da.

Zehaztapen horrek berekin darama, gainera, kalifikazio xehea definitzeko beharra, eta horren ondorioz, erabileren erregimen partikularraren definizioa ere, berezko erabilera (kasu honetan hotela) eta baimendutako eta debekatutako erabilerak zein diren finkatuta. Horrenbestez, kalifikazio xehe bakar bat ezarri behar da, eta ez dago lursail bererako hainbat kalifikazio xehe definitzeko aukerarik, Irunen aplikatutako araudi orokorraren aurka joango bailitzateke hori, eta ez dago ildo horretatik salbuespen puntual bat egiteko arrazoirik.

Bestalde, irabazizko aprobetxamendua denez, eta gorago planteatutako hazkunde horrekin irabazizko beste erabilera batzuek, inguruko lursailen bizileku erabilerak, esate baterako, dutenaren parean neurtua geratuko litzatekeenez, alegaziogileen iritziarekin ez gatoz bat ez litzatekeelako inolako “karga puntual” edo zerga espezifikorik jartzen ariko, eta erabileraren izendapen honek ez lukeelako hornidura ekipamenduei aplikatzen zaienaren izaera berdina izango. Horregatik guztiagatik erabilera espezifiko honen izendapenak ez luke etekinak eta kargak banatzeko inolako mekanismorik behar izango.

Gainera, arrazoiak arrazoi, ezin baldin bada hirugarren sektorea – hotela erabileraren ustiapenarekin aurrera jarraitu, beti izango litzateke orain ezarritako erabilera erregimenaren aldaketa planteatzeko aukera plangintza xehe baten bidez. Behar den momentuan idatz liteke espediente hori, instalazio honen behar zehatzak egokitu ahal izateko. Nolanahi ere, espediente hori tramitatzeko, errespetatu egin beharko litzateke ezarritako eraikigarritasun gorenari dagokionean orain definitutako antolamendu estrukturalaren zehaztapena.

Horren haritik, esan behar da, hotel erabilerako lursail honetarako finkatutako eraikigarritasuna, esate baterako, Bizilekua lursailean (RP) erabilerara bihurtu ahal izateko, Plan Nagusi honetan jasotako haztatze koefizienteak aplikatu behar liratekeela betiere, Hiri Zoruaren Eragin Taularen arabera eta Erabilerak eta Tipologiak kontuan harturik (Planeko Ekonomia – Finantza Memoriako 3.1 eta 3.2 kapituluak).

Kasu zehatz honetan, irizpide hori aplikatuta, RP motako bizileku erabilerarako eraikigarritasun baliokidea izango litzateke hotel erabilerarako esleitutakoa koefiziente batekin, kasu honetan 0,64 koefizientearekin, biderkatu ondoren sortutakoa, TH mota RP bihurtu ahal izateko. Kasu horretan bizileku eraikigarritasunaren zenbatekoa Hirugarren sektoreko hotel erabilerarako eraikigarritasunaren zenbatekoa baino herenetik pixka bat gora txikiagoa izango litzateke, hauxe da, 0,70 m²/m²-ko balioa ia, gorago adierazi den bezala, horixe baita aldameneko bizileku lursailei dagokiena.

Erabilera xeheaz gainera, esleitutako aprobetxamendu gorenari begira lursail honetarako orain finkatutakoa aldatuko balitz, orduan aukera bakarra izango litzateke asmo hori Plan Nagusiaren Aldaketa Puntualaren bidez tramitatzen saiatzea. Aldaketa

puntual horrek xehe eta behar bezala arrazoituta argudiatu eta jaso beharko luke hirigintza zehaztapen berri batzuen definizioa eta Planaren aldaketa guztietarako ezarritako prozedurari jarraitu beharko lioke, hauxe da, onarpena, jende aurreko informazioa eta abar.

Plan Nagusian jasotako zenbaki zehaztapenak adierazle gisa hartzeko eta dagokion garapenerako tresnak gehiago zehazteko baldintzaren pean uzteko kontuari dagokionean, araua da edozein kalifikazio ematen zaien azalerak, beharreko esku hartzea aurrera eramaten den momentuan lurrean zuzenean neurtzen direnak izango direla beti. Kasu honetan gutxi gorabeherakotzat har litezke Araudiko azaleren koadroan agertzen diren azalerak, baina Plan Nagusian bai finkatuta geratzen dira Ordenantzen arabera aplika daitezkeen aprobetxamenduen parametroak.

Azkenik, adierazten da, gorago aztertutako kontu horiez gain, mintzagai dugun orube hau bezalakoetarako aintzat hartzen ari dela sestrapean sestra gainean baimendutako eraikigarritasunaren % 100 arte eraikitzeko aukera. Oro har, orube guztietarako orokorra den xedapen berri horrek aprobetxamendu aukerak handitu egiten ditu egungo hotel establezimendua zabaldu edo berritzeko lanari ekiten bazaio, eta ildo horretatik onura ekarriko dio alegazio idatzian eskatutakoari.

ERABAKIA:

Azaldutako arrazoibide horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, pixka bat handitu egingo da emandako aprobetxamendua, 1,10 m²/m² bitarte, aldameneko lursailek dutenaren antzekoa izan dadin, baina lursail honetarako jada finkatutako zehaztapenak mantenduz hirugarren sektorea – hotela erabilera esklusiboa izan dezan, eta hori dela-eta, ez da onartuko bizileku erabilera harekin bateragarri izatea.

013 Letxunborro hiribidea 7 IBERDROLAren azpiestazioa dagoen lursaila. Lursailaren zati bat birkalifikatzeko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

IBERDROLAREN jabetzako lursaila du mintzagai alegazioak, Letxunborro hiribidean dagoena, eta leku horretan daude Irungo ST eta Anakako STR. Adierazten dute bi Azpiestazio horiek trinkotzeko proiektua dagoela, eta dagoeneko obra lizentzia eman dela lehenbiziko Fasea aurrera eramateko. Alegaziogileek adierazten dute ez datozela bat lursail osoa Energia Azpiegituretarako izango den hiri zoru gisa kalifikatzearekin, diotenez lursailaren herena bakarrik hartuko baitu azpiegitura horrek, eta lursailaren gainerakoari bizileku erabilera emateko eskatzen dute, erabilera hori delako nagusi eremu horretan.

Laburbilduta, 5.730 m² inguruko azaleran bizileku eraikuntza berria egokitzeko eskaera egiten dute; horretan kokatuko litzateke lursail osoaren aprobetxamendua, eta 3.237 m² utziko lirateke trinkotutako estazio horietarako, eta 1.370 m², Mendebaldeko muturrean daudenak, berriz, berdeguneetarako. 2009ko uztailaren 13an, epez kanpo, aurkeztutako idatzi bat aipatzen dute, eta hartan ere asmo horiek azaltzen zituzten funtsean.

KONTSIDERAZIOAK:

Iberdrolaren jabetzako lursaila Letxunborro hiribidearen eta Aldabe mendia kalearen arteko elkargunean dago, Gorostiaga kalearen aldamenean eta Letxunborro hiribidearen hegoaldean dagoen jarduera ekonomikoetarako finkamenduaren luzapen gisa eratzen da. Irizpide hori berretsita geratzen da kontuan hartzen bada, gainera, lursail hori Aldabe mendia kalearen mendebaldean dagoela, eta Soroxarta poligonoaren luzapen gisa horrenbestez.

Era berean, definitutako jarduera ekonomikoetarako finkamenduen luzapen gisa eratua dagoenez leku hau, eta “ez eraikia” izaera duenez, egoki artikula daitezke inguruko erabilera desberdinak, Letxunborro hiribidearen Mendebaldean eta Aldabe mendia kalearen Ekialdean dagoen bizileku erabilerarekiko lotura, esate baterako.

Horrenbestez, kontsideratzen da guztiz komeni dela 1999ko Plan Nagusiak lursail honetarako jada definitutako hirigintza kalifikazioa mantentzea, eta uste dugu lursail honetan dauden Azpiestazio Transformadoreen trinkotze eta hobetze horrek ez duela berekin eraman behar aipatutako lur horiek bizilekurako birkalifikatu behar izatea.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazio honen edukia, eta lursail honetarako mantendu egingo da orain berrikusten ari garen 1999ko Plan Nagusiak jada definitutakoa.

011 Soroxarta poligonoa. Nabe bat zabaltzeko eskatzen da idatzian

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

HAPNan GARITRANSen industria nabea, Soroxarta poligonoan dagoena, zabaltzeko aukera jasotzeko eskatzen du, eta esaten du, indarrean dagoen Plan Nagusian jasotzeko, aurkezten duten dokumentazio grafikoaren arabera.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazio idatzi honen inguruan, esan behar da, 2011ko ekainaren 28an Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat egin zuela eta hartan, derrigorrez eta izaera loteslez, halako kontu batzuk adierazten zirela aireko zortasunak betetzearekin loturik, Plan Nagusiaren dokumentuan aintzat hartu beharrak ezinbestean.

Txosten horrek hainbat kontsiderazio egiten zituen aintzat hartu beharreko zortasunak definitzen dituzten azaleretan dauden lurren inguruan, eta oso zehatz azaltzen zituen azalera horiek urra litzaketen eremuak edo esparruak, hala hiri zoruetan nola zoru urbanizagarrietan eta zoru urbanizaezinetan, eta eremu batzuekiko aurkako iritzia azaltzen zuen horiek urratzen edo urra zitezkeela ulertzean.

Geroago, eta legez ezinbestekoa zenez Txostenak mintzagai zituen esku hartze batzuen inguruko zehaztapena dokumentuen bidez jasotzea Plan Nagusia Behin-behineko Onarpen tramitera eraman aurretik, lan berezia egin zen Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatzeko, eta era berean hura AENArekin koordinatu zen agindutakora egokitzeko modua adostu ahal izateko.

Jarduera horien ondorioz, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren Txostena Tratatzeko dokumentua idatzi zen, behin-behineko onarpen dokumentuarekin batera doana, eta ukituriko plangintza esparruetan aurreikusitako hirigintza garapenen arabera egin litezkeen eraikuntzen mugei dagozkien zehaztapen guztiak jaso ziren bertan, eta bereziki, hurbiltze, goratze eta igarotze azaleren pean daudenei begira.

Era berean, sendoturiko zoru osoan zortasun horiek errespetatzeko betebeharra ere ezartzen du dokumentu horrek, urratzea onartuko bada ere aurrez sendoturiko eraikinak badira, zortasun horiek jadanik gainditzen dituztenak.

Era berean, dagokion kalifikazio xehea (IC alegazio idatzi honek helburu dituen eraikuntzen kasuan) aireko zortasunak urratzen dituzten edo urra ditzaketen eraikuntzetarako 1999ko Plan Nagusiak definitutakoen baldintza berdinetan mantentzeko aukera jaso da aipaturiko dokumentu horretan, Plan Nagusiak ere dagokion araudian jasotzen duena.

Horrenbestez, inolako aldaketarik gabe mantenduko dira eraikuntza horien bolumetria arautzeko baldintza espezifikoak, orain berrikusten ari den Plan Nagusian jada finkatuak zeudenak, eta horregatik eutsi egingo zaio zehaztapen honi eta lehen definituriko ordenantzen arabera egingo dira obrak.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, mantendu egingo da lerrokadura goren eraikigarria orain berrikusten ari den 1999ko Plan Nagusian jasotakoarekin bat eginez.

022 Punttako gasolindegia. Egoera argitzeko eskatzen dute idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

HAPNan hirigintza fitxa espezifikoa sortzeko eskatzen dute. Hartan sartuko litzateke zerbitzugunea eta islatu beharko lirateke zerbitzugune hori behin betiko eraberritzeko helburuak, eta baita aldameneko industria eremuari, Udalak onartutako 7-09 zenbakidun Irizpide eta Helburuen definizioan aipatzen denari, errematea ematen dion lurzoruaren kalifikazioa eta sailkapena ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusi honetan jaso da gasolindegiaren lursailarekin loturiko mugen zuzenketa, jabeen eta Aldundiaren artean adostutakoa kontuan izanik, eta Nafarroako Foru Komunitateak onartutako zuzeneko besterentzea ere, erabilpenik ez zuen eta N-121-A errepide zaharraren barnean zegoen lurrari zegokiona, aintzat harturik.

Hirugarren sektoreko gasolindegia erabilerarako lursail hau grafiatzean kontuan hartu da mendebaldean bide trazatu berria, ipar-ekialdean jabari publikoko oinezkoen pasealekua, Zaisaren mugan dagoena, eta hego-ekialdean bidegorria eta oinezkoen pasealekua, Bidasoa ibaiaren erriberan dagoenaren luzapen gisa eratu dena.

Bestalde, Aldundiak egindako egungo bidearen mendebaldean dagoen lurrari dagokionean, eta gaur egun dituen egoera eta neurriak kontuan harturik, ez baitute aukerarik ematen zerbitzu bide egoki bat egiteko ere, ezin da eraikitzeko aukerarik aintzat hartu. Gainera, kontsideratzen da irizpide hori ez dagoela arestian aipaturiko Irizpideen eta Helburuen dokumentu horretan jasotakoaren aurka, iparraldean dagoen

industria eremua luzatzeko eta zerbitzu bide bat egiteko ageriko ezintasuna aintzat harturik hartu baitzen erabaki hori, gainera bide nagusian eraginik ez izateko moduan egin behar zen bide hori.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, egindako kudeaketen eta hartutako erabakien arabera jasoko da gasolindegirako lursailaren grafiatua, baina bide nagusiaren mendebaldean dagoen lurra ez da birkalifikatuko.

005 IBERDROLA Plan Nagusiko energia elektrikoaren banaketa sarerako hainbat zehaztapen proposatzen dira idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Dokumentuan energia elektrikoaren banaketa sarearen garapena jasotzeko eskatzen dute, eta bereziki, garapen berrietan energia elektrikoaren beharrak handitu egingo direla aurreikus daitekeenez, beste Transformazio eta Banaketarako Subestazio bat (STR) jartzeko beharreko zoru erreserba egiteko Sistema Orokorreko zoru gisa, kontuan izanik azken hori Geltoki Inguruan edo Zubieta aldean jarri beharko litzatekeela. IBERDROLAK bere laguntza eskaintzen du sare berria diseinatzeko.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiari egiten zaion alegazio idatzi honi eta garapen berrietarako energia elektrikoaren banaketa sarea jasotzeko eskaerari dagokienean, bereziki Geltoki Ingurukoetarako eta Zubieta aldekoetarako, esan behar da sare hori jada jasoa dagoela, Plan Nagusi baten mailak eskatzen dituen xehetasun guztiekin, Energia Elektrikoaren Hornidurarako Sarearen S-3 zenbakidun planoan. Bertan kolore eta lodiera desberdineko marrekin ageri dira banaketarako lerro nagusiak, bai aurretik daudenak bai proposaturikoak, eta haien artean daude, logikoa denez, arestian aipaturiko bi esparru horiek, Geltoki Ingurua eta Zubieta aldea, zerbitzatzen dituztenak.

Sarea xeheago jaso ahal izateko, dagokion garapen plangintzak, esparru hauetakoak nahiz gainerako esparruetakoak, aurreikusitakoaren zain egon beharko da, plangintza nagusian ez baita egokia antolamendu zehaztapenekin bat etorriko ez litzatekeen trazatuen xehetasun mailan sartzea, horiek ere maila globalean finkatuta geratzen dira, eta horrenbestez, alda daitezke bideen eta etxe sailen forman.

Hala Geltoki Inguruan nola Zubieta aldean Transformazio Zentro berri bat jartzeko eskaerari dagokionean, Planaren Memorian, Sare Elektrikoa mintzagai duen 10.2 kapituluan, jada adierazitakora joko dugu. Zera adierazten da hartan. "*Plan Nagusiak proposaturiko garapen berrien kasuan, tentsio ertaineko sarea haietara hedatzea da helburua, eta bideragarria da aukera hori itxura guztien arabera. Horretarako adarrak atera beharko dira egungo 30 KV-ko aireko lerroetatik. Hauetako bat Zabaleta gainetik igarotzen da; beraz, Zabaletakoa lurperatu eta Araso Iparraldea eta Oiantzabaleta eremuetakoak luzatu beharko lirateke jarduera ekonomikoetarako aurreikusi diren eremu berrietara hedatzeko*".
Kapitulu horrek jarraitzen du esaten: "*Zabaldu ere egin beharko da sarea Zubietako parke teknologikoan, 30 Ha-tik gorako hedaduran, eta Geltoki Inguruan, 36 Ha-tik gorako hedaduran, aurreikusi diren eremuei zerbitzua eman ahal izateko, eta Ospitalea hornitzen duen saretik edo Letxunborroko hiribidean luzatua den tentsio ertaineko saretik egin ahal izango da hori. Matxalagain eta Blaiako bizileku eremu berriei*

dagokienez, tentsio ertaineko sareak zeharkatzen ditu eta, beraz, ez dago printzipioz inolako arazorik legozkiekeen hartuneak egiteko. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharko da lerro horiek lurperatu beharra, eremu horietako urbanizazio lanei ekiterakoan".

Azpizentralen kontuari dagokionean, berriz, kapitulu berean zera esaten da: *"13,2 KV-ko lerroak abiatzen dira Azpizentraletatik (7 lerro Anakako estaziotik eta 8 lerro Larreaundiko estaziotik), banaketarako transformadoreak elikatzeko. Behe tentsioko lerroak, 220 V eta 280 V bitartekoak abiatzen dira azken horietatik. Larreaundiko azpizentrala Oñaurreko lurretara igarotzea aurreikusi da".*

Horrenbestez, ulertzen dugu etorkizuneko beharrak ebaluatu eta deskribatu direla Planaren Memoria dokumentuan bertan, eta azpizentral berriaren beharra konpondua egongo litzatekeela Oñaurre inguruko STR berriarekin, idatzian iradokitako gainerako kokalekuetako bakar batek ere ez baitirudi egokia, biak oso hurbil daudelako Anakako Transformazio Estazio Zentraletik eta eremu konplexuagoan banaketa lerro berriak bideratzeko, betiere lurpetik joan beharko dutenak.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** idatzi honetan azaldutako lehenbiziko alegazioa, Plan Nagusian maila orokorreko banaketa sarea agertzeari dagokionean, ulertzen baita baldintza hori behar bezala betea dagoela hasieran onartutako Plan Orokorraren dokumentazio grafikoan. Bigarrenari dagokionean, proposamena ez da onartuko Planaren Memorian bestelako estrategia bat planteatu delako STRetarako, hasiera batean bederen hori aski izango bailitzateke garapen berrien eskariari erantzuteko.

2.- EPEZ KANPO AURKEZTUTAKO ALEGAZIO IDATZIAK

191 Pozuetakogaina – Jaizkibiel Urb. Espazio libre pribatuen bi eremu birkalifikatzeko eskatzen da idatzian

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztu den idatzi honetan eskatzen dute Jaitzubia hiribidearen eta Pozuetakogaina kalearen artean dauden bi lurzoru birkalifikatzeko; gaur egun Espazio Libre Pribatu Bizileku gisa kalifikatuta daude eta Bizileku Familiabakarra lursailean kalifikazioa emateko eskatzen dute.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazioak mintzagai dituen lur horiek espazio libre pribatu gisa definituak daude eta lursail eraikigarriekin loturik, Jaizkibelen 1965ko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren elementuen Aldaketa Puntualak bere garaian definitu zituen bezala. 1995eko urtarrilaren 25ean onartu zen betiko plangintza hori.

Plan Nagusi honek jaso eta baliozkotzat hartzen ditu garapen plangintza horrek jada definituriko zehaztapenak, ulertzen baita guztiz egokia dela hiriko inguru horretan aintzat hartutako eraikuntza soluzioa. Horrenbestez, ez da jada definituriko eraikigarritasuna handitzeko aukerarik jaso, ezta espazio libre gisa aurreikusitako zoru horren izaera ez eraikigarria aldatzeko ere, lekuaren izaera eta ingurumen baldintzak zaindu eta babesteko baita espazio libre hori.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **ezetsi egingo da** alegazio honen idatzia, eta ez da aintzat hartuko jada definituriko hirigintza zehaztapenen aldaketa.

192 Jacobo Arbelaiz 105 (5.2.05). Oso hondatua egoteagatik eraitsi zen eraikin bat zeukan finka bati bizileku kalifikazioa emateko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztu den idatzi honetan adierazten dute ez datozela bat HAPNak 5.2.04 Mendibil esparruari ematen dion kalifikazioarekin, suposatzen baita sendotu gabeko hiri zorua dela, baina leku berean bazegoen etxe bat RENFEko obrek eragindako kalteengatik eraitsi egin behar izan zena. Horrenbestez, bizileku lurzoru gisa kalifikatzeko eskatzen dute bertan bi familiako etxebizitza bat eraikitzeko aukera izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Alegazioan azaldutako gertakizunetan oinarriturik, alegazio hori epez kanpo aurkeztu izan arren, guztiz egiaztagarria den egoera izateagatik, uste dugu, erabat justifikatua dagoela jabeekin zerikusirik ez zuten arrazoiengatik eraitsi behar izan zenaren lekuan beste eraikin bat eraiki ahal izateko eskaera. Eraikuntza hori onar liteke orain

Hegoaldean dauden bizileku eraikinen ilararen erremate gisa, baldin eta eraikuntza horien lerrokadurak eta profilak mantentzen badira.

Hori dela-eta, aukera hori ezartzen da plangintza esparru baten bidez garatzeko jarduera gisa, eta horrenbestez, beste Hirigintza Fitxa bat erantsiko zaio Planaren dokumentuari, eta bertan definituko dira esparru berri hau garatzeko orain aurreikusten diren hirigintza baldintzak. Nolanahi ere, nabarmentzen da eraikuntza bat egiteko aukera aintzat hartuko dela, gehienez ere lau etxebizitza izango dituena. Era berean, Xehetasun Azterketa egin beharko da esparru honetarako.

ERABAKIA:

Adierazitakoaren arabera, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, aldatu egingo da eremu honetarako finkatutakoa, garatzeko esparru espezifiko bat sortuko baita Plan Nagusiaren dokumentuan.

190 **Gurutze aldea** Gurutzeko Soberakinen Biltegi gisa ezagutzen den eremuan ateratze jardueren erabilerarako baimena emateko eskatzen da idatzian.

193 **Construcciones Mariezkurrena.** Gurutzeko Soberakinen Biltegi gisa ezagutzen den eremuan ateratze jardueren erabilerarako baimena emateko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan gogora ekartzen da Gurutzeko Soberakinen Biltegian erauzte jarduerak egiteko proiektua aurrera eraman ahal izateko, hirigintza arloan legezkotu egin behar dela aldez aurretik erabilera horren ezarpena leku horretan. Hori dela-eta, uste dute erabilera hori ezarri behar dela zoru urbanizaezinaren zati horretan.

KONTSIDERAZIOAK:

“Gurutzeko Soberakinen Biltegia” sortu zen N-121-A errepidea, Laskuaingo biribilgunetik (Behobia) hasi eta Endarlatsaraino (Nafarroako mugan), Zabaldu eta hobetzeko Eraikuntza Proiektua aurrera eraman zenean. Obratik etorritako indusketa materialen soberakinak jasotzeko egitekoa zuen biltegi horrek, hauxe da, errepideko indusketaren ondoren soberan geratu ziren lurrekin bete zen Gurutzeko eremu hori (Urketegiko behe ibarrarekin zabaldua).

Gogora ekarri behar dugu Construcciones Mariezcurrena, S.L., Construcciones Zubieder, S.L., Nortunel, S.A. eta Urssa, S. Coop. enpresek osatutako ABEEari esleitu zitzaiola obra hori (2007/08/31ko GAO), eta 2009. urte amaieran erabat bukatutzat eman zela errepide hori.

Hala ere, lan horren amaieran, Ingurumen Eraginaren Adierazpenaren eta hartan jasotako baldintzen arabera bete zen Biltegi horretan, egiteko geratu zen betegarria ingurumen arloan lehengoratzeko lana.

Horren inguruan eta kontuan izanik biltegi hori behin-behinekoa zela, Udalak uste du eremu hori berreskuratu egin behar dela ingurumenari begira egoki lehengoratuta eta zoru Urbanizaezin kategoria aintzat hartuta.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **ezetsi egingo da** alegazio hauen edukia.

194 Ibarrola-Meakako bizileku lursailetan RU kategoria berrikustea. Eraikigarritasuna nabarmen handitu gabe ordenantza espezifikoa egiteko eskatzen da idatzian.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan Aurrerakinari aurkeztutako iradokizuna islatzen da eta kalifikazio xehea eta kategoria idatziarekin batera doan antolamendu eskemara (Katastro erreferentzia 99.98.028) egokitzeko eskatzen da. Lur hori 2 lursail bezala eratzeko eskatzen dute, 4 etxebizitzarekin guztira.

KONTSIDERAZIOAK:

Aurrerakinaren dokumentuari aurkeztutako iradokizunari eman zitzaion erantzunarekin bat eginez, eremu hori aztertu da eta onartu egingo da eraikigarritasuna handitzea eta lursailak tamaina egokiagoa izatea.

Meaka auzoko beheko alde lauan jaso da aldaketa hori, eta orain RU-3 kalifikazio xehea ezarri da lursail horietarako, sestra gaineko eraikigarritasun garbia 0,3 m^2/m^2-koa izango da, azalera eraiki gorena 450 m^2 eta 1.200 m^2 izango ditu gutxieneko lursailak.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, aldatu egingo da eremu honetarako finkatutakoa.

195 El Pilar Ikastetxea eskola ekipamendu pribatua dagoen lursailaren mugak egokitzea (EP-04).

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan eskatzen dute eskola lursailaren kalifikazioa egokitzeko Gain Gainean Parkerako, Ikastetxerako eta Egoitzarako sarbideetan obrak egin ondoren geratu den egungo egoeraren errealitatera. Horretarako, planoa aurkeztu dute, behin plangintza egokitu ondoren mugarriztatze horrek ukituriko finkak erregistroan erregularizatu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Honen inguruan, zentzuzkotzat hartzen da eskaera, hirigintza mailan erantzun egiten diolako topografia zailaren aurrean eman beharreko sarbideen soluzioari.

Hala eta guztiz ere, proposatutako mugaketa ezin da onartu planoan ageri diren baldintzetan, ulertzen baita lehentasuna duela behin-behineko izaeraz leku honetan dagoen futbol zelaia osorik Gain Gainean parkearen barnean mantentzeko interes publikoak. Horrenbestez, eskola lursailaren mugaren egokitzapenak errespetatu egingo du zelaiak okupatutako espazioa.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **zati batean onartu egingo da** alegazioa, ekipamendurako eskatutakoa onartu egingo baita, baina Gain Gainean esparruaren barnean mantenduko da futbol zelaia.

196 Letxunborro hiribidean merkataritza erabilera baimentzea

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan modu generikoan eskatzen da Letxunborro hiribidera ematen duten industria pabilioietan hirugarren sektoreko jarduera bat ezartzeko aukera emateko gutxienez 300 m^2a-ko azalera hartuta.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusiaren dokumentu hau idazteko prozesuan bereizi egin dira jada gauzatutako lurzoru batzuk, horien antolamendua definitu zuten plangintza xeheen araberako jarduera ekonomikoetarako zirenak. Hori egin da bertan egokitzat hartzen diren erabilera batzuk ezarri ahal izateko, aipaturiko plangintza horien zehaztapenak aplikatuta ezin baitziren ezarri.

Horixe da, hain zuzen ere, Letxunborro hiribidearen inguruaren kasua, orain Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru gisa globalki kalifikatua eta IC-02 gisa xehe kalifikatua dagoena. Kalifikazio xehe berri horrek aukera ematen du, industria erabilera nagusiaz gainera, hirugarren sektoreko erabilerak, bulego erabilerak eta beste batzuk ezartzeko. Era berean, kalifikazio xehe horrek aukera ematen du eraikin edukitzailea horizontalean nahiz bertikalean azpizatitzeko, 250 m^2-tik beherakoak izango ez diren sortetan, era horretan bideratu ahal izango baita eskatutako ezarpen hori.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, ulertzen baita hasieran onartutako dokumentuan eremu honetarako jada finkatutakoak jaso egiten duela alegazio honetan eskatutakoa.

197 eta 201 Erabilerekin loturiko kontuak Belasko pabilioian (hasierako onarpenean 1.3.10 esparrua).

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan, jabekideen komunitateak eskatzen du egungo erabilerak eta jarduerak mantentzeko Belasko eraikin osoan. Era berean, industria erabilerako azalera eraikia, eta egungo industria erabilerarekin bateragarria den hirugarren sektoreko erabilerarako azalera eraikia handitzeko aukera aintzat hartzeko eskatzen dute, Udalarekin finkatzen diren baldintzetan haren etorkizuneko garapenari eta gauzatzeari dagokionean.

KONTSIDERAZIOAK:

Belasko pabilioiaren jabeek egindako eskaerei dagokienean, bidezkotzat jo da indarrean dauden hirigintza zehaztapenei eustea, ulertzen baita pabilioiaren eraikuntza berezitasunek eta bertan ezarrita dauden jarduera ekonomikoek pabilioi hori osorik egungo erabilera baldintzetan sendotu beharra dakartela.

Aipatutakoarekin koherentzia gordetzeko, sendoturik geratuko da dagoen eraikigarritasuna, eta errespetatu egingo dira, Jabekideen Komunitateak adierazi bezala, orain arte indarrean egon diren hirigintza zehaztapenak: «*une hauetan garrantzitsuena da daukaguna sendotzea, eta ahaleginak egitea, ahal bada bederen, etorkizunean beste garapen batzuk aurrera eramateko zimenduak jartzeko, baina egungo erabileren eta jardueren esparruan betiere*».

Horregatik, Udal honetako Udal Zerbitzu Teknikoen iritziz, beharrezkoa da azterketa xeheagoa egitea eta han ezarritako jarduerak zehatzago ezagutzea, jabeek alderdi horiek nabarmendu baitituzte lehen eskutik ezagutzen dituztelako. Horrenbestez, haiei tokatzen zaie protagonista izatea eta aipaturiko pabilioi horretan bidera daitezkeen erabileren zehaztapenak hirigintza mailan zalantzan jartzeko orduan lehen bultzatzaile izatea.

Hori azaldu ondoren, kendu egin da 12.3.10: Belasko esparrua eta IC-2 gisa kalifikatua eta kategorizatua geratuko da pabilioia.

ERABAKIA:

> Adierazitakoan oinarriturik, eta azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** bi alegazioen edukia.

199 Txenperenea esparruari emandako eraikigarritasunari buruzkoa.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan eskatzen dute Planaren memorian jasotzeko 1999ko Plan Nagusitik indargabetzen dena, eta plangintza honek erkidegoko edo estatuko zein lege bete behar dituen esateko. Adierazten dute lau urte igaro direla Aurrerakina egin zenetik eta esparru ekonomikoaren aldaketa neurtu egin beharko litzatekeela. Azkenik, adierazten dute, Oñaurre eta Txenperenea esparruetako eraikigarritasun eta karga desberdinek kaltea dakarkiela Txenpereneako jabeei.

KONTSIDERAZIOAK:

Indarrean dagoen legearen arabera egin da Plan Nagusiaren dokumentu hau, eta horrenbestez, jaso egiten ditu, idazteaz arduratu diren teknikarien iritziz, onartzeko eta behar bezala erabili ahal izateko beharreko eta ezinbesteko zehaztapen guztiak.

Bestalde, eta kontuan izanik hasierako onarpen dokumentua idatzi zenetik igaro den denbora eta gaur egungo egoera ekonomikoa, beharrezkotzat hartu da datuak eta aurreikuspenak eguneratzea, eta hori guztia islatu da orain memorian, fitxetan, ekonomia eta finantza azterketan eta plangintza nagusi hau azaltzen duten gainerako dokumentuetan.

Oñaurre eta Txenperenea esparruen arteko konparazioari dagokionean, esan behar da hirigintza egoera desberdinak dituela horietako bakoitzak, eta hain zuzen ere

horrexegatik proposatzen dira hirigintza konponbide desberdinak, hori arbitrario edo zentzugabetzat jo badaiteke ere.

Horrekin loturik, esan behar da plangintza nagusi honetan “gauzatzen” ari den esparru gisa jaso dela Oñaurre esparrua, hura garatzeko aukera eman duten plangintza nagusien eta plangintza xeheen zehaztapenak baliozkotzat hartuz. Txenpereneari dagokionean, eta egindako azterketekin bat etorriz, lehen finkatutako eraikigarritasuna handitzeko aukera jaso du orain plangintza nagusi honek, eta baita Plan Partzial berri bat egiteko beharra ere, esparru hori xehe antolatu ahal izateko.

Era berean, esan behar da, idatzian adierazitakoa ez dela ulertzen Txenpereneako jabeek Oñaurrekoen aldean izango duten kalteari dagokionean, 0,496 m^2/m^2-ko eraikigarritasun indizea finkatu baita Oñaurre esparrurako, 60.600 m^2-ko eraikigarritasuna kontuan harturik 122.092,04 m^2-ko guztizko azalera batean; Txenperenea esparrurako, berriz, 0,519 m^2/m^2-koa da eraikigarritasun indizea, 85.000 m^2-ko eraikigarritasuna kontuan harturik 163.760,30 m^2-ko guztizko azalera batean.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **zati batean onartu egingo da** alegazioaren edukia, dokumentuko datuak eguneratzeko beharra kontuan harturik, baina ez gatoz bat Oñaurreko eta Txenpereneako esparruetako jabeen arteko kalte horrekin loturiko irizpidearekin.

200 Industria kalifikazioa Ambrogio izeneko SNU eremuan.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan eskatzen dute Ambrogio, S.A. enpresa dagoen finkaren hirigintza egoera legeztatzeko.

KONTSIDERAZIOAK:

Honi dagokionean, esan behar da ezinezkoa dela eskaera hori onartzea oso kokaleku berezian dagoelako, eta hiri sarearen barnean ez egoteaz gainera, isolatua egoteagatik eta hain tamaina txikia izateagatik eskatutako leku horretan ezin delako industria gunerik sortu.

Era berean, zoru urbanizaezin gisa sailkaturiko lurzoruan oso kokaleku berezian dagoenez, Aiako Harriko eremu babestuaren ia mugan, komeni da leku horretarako orain arte proposatu diren hirigintza zehaztapenei eustea.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **ezetsi egingo da** alegazio honen edukia.

202 Gaztelubide, Lastaola eta Pedro de Hirizar

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honek hiru zati ditu, Gaztelubide, Lastaola eta Pedro de Hirizar, 198. alegazioaren eduki berdinarekin. Ez du jasotzen alegazio hartan Papinea esparruari begira adierazitakoa.

KONTSIDERAZIOAK ETA ERABAKIA:

Alegazio honen inguruko kontsiderazioak eta erabakiak bat datoz 198. alegazioa dela-eta adierazitakoarekin.

203 eta 206 Gipuzkoa hiribidea. Villa Viviana etxea, hirigintza eraikigarritasuna edo/eta etxebizitza kopurua handitzea.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako bi idatzi horietan eskatzen dute Villa Viviana etxeko lursailaren RU-10 kalifikazioa aldatzeko, uste baitute ez dela egokia leku horren eta finka horren benetako gorabeherei erreparatuz gero. Halatan, lursailaren kalifikazio xehea aldatzeko eskatzen dute, RU-tik RP-ra pasatzeko, lursail bakoitzeko etxebizitza kopuru gorena handitu ahal izateko. Gainera, lursaileko lorategian etxebizitza bloke bat eraikitzeko aukera aipatzen du proposamenak; beheko solairua, lehenbiziko solairua eta atikoa izango lituzkete etxebizitzek eta 6 izango lirateke gehienez ere.

KONTSIDERAZIOAK:

Eskaera aztertu ondoren, eta kokalekuaren ezaugarriak kontuan izanik, egokitzat hartzen da kalifikazio xehea aldatzea, eta RU kalifikaziotik, Etxebizitza Familiabakarra, RP kalifikaziora pasatzea, Bizilekua Lursailean. Era horretan hirigunean trinkotze orekatua bultzatuko da, baina egungo profilari eutsiz, tipologia nahiz eraikuntza mailetan profil horrek aberastasuna ematen baitio Irungo hiribide nagusietako bati.

Hori hala izanik, uste dugu egokia dela RU-10 gisa kalifikatutako bizileku lursailek, Gipuzkoa hiribidera ematen dutenek, gaur egun duten eraikigarritasuna. Eraikigarritasun horrek aukera ematen du gaur egun dagoen bolumena handitzeko, eta mintzagai dugun kasu honetan ere, dagoen eraikigarritasunak aukera ematen du bizileku bloke berri bat eraikitzeko.

Horrenbestez, kalifikazio xehea aldatzen bada bete ahal izango dira lursailek gaur egun dituzten eraikuntza aukerak, eta haien aprobetxamendua handitu egingo da lursail bakoitzean etxebizitza gehiago egin ahal izango direlako.

Gainera, Plan Nagusiak jasotzen dituen beste aldaketa batzuk ere aintzat hartu behar dira, eragin zuzena baitute mintzagai dugun kasu honetan. Alde batetik, RP kalifikazioan jaitsi egin da etxebizitzako batez besteko azalera, 110 m²se izatetik 85 m²se izatera pasa baita, eta horri esker, kasu honetan 5 etxebizitza eraiki ahal izango dira lursail bakoitzeko, eta horrenbestez, 2 + BC profilarekin, gehienez 500 m²se-ko blokea lortuko litzateke, solairu bakoitzean bi etxebizitza eta atikoan etxebizitza bat atzera emana eta terrazarekin. Bestalde, Planaren berrikuspenak aukera ematen du 5

m² arteko terrazak eraikitzeko eraikigarritasuna kontatu gabe, eta horri esker etxebizitza bakoitzak espazio libre bat izango du kanpoaldean lursaileko eraikuntza gaitasuna murriztu gabe.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **zati batean onartu egingo da** idatzi honen edukia. Kalifikazio aldaketa onartu egingo da RU-tik RP-ra pasatzeko, baina eutsi egingo zaio 0,55 m²se / m²a-ko eraikigarritasun gorenari.

204 Errotako errepideko 33. zenbakiko industria lursailean jolaserako erabilera ezartzea.

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan Udalari eskatzen zaio lursail baten baldintzak aldatzeko, bertan kart pista bat egokitu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Honi dagokionean eta industria kalifikazio xehea duten lurzoruetarako orain jaso den baimendutako erabileren erregimenak aukera ematen du hirugarren sektoreko jolaserako erabilerak ezartzeko. Eskatutako instalazio hori jartzea onartuko luke, horrenbestez, xedapen berri horrek, baina aplikatu beharreko udal legeria eta arloko legeria kontuan harturik betiere.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** idatzi honen edukia, Plan Nagusi honen Araudiak baimendutako erabilera gisa onartzen baitu mintzagai dugun lursailean bideratu nahi den hirugarren sektoreko jarduera hori.

205 5.3.11: San Juan esparruaren mugak egokitzea bere jabetzan eraginik ez izateko

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan eskatzen dute esparruaren mugak egokitzeko, planoak lekuaren errealitatea isla dezan.

KONTSIDERAZIOAK:

Honi dagokionean, esparrua zertxobait zuzendu da salatutako erpin horretan, eta orain, lekuko kartografiara hobeto egokitzen da esparruko planoa, eta argiago ikusten da bere jabetzako lurrean ez dela eraginik sortzen.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** idatzi honen edukia.

207 Urantzu kalea 9. Orubearen atzealdeko eremua berdegunea ez izateko eskatzen da idatzian

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

3. eta 4. alegazioen ispilu gardena da idatzi hau, haien edukia honenaren berdin-berdina baita.

KONTSIDERAZIOAK:

Hasierako onarpen dokumentuan eta alegazio honetan aipatutako orubeetarako PERCAn aurreikusitako lerrokadurak aldatzea jaso da, eta eraikitzeko aukera aintzat hartu da orain, Hirigune Historikoko profilarekin (beheko solairua eta goiko hiru solairu) Papinea kaleak finkaturiko lerrokaduraraino.

Era berean, Urantzu kalera ematen duten eraikuntzak Papinea kaleraino luzatzeko aukera jaso da, Papinea kalearen eraketa errazteko irizpide gisa, beheko solairuko eraikuntza batzuk eta leku horretarako egokiak ez diren berdegune txiki batzuk kentzeko aukera aintzat hartuz eta irizpide horrekin betiere.

ERABAKIA:

Azaldutako kontsiderazio horien arabera, **onartu egingo da** alegazioaren edukia, eta gainera, aintzat hartuko da beheko solairua eta hiru goiko solairuko profilarekin eraikitzeko aukera.

208 Katean (Industrialdetik hurbil) industria lursailen kalifikazio xehearen mugak egokitzea

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako idatzi honetan industria lursailaren kalifikazioaren mugak egokitzeko eskatzen dute.

KONTSIDERAZIOAK:

Aintzat hartuko da eskatutako mugen aldaketa hori, egokitzat hartzen baita dagoen industria inguruari begira.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, aldatu egingo da eremu honetarako finkatutakoa.

209 Cs Zabaleta lurretan, 2.1.07: Jaizkibel esparrutik gertu, bizileku esparru berri bat sortzea

ALEGAZIOA LABURBILDUTA:

Epez kanpo aurkeztutako dosier txiki honetan eskatzen dute Zoru Urbanizaezinean bizileku esparru berri bat sortzeko. Horretarako, dokumentazio grafikoa eta idatzia aurkezten dute eta proposamena deskribatzen dute bertan.

KONTSIDERAZIOAK:

Plan Nagusi honek jasotako helburuekin bat eginez, ezin dira bizileku eremu berriak sortu zoru Urbanizaezinean. Horri dagokionean, esan behar da, 2.1.07 Jaizkibel esparrurako jasotako bizileku jarduera, idatzi honetan aurreikusitakoaren mugan badago ere, hiri zoruan bideratzen dela eta erreferentziako plangintza xeheak jada definitutako lursail batean.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **ezetsi egingo da** alegazio honen edukia.

3.- HASIERAKO ONARPENA BAINO LEHENAGOKO IDATZIAK

Pr 1 Olaketa 25. Eraikin baten teilatu altxatzea onartzeko eskatzen da idatzian

OHARRAK:

Idatzi hau 2010eko maiatzaren 22an aurkeztu zen, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpenaren aurretik.

Idatzi honek ez du inolako loturarik derrigorrezko epean Hasierako Onarpen dokumentuari aurkeztutako alegazioekin.

IDATZIAK JASOTZEN DITUEN GAIAK LABURBILDUTA:

Familiako beharrak estaltzeko, Olaketa kaleko 25. zenbakian dagoen bi familiako eraikinean etxebizitza kopurua handitzeko eskatzen da idatzian. Horretarako teilatua altxatu beharko litzateke, eraikinari aplikatutako RU-1 – 1. maila ordenantza aldatuta; 0,20 m²t/m²-ko aprobetxamenduarekin familia bakarreko etxebizitzen Ordenantza multzoan txikiena izango litzateke hori eta Golf urbanizazioa bezalako eremu familiabakarretan aplikatuko litzateke, Olaketa kalekoak bezala Irungo hiri izaera nabarmena dutenak baino kanporago daudenak, eta gainera Kolektiboa Lursailean Ordenantzaren araberako eraikuntzez inguratua dago eraikin hori.

KONTSIDERAZIOAK:

Eraikuntza honen baldintzak jabeen egiazko beharretarako egokitu ahal izateko, aldatu egingo da kalifikazio xehearen aldaketa, eta orain Bizileku Kolektiboa Lursailean 10. Maila (RP-10) kalifikazioa emango zaio lursail horri. Horri esker, eraikuntza hainbat etxebizitzatan banatu ahal izango da, baina dagoen eraikigarritasunari eutsiz betiere, eta horrenbestez, eraikuntzaren baldintza bolumetrikoak eta lursailaren izaera ere mantendu egingo dira.

Bestalde, esan behar da, ez dela ulertzen alegazio honekin batera zergatik aurkezten den informazio grafikoa, alegazioak mintzagai duen lursailaren mendebaldean eraikitako azalerari baitagokio. Horren inguruan esan behar da hasierako onarpen dokumentuan jada jaso dela eraikitako egiazko egoera, dagoen eraikuntza grafiatuta eta profilak finkatuta, eta kalifikazio xehe egokia jaso da halaber horretarako.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta aintzat hartuko da finkatutako kalifikazio xehearen aldaketa, baina dagoen eraikigarritasunari eutsiz betiere.

Pr 2 **Ibarrola hirib. 5.** Meaka aldean lursail hori RU-2 gisa kalifikatzeko eskatzen da idatzian.

OHARRAK:

Idatzi hau 2010eko maiatzaren 28an aurkeztu zen, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpenaren aurretik.

Idatzi honek ez du inolako loturarik derrigorrezko epean Hasierako Onarpen dokumentuari aurkeztutako alegazioekin.

IDATZIAK JASOTZEN DITUEN GAIAK LABURBILDUTA:

Ibarrola hiribideko 5. zenbakian dagoen lursailaren – Lasa Enea kalifikazioa du mintzagai idatziak, eta 2008an aurkeztutako eskaeran lursail hori RU-2 Bizileku Familiabakar gisa kalifikatzea proposatzen zen. Ez datoz bat urte hartan bertan Udalak emandako erantzunarekin, eskaera hark gai zuen lursaila ez baitago Arbesko Errota kaleko 15. zenbakiaren atzealdean, baizik eta Ibarrola hiribideko 5. zenbakian, eta Lasa Enea izeneko etxea dago bertan.

Era berean, ez zetorren bat arestian aipaturiko erantzun horretan adierazitako baldintzarekin. Haren arabera, eskatutako kalifikazioa azter liteke frogatzen bada lur horietarako ez dela beharrezkoa bidearen erabilera publikoa; adierazi dutenaren arabera, lur horiek ez baitute erabilera publikorik izan Bidasoako trenbideak zirkulatzeari utzi zionetik.

KONTSIDERAZIOAK:

Idatzi honetan adierazitakoarekin bat eginez, eta bide zati horren erabilera publikoa alferrikakoa dela ikusi ondoren, aintzat hartuko da Ibarrola hiribideko 5. zenbakian dagoen lursailaren zati horren kalifikazioaren zuzenketa, lehen Herri Bide (VL) gisa definitua, eta orain Bizileku Familiabakarra Lursailean kalifikazioa emango zaio horrenbestez.

Bestalde, esan behar da, jende aurreko erakustaldi hau aprobetxatuz eta Aurrerakinaren dokumentuari bere garaian aurkeztu zitzaizkion iradokizunak kontuan harturik, orain xehe aztertu dela Ibarrola hiribidearen eta Meaka auzoaren ingururako ezarritako eraikigarritasuna.

Aintzat hartu da Meaka auzoan beheko aldean eta Ibarrolako hiribidearen aldamenean, eta bide horren luzapenean, dauden lursailetarako ezarritako eraikigarritasuna aldatzea. Horrenbestez, ezarritako RU-02 kalifikazioa aldatu egingo da eta RU-03 kalifikazioa jasoko da lursail horietarako. Era horretan 0,30 m^2/m^2 arte handituko da eraikigarritasuna, gehienez 450 m^2-koa izango da azalera eraikia, eta gutxienez 1.200 m^2-ko azalera izango du lursailak.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, aintzat hartuko da lehen VL gisa definitutako kalifikazio xehearen aldaketa, eta orain RU-03 gisa birkalifikatuko da.

Pr 4 **Jaizkibel kalea 1.** Aurretik dagoen kalifikatu gabeko garaje bat onartzeko eskatzen da idatzian.

OHARRAK:

Idatzi hau 2010eko uztailaren 7an aurkeztu zen, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpenaren aurretik.

Idatzi honek ez du inolako loturarik derrigorrezko epean Hasierako Onarpen dokumentuari aurkeztutako alegazioekin.

IDATZIAK JASOTZEN DITUEN GAIAK LABURBILDUTA:

Jaizkibel kaleko 1. zenbakian dagoen familia anitzeko eraikin bati atxikita eraikitako garaje bat du mintzagai idatzi honek. Garaje hori ez dago kalifikatua 1999ko Plan Nagusian, baina aldiz dagokion OHZ ordaintzen ari da 2000. urteaz geroztik, eta horregatik, legeztatzeko eta Plan Nagusiaren Berrikuspen berrian sartzeko eskatzen du. Argazki dokumentazioa aurkezten du halaber.

KONTSIDERAZIOAK:

Aintzat hartuko da idatzi honetan adierazitakoa, eta horrenbestez, jaso egingo da Plan Nagusiaren dokumentuan, era horretan jasota geratuko baita egiazko egoera eraikia. Kalifikazio xehea jasotzen duen 1/2000 planoan grafiatuta islatuko da zehaztapen hori.

ERABAKIA:

Adierazitakoan oinarriturik, **onartu egingo da** alegazio honen edukia, eta horrenbestez, Plan Nagusiaren dokumentuan jasoko da egiazko egoera eraikia.

Pr 6 **Julio Caro Baroja plaza.** Artia auzoan etxebizitza kopurua liberatzeko eskatzen da idatzian, beheko solairuak etxebizitza bilakatzeko aplikatu ahal izateko.

OHARRAK:

Idatzi hau 2010eko irailaren 6an aurkeztu zen, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpenaren aurretik.

Idatzi honek ez du inolako loturarik derrigorrezko epean Hasierako Onarpen dokumentuari aurkeztutako alegazioekin.

IDATZIAK JASOTZEN DITUEN GAIAK LABURBILDUTA:

Artia auzoan, eta zehatzago esateko, Julio Caro Baroja plazan, etxebizitza kopurua liberatzeko eskatzen da idatzian, erosi duen lokal bat, plaza horretara ematen duena, etxebizitza bilakatu ahal izateko.

KONTSIDERAZIOAK:

Beheko solairuetan etxebizitzak egin ahal izateko, Udalbatzaren Osoko Bilkurak bere garaian onartutako ordenantzan jada jasota dauden baldintza batzuk bete behar

dituzte lokal horiek, eta Plan Nagusi honek horiek jasotzen ditu orain araudiaren zati gisa.

Era berean, etxebizitza kopuruaren zehaztapena ez da erregimen estrukturaleko zehaztapen gisa hartu behar, erregimen xeheko zehaztapen gisa ulertu behar baita.

Horrenbestez, eta baldin eta lokalak betetzen baditu etxebizitza izateko beharreko baldintzak, hori kontuan har liteke, baina eta zirkunstantzien arabera dagokion plangintza xehea aldatu behar izango da agian.

ERABAKIA:

> Adierazitakoan oinarriturik, **zati batean onartu egingo da** alegazio honen edukia, ulertuz beheko solairuan etxebizitzak egiteko aukera jada jasoa dagoela beharreko baldintzak betetzen dituzten lokaletarako eta etxebizitza kopuruaren ezarpena ez dela Plan Nagusiaren mailako zehaztapentzat hartu behar.

IRUNGO PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSPENEKO ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIAREN AURKIBIDEA

AURRERAKINARI AURKEZTUTAKO TXOSTENEN SARRERA 1
AV-01 2
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza. 2
· 2
AV-02 4
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Bioaniztasun eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusia. 4
· 4
AV-03 7
Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Sailburuordetzako Larrialdietako Arretarako Zuzendaritza 7
· 7
AV-04 9
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza 9
· 9
AV-05 10
Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioko Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiko Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia 10
· 10
AV-06 11
Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisaria 11
· 11
AV-07 12
Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Saileko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia 12
· 12
AV-08 13
Sustapen Ministerioko Estatuko Idazkaritzako Azpiegituren Idazkaritza Nagusiko Trenbide Zuzendaritza Nagusia 13
· 13
AV-09 14
Red Ferroviaria Vasca - EUSKAL TRENBIDE SAREA Erakunde Publikoa 14
· 14
AV-10 15
ADIF – Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza 15
· 15
AV-11 17
ADIF – Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza 17
· 17
AV-12 18
Garraioen Estatuko Idazkaritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia – Sustapen Ministerioa 18
· 18

HASIERAKO ONARPENAREN AURREKO TXOSTENEN SARRERA 19
· 19
AI-01 21
Eusko Jaurlaritza - Osasun eta Kontsumo Saila- Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza 21
Osasun publikoa / Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa 21
AI-02 22
Eusko Jaurlaritza – Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila – Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza 22
Zoru Urbanizaezina / Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa 22
AI-03 25
Eusko Jaurlaritza – Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila – Ingurumen Kalitate Zuzendaritza 25
Ingurumen ebaluaziorako prozedura 25
AI-04 29
Gipuzkoako Foru Aldundia - Bide Azpiegituren Saila - Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia 29
Sistema Orokorreko bide sarea eta bide sare egituratzailea. 29
AI-05 33
Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioa – Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia – Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza 33
Itsas-lehorreko mugatze publikoa eta ukituriko esparruak. 33
AI-06 35
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila – Kultura Ondarearen Zuzendaritza. 35
Ondasun katalogatuak eta kultura ondarearen interesekoak. 35
AI-07 38
Gipuzkoako Foru Aldundia - Kultura eta Euskara Departamentua – Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia. 38
Ondasun katalogatuak eta kultura ondarearen interesekoak. 38
AI-08 41
ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea - Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza. 41
Geltoki esparruari buruzko zehaztapenak eta beste kontu batzuk 41
AI-09 46
Sustapen Ministerioa - Burdinbide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia 46
Geltoki esparrurako zehaztapenak 46
AI-10 47
Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisaria 47
Planteatutako hirigintza garapen berrien eskaerei erantzuteko baliabide hidraulikoak izatea 47
AI-11 48
Industria, Energia eta Turismo Ministerioko Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiko Telekomunikazio Sare eta Operadoreen Zuzendariordetza Nagusia. 48
Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Legearen 26.2 artikuluaren betetzearen inguruko zehaztapen batzuk. 48
AI-12 49
Sustapen Ministerioa – Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia 49
Donostiako Aireportuko aireko zortasunak 49

BETIKO ONARPENAREN AURREKO TXOSTENEN SARRERA 80
AD-1 81
EAEko Lurralde Antolakuntza Batzordea. 81
Lurralde Antolakuntzaren alorreko balorazioa 81
AD-2 86
Etxebizitza Sailburuordetza 86
Babes Publikoko Etxebizitzen eta Hornidura Bizitokien estandarren alorreko balorazioa 86
AD-3 87
Ingurumen Sailburuordetza 87
Ingurumenaren gaineko eraginaren Betiko Txostena. 87
AD-4 91
Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia 91
Aireko Zortasunen alorreko balorazioa 91
AD-5 92
Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusia 92
Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren, Zortasunaren eta Afekzioen alorreko balorazioa. 92

PLANGINTZAREN AURRERAKINARI AURKEZTURIKO TXOSTENAK – IRUNGO HAPN-

AURRERAKINARI AURKEZTUTAKO TXOSTENEN SARRERA

Plangintzaren Aurrerakinaren jendaurreko informazio epearen bitartean, **12 txosten** desberdin jaso ziren Irungo Udalean, hainbat Administrazio eta Erakunderen aldetik.

Txosten hauen edukia **gomendio edo iradokizun** moduan aurkeztu zen batzuetan, eta txostenaren erakunde igorlearen geroko aldeko Txostena lortzeko **zehaztapen lotesle edo baldintza** gisa besteetan. Plan Nagusiaren Hasierako Onarpenerako dokumentuaren prestakuntza garaian zehaztasun handiz eztabaidatu ziren gaiak mahairatu zituen eduki hark, guztiz ulerturik txostenen derrigorrezko zehaztapenak, maila juridikoan izaera loteslekoak zirela kontuan harturik, zuzenean hartu behar zirela aintzat Planaren barruan. Eta halaxe egin zen.

Gomendio gisa planteatu ziren gaien kasuan, kontuan harturik Aurrerakinari txostenak aurkeztu zizkioten erakundeen arlo izaera gehienetan nabaria, guztiz behar izan ziren aipaturiko eskaera edo baldintza haiek zegokien esparruan ongi kokatu, Txosten haietan adierazitakoa egokiro interpretatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, gomendio haietako batzuen erreferentzia esparrua udal eremutik harantz zabaltzen zen txosten batzuetan, eta halako zehaztasun eza nabaritzen zen beste batzuetan, edota une hartan lege indarrik ez zuten txosten, aurreproiektu edo proposamenei zegokien iradokizunaren edukia.

Arazo hori dela-eta, esan behar da, Aurrerakina aurkezteko unean, ordutik lau urtera ere Behin-behineko Onarpen dokumentuarekin gertatzen den bezalaxe, eta gomendio gisa aipatzen diren alderdi batzuk lantzeko eta behar bezala jaso ahal izateko, indarrean egon beharko lukeen lurralde antolamendurako **udalaz gaindiko esparru** baten **hutsa** nabari dela oraindik ere, hauxe da, Donostialdea-Behe Bidasoako Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartua izatea.

Kontua da Udal batetik ezin direla bideratu nolabait ere bere **lurralde esparru hertsitik** kanpo dauden **alderdiak**. Lurraldearen Arloko planak pixkanaka-pixkanaka onartzen joan izanak, zorionez prozesu horrek aurrera egin baitu Behin-behineko Onarpenerako dokumentua idatzi bitartean, **neurri batean arindu du** gidalerroen eta irizpideen zehazte **huts hori**, baina betiere ez dago eskualde mailako eta udalaz gaindiko mailako zehaztapen hori, hala aginduak finkatzeari begira nola arloko zehaztapen desberdinen arteko bateragarritasun alderdietan.

Horregatik guztiagatik, gomendioak jasotzen zituzten Txostenen edukien kasuan, ahaleginak egin ziren Plan Nagusiaren helburu nagusiarekin, hauxe da, udal esparruan lurraldea antolatzeko helburuarekin **bateragarri egiteko**, kalifikazio eta sailkapen desberdinak bideratzeko lurzoru beharra bermatzeko eta dokumentu berri hau indarrean egongo den bitartean planteatuko diren beharrei erantzun ahal izateko betiere.

AV-01

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza.

.

Txosten hau 2009/03/17an egin zen eta 2009/04/27an sartu zen Irungo Udalean. Lehen Kapituluan AURREKARIAK jasotzen ditu, eta bertan plangintza aldatzeko espedientearen tramitazioa ageri da laburbilduta eta hirigintza garapen, espazio libre, ekipamendu eta bide nahiz burdinbide sareen inguruko proposamen nagusiak ere azaltzen dira, Zoru Urbanizaezinaren inguruko proposamenez gainera.

Ondoren, HAPNaren prestaketan aintzat hartu beharreko ingurumen alderdien Azterketaren atala dator, eta hartan, Sailburuordetzak 2008/10/24an egindako Erreferentziako Dokumentuan jasotako ingurumen irizpideak esplizituki jaso behar direlako aipamena egiten du hasteko, eta proposamen bakoitzean Irizpide desberdinak sartzeko beharra ere aipatzen du, teknikoki eta ingurumen mailan bideragarriak izan daitezen eta ingurumen irizpideekin loturiko legeriarekin bateragarriak izan daitezen.

Irizpide horiek hainbat alderdi jasotzen dituzte, lurzoruaren erabilera arrazional eta intentsiboa, pertsonen mugikortasun eskaeraren kudeaketa, ahal den neurrian bederen lurzoruaren artifizializazioak baztertzea 100 urteko epean uholde arriskua dagoen lekuetan, aniztasun ekologikoaren galera geldiaraztea, landarediaren kontserbazioaz arduratzea, batik bat zuhaitzena, lurzoruaren zigilatzea murriztea, energiaren aurrezpena bultzatzea, ur kontinentalak eta lurpeko urak babesteko eta kontserbatzeko neurriak ezartzea, eta zarata maila handien eraginpean dauden biztanleak urritzea.

Gainera, arreta berezia behar duten Irizpide gisa agertzen dira honako hauekin loturiko ingurumen alderdiak: Aiako Harriko Parke Naturala eta GKL, Txingudiko Bidasoa Babesteko Plan Berezia, 92/43/CEE Zuzentarauaren I. Eranskinaren arabera garrantzi komunitarioa duten beste esparru batzuk, faunarentzat interes berezia duten beste eremu batzuk, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuan sartutako Paisaiak, interes geologikoko eremuak eta lekuak, Balio Agrologiko Handia duten lurzoruak eta Korridore Ekologikoak.

Bigarren, Zoru Urbanizaezineko proposamenen Azterketaren atala dago, eta bertan eskatzen da, jada babes-irudi bat onartua duten lurzoruetarako Aurrerakinean proposaturiko “Lege Babesa duten Espazioen” irudia argitzeko. Era berean, azaleko Urak Babesteko Zoru urbaniezaezin Kategoria sortzea proposatzen dute, eta gomendatzen dute komeni dela Kategorien erregulazioa LAGen irudian oinarritzea, eta gomendio bat egiten dute halaber Korridore Ekologikoen Sarean eta EAEko Paisaia

Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuan ageri diren espazioen baldintzatzaile gainjarri gisa sartzearen inguruan.

Hirugarren, IEBEAren, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketaren inguruko atala dator. Bertan esaten da hausnartu egin behar dela aurreikusitako etxebizitza kopuru gorena, justifikazioari dagokiola ulertzen da. Hierarkia mailan goragoko dokumentu, azterketa, plan eta programa batzuekiko bat etortze edo interakzioaren inguruko zehaztapen batzuk ere azaltzen dira.

Era berean, eragina izango den esparruaren ingurumen azterketa, diagnostiko eta balorazioa ere aipatzen atal honetan, eta baita IEBEAk bete beharko dituen alderdi jakin batzuk ere. Beste hainbat kontu ere aipatzen dira, alternatiben ingurumen azterketa eta aukeratutakoaren justifikazioa, Planaren eta haren esku hartzeen eraginen identifikazioa eta balorazioa, onargarria baino eragin handiagoa izateagatik berriz finkatu edo kendu behar diren Planaren esku hartzeak, izan daitezkeen eragin negatiboak aurreikusi, zuzendu eta konpentsatzeko aurreikusitako neurriak, eta azkenik, Planaren eraginak aurreikusteko programa.

Laugarren eta azkena, Ondorioen atalarekin bukatzen da Txostena. Honako hauek aipatzen dira ondorio horietan: IEBEAren edukia, ingurumen eraginaren banakako ebaluazioa behar duten esku hartzeak, proposatutako esku hartzeen eraginen azterketa, diagnostikoa eta balorazioa egiteko orduan legeetan aurreikusitakora egokitzeko beharra, eta Plan Nagusiak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan eskatutako dokumentazioa izateko beharra.

Aurretiko txosten honen eta hurrengoaren edukia lantzeko modua garatu zen Planeko Memoriako Inguru Fisikoa Kapituluaren 3.2.2. atalean. Gainera, bi Txosten horien inguruan beharreko balorazioa egin zen Irungo HAPNaren Ingurumen Inpaktuaren Atariko Txostenaren betetze maila justifikatzen duen Memoria izeneko dokumentuarekin loturiko alderdi guztiei begira. Plan Nagusiaren tramitazioan sartu zen berex memoria hori.

AV-02

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Bioaniztasun eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusia.

.

Txosten hau 2009/03/25ean egin zen eta 2009/04/14an sartu zen Irungo Udalean. Lehen Kapituluan AURREKARIAK jasotzen ditu, eta bertan plangintza aldatzeko espedientearen tramitazioa ageri da laburbilduta.

Ondoren, eta bigarren Kapitulu gisa, AURRETIKO KONTSIDERAZIO batzuk azaltzen dira, eta N-1 errepideko saihesbidearen inguruan Planak egiten dituen proposamenak, eta bereziki, espazio babestua ez okupatzeko Mendelu – Plaiaundiko zatirako proposaturiko soluzioa, aipatzen dira horietan.

Hirugarren kapituluan, berriz, BIOANIZTASUNEAN IZANGO DEN ERAGINAREN AZTERKETA egiten da eta KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK aipatzen dira. Kapitulu hau beste 6 azpikapituluan banatua dago. Hona hemen horien edukia laburbilduta:

Lehen azpikapituluan EBALUAZIO ESPARRUA ETA HAPNaren ESPARRUA aipatzen dira, eta esaten da udal barrutiaren mugetatik harantz igarotzen dela lehenbizikoa.

Bigarren azpikapituluak NATUR GUNEAK ditu mintzagai. Lehenengo, NATURA 2000 SAREKO espazioak aipatzen ditu: Aiako Harriko GKLa, Txingudi – Bidasoako GKLa eta Txingudiko HBBEa. Espazio horiei dagokienean, Plan Nagusi berriaren arabera horietan eragina izan dezaketen esparruak eta esku hartzeak aipatzen ditu: Zubimusu “1” eta Zubimusu “2”, eta ildo horretatik esaten du Plan Nagusiaren Aurrerakinarekin batera egin zen IITa osatu gabe egongo litzatekeela habitatetan eta espazioetan izan daitekeen eraginaren ebaluazioaren azterketari begira. Era berean, Txingudi – Bidasoa GKL/HBBE osorik zoru urbanizaezin gisa jasotzeko eskaera du mintzagai.

Azpikapitulu honetan bertan NATUR GUNE BABESTUAK aipatzen dira ondoren, eta zehatzago esateko, Aiako Harriko Parke Naturala, hura sartzea egokitzat hartzen baita; TXINGUDIKO PLAN BEREZIA ere aipatzen da, eta haren inguruan esaten da zati bat hiri zoru urbanizagarrian sartu dela eta egungo mugetara eta antolamendura egokitu beharko liratekeela haren mugak. Intereseko beste gune batzuen aipamenarekin osatzen da kapitulu hau, esate baterako, RAMSAR 3ES048 hezegunea, hori ez litzatekeelako behar bezala jasoa egongo, Bidasoako Paduren eta Terrazen natur intereseko Eremua eta Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, haren barneko eremu batzuk ez bailirateke Bereziki Babestu eta Hobetzeko ZU (zoru

urbanizaezin) gisa islatuak egongo. Blaia esparruan dauden eremu batzuk ere mintzagai ditu, eta esaten da horiek ere zoru urbanizaezin gisa jaso beharko liratekeela Lurraldearen Arloko Plan honen arabera.

Hirugarren azpikapituluak LANDAREDIA, HABITATAK ETA HETEROGENEOTASUN ESPAZIALA ditu mintzagai. Habitaten inguruko Zuzentarau europarraren arabera bereziki zaindu beharko liratekeen espezie batzuk aipatzen ditu, eta esaten du Zoru urbanizaezinaren zonifikazioa hobetu egin beharko litzatekeela, hainbat esparruk eragina dutela espezie horiengan eta IITan aztertu behar liratekeela.

Laugarren azpikapituluak FLORA ETA FAUNA espezieak ditu mintzagai. Bien zerrenda egiten du eta IITan jasotako fauna azterketa xehetasun maila handiagoaz osatzeko beharra aipatzen du.

Bosgarren azpikapituluak KORRIDORE EKOLOGIKOAK ditu mintzagai. Zoru Urbanizaezinaren zonifikazioak Korridore Ekologikoen sarea jasotzeko eskatzen du antolamenduaren baldintzatzaile gainjarri gisa, eta bereziki aipatzen du Arasoren Luzapena esparrua, harekin loturik esaten baitu ezetsi edo birdefinitu egin behar dela Aiako Harria – Jaizkibel Korridorearen funtzionaltasuna eta lotura bermatu ahal izateko.

Seigarren azpikapituluak PAISAIA du mintzagai, eta gomendatzen du paisaia arloan balio handia duten eremuak, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuan aipaturikoak, baldintzatzaile gainjarri gisa sartzeko udal araudian.

Ondoren, Txostenak ZORUAREN OKUPAZIOAREN kontua planteatzen du laugarren Kapituluan. Halako apreziazio batzuk egiten ditu zoruaren kontsumoaren erritmoaren eta 50 urterako sailkapen aurreikuspenen inguruan, eta horietakoren bat ez dator bat Aurrerakin dokumentuan benetan planteatutakoarekin. Era berean, halako aipamen batzuk egiten dira estatuko 42/2007 legeak, EAEko 2/2006 legeak, EAEko II. Ingurumen Esparru Programak eta hirigintza plangintza iraunkortasun irizpideekin idazteko proposaturiko Eskuliburuak jasotzen dituzten alderdi batzuen inguruan. Laburbilduta esaten da Plangintzaren Aurrerakinaren proposamenak ez liratekeela bat etorriko Europar Batasunean eskualdearen eta lurraldearen garapenaren bioaniztasunarekiko bateragarritasuna indartzeko Europako Batzordearen helburuarekin.

Bosgarren Kapituluan, berriz, BESTE KONTSIDERAZIO batzuk jasotzen dira. Horietan Olaberria Ingurua aipatzen da lehenbizi, eta eskatzen da eremu horretako esku hartzea bertan behera uzteko, natur baliabideetan eragina izan litekeelako landa-baso izaera nabarmena duen eremu horretan; esaten da halaber neurri zuzentzaileek eraginkortasun txikia izango dutela, mugikortasun arazo handiak egongo liratekeela eta esku hartze horrekin loturik garapen berriak eragiteko arriskua egon litekeela. CAF

lekuz aldatzeari dagokionean, eskatzen da argi uzteko etorkizunean egongo litzatekeen leku hori jada proposaturiko esparruetan edo Aurrerakinean adierazi ez diren beste batzuetan egongo den. Indusketaren soberakinen norakoari dagokionean, berriz, horientzat esparru bat proposatzeko beharra aipatzen du.

Seigarren eta azken Kapituluan ONDORIOAK jaso dira. 12 kontu aipatzen dira, eta horietatik hamar lehenbizikoak aurreko kapituluetan aipatu diren alderdien inguruak dira. 11. Ondorioan esaten da IITan proposatzen diren neurri zuzentzaileak Planaren araudi orokorrean edo partikularrean jasotzeko, eta 12. Ondorioak berriro ere esaten du kendu edo birdefinitzeko Txingudi Bidasoa GKL-HBBE ukitzen duen Iparraldeko saihesbidearen proposamena, Araso Iparraldea esparrurako proposamena eta Olaberria Ingurua esparrurako proposamena.

Txostenarekin batean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Bioaniztasun Zuzendaritzaren datu-base geografikoarekiko bat etortzeak Laburbiltzen dituen II. Eranskina aurkezten da. Hartan erreferentzia plano batzuk ageri dira amaieran.

Aurreko Txostenarekin batera baloratu zen Txosten hau.

AV-03

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Sailburuordetzako Larrialdietako Arretarako Zuzendaritza

.

Txosten hau 2009/03/5ean egin zen eta 2009/03/12an sartu zen Irungo Udalean. Lehen Kapituluan SARRERA ageri da, eta bi ohartarazpen egiten dira bertan, lehenbizikoa, Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibilerako lurralde planen eta plan berezien aurreikuspenetan jasotako arriskuen inguruan egiten den erreferentzia esklusiboaren inguruan, eta bigarrena Txosten honen edukiaren informazio izaeraren inguruan.

Txostenaren bigarren atalean IRUNGO HAPNaren ARRISKUEN ANALISIA aipatzen da. Aztertutako arriskuen barnean Uholdeak izateko Arriskuak, Arrisku Sismikoak, Baso-sute Arriskuak eta Arrisku Teknologikoak planteatzen dira.

Atal honen barnean, Txostenak azpiataletan biltzen ditu UHOLDEEKIN LOTURIKO ARRISKUAK, eta tresna marko gisa aipatzen ditu Arroen Plan Hidrologikoa, Irungo kasuan Iparraldeko Arroa III, eta EAEko ibaien eta erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta aztertutako analisi gisa, berriz, EAEko uholdeen Prebentziorako Plan Integrala eta EAEko hiriguneetako uholde arriskuaren Azterketa 2001 – 2005.

Ondoren, eta betiere uholdeekin loturiko arriskuen inguruan, Bidasoa ibaiaren behe ibilguaren identifikazioa eta 10, 100 eta 500 urtera uholdeak izateko arriskua duten orbanak aipatzen dira, eta baita Endara eta Domikoko urtegiak ere dagozkien larrialdi planekin loturik.

Aurrerago, uholdeak izateko arrisku mailaren arabera zorua erabiltzeko Irizpideak garatzen ditu Txosten honek. 10 urtean uholdeak errepikatzeko arriskua duten eremuak bereizten ditu, gaur egun urbanizatuta ez daudenak eta gaur egun urbanizazio sendotua dutenak bereizita. Beste horrenbeste 10 eta 100 urtean uholdeak errepikatzeko arriskua duten eremuetarako, eta azkenik, 100 eta 500 urte artean uholdeak errepikatzeko arriskua duten eremuetarako, betiere gaur egun urbanizatu gabe daudenak eta gaur egun urbanizazioa sendotua dutenak bereizita.

Uholdeekin loturiko arriskuak aztertzen jarraitzen du, 500 urtean uholdeak errepikatzeko arriskua duten eremuetatik kanpo dauden eremuen kasuan oraingoan, egungo egoeraren bi kasu horiek berak aintzat harturik, eta EAEko ibaien eta erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren erretiro hidraulikoak eta Iparraldeko III. Plan Hidrologikoaren arauetan xedaturikoa errespetatzeko beharra aipatuz

bukatzen da Txostenaren atal hau. Irungo udalerrirako 500 urterako prezipitazio-isomaximoak ezartzen ditu halaber.

ARRISKU SISMIKOARI dagokionean, Txostenak adierazten du VI. Intentsitate eremuan dagoela Irun Larrialdi Planen arabera 2006ko iraileko Arrisku sismikoaren aurrean, eta horrenbestez, ez du Arrisku Sismikorako Larrialdi Planik egiteko beharrik.

BASO-SUTE ARRISKUARI dagokionean, Basoko Erregai-moten Eredua eta landarediaren kartografia aurkezten ditu Txostenak, eta arriskuen mailari dagokionean, esaten du ezer ezetik hasi eta maila handirainoko arriskuak daudela, bereizitako landaredia eremuen arabera aplika daitezkeenak.

ARRISKU TEKNOLOGIKOEI dagokienean, bereizi egiten dira Merkantzia Arriskutsuen Garraiotik, SEVESO II Arauditik eta aireportu azpiegituretatik etorritakoak. Alde batetik, Irungo Udal Larrialdi Plana aipatzen da, bestetik, esaten da udalerrian ez dagoela arriskutsua izan daitekeen industria jarduerarik, eta azkenik, aireportuko Larrialdi Plana.

Txostenaren hirugarren atalean OINARRITZAT HARTUTAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA JURIDIKOA aipatzen dira. Horien artean daude Babes zibil eta larrialdietarako Euskal Araudia, alor horretako Estatuko Araudia eta arriskuekin loturiko gainerako Arauak eta Dokumentazio Teknikoa.

Txostenaren laugarren atalean erreferentziako PLANIMETRIA aipatzen da.

Txosten honen balorazioa egin zen eta beharreko neurriak hartu ziren lotesletzat hartutako irizpide guztiei zegokienean. Gainera, Txosten honen inguruan beharreko balorazioa egin zen Irungo HAPNaren Ingurumen Inpaktuaren Atariko Txostenaren betetze maila justifikatzen duen Memoria izeneko dokumentuarekin loturiko alderdi guztiei begira. Plan Nagusiaren tramitazioan sartu zen berex memoria hori.

AV-04

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza

.

Txosten hau 2009/01/19an egin zen eta 2009/01/27an sartu zen Irungo Udalean. Adierazten du plangintza aurkeztutako dokumentazioaren arabera gauzatzen bada ez dela ingurumen eraginaren azterketa egiteko orduan kontuan hartu beharreko osasun publikoaren gaineko eraginik sortuko, kontuan hartu behar direnez eta Planaren esparruaren inguruan eragina izan dezaketenez gain.

Txosten honen ondorioz ez zen inolako aldaketarik egin behar izan.

AV-05

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioko Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiko Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia

.

Txosten hau 2009/03/27an egin zen eta 2009/04/27an sartu zen Irungo Udalean. Hasteko lehen kontsiderazio batzuk egiten ditu Irungo Plan Nagusiaren espedientearen tramitazioaren inguruan. Irungo udalerriari dagozkion DL-30-GUI eta DL-30/1-GUI mugaketak aipatzen ditu, eta adierazten du, planoetan behar bezala adieraziak badaude ere, itsasoaren erriberako lerroarekin osatu beharko direla ILJParen lerroarekin bat ez datozen zatietan.

Ondoren, Kosta Legeak ukitzen dituen proposaturiko plangintza esparruak aipatzen ditu, hauxe da, Zubimusu 1, Eguzkitzalde, Zubimusu 2, Artia pasealekua eta Lastaola Postetxea, eta baita babes-zortasunaren eremuan dauden eraikuntzak eta haien legezko erregimena ere. Era berean, abiadura handiko linea Bidasoan gurutzatzeko proposamena aipatzen du, eta baita Iparraldeko saihesbidea zabaltzeko proposamenak ere, jabari publikoa ukitzen dutenak.

Azkenik, Kosta Legearen mugak plangintza Fitxetan, idatzizko zatian zein grafikoki planoetan, jasotzeko beharra aipatzen du, eta muga horiei buruzko alderdien xehetasunak azaltzen ditu.

Txosten honi dagokionean, bertan zehaztutakoa aurrera eraman zen Plan Nagusiaren kartografian ILJParen lerroarekin bat ez datozen zatietan itsasoaren erriberako lerroa jasotzeari zegokionean, eta hori xehetasunez jasota geratu zen A1 Kosta Legearen Hirigintza Afekzioen Plano espezifikoan 1/5.000 eskalan. Era berean, eskatutako aipamen hori egin zen Esparruen Fitxa guztietan.

AV-06

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisaria

.

Txosten hau 2009/05/04an egin zen eta 2009/05/12an sartu zen Irungo Udalean. Lehen kontsiderazio bat egiten du esanez bi kokagune hidrografikoren barnean dagoela udal barrutia, eta adierazten du, txostenak jasotzen duenari begira ez dela garapen berririk planteatzen.

Esaten du dokumentuaren Memorian ez dela hornidura, saneamendu eta arazte azpiegituren lehen analisirik egiten, baina IITan bai aipatzen da. Adierazten da San Antongo urtegia ez dela aski eta Hondarribian Jaizkibeletik datozen iturrietatik hornitzera jotzeko.

Saneamenduari dagokionean, Atalerrekako HUAren bidez egiteko esaten du. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren eskumen esparrutik kanpo dago hori.

Azkenik, esaten du hasierako onarpen dokumentuan jasotzeko azkenean planteatuko diren garapenetatik etorritako beharrei erantzuteko beharreko baliabide hidrikoen azterketa, 1/2001 ED, Uren Legearen Testu Bateratuak aurreikusitakoaren arabera bidezkoak direla justifikatzeko.

Aurretiko txosten honen edukia osorik eta xehe garatu zen Planeko Memoriaren Garraio Azpiegituren Kapituluko 10.1 eta 10.2 azpikapituluetan, kapitulu horretan behar bezala justifikaturik baitzeuden Plan Nagusiaren muga-eperako aurreikusitako garapenetarako ur hornidurarako beharreko erreserbak.

Hasierako Onarpen faseko Erakundeen Txostenen inguruan esan den bezala, erreserba horiek murriztu egin dira gero eta biztanleria proiekzio berrietara egokitu dira.

AV-07

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Saileko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia

.

Txosten hau 2009/01/29an egin zen eta 2009/02/04an sartu zen Irungo Udalean. Zaratari buruzko 37/2003 Legean aurreikusitakoa eta hura garatzen duen 1367/2007 Errege Dekretua, eta zehatzago esateko, azken horren 9. eta 11. artikuluak, zortasun akustikoei eta hirigintza plangintzari buruzkoak, ditu mintzagai.

Era berean, Zarataren Mapak aipatzen ditu, eta zehatz esateko, izaera orokorreko bide ardatz jakin batzuetako Zarataren Mapa Estrategikoak, eta adierazten du, zortasun akustikoaren eremuen berariazko mugaketa egin gabe dagoenez, 1367/2007 Errege Dekretuak xedaturikoaren arabera egingo dela hura, a) moldeko eremu akustikoaren muga-balioei jarraiki, eredu hori baitagokie erabilera nagusia bizilekua duten sektoreei.

Txosten honen edukiari dagokionean, adierazten zen, zarataren mapen argitalpena aplikatzen den unean aurreikusitakoa beteko dela.

AV-08

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Sustapen Ministerioko Estatuko Idazkaritzako Azpiegituren Idazkaritza Nagusiko Trenbide Zuzendaritza Nagusia

.

Txosten hau 2009/01/21ean egin zen eta 2009/02/06an sartu zen Irungo Udalean. Zuzendaritza Nagusi horren kontura idatzitako Irun – Hendaia Burdinbide Eremua Birmoldatzeko eta hirian integratzeko Azterketa du aipagai. Azterketa horrek plangintzaren Aurrerakinak proposatutakoen antzeko jarduerak proposatzen ditu eta Udalarekin koordinatzen ari dira.

Era berean, trenbidearen Hegoaldeko esparruan, Gaintxurizketa eta Auzolango egungo zubiaren artean, proposaturiko esku hartzeak ditu mintzagai Txostenak, eta aipatzen du interferentziak egon litezkeela EAEko Trenbide Sare berriaren Informazio Azterketan onartutako trazatuekin, Irunera sartzeko trazatuak esku hartze horiek baldintzatu litzakeela adieraziz, eta Trenbide Sare berriko Hernani - Bidasoa Ibaia azpizatiarekin EAEko Trenbide Sare berriaren inguruko Azterketa Osagarrien esparruan. Horregatik guztiagatik koordinazioa zabaltzea planteatzen du esku hartze guztiak bateragarri egin ahal izateko.

Txostenaren amaieran gogora ekartzen da bete egin behar direla Burdinbide Sektoreko 39/2003 Legearen III. Kapituluan jasotako burdinbide lineen zortasunak, eta komeni dela etorkizuneko trenbide ustiapenarekin bateragarriak izango diren kalifikazioak ezartzea burdinbidearen babes-eremuen aldameneko lurren udal plangintzan.

Txosten honi dagokionean, antolamenduan aintzat hartu ziren aipaturiko alderdi horiek, hala burdinbide eremua birmoldatzeko eremuan nola gainerako burdinbide esparruan, eta legezko arau erreferentzietan sartu zen burdinbide lineen zortasunei dagokiena.

AV-09

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Red Ferroviaria Vasca - EUSKAL TRENBIDE SAREA Erakunde Publikoa

.

Txosten hau 2009/02/13an egin zen eta 2009/02/17an sartu zen Irungo Udalean, eta udal hirigintza plangintzak 41/2001 Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planera egokitu behar duela esaten du.

Ildo horretatik gogora ekartzen du jaso egin beharko direla, sareko zati batzuk aldatzeari, geltoki batzuek bat egiteari edo geraleku berriak sortzeari begira, trenbide sarearen alorrean proposaturiko esku hartzeak.

Aurretiko txosten honen edukia landu zen Planeko Memoriako Garraio Azpiegituren Kapituluko **6.2.6 azpikapituluan**, eta eskumena duten Erakundeekiko bateragarritasunaren esku utzi ziren trenbide alorreko erabakiak.

Bestalde, honako zehaztapen hau sartu zen estatuko sareko trenbide azpiegituretatik hurbil edo mugan dauden Plangintza Esparruen Fitxetan:

“Esparru hau Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoaren mendeko trenbide sektoretik hurbil dagoela-eta, adierazten da, alor horretan indarrean dagoen legeria betetzeaz gainera, EAEko Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legeak aurreikusitakoa errespetatu beharko dela eta hartara egokitu beharko dela, eta zehatzago esateko, 41/2001 Dekretuak onartutako Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Plana.”

AV-10

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

ADIF – Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza

.

Txosten hau 2009/02/25ean egin zen eta 2009/03/02an sartu zen Irungo Udalean. Trenbide Sareko 39/2003 Legea eta hura garatzen duen araudia aipatzen ditu, eta baita ordenamendu juridikoaren esparrua ere alor horri dagokionean.

Ondoren, bigarren Kontuan hartuzko batean, espresuki aipatzen du Geltoki Ingurua esparruan Hirugarren Sektoreko Erabileren proportzioa % 20tik % 40ra handitzeko eskaera, eta era berean esaten da komeni dela hirigintza Hitzarmen bat sinatzea etorkizuneko trenbidearen eraldatze lan hori aurrera eramateko.

Hirugarren Kontuan hartuzkoak, berriz, trenbide erabilerarekin loturik geratzen diren lur guztiek Trenbide Sistema Orokorra kalifikazioa edo antzekoa izateko beharra aipatzen du.

Laugarren Kontuan hartuzkoak Zaraten eta Bibrazioen inguruko araudia du mintzagai, eta esaten du araudi hori garapen plangintzarako zehaztapen lotesle gisa sartu beharko dela aplikatu behar den eremuetan.

Azkenik, bosgarren Kontuan hartuzkoak adierazten du Sustapen Ministerioaren aldeko Txostena beharko dutela Trenbide Sistema Orokorrari buruzko proposamen guztiek.

Aurretiko txosten honen edukia eta hurrengoa, Erakunde berak egina hura ere, landu ziren Planeko Memoriako Garraio Azpiegituren Kapituluko **6.2.6 azpikapituluan**, eta eskumena duten Erakundeekiko bateragarritasunaren esku utzi ziren trenbide alorreko erabakiak.

Era berean, hirugarren sektoreko erabileren proportzioa handi zen trenbide eremua birmoldatzeko esparruan eta zaraten araudiarekiko erreferentzia sartu zen.

Trenbide eremua birmoldatzeko esparrua garatzeko Hitzarmen bat sinatu behar dela-eta, Plan Nagusiaren tramitazioaren paraleloan eta aldi berean eraman zen aurrera prozedura hori.

Bestalde, honako zehaztapen hau sartu zen estatuko sareko trenbide azpiegituretatik hurbil edo mugan dauden Plangintza Esparruen Fitxetan:

“Esparru honetarako, trenbide sarearen mugatik hurbil edo haren jarraian dagoenez, eta trenbide ardatzen eremuetan aurrera eraman daitezkeen esku hartze bereziak arautzen dituen 3/2003 Legearen arabera, jabari publikoaren eremuaren mugak 8 metrokoak izango dira, babes-eremua 70 metrokoa eta eraikuntzaren muga 50 metrokoa, hiri eremuetan 20 metrora murriztuko dena, aipaturiko Lege horren 13., 14. eta 16. artikuluetan jaso bezala. Era berean, eta 15. artikuluaren arabera, kontuan izango da trenbide azpiegituraren jabari publiko eta babes-eremuetan edozein eratako obrak edo instalazio finko zein behin-behinekoak egiteko, haien xedea edo haietan egin daitekeen jarduera mota aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo mozteko, Trenbide Azpiegituren Administratzailearen (ADIF) baimena beharko da aldez aurretik".

Era berean, honako zehaztapen hau jaso zen Esparruen Fitxetan:

“Era berean, eta esparru hau trenbide sarearen mugatik hurbil edo haren jarraian dagoenez, eraikuntza lizentzia lortu ahal izateko, trenbide eremuaren mugako plangintza sektoreetan dauden eraikuntza berriko proiektuek, trenbideak eraikin horien barnean eragingo dituen zarata eta bibrazioen mailaren azterketa espezifikoa eraman beharko dute, eta baita proiektu horiek hartutako neurrien azterketa ere, bermatu ahal izateko ez direla indarrean dagoen arloko legeriak onartutakoa baino handiagoa izango bibrazio pertzepzioaren indizea eta eraikuntzetan zaraten maila.

AV-11

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

ADIF – Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza

.

Txosten osagarri hau 2009/02/27an egin zen eta 2009/03/04an sartu zen Irungo Udalean. Zarataren eta bibrazioen inguruko araudia aipatzen du, eta Trenbide Sektoreko 39/2003 Legearen artikuluen laburpen bat eransten dute interesgarria delako trenbide ardatzen mugako eremuetan, eta zehatzago esateko, jabari publikoko eremuetan, Babes-eremuetan eta Eraikuntzaren mugako Eremuetan aurrera eraman daitezkeen esku hartzeetan aplikatzeko.

13. eta 16. artikuluak dituzte aipagai eta adierazten dute horiek aplikatu egin behar direla Geltokiaren, Katea Erdialdearen eta Belasko Eraikinaren inguruko esparruetan. Era berean, gomendio gisa proposatzen dute halako neurri zuzentzaile batzuk aplikatzeko, Zaratari buruzko 37/2003 Legearekin loturiko batzuk barne, eta azterketa akustikoa egitea gomendatzen dute erabileren zonifikaziorako eta neurri zuzentzaileak diseinatzeko oinarri gisa.

Txosten hau behar bezala baloratuko da hurrengo lan fasean, eta aipaturiko alderdi horiei guztiei dagokienean Plan Nagusiak azkenean hartuko dituen erabakiak egoki aztertu eta justifikatuko dira.

AV-12

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Garraioen Estatuko Idazkaritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia – Sustapen Ministerioa

.

Garraio Idazkaritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari dagokionean, eta Aurrerakin dokumentuarekin loturik, AZZNk lehenbizi Txosten zirriborro bat egin zuen 2009/06/26an, eta 2009/08/06an sartu zen Irungo Udalean. Geroago, bigarren Txosten oso bat egin zuen 2009/09/07an, eta 2009/10/06an sartu zen Udalean. Bertan hainbat kontu aipatzen dira Irungo Plan Nagusiaren Aurrerakinak eskainitako dokumentazioa indarrean dagoen Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen xedapenekin ez datorrela bat eta.

Bereziki afekzio akustikoak eta aireko zortasunak zituen mintzagai, eta adierazten zuen Plan Nagusiak xedapen horiek jaso beharko dituela eta horietara egokitu beharko dela, bai betetze hori egiaztatuta edo bai dagokion Azterketa Aeronautikoaren bidez, egiaztatu ahal izateko trafikoaren segurtasuna eta aireontzien jarduna ez dela arriskuan jarriko aireko zortasunak gainditzen diren lekuetan.

Era berean, aplikatu beharreko Arloko Araudia eta legeria aipatzen zituen, Afekzio Akustikoetarako zein Aireko Zortasunetarako xehe azalduta, eta kasu bakoitzean lurraldean izango zituen eraginak adierazita.

Ondoren halako ohartarazpen batzuk jasotzen zituen udalerriko hiri esparru eta zoruen eta zoru urbanizagarrien inguruan eta horrekin loturik gainditzeak gerta zitezkeelako aukeraren edo estimazioaren inguruan. Bukatzeko izaera orokorreko ohartarazpen batzuk egiten zituen eta afekzioen eraginpean dauden eremuetan obrak baimentzeko egin beharreko tramiteak ekartzen zituen gogora.

Behin betiko aurretiko txostenaren edukia landu zen Planeko Memoriako Garraio Azpiegituren Kapituluko 6.3.2 eta 6.3.3 ataletan.

HASIERAKO ONARPENAREN AURREKO TXOSTENAK –IRUNGO HAPNa-

HASIERAKO ONARPENAREN AURREKO TXOSTENEN SARRERA

.

Irungo Plan Nagusiaren Berrikustearen Hasierako Onarpenerako Dokumentuak **hamabost Txosten jaso ditu**, Planaren gaineko gaiei buruzko informazioa ekarri nahi izan duten hainbat administrazio eta erakunde eskudunen aldetik. Zuzenean jaso ditu Udalak txosten horiek, eta hainbat txosten **zuzendu dizkio erakunde bakar batek**, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak segidan igorri dizkion txostenen kasuan gertatu den bezala.

Txosten horien guztien zerrenda aurkeztuko dugu ondoren, **Txosten horietako bakoitzean aztergaitzat hartu diren arazoen** sintesia, kontuan harturik bideratu den laburpenak ezin duela eta inolaz ere nahi ez duela Txostenetan eta haien inoizko eranskin grafiko edo dokumentaletan zehazturikoa ordezkatu.

Ondoren, **Plan Nagusian aintzat hartu edo jasotzearen** justifikazioa azaltzen da, eta Txosten bakoitzean jasotako zehaztapen lotesleak eta gomendioak Behin-behineko Onarpenerako dokumentu berrian nola jaso diren azaltzen da.

Txosten hauen tratamendua, batzuetan gomendio edo iradokizun gisa azalduak, beste batzuetan zehaztapen lotesle gisa edo txostena egin behar duen erakundearen aldeko txostena lortzeko baldintza gisa azalduak, **bildu eta jasotzen** dituen Plan Nagusiaren Behin-behineko Onarpen dokumentuan bideratuko da ondoren zehazten diren irizpide hauetan oinarriturik:

Alde batetik, ulertzen da Txostenen **derrigorrezko zehaztapenak**, juridikoki lotesle gisa hartu behar zirenak, zuzenean jaso direla aldatutako Planean, eta horrenbestez, Hasierako Onarpen dokumentuan, egokia zenean.

Bestetik, Txostenetan **gomendio** gisa azaltzen ziren kontuen kasuan, eta kontuan izanik dokumentuaren inguruko txostenak egin dituzten erakundeek arloko izaera dutela ezinbestean, egokitzat hartu da haren testuinguruan sartzea aipatutako errekerimendu edo baldintza horiek, eta ahaleginak egin dira Txosten horietan adierazitakoari erantzun eta interpretazio egokiena emateko.

Gomendioetako batzuen kasuan, gertatzen dena da **erreferentziako esparruak** gainditu egiten duela udal esparrua, edo bestela, halako zehaztapen eza dagoela azalpenean. Bestalde, gerta liteke iradokitakoaren edukia oraindik legezko indarraldia lortu ez duten azterketa edo proiektuena izatea.

Arazo hori dela-eta, esan behar da, Behin-behineko Onarpen dokumentua aurkezteko unean, orain dela lau urte Aurrerakina aurkeztu zenean gertatuko gauza bera ari dela gertatzen oraindik ere, gomendio gisa aipatzen diren alderdi batzuk lantzeko eta behar bezala jaso ahal izateko, indarrean egon beharko lukeen lurralde antolamendurako **udalaz gaindiko esparru baten hutsa** nabari baita oraindik ere, hauxe da, Donostialdea-Behe Bidasoako Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartua izatea.

Kontua da Udal batetik ezin direla bideratu nolabait ere bere **lurralde esparru hertsitik kanpo** dauden **alderdiak**. Lurraldearen Arloko planak pixkanaka-pixkanaka onartzen joan izanak, zorionez prozesu horrek aurrera egin baitu Behin-behineko Onarpenerako dokumentua idatzi bitartean, **neurri batean arindu du** gidalerroen eta irizpideen zehazte **huts hori**, baina betiere ez dago **eskualde mailako eta udalaz gaindiko mailako zehaztapen hori**, hala aginduak finkatzeari begira nola arloko zehaztapen desberdinen arteko bateragarritasun alderdietan.

Horregatik guztiagatik, gomendioak jasotzen zituzten Txostenen edukien kasuan, ahaleginak egin ziren Plan Nagusiaren helburu nagusiarekin, hauxe da, udal esparruan lurraldea antolatzeko helburuarekin **bateragarri egiteko**, kalifikazio eta sailkapen desberdinak bideratzeko lurzoru beharra bermatzeko eta dokumentu berri hau indarrean egongo den bitartean planteatuko diren beharrei erantzun ahal izateko betiere.

AI-01

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritza - Osasun eta Kontsumo Saila- Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Osasun publikoa / Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/05/09an eta 14.479 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak egindako Txosten bat.

Txosten horretan adierazten da osasun publikoan ez dela Irungo HAPN berritik etorritako eraginik aurreikusten, Ingurumen Eraginaren Azterketaren ondorioetarako jaso beharrekoaz gain.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Irungo Plan Nagusiaren dokumentuak jasotzen ditu, bere Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean, dokumentu honetan jasotako antolamendu aurreikuspenen eta arauen garapenen ondorioz osasun publikoan eraginik ez izateko beharreko baldintzak.

AI-02

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritza – Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila – Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Zoru Urbanizaezina / Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/05/10ean eta 14.599 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak egindako Txosten bat.

Erakunde horrek berak, 2008ko apirilean eta 2009ko otsailean, Aurrerakinaren dokumentua zela-eta egindakoak aipatzen ditu Txosten honek, eta adierazten du EAEko Nekazaritza eta Basozaintza eta Inguru Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko plana Behin-behinean onartu dela jadanik eta LAP horren izenaren erreferentzia zuzendu egin behako dela eta haren izena behar bezala jarri behako dela.

Dauden abeltzaintza ustiapenen araudiari dagokionean (Higiene osasun arau teknikoen 515/2009 Dekretua eta 165/1999 Dekretua eta haren aldaketa 515/2009 Dekretuak), esaten da Plan Nagusiak horiek jaso beharko dituela. Era berean, eta abeltzaintza ustiapen berrien araudiari dagokionean (515/2009 Dekretua), horiek ere jaso beharko ditu HAPNak.

Halako gomendio batzuk datoz ondoren, hala HAPNrako nola dagokion IITrako:

Aspaldi ez dela bi azpikategoriatan banatu denez Landa eta Nekazaritza eta abeltzaintza eremua (RAC) kategoria, Trantsizioko Landa Paisaia eta Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta abeltzaintza eremua, hain zuzen ere,Txostenak esaten du HAPNan ez legokeela informazio osagarririk balio estrategiko handiko lurrei eta ustiapen estrategikoei dagokienean. Era berean, zonifikazio planoa aurkezten dute, HAPNa hartara egokitzea gomendatuz, eta erabileren eta jardueren erregulazio matrizea ere aurkezten dute.

Era berean, eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintza eta Inguru Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko planaren dokumentuan jasotako Onura Publikoko Mendien Eremu Higagarrien kategoriari dagokionean, HAPNan, 0.2.2 artikuluan, haietatik etorritako baldintzatzaileak jasotzea gomendatzen da. Eranskin gisa aurkezten den plano batean islatu dira horiek.

Nekazaritza Zorua okupatzeari dagokionean, estatistika kopuru batzuk azaltzen ditu zoru urbanizagarrien proposamen berrien ondorioz okupatuko den Balio Handiko lurzoruaren eta Trantsizioko Landa Paisaiaren inguruan, eta adierazten du, era horretako zoru moten azaleraren murrizketa orok, txikia izanda ere, eragin handia izan

dezakeela, eta era berean gogora ekartzen dute Euskadiko Nekazaritza eta elikadura Politikaren Legetik datorren nekazaritza zorua babesteko helburua. Halaz ere, horren inguruan ez du inolako gomendio zehatzik egiten Txostenak.

Ondoren, eta era estrategikoko nekazaritza ustiapen batzuk inoiz desagertzeko arriskuari eta horiek bizirauteko bermeari dagokienean, Txostenak esaten du IITan ez dela arazo horren azterketarik egin, eta horrenbestez, azterketa hori egin behar dela, eta gomendatzen du behin-behinean onartutako Nekazaritza eta basozaintza antolatzeko LAPeko V. kapituluko 14. artikuluan aurreikusitako erreferentzia erabiltzea horretarako. Haren testu osoa eransten da eta afekzioa nahiz beharreko zuzentze eta konpentsazio neurriak baloratzeko aintzat hartu beharko liratekeen nekazaritza eta basozaintza aldagaiak aipatzen dira bertan.

Gainera, adierazten du, Planaren eraginak Gainbegiratzeko Programaren adierazleen barnean egongo dela neurri horiek betetzea. Eta azkenik, adierazten du baloratu egin beharko direla garapen berriek nekazaritza jarduerarekin loturiko etxebizitzetan eta baserrietan izan ditzaketen eraginak.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Irungo Plan Nagusiaren dokumentuak jaso egin ditu EAEko Nekazaritza eta basozaintza eta Inguru Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren izen zuzenarekin loturiko zehaztapen lotesleak bai Planaren Memorian bai Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean.

Era berean, ulertzen da, agindutakoa betetzeko, Hirigintza Arauen dokumentuan, 5.1.1 – 3 eta 4 artikuluetan, eta 5.2.3.1 - 4 artikuluan ere, osorik jaso dela Txostenean aurretik dauden abeltzaintza ustiapenen inguruan indarrean araudiari dagokionean (Higiene osasun arau teknikoen 515/2009 Dekretua eta 165/1999 Dekretua eta haren aldaketa 515/2009 Dekretuak) egiten den aipamena, eta indarrean dagoen abeltzaintza ustiapen berrien araudiari dagokionean (515/2009 Dekretua) egiten den aipamena, bi kasuetan azaldurik horiek betetzeko beharra.

Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta abeltzaintza azpikategoria berria aintzat hartzeko gomendioei dagokienean, bai araudietan bai mugaketan, Txostenean aurkezten zen planoan oinarriturik, jasotzeko eskatzen baitzen, egokitzat hartu da Txostenarekin batera aurkeztutako plano horietan aipaturiko eremuak aztertzea eta lurraren errealitatera egokitzea, Plan Nagusian zoru urbanizaezinerako aintzat hartu den eskala xeheagoak aukera ematen baitu horretarako.

EAEko Nekazaritza eta basozaintza eta Inguru Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan kategoria desberdinetarako aurreikusitako erabileren eta jardueren matrizearen erabilerak lehentasuna izateko gomendioari begira, eta berrikusten ari garen Plan Nagusi honen zoru urbanizaezinaren sistema arau-emaileak jada zuen sendotze maila ikusita, berrikuspen dokumentuarekin bat baitzetorren, egokitzat hartu da hura mantentzea, baina matrizetik etorritako parametro edo baldintza batzuk aintzat hartuta Irunen aplikatutako araudiaren egiturarekin koherentea zen kasuetan.

Onura Publikoko Mendien Eremu Higagarrien kategoriak HAPNan sartzeko gomendioari dagokionean, egokiagotzat hartu da, baldintzatzaile gainjarri gisa, eremu horien izatea aipatzea, baina behin indarrean hasi ondoren, Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan bere garaian adierazitakoaren esku utziko da haien mugaketa.

Nekazaritzarako zoruaren murriztea dela-eta, zoru urbanizagarri berrien inpaktua aintzat hartzeko gomendioari dagokionean, uste dugu Plan Nagusiaren dokumentuaren Memorian, eta bereziki, haren 2. kapituluan, behar bezala justifikatuta azaldu direla berrikusten ari den Plan Nagusiaren arabera oraindik urbanizaezina zen lurraldeko zati txiki hori etorkizuneko hiri garapenerako erabiltzeko arrazoi ugariak, udal barruti osoa aintzat hartuta oso proportzio txikia badu ere, iruditu baitzitzaigun ezinbestekoa zela jarduera ekonomikoetarako eta bizileku jardueren erabilera jakin batzuetarako erabilgarritasuna osatzeko.

Era berean, hirigintza erabilera horietarako Autopistaren Hegoaldean lurzoru berriak ez hartzeko eskatu da, eta horrek onartzeko moduko konpromisoa dirudi aurreikusitako garapena eta lurraldeko balioak ezinbestean babestu behar direla aintzat harturik. Guztira, Planaren Memoriaren 5. kapituluan adierazitakoaren arabera, berrikuspenak dakar urbanizaezin gisa sailkatutako zoruaren estatusa aldatzea 100 Ha baina pixka bat gehiagorako, edo bestela esanda, aurreko plangintzaren arabera sailkapen hori zuen zoruaren % 3.

Zehaztapen horrekin, kontuan izanik gainera ez duela bide azpiegitura handiaren Hegoaldean dagoen zoru bakar bat ere ukituko, eta abiadura handiko trenerako aurreikusitakoarekin, horrek ere ez baititu hartuko balio bereziak dituen eremu handirik, konponbidea emango zaio 65.000 biztanleko hiri bateko zoru beharren hazkundeari 15 urte baino gehiagoko eperako. Arrazoi horiengatik guztiengatik, badirudi egokia dela hasieran onartutako hiri zoruaren, zoru urbanizagarriaren eta zoru urbanizaezinaren arteko zatiketa aldaketarik gabe mantentzea.

Era estrategikoko nekazaritza ustiapen batzuk desagertzeko arriskuaren azterketa egiteko gomendioari dagokionean, eta gorago azaldu diren arrazoi berdinengatik, egia esan oso gutxi dira zoru urbanizagarriko esparru berriek ukitzen dituztenak, eta gainera egiaz ustiatzen ari dira.

Oso gutxi direla ikusirik, eta babes-maila desberdinak izateagatik, hain zuzen ere, udal barrutiaren barnean Plan Nagusiak ukituko ez dituen gainerakoekin alderatuta proportzioan, eta kontuan izanik lur asko gutxiegi ustiatuta daudela, ukituta geratuko liratekeen nekazaritza eta abeltzaintza jarduera urri horiek eramateko kategoriaren barnean, badirudi ez dela beharrezkoa aipaturiko azterketa hori egitea.

Azkenik, garapen berriek nekazaritza jarduerarekin loturiko baserrietan izan dezaketen eraginari dagokionean, kontuan izanik azkenean oso gutxi izango direla ukituko direnak eta egiaz ustiatzen ari ziren nekazaritza ustiapenei dagokienean duten kokalekua, aurreko irizpide berdina aplika daiteke, eta pentsa daiteke azkenean izan daitekeen eraginak ez duela Planaren zehaztapenei uko egiteko adinako garrantzirik, zoru urbanizagarria oso gutxi zabalduko baita Autopistaren Iparraldean dauden lurretan.

AI-03

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritza – Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila – Ingurumen Kalitate Zuzendaritza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Ingurumen ebaluaziorako prozedura

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/05/16an eta 15.186 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Kalitate Zuzendaritzak egindako Txosten bat.

Txosten honetan adierazten da helburu nagusia dela ingurumen eraginaren ebaluazio prozedura bete behar duten etorkizuneko proiektuetarako esparrua izan daitezkeen proposamenak hautematea eta, hala behar badu, ebaluazio hori egiteko gidalerroak ezartzea.

Ingurumen eraginaren ebaluazioa bete behar duten proiektuei dagokienean, prozedura hori bete behar luketen Irungo HAPNko hirigintza esku hartzeak identifikatzen ahalegintzen da Txostena.

Horretarako, gogora ekartzen du Irungo udal barrutian badirela Natura 2000 Sarearen barnean dauden espazio batzuk, eta horregatik, 1/2008 Errege Dekretuaren 16. artikuluaren arabera, Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa betetzeko beharraren inguruko txostena eskatu beharko zaio alor horretan eskumena duen erakundeari.

Gainera, Ingurumen Eraginaren banakako Ebaluazioa bete beharko luketen proiektuak aipatzen ditu, bereziki, garraio azpiegiturenak, industria eremu handietakoak, urbanizazio handietakoak, merkataritza guneetakoak, aparkalekuetakoak, eta 3.000 m²-tik gorako azalera duten zoru urbanizaezineko aparkalekuetakoak, ingurumenari begira eremu sentsibleetan badaude, ibai bideratzeetan eta ibilguen trazatu aldaketetan.

Ingurumen Ebaluazio erraztua bete beharko luketen proiektuak aipatzen ditu gero, galtzada bikoizteak eta errepideetako plataformen zabaltzeak, esate baterako, eta baita 3.000 m²-tik gorako azalera duten zoru urbanizaezineko aparkalekuak ere.

Era berean, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozedura betetzeko beharra jasotzen du HAPNa garatzeko aurreikusitako edozein proiekturako 1/2008 Errege Dekretuan eta 3/1998 Legean jasota badaude.

Ondoren, behin betiko dokumentuak arestian aipatutako proiektu horien Ingurumen Eraginaren banakako Ebaluazioa egiteko Gidalerro Orokorrak jasotzeko beharra

jasotzen du Txostenak, eta horretarako 3/1998 Legearen 46.4 artikuluak aurreikusitakoa aipatzen du, eta baita 183/2003 Dekretuaren 13. artikuluak aurreikusitakoa ere, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen baitu azken honek.

Zehatz esateko, gutxienez gidalerro batzuk jasotzeko beharra azaltzen du, kultur ondareko zati gisa katalogatutako eremuetan aurreikusitako hirigintza esku hartzeei dagozkienekin hasita, esku hartze horiek eremu horiek Euskadiko Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzeko balio izan zuten elementuetan sor lezaketen eta dagoen paisaian izan lezaketen eraginari begira.

Era berean, eta jabari publiko hidraulikoan aurrera eraman beharreko hirigintza esku hartzeen kasuan, ertzak, fauna, flora eta uraren kalitatea kontserbatzeko ondorioetarako, Txostenak esaten du Planean sartu beharreko Gidalerroek hainbat kontsiderazio jaso beharko dituztela, esate baterako, erriberako berezko egituran edo landaredian obrek sor dezaketen eraginen minimizazioa, landare berritze lanetan bertako espezieak erabiltzea, landarediaren erabileran oinarritutako ezponden eta erriberen egonkortze tekniken erabilerari lehentasuna ematea, aurretik dagoen fauna aintzat hartzea egin beharreko obretan, obretan eta obren ondoren ere ibilguen eta erriberen funtzionaltasuna ziurtatzea eta ibai ibilguetara solidoen eta likidoen nahiz kutsatzaileen ekarria saihestu edo minimizatzea.

Era berean, eta paisaian integratzeari begira, ingurumena eta paisaia lehengoratzeko programa eduki beharko dute hirigintza esku hartzeek, eta esku hartzeetako obrek ukituriko eremu guztietara zabalduko da betebehar hori, instalazio osagarriak, zabortegiak, betegarriak, material ateratzeak, jario-drainatzeen sareak, sarbideak, deposituak eta abar egin diren eremuak barne. Ahal izanez gero, gomendatzen da, egin behar diren obren aldi berean hartzea lehengoratze neurri horiek. Era berean, esaten da, ahal den guztietan, saihestu egingo dela lurbetetze-ezpondak hormigoizko kare-esnez egonkortzea azaleran, horren lekuan egokiagoa baita inguruaren araberako bioingeniaria teknika integratuak erabiltzea.

Sor daitezkeen hondakinei dagokienean, Txostenak esaten du Planean aintzat hartu beharreko Gidalerroetan adierazi beharko dela eremuko topografia ezaugarrietara egokitu behar direla hirigintza esku hartzeak, lur iraultzeen balantzea orekatu ahal izateko. Era berean, esaten du aipaturiko hondakin horien kudeaketa legeak aurreikusitakoaren arabera kudeatu behar dela eta obrak egiten diren bitartean hondakinak kudeatzeko proposamena aurkeztu beharko dela, hondakin horiek jaso, bildu eta tratatzeko sistemak deskribatuta.

Jardueren II. Eranskinean jasotako kutsatuak egon daitezkeen zoruetan aurreikusi daitezkeen hirigintza esku hartzeei, edo 1/2005 Legearen arabera zorua kutsa dezaketen instalazioei dagokienean, Txostenak esaten du Planean aintzat hartu beharreko Gidalerroek adieraziko dutela esku hartzearen deskribapen xehea egin behar dela, Lege horren 17. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen den ala ez den jakin ahal izateko.

Txostenak jarraitzen du esaten Gidalerro batzuk aintzat hartu behar direla obrak egiten diren bitartean sortzen den atmosferaren kutsadurari dagokionean ere, hainbat neurri

hartu beharko baitira, esate baterako, bideak urez garbitu, ibilgailuak garbitzeko guneak ezarri eta abar.

Azkenik, eta kutsadura akustikoari dagokionean, Txostenak esaten du aintzat hartu behar dela aplikatu beharreko legeriak aurreikusitakoa, eta bereziki 37/2003 Legea, 1367/2007 Errege Dekretuak garatzen duena.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Irungo Plan Nagusiaren dokumentuak bere Hirigintza Araudian zehaztapen lotesle gisa jasotzen ditu, 5.1.14 artikulu berrian, 1 – 7 azpiataletan, tramita daitezkeen proiektuetan Ingurumen Eraginaren banakako Ebaluaziorako Gidalerro Orokorrak aplikatzeko erreferentzia jasotzeko beharra Araudian, garraio azpiegituren proiektuak, industria eremu handietakoak, urbanizazio handietakoak, merkataritza guneetakoak, aparkalekuetakoak, eta 3.000 m²-tik gorako azalera duten zoru urbanizaezineko aparkalekuetakoak direnean, ingurumenari begira eremu sentsibleetan badaude. 3/1998 Legearen 46.4 artikuluan eta 183/2003 Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitakoa aipatzen du horretarako, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen baitu azken honek.

Era berean, Araudian jaso da gidalerro batzuk aintzat hartzeko aipamena kultur ondareko zati gisa katalogatutako eremuetan aurreikusitako hirigintza esku hartzeei dagozkienean, esku hartze horiek eremu horiek Euskadiko Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzeko balio izan zuten elementuetan sor lezaketen eta dagoen paisaian izan lezaketen eraginari begira.

Era berean, Araudian hainbat kontsiderazio jaso dira jabari publiko hidraulikoan aurrera eraman beharreko hirigintza esku hartzeen kasuan, ertzak, fauna, flora eta uraren kalitatea kontserbatzeko ondorioetarako, esate baterako, erriberako berezko egituran edo landaredian obrek sor dezaketen eraginen minimizazioa, landare berritze lanetan bertako espezieak erabiltzea, landarediaren erabileran oinarritutako ezponden eta erriberen egonkortze tekniken erabilerari lehentasuna ematea, aurretik dagoen fauna aintzat hartzea egin beharreko obretan, obretan eta obren ondoren ere ibilguen eta erriberen funtzionaltasuna ziurtatzea eta ibai ibilguetara solidoen eta likidoen nahiz kutsatzaileen ekarria saihestu edo minimizatzea.

Bestalde, beharreko araudia jaso da paisaian integratzeari begira, eta horrenbestez, ingurumena eta paisaia lehengoratzeko programa eduki beharko dute hirigintza esku hartzeek, eta esku hartzeetako obrek ukituriko eremu guztietara zabalduko da betebehar hori, instalazio osagarriak, zabortegiak, betegarriak, material ateratzeak, jario-drainatzeen sareak, sarbideak, deposituak eta abar egin diren eremuak barne. Ahal izanez gero, gomendatzen da, egin behar diren obren aldi berean hartzea lehengoratze neurri horiek. Era berean, Araudian esaten da, ahal den guztietan, saihestu egingo dela lurbetetze-ezpondak hormigoizko kare-esnez egonkortzea azaleran, horren lekuan egokiagoa baita inguruaren araberako bioingeniaria teknika integratuak erabiltzea.

Ildo beretik, sor daitezkeen hondakinei dagokienean, Plan Nagusiaren Araudiak esaten du, ahal den neurrian, eremuko topografia ezaugarrietara egokitu behar direla hirigintza esku hartzeak, lur iraultzeen balantzea orekatu ahal izateko. Era berean, esaten du aipaturiko hondakin horien kudeaketa legeak aurreikusitakoaren arabera kudeatu behar dela eta obrak egiten diren bitartean hondakinak kudeatzeko proposamena aurkeztu behar dela, hondakin horiek jaso, bildu eta tratatzeko sistemak deskribatuta.

Era berean, eta Jardueren II. Eranskinean jasotako kutsatuak egon daitezkeen zoruetan aurreikusi daitezkeen hirigintza esku hartzeei, edo 1/2005 Legearen arabera zorua kutsa dezaketen instalazioei dagokienean, Planaren Araudiak aintzat hartu beharreko gidalerro gisa jasotzen du esku hartzearen deskribapen xehea egiteko beharra, Lege horren 17. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen den ala ez den jakin ahal izateko.

Azkenik, obrak egiten diren bitartean sor daitekeen atmosferaren kutsadurarekin loturiko gidalerroak ere jaso ditu Araudiak, beharreko neurriak hartu ahal izateko. Kutsadura akustikoari dagokionean, berriz, araudiak esaten du aintzat hartu behar dela aplikatu beharreko legeriak aurreikusitakoa, eta bereziki 37/2003 Legea, 1367/2007 Errege Dekretuak garatzen duena.

AI-04

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia - Bide Azpiegituren Saila - Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Sistema Orokorreko bide sarea eta bide sare egituratzailea.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/06/02an eta 17.237 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saileko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritzak egindako Txosten bat.

Txosten honen azken ondorioetan esaten da Irungo Plan Nagusiaren Hasierako Onarpen dokumentuan jasotako irizpideak eta aurreikuspenak positiboki baloratu direla Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Sailaren eskumeneko eraginei dagokienean, baina Txosten horretan bertan hainbat baldintza eta ohar jaso dira ondoren aipatzen diren kontu hauen inguruan:

Halatan, Plan Nagusiak proposaturiko bide sarea antolatzeko eredu globalari dagokionean, eta zehatzago esateko, Memoriaren 6.1 kapituluan aurreikusitakoari begira, esaten du bat datorrela aipaturiko Sail horrek azken garai hauetan egin dituen gogoetekin.

Gogoeta horiek laburbilduta azaltzeko, Txostenak esaten du sendotu egin dela Osinbiribil eta Behobia artean bidea bikoizteari uko egitea, eta aipatzen du, egiaz duen erabileraren araberako hiri bidearen tratamendua eman behar zaiola zati horri aintzat harturik disuasio-bidea ere badela iragaitzazko trafikorako, eta horrekin guztiarekin koherentea izateko, Sailak jada ezarri du ibilgailu astunentzako igarotze muga bat.

Era berean, adostasuna azaltzen du Nafarroatik eta mugatik datozen eta Hondarribira doazen trafikoak, Kateako eta Zubietako lotuneen bidez, AP-8 autopistatik bideratzeko estrategiarekin, Behobiatik ez igaro behar izateko. Beste horrenbeste, Bidegirekin batera, Txenpereneako inguruan AP-8arekin beste lotune bat egiteko, eta Katea eta Behobia artean norabide bakoitzean hirugarren lerroa eraikitzeko aukerari dagokienean.

Bestalde, adostasuna duten alderdien barnean, aipatzen du bide perimetral bat egin behar dela Hegoaldean dauden eremuak eta auzoak nahiz hiriko ertz horretan gauzatu gabe dauden hirigintza garapenak lotzeko. Horri esker, sortuko litzatekeen eraztunak hiri inguruko trafikoa hartuko du eta Irungo auzo desberdinak lotuko ditu. Arestian aipaturiko AP-8 autopistako lotura horren banatzailea izango litzateke, gainera, bide hori.

Halaz ere, Txostenak ohartarazten du oraindik proiektu itxirik ez duten lekuetan, horiek bideratzeko koordinazio berezia behar baita hainbat administrazio eta erakundek esku hartzen dutelako, Plan Nagusian jasotako deskribapenak eta soluzioak proposamen generiko gisa hartu behar dira, eta berretsi egingo direla proiektu desberdinak idazten doazen heinean.

Bereziki aipatzen ditu GI-636 errepidea Mendelutik eta Plaiaunditik igarotzen denean, Letxunborro hiribidearekiko lotunea eta burdinbideekiko bidegurutzea.

Era berean, 1.1.10 – Araso Iparraldearen Luzapena esparruaren barnean, Gaintxurizketako gainean, GI-636 errepideko biribilgunearekin lotzeko proposamena du mintzagai, korridore ekologikoa zeharkatzeagatik, eta Txostenaren arabera, beste arrakala bat sortu bailuke, eta hori kontraesana izango litzateke Planaren helburuei begira eta konpondu egin beharko litzateke ezinbestean. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Sailaren iritziz, lotura hori ken liteke, lotura zuzen hori bultzatzeko interes berezirik ez baitago, mugimendu aukera berria sor lezakeelako Gaintxurizketaren eta Txingudiko biribilgunearen artean, ibilbide hori, bihurriagoa izan arren, laburragoa izango litzateke eta.

Era berean, Txostenak esaten du, proiektuak idatzi ahala berretsiko diren proposamen generiko gisa hartu behar liratekeela Hegoaldeko Ingurabidea eta lotura izeneko hiri arteko Bide Sistema Orokorrari dagozkionak, 6.2.09 eta 7.2.08 Matxalagain esparruetan. Gainera, planteamendu berdin-berdina proposatzen du GI-636 errepideko soluziorako, Zubimusuko biribilguneko lotunetik Osinbiribilekoraino, 4.2.05 Santiago Urtizberea esparrua.

7.2.08 Matxalagain eta 8.2.05 Blaia esparruei dagokienean, Txostenak kargua hartzen du AP-8 autopista hirugarren lerro batekin zabaltzeko lanek uki litzaketen lurzoruen Bizileku kalifikazio globalaren inguruan, horiek eskuratzeko lana garestitu eta zaildu bailiteke. Proposatzen du Plan Nagusiak hiri arteko bide sistema orokorraren erabilerei begira egokiagoa den hirigintza kalifikazioa ematea zati bati.

Ekonomia – finantza Bideragarritasunaren Memorian jasotako esleipenei dagokienean, Txostenak ez die inolako eragozpenik jartzen argi eta garbi Sailaren eskumenekoak diren esku hartzeei, baina ohartarazten du, batik bat GI-636 errepidearen ertzen urbanizazioa hobetzeko direnetan, Foru Aldundiak sareko segurtasuna edo funtzionaltasuna hobetzearekin loturikoak bakarrik hartuko dituela bere gain, eta Esku hartze Unitateek edo Udalak berak erantzun beharko dietela gainerakoei.

Unean uneko jardueratzat hartzen direnetan –Loiolako biribilgunea eta AP-8rekiko lotura- konprometitu gabeko arloko proposamen huts gisa hartzen ditu Txostenak, haren arabera, ia bat ere ez baitute hobetzen errepide sareko funtzionaltasuna edo hiri integrazioa.

Txenperenean AP-8 autopistarekiko lotune berritik Oñaurreko bigarren biribilguneraino eta Erriberako biribilguneraino proposaturiko bidearen kasuan, % 75 Aldundiaren kargu uzteko erabakia, arbitrario eta alde bakarreko erabakitzat jotzen da, eta Sailak ez du bere gain hartuko. Esandakoren arabera, hiri ingurabide funtzioa eta lekuko trafikoa bideratzeko egitekoa duten zatiak izatean, funtzio horren araberakoa izan beharko

litzateke finantziazioa, baina betiere, inplikaturiko erakundeen artean bere garaian lortuko diren akordioen esparruan konpondu beharreko alderdia da inolaz ere, baina ez Plan Nagusiko Memoria ekonomikoan. Irizpide berdina aplikatu beharko litzaieke, Txostenaren arabera, Banaketa Orokorreko Bide Sare Egituratzaileari dagozkion esleipenetan.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Irungo Plan Nagusiaren dokumentuak bere Memorian, 6. kapituluan – Komunikazio Sareak, 6.1.4 atalean, jaso du Txosten honetan egindako ohartarazpena, hauxe da, oraindik proiektu itxirik ez duten lekuetan, eta bideratzeko koordinazio berezia behar dutenean hainbat administrazio eta erakundek esku hartzen dutelako, Plan Nagusian jasotako deskribapenak eta soluzioak proposamen generiko gisa hartu behar direla, eta proiektu desberdinak idazten doazen heinean berretsiko direla.

Ohartarazpen hori, aipaturiko ildo horretatik proposamen generiko gisa ulertzeko beharrari begira, bereziki aplikatu zaio, GI-636 errepidearen trazatuari begira Mendelutik eta Plaiaunditik igarotzen denean, Letxunborro hiribidearekiko lotuneari eta burdinbideekiko bidegurutzeari dagokienean, Plan Nagusiak egiten duen planteamenduari. Eta beste hainbeste Hegoaldeko Ingurabidea eta lotura izeneko hiri arteko Bide Sistema Orokorrari dagokionean, 6.2.09 eta 7.2.08 Matxalagain esparruetan, eta berdin GI-636 errepideko soluzioari begira, Zubimusuko biribilguneko lotunetik Osinbiribilekoraino, 4.2.05 Santiago Urtizberea esparruan.

1.1.10 – Araso Iparraldearen Luzapena esparruari dagokionean, Gaintxurizketako gainean, GI-636 errepideko biribilgunearekin lotzeko proposamenarekin loturik, hura aurreikusi den modua ikusita, korridore ekologikoa dagoen eremua tunelaren bidez zeharkatuta, ulertzen da korridore horrekiko bateragarritasunari konponbidea ematen zaiola, haren jarraipen fisiko eta funtzionalean inolako eraginik izango ez duelako, eta Planak horren inguruan dituen helburuekin koherentea delako.

Bestalde, aztertu egin da lotura hori denborarekin Gaintxurizketako eta Txingudiko biribilguneen artean mugimendu aukera berri bilakatzeko arriskua, baina ibilbidea pixka bat laburragoa dela egia bada ere, askoz ere zailagoa izango litzateke erabiltzeko, eta oso kostu txikiarekin har litezke horrelakorik ez gertatzeko neurriak, bai seinaleak jarrita bai beste era bateko kontrola eginda. Bi arrazoi horiengatik bidezkotzat hartu da esparrua hasierako onarpenean zegoen bezala mantentzea.

7.2.08 Matxalagain eta 8.2.05 Blaia esparruei dagokienean, aldatu egin da AP-8 autopista hirugarren lerro batekin zabaltzeko lanek uki litzaketen lurzoruen Bizileku kalifikazio globala, eta hiri arteko bide sistema orokorraren erabilerei begira egokiagoa den hirigintza kalifikazioa eman zaio berariaz zati bati.

Bestalde, dokumentu berriak Memoriako 6. kapituluan – Komunikabide Sareak, esaten du Loiolako biribilgunea eta AP-8 autopistarekiko lotunea bezalako esku hartzeetan, Plan Nagusiko arloko proposamenak direla kasu honetan, eta duten izaera puntualagatik, ez dutela zertan konprometitu behar Gipuzkoako Foru Aldundia.

Azkenik, eta Ekonomia – finantza Bideragarritasunaren Memorian jasotako esleipenei dagokienean, 2.2.1, 2.2.2 eta 5.1.3 ataletan berariaz esaten da, batik bat GI-636 errepidearen ertzen urbanizazioa hobetzeko direnetan, Foru Aldundiak bere gain hartuko duen zatia sareko segurtasuna edo funtzionaltasuna hobetzearekin loturik dagoena izango dela bakarrik, eta Esku hartze Unitateek edo Udalak berak erantzun beharko dietela gainerakoei.

Txenperenean AP-8 autopistarekiko lotune berritik Oñaurreko bigarren biribilguneraino eta Erriberako biribilguneraino proposaturiko bidearen kasu zehatzean, eta Banaketa Orokorreko Bide Sare Egituratzaileari dagokionean, Ekonomia – finantza Bideragarritasunaren Memorian ere berariaz adierazi da, lehen aipaturiko atal horietan, Aldundiari eragotzitako ehunekoak gorenen proposamen gisa hartu behar direla betiere, baina inplikaturiko erakundeen artean bere garaian lortuko diren akordioen esparruan erabaki beharko dela azken proportzioa, sare horiek tokikoak ez diren trafikoen egiazko banaketan duten partaidetzaren arabera beti ere.

AI-05

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioa – Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia – Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren Zuzendariordetza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Itsas-lehorreko mugatze publikoa eta ukituriko esparruak.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/06/14an eta 18.528 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioko Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusiko Itsas-Lehorreko Jabari Publikoaren Zuzendariordetzak egindako Txosten bat.

Itsas-lehorreko mugatze publikoak eta dagokion zortasun eremuak ukituriko esparruak aipatzen dira Txosten honen 2. puntuan, hala aurreko Plan Nagusian jada ageri ziren esparruak nola proposatzen diren berriak.

Azken horiek dira 4.2.05 Santiago Urtizberea, babes-zortasunak zati batean ukituko duena, bide sistema orokorrerako izango dena; 8.1.02 Azken Portu, itsas-lehorreko jabari publikoko lurrak hartzen dituena espazio libre gisa, eta horrenbestez, ezin dira aintzat hartu hirigintza kudeaketatik etorritako mekanismoetan parte hartzeari begira, eta espazio libreetarako diren zortasun lurrak, eta hori bai bat dator legezko zehaztapenekin; eta azkenik, 8.3.04 Lastaola Postetxea esparrua, babes-zortasun eremuaren zati txiki bat ukitzen duena, bide sistema orokorrerako izango dena.

Plan Orokorreko Hirigintza Arauen 0.2.4 artikuluan adierazitakoa jaso da Txostenaren 3. puntuan, eta esaten da itsas erriberaren aldameneko lurrei begira jabetzen mugekin loturiko alderdi guztiak jaso direla, baina falta litzateke esatea babes-zortasunaren eremuan planteatzen diren erabilerek bete egin beharko dutela Kosta Legearen 24. eta 25. artikuluek xedaturikoa, eta horrenbestez, horixe izango litzateke Kostaldeen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena egiteko bete beharko litzatekeen baldintza bakarra.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Irungo Plan Nagusiaren dokumentuan egiaztatu eta berregokitu dira, behar izan denean, hirigintza kudeaketatik etorritako mekanismoetan parte hartzeko ondorioetarako aintzat hartu beharreko aprobetxamendua sortzen duten azalerak 4.2.05 Santiago Urtizberea, 8.1.02 Azken Portu, eta 8.3.04 Lastaola Postetxea esparruetan, horiek guztiak babes-zortasunak ukitzen dituelako edo itsas-lehorreko jabari publikoko lurrak dituztelako.

Plan Nagusiko Hirigintza Arauei dagokienean, 0.2.4 artikuluan eta 8. atal berrian, erantsi da babes-zortasuna duen eremuan planteatutako erabilerek bete egin beharko dituztela Kosta Legearen 24. eta 25. artikuluek xedaturikoa, horixe izanik Kostaldeen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena egiteko bete beharko litzatekeen baldintza bakarra.

AI-06

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila – Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Ondasun katalogatuak eta kultura ondarearen interesekoak.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/07/14an eta 21.843 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako Txosten bat.

Txosten horretan hiru kontsiderazioa aipatzen dira ondorio gisa.

Lehen kontsiderazioak esaten du komeni dela katalogoa eguneratzea eta bertan ageri ez diren elementu batzuk sartzea, bai elementu babestuak bai babesteko proposamena duten elementuak. Horretarako, I. Eranskina darama Txostenak eta bertan jaso dira babes-proposamenen arabera sailkatu diren elementu batzuk, Kultura Ondarearen Zentroak bereizi dituenak arloko azterketa tipologikoak egin ondoren.

Bigarren kontsiderazioak gomendio bat egiten du, hauxe da, babes-mailak berrikusteko, maila horiek behar bezala definitzeko eta babes-proposamena duten elementuak babesteko gomendio generikoetara egokitzeko. Onar daitezkeen obren eta kontserbazio estrukturalaren eta kontserbazio partzialaren mailen artean kontraesanak egon daitezkeela adierazten da zehatz esateko. Horretarako, Txostenak II. Eranskina darama babes-irizpideak eta babesteko gomendio generikoak biltzen dituena Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren arabera.

Hirugarren kontsiderazioak dio komeni dela egindako kultura balorazioaren arabera elementu bakoitzarekin loturiko babes-mailak berrikustea, eta hala behar badu, beharreko babes-maila ematea. Zehatz esateko, adierazpena duten elementu batzuk dira eta monumentu adierazteko proposamena duten elementu ugari, Planaren dokumentuan babes-maila txikia (kontserbazio partziala) dutenak, eta hori ez letorke bat elementu jakin horiek kultura arloan duten interesarekin.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Eusko Jaurlaritzaren zehaztapenen arabera gaur egun legezko babesa duten elementuei dagokienean, hauxe da, beharreko adierazpena dutenak bai EHAAn bai EAOn, monumentu mailako babesa edo babes berezia dutenak, hain zuzen ere, horiek guztiak jasota daude udal Katalogoan antzeko babes-maila eta ezaugarriekin, baina ohartarazten da elementu horietakoren bat identifikatzen duen izena agian ez datorrela guztiz bat Eusko Jaurlaritzaren inbentarioan erabilitakoarekin.

Bere garaian babes mota bereziren bat edo erdi mailako babesen bat aplikatzeko katalogazio espedientea hasia bai, baina oraindik bukatu gabe, duten elementuei dagokienean, antzeko babes-mailarekin jasotzen ditu udal Katalogoak, edo handiagoarekin ere batzuetan, esate baterako, Martindozenea baserria, monumentu moldeko babesarekin jasoa baitago hori, hasitako espedientean erdi mailako babesa aipatzen denean, edo Aduanako eraikina, babes estrukturalarekin jasoa dagoena erdi mailako babesa izan beharrean.

Urantzu pilotalekua bakarrik geratu da katalogaziotik kanpo katalogazio espedientea hasiko zaien elementuen zerrenda horren barnean, ez delako egokitzat hartu udal Katalogorako aplikatutako irizpideetan oinarrituta, baina abian dagoen espedienteak arau maila lortzen duen momentuan, orduan automatikoki aldatuko litzateke katalogoa. Gorroagako galtzadari eta Altzubide bideari dagokienean, bi elementu horien identifikazioa eta hedadura ez daudenez behar bezain garbi, ezin izan dira sartu, eta horrenbestez, dagozkien espedienteak amaitzeko zain geratuko gara kasu honetan ere.

Bestalde, 1.15 artikulu berria sartu da orain ondarearen Katalogoaren araudian. Katalogo hori eguneratzeko derrigorrezko klausula darama artikulu horrek eta eguneratze hori 4 urtetik beherako epean egin beharko da Plan Nagusia behin betiko onartzen den egunetik aurrera kontatuta, edo Katalogoaren aurreko berrikuspenetik hasita, hala behar badu. Hori guztia elementuak arian-arian katalogo horretan jasoko direla bermatzeko, alor honetan eskumena duten erakundeek onartu ahala, eta babes-mailak onartu diren zehaztapenetara egokitu ahal izateko ere. Eguneratze lan hori aurrera eramateko, beharreko fase guztiak bete behako dira, jendaurreko informazioa, alegazioak erabakitzea eta abar, legeak ondarearen katalogoetarako aurreikusi bezala.

Klausula berri horrekin pixkanaka-pixkanaka konpondu egingo dira indarrean dauden eta lotesleak diren arauen eta adierazpenen artean egon litezkeen desadostasunak udal ondarearen Katalogoari begira, eta horri esker erantzun egingo zaie Txostenean aipatutako arazo gehienei.

Osagarri gisa 1.16 artikulua sartu da, eta udal Katalogoaren araudiari begira, artikulu horrek esaten du betiere lehentasunez aplikatuko direla xedapenetan jasotako eraikinak eta elementuak babesteko indarrean dauden legezko arauak eta xedapenak eta kautelazko neurriak.

Ondarea Babesteko Araudiaren definizioari dagokionean, ulertzen da, onar daitezkeen obrak behar bezala definituta daudela Plan Nagusiarekin batera idatzi den Katalogo baten eraginkortasunaren ikuspegitik begiratuta, bai Monumentu mailako Babesa eta Kontserbazio Integrala duten elementuen kasuan bai kontserbazio estrukturala edo kontserbazio partziala behar duten elementuen kasuan.

Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da zehaztapen maila handiagoa, Txostenean gomendatzen den bezala, aztergai den elementuaren edo eraikinaren azterketa oso xehearen bidez bakarrik egin litekeela behar bezalako bermea izan dezan, eta azterketa horrek aintzat hartu beharko lituzke esku hartzea eskatzen den unean zein egoeratan dagoen, zein moldekoa den, zein erabilera mota dituen, eta zer-nolako tamaina eta hedadura dituen elementuaren zati guztiei begira.

Horrek esan nahi du Katalogoaren araudi espezifikoaren aplikazio partikularrerako, kontuan izanik aplikazio horrek oso ezaugarri desberdinak izan litzakeela aztergai den elementuaren arabera, edo elementuari berari dagokionean egiten diren esku hartze proposamenen arabera ere, udal zerbitzu teknikoek berariazko azterketa egin beharko dutela aldez aurretik, Katalogoaren araudiaren oinarrizko irizpideak behar bezala interpretatu ahal izateko.

Araudia gehiago zehazteak oso agindu partikularren aplikazio generikoa ekar lezake, batere komeni ez den homogeneizazioa kasu bakoitzaren tratamenduan, zurruntasuna sor liteke erraz asko eta berehala bilakatuko litzateke kalterako elementu katalogatutako elementuetan, izaera indibidual eta partikularrekoak betiere, onar daitezkeen obrak behar bezala kudeatzeko orduan. Arrazoi horiengatik guztiengatik badirudi ez dela ezinbestekoa hasieran onartutako araudia aldatzea.

Gainera, arloko balorazio azterketa egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak kalifikatzeko edo inbentarioan jasotzeko monumentu edo monumentu multzo izendatzeko proposamen gisa jaso dituen elementuen zerrenda aipatzen du Txostenak, baina oraindik ez da izendapen horiek bideratzeko espedientea hasi eta batzuk ez dira existitzen gaur egun. Horren ildotik esan behar da elementu horietako gehienak sartu direla udal Katalogoan ere, dituzten historia eta arkitektura balioengatik egokiena ematen duen babes-mailarekin. Udal Katalogoan sartu ez direnei dagokienean, hurrengo berrikuspena-eguneratzea egiten denean Katalogoan sartzeko aukera aintzat hartzea proposatzen da, aipaturiko arloko azterketa horietan elementu horiek dituzten ezaugarriak eta babesteko komenigarritasuna jasotakoan.

Azkenik, eta Eusko Jaurlaritzak bere zerrendan udal mailan babestu behar diren elementu gisa jasota dituen ondasun higiezinei dagokienean, oraindik existitzen direnei begira, udal Katalogoak jaso egin ditu plana idazteko unean esanguratsuenak zirenak edo formatu edo estilo jakin bat zutenak edo garai jakin batekoak zirenak, eta baita bakarka ezaugarri espezifiko batzuk zituztenak ere. Zerrendan dauden elementuetako batzuk ez dira existitzen gaur egun, eta horrenbestez, ez zuen zentzurik katalogoan sartzeak, katalogoak aplikazio praktikoa baitu helburu eta ez jada berreskuratu ezin den ondare baten inbentario historiko izatea.

Gainerakoak, lana egiterakoan aintzat hartu diren irizpideen arabera egokitzat hartu ez delako katalogoan sartu ez direnak, berrazter litezke Katalogoan egingo diren hurrengo eguneratzeetan, baldin eza hori bidezkoa bada eta orain jaso ez diren ondasun higiezin horiek jaso behar izateko ezaugarriak zehaztasun handiagoz deskribatzen badira. Une horretan finkatuko litzateke zein babes-mota aplikatu behar zaien, eta hori guztia beharreko jendaurreko informazio tramitea beteta betiere.

AI-07

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia - Kultura eta Euskara Departamentua – Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Ondasun katalogatuak eta kultura ondarearen interesekoak.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/07/26an eta 22.856 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak egindako Txosten bat, eta Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historiko-artistiko, Artxibo eta Museotako Zerbitzuak eginiko Txostena ere bidali da era berean.

Txosten horretan esaten da Gipuzkoako Ondare Historiko Artistiko Higiezinaren Inbentarioak, Udalari 2008. urte hasieran eman zitzaionak, aldaketa batzuk izan dituela, eta horrenbestez, inbentario eguneratua aurkezten da arkitektura katalogoko elementuak erkatu ahal izateko.

Horren harira, uste dute "Katalogoa – Aldundia” atalean dauden ondasunek, industria izaerako ondasunak gehienetan, lehentasuna dutela “zehaztu gabe” atalekoen aurrean eta balorazio handia izango luketela, udalaren babesa gainditu ere egingo lukeena agian.

Inbentarioaren zerrenda eguneratua ere sartu da Txostenean, eta gogora ekartzen da elementu bakoitzak fitxa bat duela eta fitxa hori eskuragarri dagoela eskatzen duenarentzat.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Txosten honek adierazten duenari dagokionean, esan behar da jada kalifikaturiko higiezin guztiak halako gisa jasota daudela udal Katalogoan, eta baita kalifikatzeko abian jarri direnak eta inbentarioan jasotakoak ere.

Zerrendan Foru Aldundiaren Katalogoaren barneko higiezin gisa ageri direnei dagokienean, esan behar da horietako gehienak jasota daudela udal Katalogoan, baina nolanahi ere, dokumentu hau prestatzerakoan aintzat hartu diren irizpideen arabera, Plan Nagusiak hiria eraberritu eta hobetzeko oinarritzat hartu dituen estrategiekin bat datozenak horiek, burdinbide eremuarekin loturiko industria biltegietako batzuk ezin ziren babesteko gai izan arkitektura mailan interes handirik ez dutelako eta datozen urteetan Irunerako aurreikusitako hiri eraldatze nagusiari ekiteko momentuan horiek mantentzea ezinezkoa izango delako.

Horri dagokionean, garrantzitsua da esatea, elementu horietako batzuk jada gainbehera joandako jarduera baten aztarnak besterik ez direla gaur egun; izan ere, hiriko ekonomia eraldatzen lagundu izan arren, arrakala handia ekarri ere egin zuten burdinbidearekin loturiko kable, biltegi eta beste instalazio batzuen ondorioz, eta orain arte hiri ehuneko bi zati garrantzitsu bereizi ditu Plan Nagusi berriak konpondu nahi duen arrakala horrek.

Gainera, udal Katalogoa egiterakoan aintzat hartu diren arkitektura eta ondare historikoaren irizpideen arabera, esan behar da, biltegi eta industria eraikuntza batzuk katalogo horretan ez sartzeko erabakia hartu dela, lehenbizi, egin den balorazioagatik, horien berezko balioak ikusita, ez baitzegoen inolako arrazoirik jada testuingurutik kanpo dagoen eremu batean mantentzeko. Noski, hori ez da izan Aduanako lehengo eraikinaren kasua, hura bai babestua baitago eta hiria birmoldatzeko etorkizuneko esku hartzean sartu beharko baita.

Arrazoibide horiek berak aplika dakizkioke zerrenda horretan Aldundiaren Katalogoko gisa sartutako beste elementuren bati ere, Sanchesky-ren nabeak, esate baterako, San Migel – Anakako birmoldatze esparruan daudenak, edo Porcelanas Bidasoa eraikina, birmoldatze esparru baten barnean hura ere, indarrean dagoen 1999ko Plan Nagusiaren arabera tramitatuak biak ere.

Aipaturiko hiri multzo horiei dagokienean, familia bakarreko etxebizitzek osaturiko auzo horietarako eraikuntza Ordenantzak esaten du mantendu egin behar direla haien bolumen, estetika eta osaera ezaugarriak, eta baita lursailen egitura ere, horiek babesteko helburua lor dadin eraikuntzen barneko konpontze eta hobetze lan arruntetarako eragozpenik sortu gabe.

Behin-behineko Inbentario zerrendei dagokienean, eta Inbentarioan jasotzeko Eskatutakoei eta Ustez Interes Arkeologikoa duten Eremuei dagokienean, zerrenda horietan dauden elementu guztiak jaso dira jada udal Katalogoan.

Aldiz, Zehaztu Gabeko Elementuen zerrendak baditu elementu batzuk Katalogoan jasotakoekin bat ez datozenak, bai katalogo horretan aintzat hartutako irizpideen arabera babes mailaren bat emateko interes edo balio aski ez izateagatik bai gaur egun jada existitzen ez direlako eta jada berreskuratu ezin diren elementu batzuen erreferentziak aplikazio praktikoa helburu duen dokumentu batean jasotzeak inolako zentzurik ez duelako.

Halaz ere, katalogoan sartu ez diren elementu horietako batzuei dagokienean, berrazter litezke Katalogoan egingo diren hurrengo eguneratzeetan, baldin eza hori bidezkoa bada eta orain jaso ez diren ondasun higiezin horiek jaso behar izateko ezaugarriak zehaztasun handiagoz deskribatzen badira. Une horretan finkatuko litzateke zein babes-mota aplikatu behar zaien, eta hori guztia beharreko jendaurreko informazio tramitea beteta betiere.

Horrekin loturik 1.15 artikulu berria sartu da orain ondarearen Katalogoaren araudian. Katalogo hori eguneratzeko derrigorrezko klausula darama artikulu horrek eta eguneratze hori 4 urtetik beherako epean egin beharko da Plan Nagusia behin betiko onartzen den egunetik aurrera kontatuta, edo Katalogoaren aurreko berrikuspenetik

hasita, hala behar badu. Hori guztia elementuak arian-arian katalogo horretan jasoko direla bermatzeko, alor honetan eskumena duten erakundeek onartu ahala, eta babesmailak onartu diren zehaztapenetara egokitu ahal izateko ere. Eguneratze lan hori aurrera eramateko, beharreko fase guztiak bete behako dira, jendaurreko informazioa, alegazioak erabakitzea eta abar, legeak ondarearen katalogoetarako aurreikusi bezala.

Klausula berri horrekin pixkanaka-pixkanaka konpondu egingo dira indarrean dauden eta lotesleak diren arauen eta adierazpenen artean egon litezkeen desadostasunak udal ondarearen Katalogoari begira, eta baita elementu batzuen inguruan Txosten honetan aipatutako kontu batzuk ere.

AI-08

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea - Ondare eta Hirigintza Zuzendaritza.

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Geltoki esparruari buruzko zehaztapenak eta beste kontu batzuk

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/07/11n eta 2011/07/14ko 21.926 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari ADIF Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Ondare eta Hirigintza Zuzendaritzak egindako Txosten bat. Bederatzi atal ditu Txosten horrek.

Lehenbiziko atalean, 2011ko martxoaren 11n Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Irungo Udalaren, ADIFen, Renfe Operadorearen, ETS eta Euskotrenen artean, Irungo burdinbide eremua berrantolatzeko, sinaturiko Protokoloarekin lotura duten alderdiak aipatzen ditu Txostenak, eta zehatzago esateko haren hirugarren klausulan aurreikusitakoa. Trenbide instalazioak abiadura handia Irungo hirira etortzean izango diren beharretara egokitzeko, Sustapen Ministerioaren kargura egingo diren azterketak eta proiektuak ditu mintzagai klausula horrek, eta egungo Geltoki Intermodala lekuz aldatu eta eraberritzea eta ETS sarea integratzea aurreikusten du halaber.

Sustapen Ministerioak Irungo eta Larramongo burdinbide eremuko Informazio Azterketa eta proiektuetan beharreko ondorioak jasotzeko duen gaitasuna aipatzen du ondoren. Beharreko garapenerako hitzarmenean jaso ondoren onartuko dira azterketa horiek. Gaitasuna du halaber esku hartzea bideratzeko beharreko finantza baliabideak jartzeko, batik bat egon daitezkeen hirigintza aprobetxamenduetatik etorritako kostuei eta finantza aukerei dagokienean.

Gogora ekartzen du halaber Plan Nagusia berrikusteko dokumentuak Ministerioak aurreratutako aurreikuspenak jasotzen dituela geltoki ingurua eta trenbideen gunea birmoldatu ondoren eskuragarri geratuko liratekeen lurrei dagokienean. Azpimarratzen du aldi berean burdinbide eremua Antolatzeko azterketa egingo dela burdinbide eremu horretan sorturiko erabilerak formalizatu eta definitzeko aukerak aztertu ahal izateko, mantendu behar diren instalazioak kendutakoan.

Plan Nagusiaren zehaztapen horien aurrean, Txostenean ulertzen da trenbide sistemako azalerek eta eraikigarritasunek datu orientagarri eta ez lotesle gisa agertu behar dutela HAPNan, eta hori Informazio Azterketaren emaitzak ezagutzen ez diren bitartean eta azterketa hori behin betiko onartzen ez den bitartean, eta hura garatzeko beharreko trenbide azpiegituren proiektuak eta trenen eta merkantzien mantenu eta tratamendurako instalazioen proiektuak idazten ez diren eta Protokoloko gainerako helburuak betetzen ez diren bitartean, burdinbide eremuko erabilerei dagokienean.

Ondorio gisa esaten da Plan Berezia izan dadila azkenean hirigintza parametroak ezarriko dituena.

Txostenak Bigarren atalean esaten du, lehenbizikoan azaldutakoaren antzeko argudio batzuekin, geltokirako aurreikusitako 42.600 m²e-ko eraikigarritasunak datu orientagarri eta ez lotesle gisa agertu beharko duela.

Hirugarren atalean esaten da ADIFek HAPNaren Aurrerakinari aurkeztutako iradokizun idatzian adierazitakoaren arabera, 0.2.01 esparruko hirigintza fitxan esaten dela sestrapean Burdinbide Sistema duen Espazio Libreen eta Bideen Sistema Orokorren eremuetarako SG kalifikazioa jasotzen dela gainjarria, eta proposatzen da horren haritik aipaturiko alderdi hori ere sartzeko Burdinbide Eremuko 02.1.01-1 azpiesparruko Hirigintza Fitxan.

Laugarren atalean, eraikuntzaren mugalerroari dagokionean, eta uztailaren 6ko FOM 2230/2005 Aginduaren arabera, esaten da trenbidearen mugan, esparruaren ipar-ekialdeko muturrean, 0.2.01-4 azpiesparruan, burdinbide plataformaren kanpoaldeko erpinetik 20 metro baino gutxiagora aurreikusitako eraikuntzetan, hala behar badu, dagokien garapen plangintza behin betiko onartu ondoren, murriztu egin beharko dela eraikuntzaren mugalerroa, eraikuntzen mugalerroari begira arloko legerian xedaturikoaren arabera, eta proposatzen da aipaturiko alderdi hori ere sartzeko Burdinbide Eremuko 02.1.01-1 azpiesparruko Hirigintza Fitxan.

Bosgarren atalean, eta burdinbide esparruaren inguruan ADIFek dituen lurrei dagokienean, Txostenak esaten du dokumentu ofizialen eta ADIFen Ondasun Higiezinen Inbentario Orokorraren arabera, Geltoki kaleak eta Lope de Irigoyen kaleak okupaturiko lurren zati bat, Madril Hendaia trenbidea eraikitzeko Irungo udal barrutian desjabetutako lurren barnean dagoela eta ADIF dela haren egungo titularra.

Horren haritik esan behar da kale horiek okupatzen dituzten lurrak erreka baten ibilgua desbideratzeko eta trenbideak ebakitzen zuen bide baten lekuan azpiko igarobidea egiteko eskuratu zirela, gero igarobide hori egin zenik jasota ez badago ere. Geltoki kaleko lurrei dagokienean, berriz, esan behar da gaineko igarobidetik tren geltokira sarbidea eraikitzeko desjabetu zirela, Konpainia zaharrak hura eraiki baitzuen Hondarribirako bideari jarraipena emateko, eta honekin batera doan 1. planoan ageri da hori guztia. Egiten duen proposamena da aipaturiko ADIFen lur horiek, 0.2.01 Geltoki Ingurua esparru berritik hurbil daudenak, esparru horretara biltzeko, etorkizuneko lursail zatitze prozesuetan jaso eta egoera erregularizatu ahal izateko.

Seigarren atalean, eta 5.2.4 Mendibil esparruari dagokionean, Txostenak esaten du ADIFen Ondasun Higiezinen Inbentario Orokorraren arabera, esparru horretan Hiri Zoru sailkapena eta Espazio Libreen Sistema Orokorra kalifikazioa duten lur batzuen titularra dela erakunde publiko hori, honekin batera doan 2. planoan ageri den bezala. Zehatzago esateko, adierazten du Irundik Elizondora zihoan Trenbide Zaharreko lurren barnean daudela lur horiek, bere garaian RENFEk erosi zituenak. 5.2.4 Mendibil esparruko Hirigintza Fitxan ez denez adierazten lurzoru horiek eskuratzeko modua, Sistema Orokorra izateagatik, ulertzen bada ere desjabetze sistemaren bidez izango dela, alderdi hori esparru horren Hirigintza Fitxan jasotzea proposatzen da.

Zazpigarren atalean, eta Araso Poligonoaren ondoan geraleku berria egiteko proposamenari dagokionean, esaten du, Memorian burdinbide sistemarako jasotako HAPNaren proposamenen artean Euskotrenen geraleku berria egiteko proposamena dagoela, Arasoko merkataritza Poligonoaren inguruetan, Arasoren etorkizuneko luzapenean, egongo litzatekeena. T-9 planoan - Burdinbide Eremua, berriz, ADIFen trenbide trazatuaren ondoan kokatzen da geltoki berriaren proposamen hori, Euskotrenena den eremu batean, 1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena industri esparrutik hurbil. Era berean, esaten du aipaturiko esparru berri horietako Hirigintza Fitxetan ez dela proposamen hori aipatzen. Memorian proposatutakoa eta kartografian ageri den identifikazioa ez datozenez bat, dokumentuan alderdi horiek zuzentzeko eskatzen dute.

Zortzigarren atalean, eta ADIFen Sareari dagokionean, Txostenak esaten du dokumentuko hainbat ataletan "RENFEko trenbide plataforma", "RENFEko bidaiarien geltokia edo "RENFE Sarea" aipatzen dela, 6.2.- Antolamendu Memoriaren dokumentuko trenbide azpiegitura puntuan, esate baterako, edo Hirigintza Arauen 4.23 artikuluan eta abarretan. Hori dela-eta, aipamen horiek guztiak zuzentzeko eskatzen dute, eta "RENFE"ren lekuan "ADIF" jartzeko.

Azkenik, Bederatzigarren eta azken atalean eta Oker Material gisa, Txostenak esaten du Plangintza esparruen dokumentuko 6. puntuan, Hirigintza Zehaztapenak, eta zehatzago esateko, 0.2.01 Geltoki Ingurua esparruari dagokionean, eta baita 1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena, eta 1.1.12 Sasikoburua esparruetakoan ere, 31/2003 Legea aipatzen dela, eta hori aldatu eta Trenbide Sektoreari buruzko 391/2003 Legea aipatu behar dela.

Txostena osatzeko bi Plano aurkezten dira Eranskin gisa. 1 zenbakia duenean, ADIFen lurrak ageri direnean, eskatzen du 0.2.01 esparruan jasotzeko 4.259 m² guztizko azalerarekin, eta 2 zenbakikoan, berriz, 5.2.4 Mendibil esparruan ADIFek dituen lurrak ageri direnean, 344 m²-koa izango litzateke azalera.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Txosten honetan esandakoak aintzat harturik, honako alderdi hauek jaso edo/eta aldatuko dira Plan Nagusian:

Lehen Atalari dagokionean, esan behar da, Euskal Autonomi Erkidegoan lurzoruaren alorrean indarrean dagoen legeriaren 35. artikuluaren arabera, hirigintza eraikigarritasunak zehaztapen estruktural gisa hartu behar dira, irabazizko izaerako erabilerei eta jarduerei dagozkielako. Horrenbestez, Geltoki Ingurua esparruko Fitxan jasotako 9.800 m²e horiek, bere garaian sinatutako Protokoloan jaso ziren burdinbide eremua antolatzeko Azterketan oinarriturik, trenbideen trazuaren gainean bulego eraikin bat egiteko aukera jasotzen dutenak, parametro lotesle gisa hartu behar dira hirigintza maila estrukturalarekin.

Beste kontsiderazio bat da Geltokiari emandako 42.600 m²e-ko eraikigarritasun fisikoari dagokiona, Hirigintza maila xehearekin, eta horrenbestez, izaera orientagarriarekin, islatzen dena, eta Burdinbide Sistemak bere dituen erabilerak izango dituena. Eraikigarritasun fisiko horrek, gainera, Geltokiarekin loturik egon litezkeen hirugarren sektoreko erabilerak kontzeptu horretan sartzeko aukera jasotzen

du. Nolanahi ere, Hirigintza Fitxaren 4. atalean adierazi egingo da bakarrik izaera orientagarriarekin jarritako azalera dela eta Plan Bereziaren bidez definituko dela zehazki, bai zenbatekoari dagokionean bai, hala behar badu, bertan bidera litezkeen erabilerei dagokienean.

Bigarren Atalari dagokionean, aurreko paragrafoan adierazitakora joko da.

Hirugarren Atalari dagokionean, esan behar da ez dela beharrezkoa Txostenean esaten den aipamen hori egitea, hasieran onartutako Plan Nagusiko Hirigintza Fitxen dokumentuan jasotako azpiesparruek zuten helburu bakarra baitzen kuantifikazio irizpide bat eskaintzea, hau bezalako esparru zabal baten ulermena errazteko xedean, baina 0.2.01 Geltoki Ingurua esparruko Hirigintza Fitxan jasotakoak dira dagozkion baldintzak. Nolanahi ere, nahasmenik gerta ez dadin, Behin-behineko Onarpen dokumentuan Kuantifikazio Fitxak bereizi egin dira Planeko esparru guztien Hirigintza Fitxetatik, eta dokumentu Eranskin batera eraman dira.

Laugarren Atalari dagokionean, Plan Nagusiaren dokumentua aldatu da, eta Geltoki Inguruari dagokion Hirigintza Fitxako 6. atalean jaso da eraikuntzaren mugalerroari dagokiona.

Bosgarren Atalari dagokionean, esan behar da 0.2.01 Geltoki Ingurua esparruan jasotako lurrak direla birmoldatu behar direnak, sendotu gabeko lurzoruak ukitzen direlako aurreikusitako antolamendu berriaren ondorioz. Protokoloa sinatzeko balio izan zuten planoetan ageri da esparru hori. Geltoki kaleak eta Lope de Irigoyen kaleak okupatutako lurretako batzuen ondare egoerari dagokionean, honekin batera eranskin gisa doan 1. planoan ageri direnak, hain zuzen ere, ADIFek aipatzen duen kontuari begira, birmoldatu behar den esparrutik berex dagoen kontu gisa hartu behar da hori.

Geltoki Ingurua esparruaren perimetroaren barnean dauden lurrak ez bezala, Txostenean aipatzen diren bi bide horiek okupatzen duten lurra zoru sendotua da bi kasuetan, Plan Nagusiak aurreikusitako antolamenduak ez baitu inolako aldaketarik jasotzen ez haren trazan eta ez haren erabileran. Kale horien jabari egoeraren erregularizazioa, jakinik beren egitekoa hiri bideen barnean egotea izan dela aspaldiko hamarkadetan, Udalarekin azter daitekeen kontu bat da, baina ezin da Geltoki esparruan sartu.

Argi utzi behar da sistematikoki, esparru honetan eta Plan Nagusiko beste edozein esparrutan lurrak sartzeko helburuetako bat izan dela kasu bakoitzean dauden arazoei konponbidea emateko beharreko lurrak eskuratzea, baina horregatik inoiz ez dira jaso behar izan birmoldatu beharreko esparru bakoitzean ukituriko jabeen gainerako lur guztiak.

Seigarren Atalari dagokionean, Plan Nagusiaren dokumentua aldatu egingo da, zuzendu egingo da 5.2.4 Mendibil esparruaren mugaketa okerra, eta FV Kalifikaziora bilduko dira 2. planoan azaltzen diren lurrak. Horrenbestez, 344 m²-tan handituko da trenbide erabilerarako eremua. Zuzenketa hori egin da lur horien erabilerarekin eta izaerarekin eta duten kalifikazio xehearekin koherentzia izateko, lur horiek ez baitira beharrezkoak mintzagai dugun esparrua bideratzeko.

Zazpigarren Atalari dagokionean, esan behar da, Plan Nagusiak egindako Araso inguruan geltoki edo geraleku berri bat egokitzeko proposamena, modu orientagarrian besterik ez da egiten, eta alderdi hori gehiago zehaztuko da Planaren Memoriaren 6.2.3 atalean, hartan jaso baitira burdinbide eremuaren Hegoaldeko Sektoreko proposamenak, izaera orientagarria duen udal proposamena dela aipatuz.

Izan ere, baterako geraleku hori egiteko aukeraren eta etorkizunean izango duen kokalekuaren azken erabakia adostu egin beharko da ADIFen trenbide sareko eta EUSKOTRENen sareko administratzaileekin. Hain zuzen ere horrexegatik ezin da xehetasun handiagoz zehaztu Plan Nagusian, eta zegoen bezala utzi da T-9 planoan aipaturiko Geltoki horren kokaleku orientagarria, baina ez da ageri ez kalifikazio xehearen planoetan eta ez esku hartze esparruetako Hirigintza Fitxen planoetan.

Zortzigarren Atalari dagokionean, Plan Nagusiaren dokumentua aldatu da, eta RENFE jarri beharrean ADIF jarri da, Memorian oker egiten ziren aipamenetan, batik bat “RENFEko trenbide plataformaz", "RENFEko bidaiarien geltokiaz edo "RENFE Sareaz” hitz egiten zenean 6.2.- Antolamendu Memoriaren dokumentuko trenbide azpiegitura puntuan edo Hirigintza Arauen 0.2.12 artikuluan. Horrenbestez, horietan guztietan ADIF jarriko da orain.

Bederatzigarren Atalari dagokionean, Plan Nagusiaren dokumentua aldatu da, eta Plangintza esparruen dokumentuko Fitxetako Hirigintza Zehaztapenen 6. puntuan, 0.2.01 Geltoki Ingurua, 1.1.11 Oiantzabaletaren Luzapena eta 1.1.12 Sasikoburua esparruetarako aldatu egingo da oker zegoen 31/2003 Legearen aipamena, eta haren lekuan Trenbide Sektoreko 391/2003 Legea jarriko da, hori baita zuzena.

AI-09

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Sustapen Ministerioa - Burdinbide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Geltoki esparrurako zehaztapenak

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/08/23an 25.126 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zaio Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen espedienteari Sustapen Ministerioko Burdinbide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak egindako Txosten bat.

Txosten honek esaten du Udal honen, Sustapen Ministerioko Burdinbide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren eta beste administrazio batzuen artean sinaturiko 2011ko martxoaren 11ko asmoen Protokoloaren araberako zehaztapenak jaso dituela Plan Nagusiak, Irungo burdinbide eremuan (6.2.6 esparrua) aurreikusitako esku hartzeei dagokienean, eta horren haritik aintzat hartzen dela trenbide azpiegituren gainean Ministerioak duen eskumena, proposamenak haren aurreikuspenen baitan jarrita eta Plan Nagusitik bereizita haien geroko gauzatzeari dagokionean, trenbideko proiektuen faseetara eta epeetara egokitu ahal izateko.

Halaz ere, Txostenak esaten du burdinbide sistemari egokitutako azalerak eta eraikigarritasunak datu orientagarri eta ez lotesle gisa hartu beharko liratekeela, bidean dauden trenbide azterketak eta proiektuak amaituta ez dauden bitartean.

Bestalde, adierazten du, Trenbide Sektoreko 391/2003 Legearen xedapenak eta Sustapen Ministerioaren 2230/2005 Agindua hirigintza araudian jaso badira ere, jabari publikoko eremuari, babes-eremuari eta eraikuntzaren mugalerroari buruzkoak horiek, azken horren murrizketa tramitatu beharko dela 0.2.01-4 esparruan, plataformaren kanpoko ertzetik 20 metro baino gutxiagora eraikuntzak aurreikusten baitira horretan, dagokion Hirigintza Fitxan alderdi hori jasota.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Txosten honetan adierazitakoari dagokionean, dagokion Fitxan jaso da, bidean dauden trenbide azterketak eta proiektuak amaituta ez dauden bitartean, burdinbide sistemari egokitutako azalerak eta eraikigarritasunak datu orientagarri eta ez lotesle gisa hartu behar direlako zehaztapen hori. Gainera, Fitxa horretan adierazi da halaber, burdinbide plataformaren kanpoko ertzetik hasi, eta gutxienez 20 metro errespetatu beharko dituela eremu eraikigarriak.

AI-10

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisaria

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Planteatutako hirigintza garapen berrien eskaerei erantzuteko baliabide hidraulikoak izatea

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2011/04/12an, eta Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisariak Aurrerakinari aurkeztutako aurretiko Txostenean eskatutakoari jarraiki, Komisaria horri eta Uraren Euskal Agentziari eskatu zitzaien derrigorrezko Txostena, Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera, plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren erabileraren arteko erlazioaren inguruan.

2011/04/14an eta 12.647 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, jaso zen Udalean Ingurumeneko eta Landa eta Itsas ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisariak egindako Txosten - Bidaltze Jakinarazpen bat Udalak egindako eskaeraren inguruan; izan ere, Uraren Euskal Agentziaren eta arestian aipaturiko Konfederazio horren artean jabari publiko hidraulikoaren kudeaketaren eta polizia eremuaren inguruan duten lankidetza administratiboaren arabera, Uraren Euskal Agentziak (URA) Donostian duen Ordezkaritzara igorri zen eskaera hori, eta horrenbestez, Agentzia hori izango da EAEko eta estatuko bi administrazio horiek egindako bi txosten horiek bidaliko dituena.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Hasierako Onarpen dokumentuak bazuen planteatutako garapenetatik etorritako beharrei erantzuteko beharreko baliabide hidrikoen azterketa, eta baita behar horiei erantzuteko San Antongo urtegitik eta Endara ibaitik etorritako baliabideak, Hondarribian Jaizkibeletik etorritako ur-biltzeekin batera, aski zirela egiaztatzen zuen justifikazioa ere, hori guztia Uren Legearen (1/2001 ED) Testu Bateratuan aurreikusitakoaren arabera, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren Uren Komisariak Aurrerakinari aurkeztutako Txostenean (Memoria honen aurkibidearen AV-06) eskatu bezala. Hori dela-eta, baliabide horien zenbatekoa berregokitu da Behin-behineko Onarpenerako dokumentu berrian, bertan jasotako biztanleria aurreikuspenen murrizketarekin bat eginez.

Hala ere, Plan Nagusiaren dokumentua behin-behineko onarpenerako aurkeztu behar denean, eskaera horiek egin eta handik bi urte eta erdira, ez zen arestian aipaturiko Bidaltze Jakinarazpen horietako bakar bat ere jaso, eta horrenbestez, eta igaro den denbora ikusirik, ulertzen da espedientea tramitatzen jarrai daitekeela, bi administrazio horiek kontu honen inguruan duten iritzia azaldu ahal izango badute ere Plan Nagusia behin-behinean onartu ondoren, eta dokumentu horrek, goian adierazi bezala, jaso duen baliabideen zehaztapen berri eta egokituan oinarriturik betiere.

AI-11

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Industria, Energia eta Turismo Ministerioko Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiko Telekomunikazio Sare eta Operadoreen Zuzendariordetza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Legearen 26.2 artikuluaren betetzearen inguruko zehaztapen batzuk.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

2013/08/12an 20.213 Sarrera Erregistro zenbakiarekin, jaso zen Udalean Telekomunikazioei buruzko estatuko 32/2003 Lege Orokorraren 26.2 artikuluaren betetzearen inguruko Txostena.

Txosten horretan esaten da Irungo Plan Nagusiaren dokumentuari dagokionean hainbat kontu dituztela esateko Telekomunikazioen alorrean indarrean dagoen legeriarekiko adostasun ezaren inguruan.

Ondoren izaera orokorreko Kontsiderazio batzuk aipatzen dira telekomunikazio sareen hedapena modu harmoniko eta eraginkorrean egin dadin, eta horrenbestez, hirigintza plangintza tresnetan aintzat har daitezen.

Erreferentzia horiek jasotzat ematen dira informazio mailan, hainbat alderdirekin loturik Telekomunikazioen Lege Orokorrak aurreikusitako kontuak jaso baitira, honako hauek, hain zuzen ere, operadoreek duten jabari publikoa okupatzeko eskubidea eta aplikatu beharreko araudia, jabetza publikoaren edo pribatuaren erabilera partekatua, irrati-instalazioak, komunikazio elektronikoen Sare publikoak hirigintza plangintza tresnetan: azpiegituren ezaugarriak, eraikinetako telekomunikazio azpiegiturak, eta azkenik, azaroaren 28ko ITC/3538/2008 Agindua betetzea.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Amaitzeko, Txosten horrek esaten du aurkeztutako hirigintza tresna bat datorrela indarrean dagoen legeriarekin, eta horrenbestez, positibotzat hartu behar da, eta horren inguruan ez dago inolako zuzenketa edo aldaketarik egin beharrik.

AI-12

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Sustapen Ministerioa – Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Donostiako Aireportuko aireko zortasunak

TXOSTENEK MINTZAGAI DITUZTEN ARAZOAK:

ALEGAZIOA LABURBILDUTA

Garraio Idazkaritzako Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari dagokionean, eta Aurrerakin dokumentuari begira, honela egin zen tramitazioa:

2008ko abenduak 22: Irungo Udalak derrigorrezko Txostena eskatu zion AZZNri Irungo Plan Nagusia Berrikusteko Aurrerakinaren inguruan.

2009ko ekainaren 26an: AZZNk lehen Txostena bidali zion Irungo Udalari, eta hirigintza plangintzan indarrean dagoen Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen xedapenekin bat etorriko ez ziren esparruak edo edukiak deskribatzen ziren bertan, bereziki eragin akustikoen eta aireko zortasunen inguruan, eta esaten zuen Plan Nagusiak behar bezala jaso behar zituela hartan eragina duten Plan Zuzentzailearen xedapenak. Horrenbestez, plan horren edukira egokitu behar zen arestian aipaturiko txosten horretan adierazitakoari jarraiki, edo xedaturikoa betetzen dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu, edo aireko zortasunak gainditzen diren lekuen kasuan beharreko Azterketa Aeronautikoaren bidez egiaztatu sartze horiek ez dutela arriskuan jartzen aireontzien segurtasuna edo joan-etorrien erregulartasuna Donostiako Aireportuan, 1541/2003 Errege Dekretuak xedaturikoaren arabera.

2009ko urriaren 27an: AZZNk Irungo Udalari bidali zion eskatuko Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenerako Aurrerakinaren inguruko derrigorrezko txostena eta aurkakoa izan zen. Halako kontu batzuk aipatzen zituen esanez aurkeztutako Irungo Plan Nagusiaren Aurrerakinaren dokumentazioa ez zegoela bat indarrean dagoen Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen xedapenekin.

Udalak, Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenari Hasierako Onarpena eman ondoren, haren espedientea bidali zion Estatuko Garraio Idazkaritzako Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari, eta derrigorrezko txostena egiteko eskatu zion:

2011ko apirilaren 13an: Irungo udalak AZZNri eskatu zion Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Hasierako Onarpen dokumentuaren inguruko Derrigorrezko txostena, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoaren arabera.

2011ko ekainaren 14an eta 20.308 Sarrera Erregistro zenbakiarekin: AZZNk Irungo Udalari bidali zion Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren inguruan eskatutako

derrigorrezko txostena eta ezezkoa izan zen. Kontuan hartu behar ziren baldintza batzuk aipatzen zituen lehen txosten horrek eta esaten zuen baldintza horiek bete behar zirela dokumentua aireko nabigazioaren inguruko arauditik etorritako legezko mugen alorrean indarrean dagoen legeriara egokitu ahal izateko.

2011ko azaroaren 3an: Irungo Udalak AZZNri eskaera egin zion Zuzendaritza Nagusi horrek formatu digitalean eman ziezazkion 2011ko ekainaren 14an egindako txostenarekin batera zihoazen planoetan ageri ziren aireko zortasunak. Eskaera hori egin zen aurkako txostenean azaltzen ziren arazoetako batzuek zerikusia zutelako aireko zortasunen inguruan zeuden papereko dokumentuak Planean jasotzeko moduarekin, aplikatu beharreko legezko zortasunak formatu digitalean ere bazeudenez, horrek aukera emango baitzuen Planeko zehaztapenak haietara behar bezala egokitzeko.

2011ko azaroaren 16an: AZZNk Irungo Udalari bidali zion eskatutako dokumentazioa euskarri digitalean. Gainera, elkarrekin bilera egin zen aplikatu beharreko irizpide zehatzak definitzeko eta sumatu ziren akatsak konpontzeko. Era berean, aplikatu beharreko legeriari begira onartu eta proposatutako araudien indarraldiarekin eta aplikazioarekin loturiko kontuak ere landu ziren bilera horretan.

2011ko abenduaren 20an: Irungo Udalak AZZNri idatzi bat bidali zion eta bertan halako eskaera eta argibide batzuk egiten zituen Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunen inguruan. Idatziaren edukia aipaturiko bilera horretan hitz egindakoarekin loturik zegoen eta, alde batetik, eskatzen zen ofizialki onartzeko Donostiako aireportuaren eraketarekin loturiko aireko zortasunak eguneratuta gera zitezen aireportuko egungo erreferentziako altitudeak, Aireontzien jarduerarenak eta irrati-laguntzenak zortasun horiekin bat datozela egiaztatzeko. Idatzi berean eskatzen zen 796/1976 Dekretuan argitaratutako aireportuko zortasunek ezarritako mugak aldatutzat hartzeko, azalera horizontalaren eta azalera konikoaren altitudea bere puntu guztietan adierazitakoa baino 4 metro handiagoa delako, hauxe da, 50 m MSLan, eta 04 eta 22 pistetako hurbiltze eta aireratze azaleren eguneratzeak ere ontzat emateko.

2012ko urtarrilaren 12an: AZZNk AENAri eskatu zion egokitzat hartzen zituen oharpenak egiteko arestian aipaturiko idatzi horren inguruan.

2012ko apirilaren 4an: AZZNk AENAren erantzuna jaso zuen, eta haren arabera, aplikatu beharreko parametro berriak finkatzen zituen erakundeak Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunak mugatzen dituzten azaleren inguruan.

2012ko apirilaren 13an: AZZNk AESAri eskatu zion bere iritzia emateko arestian aipaturiko AENAren erantzun horren inguruan.

2012ko apirilaren 30ean: AZZNk AESAren erantzuna jaso zuen, eta esaten zuen ez zuela inolako oharkizunik egiteko AENAren azterketen ondorioen inguruan.

2012ko uztailaren 13an: Irungo Udalak AZZNri eskatu zion derrigorrezko txostena egiteko, Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunen parametro berrien aplikazioarekin loturik aldatu ziren dokumentuek osaturiko Plan Nagusiaren laburpenaren inguruan. Udalak 2001eko abenduaren 20an egindako idatziaren erantzun formalik oraindik

eskura izan gabe, zerbitzu teknikoek beren lana egin zuten dokumentu berri hori prestatzeko, baina Zuzendaritza Nagusiak bidalitako zortasun aplikagarrien oinarri digitala aintzat harturik jadanik.

2012ko urriaren 18an eta 24.568 Erregistro Sarrerarekin: AZZNk bigarren txosten bat bidali zion Irungo Udalari, hura ere ezezkoa. Hartan esaten zen, aurkeztu zen Plan Nagusiaren dokumentazio eguneratuaren balorazioa egin ondoren eta aplikatu beharreko arauen indarraldiari loturik hartu berri diren neurrien arabera, dokumentazio horretan ez zeudela behar bezala adierazita hurbiltze, aireratze eta trantsizio azalerei zegozkien mugak, horiek errespetatu egin behar baitzuten 792/1976 Dekretuan aurreikusitakoa.

Azken arazo hori konpontzeko, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarekin berriro harremanetan jarri ondoren, eskatu zitzaien kontuan hartu behar ziren zortasun guztien berri emateko, formatu digitalean horiek ere. Hori Udalari bidali zitzaion 2012ko azaroan, eta orain konbinazio bat egin da Zuzendaritza Nagusiaren irizpideen arabera plangintzak errespetatu behar dituen araudiekin.

2012ko abenduaren 20an: Aplikatu beharreko Aireko Zortasunen topografia berri hori jaso ondoren, Plan Nagusiko planoen eta Fitxen hirugarren laburpen dokumentua bidali zitzaion Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari.

2013ko apirilaren 8an: egun horretan AZZNk, Plan Nagusiko azken dokumentu horren azterketan oinarrituta, zirriborro bat bidali zion Irungo Udalari, 2012ko abenduan emandako dokumentazio zuzenduan oinarriturik zuzendu behar ziren hainbat arazo jasotzen zituen idatzia, hain zuzen ere, arazo horiek zuzendu eta aplikatu beharreko zortasunen inguruan finkatutakoa bermatzeko beharreko neurriak hartu ondoren, jada berriro eskatu ahal izateko derrigorrezko txostena.

2013ko uztailaren 1ean: Irungo Udalak AZZNri eskatu zion berriro ere derrigorrezko txostena egiteko Plan Nagusiaren Berrikuspeneko dokumentazio zuzenduaren inguruan. Dokumentazio horren laburpena aurkeztu zen eskariarekin batera.

2013ko uztailaren 31n: AZZNk AENAri eskatu zion egokitzat hartzen zituen oharkizunak egiteko AZZNk idatzitako Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenaren inguruko txosten zirriborroari buruz.

2013ko urriaren 9an: AZZNk AENAren erantzuna jaso zuen, eta erakunde horrek zirriborroa zuzentzat jotzen zuen zituen eskumenei zegokienean. Gainera, halako adierazpen batzuk egiten zituen AZZNk aintzat hartu behar zituenak behin betiko Txostena idazteko. Hainbat alderdi aipatzen zituen, ondoren laburbilduta azalduko direnak.

EGINDAKO TXOSTENEN EDUKIAK

2011/06/14ko lehen Txostenaren, 2013/04/08ko txosten zirriborroaren eta behin betiko Txostenaren arabera Plan Nagusiaren dokumentuan egindako aldaketak eta zuzenketak azaltzen dira ondoren, 2012/10/18ko Txostenetik, aplikatu beharreko

zortasunen kontuarengatik bakarrik izan zenez ezezkoa, ez baitzen aldaketa zehatzik etorri aplikatu beharreko Aireko Zortasun horien behin betiko topografia izan arte.

2011/06/14ko TXOSTENA:

Laburbilduta esan den bezala, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak emandako Txostenaren ondorioz hainbat azterketa eta lan egin behar izan dira, Plan Nagusia Donostiako aireportuko aireko zortasunetara egokitu ahal izateko betiere. Alderdi horiek guztiak jaso dira ondoren:

2011/06/14ko lehen Txostenari dagokionean, esan behar da, lehenbizi, hartan jasotako edukiaren tratamendua zehaztapen lotesle eta baldintza gisa hartzen dela beti, eta hura betetzea ezinbestekoa dela erakunde igorlearen aldeko txostena lortzeko, kontuan izanik txosten hori ezinbestean eskuratu behar dela Plan Nagusiaren Berrikuspena Behin-behinean onartzeko ekitaldiaren aurretik.

Aipaturiko 2011/06/14ko Txosten horren alderdi orokorrak eta aplikatu beharrekoak ageri dira ondoren laburbilduta:

A) Aurrekariak

Idatziaren hasieran aurretik egindako txosten batzuen errepasoa egiten da, haien izaera azalduta. Hala bada, Irungo udal barrutian onartutako plangintzei dagokienean, honako hauek jaso dira:

- 6.2.06 Txenperenea esparrua:

2007ko apirilaren 10eko Txostena, Plan Nagusiaren Elementuen aldaketaren aldekoa.

- 6.2.01 Oñaurre esparrua:

2006ko urtarrilaren 13ko Txostena, Plan Nagusiaren 8. Aldaketaren aldekoa.
2011ko martxoaren 7ko Txostena, Plan Partzialaren 2. Aldaketaren aldekoa.

- 1.3.01 Porcelanas -Bidasoa eta 1.3.03 Elizatxo esparruak:

2010eko abuztuaren 12ko Txostena, Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren aldekoa.

- 3.1.05 Lazareto esparrua:

2010eko abuztuaren 12ko Txostena, HAPNaren 13. Aldaketaren aldekoa ezarritako kotekin.

- 3.1.01 San Migel Anaka esparrua:

2009ko ekainaren 30ean Hiri Antolamendurako Plan Bereziari egindako Txostena aldeko txostenerako kota proposamenekin.

- URI Eraikina

2011ko maiatzaren 9ko Txostena, Plan Nagusiaren 19. Aldaketaren aldekoa.

- 2.1.02 Puiana Eskola Lursaila esparrua:

2010eko apirilaren 15eko Txostena, Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren aldekoa.

Horren ondoren, idatzian kontsiderazio batzuk ageri dira eskaerak mintzagai duen Plan Nagusia Berrikusteko dokumentuaren inguruan. Horren haritik, ordura arte Zuzendaritza Nagusira bidalitako dokumentuak eta dokumentu horien izaera aipatzen dira.

Hala bada, 2009ko urriaren 27an Aurrerakin dokumentuari egindako aurkako txostena aipatzen da.

Azkenik, 2011ko apirilaren 13ko data aipatzen da, Irungo Udalak egun horretan eskatu baitzuen hasierako onarpen dokumentuaren inguruan derrigorrezko txostena egiteko, eta zera esaten du haren inguruan:

B) Hirigintza proiektuak bidaltzea eta txostenaren izaera

Egin den txostena derrigorrezkoa dela eta izaera loteslea duela esaten da.

C) Arloko araudia

Esaten da Plan Nagusiaren Berrikuspen dokumentuak honako hau aipatu beharko duela arloko araudian:

> *Urriaren 11ko 2057/2004 Errege Dekretua, Donostiako (Gipuzkoa) DVOR eta DME aireko nabigazioari laguntzeko irrati-instalazioaren aireko zortasunak ezartzen dituena.*

Era berean, esaten du okerra zuzendu egin beharko dela Ministerioaren Aginduari dagokionean, zera adierazita:

> *Sustapen ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko agindua, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena.*

D) Eragin Akustikoak

<u>Aplikatu beharreko araudia</u>

Esaten da honako araudi hau aplikatu behar dela eragin akustikoei dagokienean:

- *48/60 Legea, uztailaren 21ekoa,*
- *37/2003 Legea, azaroaren 17koa*;
- *1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa*;
- *FOM7926/2005 Agindua, martxoaren 21ekoa*;
- *Sustapen ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko agindua, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena.*

<u>Lurraldean izango diren eraginak</u>

Hasteko esaten da *bizileku erabilerak eta hezkuntzarekin edo osasunarekin loturiko hornidura erabilerak ez direla bateragarritzat jotzen Leq=60dB(A) kurba siofonoek ukituriko lurretan*. Irungo udal barrutiaren zati bat kurba horien barnean dago eta horregatik:

Zoru Urbanizaezin gisa sailkaturiko esparruetan, soinu-aztarnak ukitzen dituenetan, bizileku erabileretarako eta hezkuntzarekin edo osasunarekin loturiko hornidura erabileretarako eraikuntza berriak ez dira bateragarritzat joko, *eta ezta erabilera horietarako ukituriko pertsonen kopuruaren hazkundea dakarten hirigintza aldaketak ere, baldintza horiek dagozkien hirigintza fitxetan adieraziz.*

Aurretik dauden lizentziarik gabeko eraikuntzak legeztatzeko, Plan Nagusiak eskatuko du horiek hosgabetzeko EKTaren zarataren Aurreko Babesaren DB_HR oinarrizko dokumentuaren arabera, baina aireportuko titularra ez da hosgabetze horren kostuen kargu egingo, eta baldintza horiek jaso beharko dira dagozkien hirigintza fitxetan.

E) Aireko zortasunak

Aplikatu beharreko araudia

Esaten da honako hauen arabera ezarritakoak direla aireko zortasunak:

- *48/60 Legea, uztailaren 21ekoa,*
- *584/72 Dekretua, otsailaren 24koa*
- *2490/74 Dekretua, abuztuaren 9koa*
- *1541/2003 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa*
- *792/1976 Dekretua, martxoaren 18koa*
- *Sustapen ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko agindua, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena.*
- *2057/2004 Errege Dekretua, urriaren 11koa;*
- *2008ko ekainaren 25eko Legez besteko Proposamena*

Lurraldean izango diren eraginak

Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen barnean dago Irungo udal barruti osoa. Txosten honekin batera eranskin gisa doazen planoak aintzat harturik zera esaten da:

Honekin batera eranskin gisa doazen planoetan zehaztutako Aireko Zortasunak jaso beharko dira, eta ondoko paragrafo hau ere jaso egingo da,

Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunak mugatzen dituzten azaleren maila-lerroek eraikuntzek gainditu behar ez dituzten altuerak (itsas-mailarekiko) finkatzen dituzte (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta baita ibilgailuen galiboa ere.

Proposaturiko edozein eraikuntza motaren altuerak mugatzeko xedean egiten den edozein arau erreferentziatan berariaz aipatu beharko dira 792/1976 Dekretuak onartutako Zortasunen altuera-mugak.

Hori esan ondoren, Txostenaren izaera aipatzen da ukituriko azalera desberdinei begira eta:

Honakoa esaten da ondoko alderdi hauei begira:

- *Barne Azalera Horizontala eta Azalera Konikoa*
- *Hurbiltze, Aireratzeko igoera eta Trantsizio Azalerak*
- *Irrati-instalazioen altueren mugak*
- *Aireontziek jarduteko Azalerak*

Izaera orokorrez ezezkoa emango zaio birsailkapenari edo, hala behar badu, birkalifikazioari kotak gainditzen diren edo kotetatik hurbil dauden eremuetan altuerak handitzen baditu, edo eraikuntzen, zutoinen, antenen, kartelen eta abarren altuerak azalera horiek gainditzen baldin baditu.

Halatan, eremuen zerrenda bat egin da, eta hartan jaso dira, alde batetik, lurrak berak zortasunaren altueraren muga gainditzen duen lekuak, eta bestetik, Plan Nagusiak proposaturiko eraikuntzek muga horiek gaindi ditzaketen lekuak.

Irrati-instalazioen segurtasun eremuei dagokienean

Eremu horietan eraikuntzak, edo lurraren osaketaren, lur horren edo gainean dauden elementuen azaleraren behin-behineko edo betiko aldaketak debekatuta daude, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA) aldez aurretik horretarako baimena ematen ez badu.

Kontsiderazio orokorretara itzulirik, zera esaten du azkenik:

Energia elektrikoa banatzeko aireko sare bat dago udal barrutia zeharkatzen duena eta haren trazatuaren zati batek gainditu egiten ditu eta beste zati batzuetan gaindi ditzake zortasunak.

Lurrak berak aireko zortasunak gainditzen dituen lekuetan edo gainditzeko arriskua dagoen lekuetan aurretik dauden elementuei dagokienean, ez da elementu berririk onartuko eta ezta daudenak aldatzea ere horrekin altuera handitzen bada.

Bide eta trenbide azpiegiturek aireko zortasunak kontuan izan beharko lituzkete, seinaleek, zutoinek, kartelek eta abarrek, edo ibilgailuen galiboak azalera horiek gaindi ez ditzaten.

Plan Nagusiaren Berrikuspenaren araudiak argi utzi beharko du irrati-instalazio aeronautikoen jardun arrunta nahasteko moduko erradiazio elektromagnetikoak eragin ditzakeen edozein irrati-igorle edo beste erabateko edozein gailu jarri ahal izateko, eragozpenak mugatzen dituzten azalerak ez badira ukitzen ere, beharreko baimena beharko dela. Era berean, argi utzi beharko da, Zortasunak jabetza eskubidearekiko legezko mugak direnez haren funtzio sozialaren arabera, ondorio horietarako hartuko den erabakiak ez duela kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

Aerosorgailuak bezalako egiturak jarri behar badira eta duten funtzionamenduagatik plataforma goratuetan egokitu behar badira, ziurtatu behar da inolaz ere ez dituztela Zortasunak gaindituko.

Plan Nagusiaren Berrikuspenaren araudian berariaz aipatuko da plangintzak definitutakoa izango dela gauzatu daitekeen aprobetxamendua, hari beharreko baldintzak aplikatu ondoren, eta murrizten bada ez duela kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

2011/06/14ko TXOSTENEAN AGINDUTAKOA APLIKATZEA

Txosten honetan agindutakoan oinarriturik eta lan-bileretan ateratako ondorioak aintzat harturik, batik bat 2011/11/30ean egindakoan ateratakoak, Zuzendaritza Nagusiak adierazi du sendoturik mantenduko direla Zortasunen inguruko Dekretu Legea onartu aurreko eraikuntzak. Horrek esan nahi du 1999ko Plan Nagusiaren Ordenantzen arabera eraikitako aurrez badauden eraikinek, eta Ordenantza horien beren arabera eraiki daitezkeenek beren ezaugarri bolumetrikoei eutsi ahal izango dietela, zortasunei dagozkien mugekin bat ez egon arren.

Horretarako, eskatu zen Udal Idazkariaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzea Plan Nagusiaren dokumentu berriak indarrean dagoenari begira mantentzen dituen antolamendu zehaztapenak zein diren, guztiz argi utzita ez dela inolako urratze berririk sortzen 1999ko Plan Nagusiaren Arauditik etorritakoez harantzago.

Era berean, arau maila emango zaie aireko zortasun berriak islatzen dituzten Plan Nagusi berriko planoei. Eta bestalde, esaten da, aireko zortasunak mugatzen dituzten altuera gorenak gaindi ditzaketen esparruen Fitxetan jaso egin beharko direla onartzen diren altuera gorenak.

Era berean, erabaki da Zoru Urbanizaezinean, eta Plan Nagusiak 10 metroko altuera gorena onartzen badu ere, beharreko zortasunak betetzeko, ezin izango direla aireko zortasunen mugak gainditzen dituzten eraikuntza berriak egin, baina salbuespena egin ahal izango da eskaera bakoitzerako banakako segurtasun azterketa aurkezten bada. Nolanahi ere, AENAren oniritzia izan beharko du eta AESAri bidali beharko zaio bere iritzia eman dezan. Halaxe jaso beharko da dagozkion arauetan eta Olaberriako Plan Bereziaren zehaztapenetan.

Aerosorgailuen instalazioari dagokionean, zoru urbanizaezinean debekatuta egongo dira aireko zortasunek ukituriko eremuetan, eta baita antzeko eragina izan lezakeen beste edozein energia edo telekomunikazio instalazio ere. Eguzki-plakak hasiera batean ez daude debekatuak, baldin eta haien altuerak 2.5 edo 3 metro gainditzen ez baditu.

Zehatzago esateko, Plan Nagusiaren dokumentua 2011/06/14 Txostenera egokitu ahal izateko, honako aldaketa hauek egin dira:

Arloko araudia

Aplikatu beharreko arloko araudiarekin loturik txostenak ezarritako baldintzei dagokienean, Plan Nagusiaren Berrikuspen dokumentuak eutsi egin dio Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko ekainaren 23ko txostenean azaldutako araudiaren deskribapenari eta 2057/2004 Errege Dekretuaren aipamena egin du. Gainera, zuzendu egin du Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzaileari begira sumatutako okerra, ondoren adierazten den bezala.

0.2.11. Artikulua. Aireko zortasunak babesteko erregimen orokorra.

1.- Indarrean dagoen legeriaren arabera, aireko zortasunei dagokienean Arloko Araudian aurreikusitakoa beteko da, eta bereziki honako hauek:

(...)
Urriaren 11ko 2057/2004 Errege Dekretua, Donostiako DVOR eta DME aireko nabigazioari laguntzeko irrati-instalazioen aireko zortasunak ezartzen dituena.

Sustapen ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko agindua, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzen duena.
(…)

Eragin Akustikoak

Donostiako Aireportuko aireontzien jardunak sortutako eragin akustikoen mende dagoen Irungo udal barrutiko zatiari dagokionean, Plan Nagusiaren Berrikuspen dokumentuko Hirigintza Arauek honela jasotzen dituzte txostenean azaldutako kontsiderazioak:

0.2.8. Artikulua. Eremu akustikoak arautzeko erregimen orokorra.

(…)
Bizileku erabilerak eta hezkuntzarekin edo osasunarekin loturiko hornidura erabilerak ez dira bateragarritzat jotzen Donostiako aireportuko Leq=60dB(A) kurba siofonoek ukituriko lurretan.

Zoru Urbanizaezin gisa sailkaturiko esparruetan, soinu-aztarnak ukitzen dituenetan, bizileku erabileretarako eta hezkuntzarekin edo osasunarekin loturiko hornidura erabileretarako eraikuntza berriak ez dira bateragarritzat joko, eta ezta erabilera horietarako ukituriko pertsonen kopuruaren hazkundea dakarten hirigintza aldaketak ere, baldintza horiek dagozkien hirigintza fitxetan adieraziz.

Aurretik dauden lizentziarik gabeko eraikuntzak legeztatzeko, Plan Nagusiak eskatuko du horiek hosgabetzeko EKTaren zarataren Aurreko Babesaren DB_HR oinarrizko dokumentuaren arabera, baina aireportuko titularra ez da hosgabetze horren kostuen kargu egingo, eta baldintza horiek jaso beharko dira dagozkien hirigintza fitxetan.
(…)

Era berean, Erregimen Estrukturalaren A-2 *Eragin Akustikoen* planoak soinu-aztarna jaso du Zuzendaritza Nagusiak bere txostenean aurkezten duen planoan islatu bezalaxe.

Aireko zortasunak

Plan Nagusiaren Berrikuspenaren dokumentu berriak Aireko Zortasunak jaso ditu *A-3 Aireko Zortasunak* planoetan, aplikatu beharreko legeriaren arabera, eta *A4 – Aireko Eraginen Xehetasunak* planoetan.

Txostenak aipatzen duen paragrafoa ere jaso da honako era honetan:

0.2.11. Artikulua. Aireko zortasunak babesteko erregimen orokorra.

(…)

3.- Plangintza esparruen HIRIGINTZA FITXETAN, esparru horiek aireko zortasunen erregimena bete behar dutenez, honako aipamen espezifiko hauek sartu dira HIRIGINTZA ERREGIMEN ESTRUKTURALAREN zati gisa:

"Esparru honetarako ..... kota gorenak ezarri dira eraikuntzarako, ... (testua esparru bakoitzaren kokaleku zehatzaren araberakoa) planoek eta maila-lerroek definitutako altuerak aintzat hartuta kalkulatuak, ukitzen dituzten aireko zortasunak mugatzen dituzten azaleren araberakoak betiere.

Irizpide hau aplikatu ondoren sortutako kotak itsas-mailarekiko altuera goren gisa hartuko dira kasu bakoitzean eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Orokor honen A seriean "Aireko Eraginen Xehetasunak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Orokor honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

(…)

Gaur egun azalera mugatzaileak gainditzen dituzten edo gaindi ditzaketen Zortasunek ukituriko azalerei dagokienean, oinarrizko bi egoera bereizi dira hasiera batean; alde batetik, indarrean dagoen 1999. urteko Plan Nagusiak xehe kalifikaturiko hiri zorua, eta bestetik, Planaren Berrikuspenak mugaturiko hirigintza esku hartze esparruak.

Behin-behineko onarpen dokumentuak *A4 – Aireko Eraginen Xehetasunak* planoetan identifikatzen ditu gaur egun Aireko Zortasunak gainditzen dituzten edo gaindi

ditzaketen lursail eraikigarriak, kalifikazio xehea dutenak, eta horrenbestez, gero, dagokien kalifikazio xehearen arauek horientzat mantendu egiten dituzte indarrean dagoen 1999. urteko Plan Nagusiaren zehaztapenak. Udaleko Idazkari Nagusiaren Ziurtagiriak teknikoki bermatzen du zehaztapen hori.

Hirigintza esku hartzeko esparruei dagokienean ere, *A4 – Aireko Eraginen Xehetasunak* planoetan eta dagozkien Fitxetan finkatu da edozein eraikuntzarako edo harekin batera doazen elementuetarako kota gorena, lehen azaldu den terminoen arabera betiere.

Zoru Urbanizaezineko eraikuntza berrietarako baldintzei dagokienean, irrati-igorleen instalazioek, aerosorgailuak bezalako egiturek, edo kalte-ordaina izateko eskubideek, 0.2.11 artikuluak – Aireko zortasunak babesteko erregimen orokorra, 5.1.13.- artikuluak – Arauetan jasotako Aireko Zortasunen arabera eraikuntzak baimentzeko baldintzak, eta Plangintza Esparruen Fitxetan jasotako Hirigintza Zehaztapenek bete egiten dituzte baldintza horiek.

2013/04/08ko TXOSTEN ZIRRIBORROA:

2013/04/08ko Txosten zirriborroari dagokionean, hartan jasotako edukiaren tratamendua zehaztapen lotesle eta baldintza gisa hartzen da beti, eta hura betetzea eta Plan Nagusiaren dokumentuan jasotzea ezinbestekoa da erakunde igorlearen aldeko txostena lortzeko, kontuan izanik txosten hori ezinbestean eskuratu behar dela Plan Nagusiaren Berrikuspena Behin-behinean onartzeko ekitaldiaren aurretik.

Aipaturiko 2013/04/08ko Txosten horren alderdi orokorrak eta aplikatu beharrekoak ageri dira ondoren laburbilduta:

Lehen atalean Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusia berrikusteko dokumentuan egin beharreko Zuzenketa batzuk eta jaso beharreko Alderdi batzuk ageri dira. Hori dela-eta, aplikatu beharreko legeriaren inguruko paragrafo batzuk sartu behar dira Planeko Hirigintza Araudiko Atariko Tituluko eta Lehen Tituluko artikulu batzuetan.

Era berean, Txostenean eskatzen da, hainbat eratako instalazioei buruzko arau batzuen aipamenak jasotzeko izaera orokorrez. Zoru urbanizaezinaren barneko baimen baldintzetan jaso beharreko arau batzuk ere finkatu dira.

Ondoren, plangintza esparruen Hirigintza Fitxetan sartu beharreko zehaztapen batzuk aipatzen dira, batzuk izaera orokorrekoak eta besteak berariaz esparru jakin batzuei dagozkienak. Bereziki, proposaturiko Hiri Zoru eta Zoru Urbanizagarri esparruei dagozkie azken horiek, horietan lurrak berak gainditzen duelako Barne Azalera Horizontala edo Azalera konikoa, 6.2.09 Hegoaldeko Ingurabidea–Lotunea, 6.3.03 Gain Gainean, 2.1.05 Urdanibia Zubieta esparruetan, esate baterako.

Lurrak Aireko Zortasunak gaindi ditzakeen esparruen Fitxetan sartzeko zehaztapen batzuk ere ageri dira, 6.3.01 Alarde, 8.1.07 Gazteluzahar eta 9.1.01 Urune esparruetan, esate baterako.

Ondoren, Aireko Zortasunek ezarritako mugak beteko direla bermatuta ez dagoen esparru batzuen Hirigintza Fitxetan sartu beharreko zehaztapen batzuk aipatzen ditu Txostenak, 1.3.10 Belasko eraikina, 1.2.03 Elatzeta, 6.2.06 Txenperenea, 6.2.01 Oñaurre eta 3.1.01 San Migel – Anaka esparruetan, esate baterako.

6.2.06 Txenperenea esparruari dagokionean, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak Txosten zirriborroa osatzen zuen Ohar Teknikoa bidali zuen ekainaren 6an, eta Udaletik eskatu ziren kontu batzuk argitzen zituen hartan.

Azkenik, Plan Nagusiaren dokumentu berrian bolumetria baldintzei dagokienean, batik bat eraikuntzen eta estalkien gaineko instalazioen altuerak mugatzen dituztenak, Hiri Zoru sendotuko Ordenantzak mantentzearen inguruan Udal Idazkariak egindako Egiaztapenekin loturiko eragozpen batzuekin bukatzen da Txosten zirriborroa, eta esaten da sendotutako eremu guztietan bermatu behar dela beren hirigintza baldintzak mantentzeko aukera, nahiz eta Aireko Zortasunen mugak gainditu, haien egoera ez delako aldatu 1999ko Plan Nagusiari dagokionean.

2013/04/08ko TXOSTEN ZIRRIBORROAN eta 2013/06/06ko TXENPERENEA ESPARRUAREN INGURUKO OHAR TEKNIKOAN AGINDUTAKOA APLIKATZEA

A.- IRUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA BERRIKUSTEKO DOKUMENTUAN EGIN BEHARREKO ZUZENKETAK ETA JASO BEHARREKO ALDERDIAK:

HIRIGINTZA ARAUDIAN EGINDAKO ZUZENKETAK

1.- Hirigintza Araudiko 0.2.11 artikuluan jaso dira arloko araudiaren inguruko aipamenak, lehen aipatutako oker horiek zuzendu dira eta bidezkoak ez ziren aipamenak kendu dira.

2.- Hirigintza Araudiko 0.2.11 artikuluan jaso dira, izaera orokorrez, atal honetan azaldutako arauak, eta artikulu horretan sartu dira 2. azpiatal berrian.

3.- Hirigintza Araudiko 5.1.13 artikuluan aldatu egin da puntu honetan aipatzen den araudiaren erreferentzia, eta aipaturiko bi paragrafo horien ordez beharrekoa sartu da eta artikulu horren 2. azpiatal berri gisa sartu da bigarren paragrafo arau-emailea.

HIRIGINTZA FITXETAN EGINDAKO ZUZENKETAK

a) – Plan Nagusiak mugaturiko eta Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunek ukituriko plangintza esparru guztien Hirigintza Fitxetan erantsi da, Aireko Zortasunen inguruko Legeriaren Atalean, beharreko aipamena, esanez dagokion garapen plangintzak Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena eskuratu beharko duela aurretik.

b) – Plan Nagusiak mugaturiko plangintza esparruen Hirigintza Fitxetan, bai hiri zoruan bai zoru urbanizagarrian, lurrak berak gainditzen duenean barne azalera horizontala

edo Azalera Konikoa, 6.2.09 Hegoaldeko Ingurabidea–Lotunea, 6.3.03 Gain Gainean, 2.1.05 Urdanibia Zubieta esparruen kasuan, esate baterako, horietan garapenerako tresnaren baitan geratzen baita antolamendu xehea, erantsi dira, “AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK” izeneko Atalean, Txostenean aipaturiko bi paragrafoak zortasun eremuen gainetik dauden alde horietan egiten diren eraikuntzen ondorioz gerta litekeen okerragotzeari eta AESAren aurrean Aireko Segurtasun Azterketa idatzi eta onartzeko tramitea bideratu ondoren eraikuntza horiek egin ahal izateko baldintza bereziei buruz.

Halaz ere, esparru horietarako izaera orokorrez mantendu egingo da, zehaztapen estruktural gisa, ezarritako aireko zortasunen azaleren azpitik metro bateko altueraren muga espezifikoa, eta hori eraikuntzen kota gorenei dagokienean, estalkiko elementuak nahiz bideen, espazio libreen eta hornidura edo zerbitzuen urbanizazioari dagozkion elementuak barne. Nolanahi ere, zehaztapen hori aldatu ahal izango litzateke aireko nabigaziorako segurtasunaren inguruan aldeko Txostena eskatu eta eskuratzen bada.

Osagarri gisa, Fitxan esaten da, nolanahi ere, beharrezkoa izango dela aldez aurretik Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena eskatzea.

c) – 6.2.09 Hegoaldeko Ingurabidea eta Lotunea esparruaren Hirigintza Fitxan jaso da, “AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK” izeneko atalean, Txostenaren puntu honetan adierazitakoa.

c) – 6.3.03 Gain Gainean esparruaren Hirigintza Fitxan jaso da, “AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK” izeneko atalean, Txostenaren puntu honetan adierazitakoa.

c) – 2.1.05 Urdanibia Zubieta esparruaren Hirigintza Fitxan jaso da, “AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK” izeneko atalean, Txostenaren puntu honetan adierazitakoa.

f) – 6.3.01 Alarde eta 8.1.07 Gazteluzahar esparruen Hirigintza Fitxetan aldatu egin da, “AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK” izeneko atalean, eraikigarritasunaren mugari dagokiona Txostenaren puntu honetan adierazitakoaren ildotik. Era berean, 9.1.01 Urune esparruan aldatu egin da Fitxaren 3. atala, Aireko Zortasunei dagokiena, adierazitakoaren ildotik.

B.- IRUNGO HAPNaren BERRIKUSPENEAN MUGATUTAKO PLANGINTZA ESPARRUAK, AIREKO ZORTASUNEK EZARRITAKO MUGEN BETETZEA BERMATURIK EZ DUTENAK

1.- 1.3.10 Belasko Eraikina esparruari dagokionean, egia da haren zati bat ukitzen zuela trantsizio azalerak Aireko Zortasunen inguratzaile egokituaren arabera. Hala ere, eta alegazioak aurkeztu ondoren sortutako negoziazioen ondorioz, hura garatzeko azken akordiorik ez zenez lortu, kentzea erabaki da, eta horrenbestez, eraikuntza sendotu gisa geratuko dira aurretik zeuden eraikinak, 1999. urteko Plan Nagusian

zuten industria kalifikazio berarekin, eta aplikatu beharreko Ordenantza ere orduko berbera izango da eraikuntzen altuera baldintzei dagokienean.

2.- 1.2.03 Elatzeta esparruari dagokionean, hura ere ukitzen du trantsizio azalerak Aireko Zortasunen inguratzaile egokituaren arabera. Horregatik, dagokion Hirigintza Fitxatik kendu egin da altuera goren gisa 52 kota ezartzen zuen paragrafoa, eta esaten da kasu bakoitzean aplikatu beharreko Aireko Zortasun motari dagozkionak izango direla altuerak. Osagarri gisa, Hirigintza Fitxako zati grafikoan kendu egin da lehen egiten zen 52 kotaren aipamena (lauki batean planoan), eta haren lekuan jarri da ZOR. AZAL. – m 1.

3.- 6.2.06 Txenperenea esparruari dagokionean, esparru horretan lurrak berak gainditu egiten du Barne Azalera Horizontala, eta Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak, Txosten Zirriborroaren osagarri gisa, 2013ko ekainaren 6an egindako Ohar Teknikoaren arabera, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2007ko apirilaren 10ean egindako aldeko txostenera egokitu beharko du etorkizuneko garapen plangintzak, eta xede horrekin honako hau sartu beharko da araudian edo/eta 6.2.06 Txenperenea esparruaren hirigintza fitxan:

1. Berariaz adieraziko da zera "*Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuen barnean dago sektore hau, eta zehatzago esateko, lurrak berak esparruaren zati gehienean Barne Azalera Horizontala gainditzen duen eremu batean.*"

2. Berariaz adieraziko da zera "*'6.2.06 Txenperenea HEE, 12. Aldaketa, hirigintza esparruari dagokion Irungo Plan Nagusiaren Aldaketaren aurrean' aldeko txostena egin zuen Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2007ko apirilaren 10ean, honako baldintza hauekin:*

   - *Eutsi egingo zaio 'Txenperenea (Irun) Eremuko Urbanizazioak Donostiako Aireportuko Zortasun Fisikoetan izango dituen Eraginen Azterketa' dokumentuko 'IRC-SRTC-DR-004. Barne Azalera Horizontalaren Egungo Eraketarekiko eraginak' planoan aurreikusitako Antolamenduari.*
   - *Proposaturiko eraikuntza berriek ez dute 78 metroko kota gaindituko itsas-mailatik gora.*
   - *Balizatu egingo da multzo osoko eraikuntza, argi-paldo edo antena altuena".*

3. Berariaz adieraziko da zera *"Zoru Urbanizagarriko sektore hau garatuko duen plangintza tresnaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu"*.

4. Berariaz adieraziko da zera "*Esparru hau garatuko duen plangintza tresnak aldatzen baditu aldez aurretik AZZNren aldeko iritzia jaso duen Hirigintza Antolamenduaren altuera edo gainerako zehaztapenak, beste azterketa aeronautiko bat aurkeztu beharko da, eta hartan adierazi beharko da, AESAren iritziz, ez dela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregulartasunean, 584/72 Dekretuaren 7. eta 9. artikuluetan, egungo erredakzioan, jasotako salbuespenen arabera."*

5. Berariaz adieraziko da zera "*Beste Azterketa Aeronautiko bat aurkezten bada, hirigintza legeriaren arabera plangintza nagusiak finkatutakoa izango da gauzatu daitekeen aprobetxamendua, behin aplikatu ondoren Sustapen Ministerioaren txostenak, hala behar badu, jarritako baldintzak, eta aprobetxamendu hori murrizten bada, ez da Sustapen Ministerioaren aldetik, aireportuko kudeatzailearen aldetik edo Aireko Nabigazio Zerbitzuak ematen dituenaren aldetik kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.*"

4.- 6.2.01 Oñaurre esparruari dagokionean, esan behar da, Plan Nagusiak nahiz 2011ko abenduan onartutako Plan Partzialaren aldaketak aurreikusitako antolamenduan 78 metro jaso zela kota goren gisa, tramitatu eta onartutako Plan Partzialaren dokumentazioan oker grafiko bat izan bazen ere planoetan, baina hori zuzendu da orain. Horrenbestez, argi eta garbi esaten zen kota gorena 78 metrokoa dela, halaxe adierazten baitzen Plan Partzialaren Memorian, Plan Nagusiko Hirigintza Fitxan nahiz Udalak emandako hirigintza lizentzian ere.

Kontu horri dagokionean, onartzen da oker materiala egon dela eta zuzendu egin da dagozkion planoetan, eta baita udal web orrian ageri direnetan ere.

5.- 3.1.01 San Migel – Anaka esparruari dagokionean, eta Plan Nagusian erabilitakoak ez bezalako aireko zortasunak onartu direnez, erabaki da, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko otsailaren 15eko txostenean jasotako aireko zortasunen proposamen planoarekin bat datorren altuerak mugatzeko planoa sartzea esparru honen Hirigintza Fitxaren irudi grafikoan. Horrekin bat etortzeko, Plan Nagusiko 4. serieko planoetan izartxo batekin adierazi da (lauki batean planoan eta Legendan berariaz aipatuta) 3.1.01 esparruak 2012ko otsailaren 15eko Txostena duela arau.

C.- ZIURTAGIRIAK

Txostenean eskatutako ziurtagirien dokumentuari dagokionean, beste Ziurtagiri bat aurkeztu du Irungo Udaleko Idazkariak dagokion Txosten teknikoaren bidez, eta bertan egiaztatzen du Plan Nagusiaren Berrikuspen berriak ez dituela aldatzen, indarrean dagoen 1999. urteko Plan Nagusiari dagokionean, hiri zoru sendotuan aplikatu beharreko Ordenantzetan jasotako altuera zehaztapenak, zoru horietako antolamendu xehea jada definitua baitzegoen dokumentu horretan. Era berean, egiaztatzen du, hartan finkatutako altuera zehaztapenak ez direla aldatzen, bien bitartean berrikuspen dokumentuan, definitutako antolamendu xehearen izaera berdinarekin, hiri zoru sendotu gisa jasotzeko beharreko maila lortu duten esparruetarako, hori dela-eta, jadanik ez baitira garatu beharreko plangintza esparru gisa jaso Plan Nagusian.

Kasu horietako bakar batean ere ez da handitu estalki gainean egokitu litezkeen elementuei begira, antenak, tximistorratzak, aire girotuaren ekipamenduak, tximiniak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste, esate baterako, onar daitekeen altuera gorena.

Altuera baldintzak mantentzen dituzten hiri zoru sendotu gisa hartzen diren zoruak zein eremutan dauden egiaztatzeko, plano batzuk jaso dira espedientean eta horietan azaltzen da antolamendu definitua duten eremu guztien kokalekua, eraikuntzen altuera

baldintzak aldatu ez diren lekuak, hain zuzen ere, haien artean egonik aireko zortasunen gainditzeak gertatzen diren edo gerta litezkeen eremu guztiak. Ziurtagiri berri horretan ageri diren eremu horien artean daude Txostenaren zirriborroan aipatzen direnak.

Horrez gain, aldatu egin da Plan Nagusiaren aurreko araudiaren erredakzioa, eta beste artikulu bat erantsi zaio, 3.1.7 artikulua, esateko, aireko zortasunek ezarritako mugak gainditzen diren edo gainditzear dauden eremuetan, aurretik badauden eraikuntzetan edo 1999. urteko Plan Nagusiaren Ordenantzetakoak baino handiagoak ez diren eraikuntza altuera gorenen arabera eraiki daitezkeenetan, estalki gainean antenak, txi-mistorratzak, aire girotuaren ekipamenduak, tximiniak, igogailu-kaxak, kartelak eta apaindura erremateak bezalako elementuak baimendu ahal izango direla horien altuerak ez badu 2 metro baino gehiagotan gainditzen aipatutako Ordenantza horiek aplikatu ondoren onartutako estalki-lerroen altuera gorena. Hobekuntza zera da, lehengo testu arau-emailean era horretako instalazioek ez zutela inolako mugarik altueran estalkiei zegokienean, baina orain bermatuta geratzen da muga hori.

AZZNren BEHIN BETIKO TXOSTENA, 2013ko urriaren 21ekoa:

Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren (AZZN) 2013ko urriaren 21eko Behin Betiko Txostenak, Irungo Udalean urriaren 24an sartu zenak, Irungo Plan Nagusia Berrikusteko espedientearen inguruko txostenarekin loturik dauden Aurrekariak deskribatzen ditu hasteko.

LEGEZKO AURREKARIAK

Lehenengo, Sustapen Ministerioaren uztailaren 13ko FOM/2617/2006 Agindua aipatzen du Txostenak (189 zenbakidun EAO, abuztuaren 9koa) Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen onarpenarekin loturik.

Ondoren adierazten du Diputatuen Kongresuko Sustapen Batzordeak, 2008ko ekainaren 25ean egindako bilkuran erabaki zuela Legez besteko Proposamena onartzea Donostia-Hondarribiko Aireportuari buruz, eta haren e) atalean eskatzen da aireko zortasunetan eragina izan lezaketen planen inguruko izaera lotesleko txostenetan kontuan izateko aireratze pista dagoen plataforma bere 04 burualdean zabaltzeko aukera.

GARAPEN PLANGINTZEN ESPEDIENTEAK ETA PLANAREN ALDAKETAK

Ondoren, Oñaurre esparruko Plan Nagusiaren 8. Aldaketa, Oñaurre esparruko Plan Partzialarena, Plan Nagusiko 23. Aldaketa, hori ere Oñaurre esparruari dagokionean eta Oñaurre esparruko Plan Partzialaren 2. Aldaketa aipatzen ditu, eta esaten du horiei guztiei begira AENAk, Espainiako Aireportuak eta Aire-nabigazioak, hauxe adierazi zuela zehatz: *"Azterketa honek helburu duen hirigintza antolamenduaren eguneratzeak errespetatzen duenez Irungo Plan Nagusiaren 8. Aldaketan eraikuntzek zuten 78 metroko altuera gorena, AZZNren aldeko iritzia izan zuena 2006ko urtarrilaren 13an, ulertzen da, altuera goren hori gainditzen ez den bitartean, eguneratze horrek ez duela nabarmen handituko segurtasunarekiko eragina jadanik baimendutakoari begira"*.

Ondoren, 1.3.01 Porcelanas Bidasoa eta 1.3.03 Elizatxo esparruak ditu mintzagai, eta esaten du esparru horietako Irungo HAPNaren aldaketa puntualen aurrean ezezko iritzia eman zuela Zuzendaritza Nagusiak hainbat alditan, baina gero, Udalak, esparru horietarako Hirigintza Hitzarmena onartu zuen 2009an, eta 2010ean 1.3.01 Porcelanas Bidasoa-Zubeltzu esparruko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren aldeko Txostena egin zuen Zuzendaritza Nagusiak, eta kasu horretan baldintza bat jarri zuen, hauxe da *"proposaturiko eraikuntzek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, txi-mistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), lurrean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, haien palak barne eta abar) ez dutela 46 metroko kota gainditu behar itsas-mailatik gora*".

Ondoren, "ES-02 Lazareto Lursailaren espedientea aipatzen du Txostenak, eta esaten du haren aurrean ezezko iritzia eman zuela Zuzendaritza Nagusiak hainbat alditan, baina 2009ko ekainaren 30ean Zuzendaritza honek idatzi bat egin zuela eta hartan adierazten zela ES-02 Lazareto lursailean proposaturiko eraikuntzek itsas-mailatik gora

gainditu behar ez zuten altuera zein zen, hirigintza plangintzaren aurrean aldeko iritzia eman ahal izateko Aireko Zortasunen ikuspegitik begiratuta.

Jarraitzen du aurreko espediente batzuk aipatzen, kasu honetan 3.1.01. San Migel – Anaka esparrua, eta zehatz esateko haren Antolamendurako Plan Berezia. Harekin loturik 2009ko urtarrilaren 28an aurkako Txostena egin zuen Zuzendaritza Nagusiak, baina Udalak hura baliogabetzeko eskatu ondoren, 2009ko ekainaren 30ean idatzi bat egin zuen Zuzendaritza Nagusiak eta esparru horretako eraikuntzen altuerak proposatzen zituen bertan esanez "*Udalak eraikuntzen altuerak proposamenaren arabera mugatuko balitu, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko iritzia eman liezaiokeela 3.1.01 "San Migel-Anaka" esparruko Hiri Antolamendurako Plan Bereziari*".

2011ko abuztuaren 29an Irungo Udalak derrigorrezko txostena eskatu zion Zuzendaritza Nagusiari 3.1.01 San Migel-Anaka esparruaren Hiri Antolamendurako Plan Berezia Aldatzeko dokumentuaren inguruan, altuerak mugatzeko proposamena barne AENAren dokumentuen edukian oinarriturik "*Donostiako aireportuko aireratze zelaia birmoldatzeko aukeren inguruko Informazio oharra",* 2009ko uztailaren 13koa, eta *"Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea berrikusteko proposamenaren ingurumen ebaluazioa. Atariko ebaluazio txostena",* 2010eko ekainekoa. Hori zela-eta, AENAren txostenak jaso ondoren, 2012ko otsailaren 15ean, derrigorrezko txostena egin zuen Zuzendaritza Nagusiak aldeko iritzia emanez.

Esparru horri berari dagokionean, eta bereziki San Migel – Anakako Plan Bereziaren Aldaketari begira, Udalak espediente berri horrentzako txostena eskatu zuen 2012ko apirilaren 20an, eta Zuzendaritza Nagusiak txosten hori egin zuen 2012ko uztailaren 11n.

Ondoren, Plan Nagusiaren 19. Aldaketari dagokion "URI" eraikinaren espedientea du mintzagai Txostenak. Harekin loturik Zuzendaritza Nagusiak Azterketa Aeronautikoa eskatu zuen 2007ko otsailean egiaztatzeko "*proposaturiko Aldaketak ez zuela arriskuan jartzen segurtasuna eta ez zuela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunean"*. Gipuzkoako Aldundiak azterketa hori aurkeztu zuen, eta 2011ko apirilean eman zuen erantzuna AENAk, aipaturiko azterketa horren inguruko txostenaren bidez, eta zera esaten zuen: "*...uler daiteke Gipuzkoako Kultur Ondare Higigarriaren Zentroaren eraikina Irungo Udal Barrutian eraikitzeak ez lukeela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez lukeela eragin nabarmenik izango Donostiako Aireportuko aireontzien jardunaren erregulartasunean, baldin eta haren altuerak* (*estalki gaineko elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak eta beste) ez badu gainditzen 53,10 metroko altuera itsas-mailatik gora, eta maiatzaren 14ko 862/2009 Errege Dekretuaren 6. Kapituluan (eragozpenen berri ematen duten ikus laguntzak) aurreikusitakoaren arabera argitzen bada, dekretu horrek onartzen baititu erabilera publikoko aerodromoetan diseinu eta jarduerarako arau teknikoak".*

"URI" eraikinaren espedientearekin loturik betiere, eta AENAren txostenaren aurrean AESAren, Aire Segurtasunerako Estatuko Agentziaren aldetik inolako eragozpenik gabeko erantzuna jaso ondoren, 2011ko ekainaren 6an, Zuzendaritza Nagusiak idatzi bat bidali zion Irungo Udalari esanez Irungo Plan Nagusiaren "Uri" Eraikineko 19. Aldaketaren aurrean aldeko iritzia eman litekeela, Udalak egiaztatzen badu AENAren

txostenean ezarritako baldintzak betetzen dituela aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik. 2011ko ekainaren 8an Udalak idatziz baieztatu zion Zuzendaritza Nagusiari eraikinaren sustatzaileak jarritako arauak beteko dituela, eta horrenbestez, 2011ko ekainaren 17an espedientearen aldeko txostena egin zuen Zuzendaritza Nagusiak.

Gero 2.1.02 Puiana esparruaren Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren espedientea aipatzen du Txostenak, eskola lursailarekin loturik, eta horren aldeko txostena egin zuen Zuzendaritza Nagusiak 2010eko apirilaren 15ean.

Ondoren 2.1.06 Garaiar-Ekialdea esparruaren Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren dokumentua du mintzagai; harekin batera zihoan Donostiako Aireportuko aireko zortasunekiko bateragarritasun Azterketa Aeronautikoa, eta 2012ko otsailaren 14an eskatu zen haren inguruko txostena. Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak AESAren eta AENAren Txostenak jaso ondoren, horietan azkenekoak esaten baitzuen 2.1.06 Garaiar-Ekialdea esparruko Plan Bereziaren egoera "*Barne Azalera Horizontalaren proiekzioaren pean gelditzen zela, eta ikus hurbiltze azalera ez zela gainditzen hartatik kanpo zegoelako*", eskatutako derrigorrezko Txosten hori egin zuen aldeko iritzia emanez, baldintza bat jarrita, "*proposaturiko eraikuntzek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), lurrean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, haien palak barne eta abar) ez zutela 50 metroko kota gainditu behar itsas-mailatik gora"*.

Ondoren, 2.2.03 esparruko 1.B Lursailean Wagon Litsen Barne Erreformarako Plan Bereziaren Bigarren Aldaketa Puntualaren espedientea aipatzen du, eta esaten du 2012ko abuztuaren 23an, eskatutako derrigorrezko Txostena egin zuela Zuzendaritza Nagusiak aldeko iritzia emanez, baldintza bat jarrita, *"proposaturiko eraikuntzek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), lurrean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, haien palak barne eta abar) ez zutela 46 metroko kota gainditu behar itsas-mailatik gora"*.

Amaitzeko, Plan Nagusikoak ez diren gainerako espedienteak ditu mintzagai Txostenak, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak txostena egiteko eskaera zutelako, eta "Irungo Kateako Atzealdearen" Hiri Antolamendurako Plan Berezia aipatzen du; harekin batera zihoan, gainera, Donostiako Aireportuko Zortasunetara egokitzeko Kateako eremuan (Irun) Plan Nagusiaren Aldaketa bideratzeko Pantailatzearen eta Segurtasun Aeronautikoaren Azterketa. Kasu honetan esaten da, Zuzendaritza Nagusiak jaso badu ere 2013ko maiatzaren 29an AENAren erantzuna, ez zuela jasoa horren inguruan AESAk zuen iritzia.

PLAN NAGUSIAREN BERRIKUSPENAREN ESPEDIENTEA

Jarraian, eskatutako eta egindako Txostenen historia egiten du Txostenak. Azaltzen duena ia guztiz bat dator Memoria honetan, AZZNrekin loturiko tramitazioaren inguruan egiten den aipamenaren hasieran adierazitakoarekin.

HIRIGINTZA PROIEKTUAK BIDALTZEA ETA TXOSTENAREN IZAERA

Atal honetan Txostenak gogorarazten du ez direla jende aurreko informazio tramitean egindako alegazioak, baizik eta izaera derrigorrezko eta loteslea duela, eta 591/1998 Errege Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoaren arabera, aireportuarekiko eraginei dagokienean, Hasierako Onarpena baino lehen bidali behar dira Sustapen Ministeriora antolamendu tresnak, beren esparruaren barnean jasota aireportuaren zerbitzurako eremua edo Aireko Nabigazio Legearen arabera finkatutako aireko zortasunak edo zortasun akustikoak bete behar dituzten eremuak, eta sei hilabeteko epea emango da hura egiteko eskatutako dokumentazioa jasotzen den egunetik aurrera kontatuta. Aurreikusitako epea igaro ondoren Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak ez badu txostena egin, ulertuko da ez datorrela bat.

Horregatik, eta lehen aipaturiko artikulu horren arabera, gogorarazten da, nahitaezko txostena eskatu ezean, eta bat ez etortzeko kasuan, ezin izango direla behin betiko onartu Sustapen Ministerioak egindako oharkizunak onartzen ez dituzten planak, soilik Estatuarenak diren eskumenei dagokienean. Aireportuko Zerbitzu Gunean edo aireportuen alorrean estatuak dituen eskumenak eta haien izaera loteslea babesteko ezarritako edo ezarri beharreko aireko zortasunak edo zortasun akustikoak bete behar dituzten aldameneko esparruetan eragina duten lurralde eta hirigintza planen inguruan txostena egiteko obligazioa guztiz babesturik dago Auzitegi Konstituzionalaren 46/2007 Epaian, 2007ko martxoaren 1ekoan.

ARLOKO ARAUDIA

Arloko araudiaren inguruko aipamenei dagokienean, Txostenak esaten du aurreko Txostenetan finkatu bezala jaso direla, baina araudi aplikagarri berria agertu denez, gomendatzen da ondoko arloko araudi honen aipamena jasotzea Plan Nagusiak:

“297/2013 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Aireko Zortasunei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretua aldatzen duena eta Interes Orokorreko Aireportuen eta haien Zerbitzu Guneen Antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzen duena, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluak xedaturikoa gauzatzeko.”

Plan Nagusiko Hirigintza Arauen 0.2.11.1 artikuluan eginda dokumentuaren zuzenketa hori.

ERAGIN AKUSTIKOAK

Eragin Akustikoei dagokienean, Irungo Plan Nagusiaren dokumentuaren aldeko iritzia ematen du AZZNren idatziak.

AIREKO ZORTASUNAK

Alor honetan indarrean dauden hainbat Lege eta xedapen aipatzen ditu Txostenak, Donostia-Hondarribiko aireportuaren inguruan aintzat hartu behar direnak, eta bereziki,

Aireko Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/60 Legearen (176 zenbakidun EAO, uztailaren 23koa), eta Aireko Zortasunei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuaren (69 zenbakidun EAO, martxoaren 21ekoa), abuztuaren 9ko 2490/74 Dekretuak aldatua (218 zenbakidun EAO, irailaren 11koa), abenduaren 5eko 1541/2003 Errege Dekretuaren (303 zenbakidun EAI, abenduaren 19koa), abuztuaren 19ko 1189/2011 Errege Dekretuaren (204 zenbakidun EAO, abuztuaren 25ekoa), eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuaren (118 zenbakidun EAO, maiatzaren 17koa) arabera ezarritako Aireko Zortasunak.

Era berean, honako hauek aipatzen ditu: martxoaren 18ko 7921/976 Dekretua, Donostiako aireportuko aireko zortasun berriak finkatzen dituena (89 zenbakidun EAO, 1976ko apirilaren 13koa), Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailean jasotako Aireko Zortasun Proposamena, Sustapen Ministerioaren Aginduaren bidez onartua 2006ko uztailaren 13an (189 zenbakidun EAO, abuztuaren 9koa), Aireko Zortasunei buruzko Dekretuaren arabera definituak, eta Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundean (NAZE) indarrean dauden irizpideak, urriaren 11ko 2057/2004 Errege Dekretua (252 zenbakidun EAO, urriaren 19koa), Donostiako (Gipuzkoa) DVOR eta DME aireko nabigazioari laguntzeko irrati-instalazioaren aireko zortasunak ezartzen dituena.

Bestalde, esaten du, Donostia-Hondarribiko Aireportuari buruzko 2008ko ekainaren 25eko Legez besteko Proposamenak, Diputatuen Kongresuko Sustapen Batzordeak onartuak, zera dioela "*AENAk aztertzeko aireratze pista dagoen plataforma zabaltzeko lurrak eskuratzeko aukera, Pista Muturreko Segurtasun Eremuak (RESA) hartu ahal izateko eta era berean Donostiako Aireportuko egungo jarduna bermatzeko. Horretarako, erakunde horrek hainbat aukera aztertu ditu, eta horien artean dago arestian aipaturiko plataforma hori alde espainiarrera zabaltzeko aukera, burualde bakoitzean RESAk ezartzeko behar den 150 metroko luzera hartu ahal izateko eta aireratze pistaren egiazko luzera 1.650 metrokoa izateko lurreratzeetarako*".

Ondoren, arestian aipaturiko Legez besteko Proposamen horren e) atala du mintzagai, eta zera dio "*Sustapen Ministerioak kontuan har dezala, aireportuetako zortasunetan eragina izan dezaketen planen eta proiektuen inguruan izaera loteslez bere iritzia eman behar duela-eta dituen eskumenen esparruan, aireratze pista dagoen plataforma bere 04 burualdean zabaltzeko aukera, edo aukera tekniko egokiagoak azter ditzala egungo aireontziek lanean segi dezaten, Donostiako Aireportuko jarduna bermatu ahal izateko*".

Amaitzeko, honako irizpide lotesle hau azaltzen du "*legeriak agindutakoa bete ahal izateko, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak egiten dituen hirigintza planei buruzko txostenak burutzean, kontuan hartzeko, 1.650 metroko pista luzera, 1.770 metro luze eta 150 metro zabaleko zerrenda eta 90 metro luze eta 90 metro zabaleko RESAk izanez gero formalki ezarriko liratekeen Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunak"*

Lurraldean izango diren eraginei dagokienean, Txostenak, kontuan izanik Irungo udal barruti osoa dagoela Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuen barnean, esaten du esparru horretan eragina duten Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunak mugatzen dituzten azaleren maila-lerroek finkatzen dituztela eraikuntzek gainditu behar ez dituzten altuerak, haien elementu guztiak, lurren

aldaketak eta jarritako objektu finkoak barne, eta baita bidearen edo burdinbidearen galiboa ere, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) iritziz egiaztatzen denean izan ezik ez dela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregulartasunean, 584/72 Dekretuan, egungo erredakzioan, jasotako salbuespenen arabera.

Horren haritik Txostenak esaten du Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenak behar bezala jaso dituela bere A-3 “Aireko Zortasunak aplikatu beharreko legeriaren arabera” planoetan eta A-4 “Aireko Eraginen Xehetasunak” planoetan, Donostiako Aireportuko Aireko Zortasunen planoak, eta aurreko paragrafoa berariaz jasota geratzen da haren dokumentazioko araudian.

Ondoren, Txostenak adierazten du bereziki honako hauek eragina dutela Irungo udal barrutian: Azalera Konikoak, Barne Azalera Horizontalak, Aireratzeko igotze Azalerak, Hurbiltze Azalerak, Trantsizio Azalerak, distantziak neurtzen dituen ekipoaren eta oso frekuentzia handiko irratifaro ez direkzionalaren Altuerak Mugatzeko Azalerak (DMEIDVOR), distantziak neurtzen dituen ekipoaren eta oso frekuentzia handiko irratifaro ez direkzionalaren (DMEIDVOR) Segurtasun Eremuak, IAC3 maniobraren Hurbiltze Azalera Frustratuak, IACI maniobraren Tarteko Hurbiltze Azalerak, IAC2 maniobraren Tarteko Hurbiltze Azalerak eta IAC3 maniobraren Tarteko Hurbiltze Azalerak.

<u>Barne azalera horizontala eta azalera konikoa</u>

Azalera mugatzaile horiei dagokienean, Txostenak esaten du, ondorio horietarako eta jasotako dokumentazioaren arabera, izaera orokorrez ezezkoa emango zaiola birsailkapenari edo, hala behar badu, birkalifikazioari, kotak gainditzen diren edo kotetatik hurbil dauden eremuetan altuerak handitzen baditu, edo eraikuntzen, zutoinen, antenen, kartelen eta abarren altuerak azalera horiek gainditzen baldin baditu.

Ondoren, esaten du Irungo udal barrutiko eremu batzuetan lurrak berak gainditu egiten duela Barne Azalera Horizontala edo Azalera Konikoa, eta besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: hiri zorua Urdaine, Blaia, Ibarrola Borda eta Eskortza inguruetan, Mendibilen hegoaldean (Lindaberriren iparraldeak), Lapitzen (Oñaurre eta Txenperenea artean), lorategi hiriaren hegoaldean (Oñaurren sartua) eta Erromeritaren hego-ekialdean, eta baita hiri zoruko plangintza esparru hauetan ere: 6.2.09 Hegoaldeko Ingurabidea eta Lotunea, 6.3.03 Gain Gainean, zoru urbanizagarri sektorizatuko sektore hauetan: 6.2.01 Oñaurre, 6.2.06 Txenperenea, 6.2.09 Hegoaldeko Ingurabidea eta Lotunea, 7.2.08 Matxalagain, 8.2.05 Blaia.

Era berean, zerrenda horretan ageri dira 9.1.02 Epele Zoru Urbanizagarri Sektorizatu gabearen plangintza esparrua, Landa eta Nekazaritza eta abeltzaintza eremua (RAC) Zoru Urbanizaezinaren zati bat, 7.2.08 Matxalagain esparruaren inguruetan dagoena, Zoru Urbanizaezinaren zati handi bat udal barrutiko erdialdeko eremu zabal batean, bereziki Olaberria Mokozorrotzeko Plan Bereziaren antolamendu esparruaren zati bat, Ibarrolako errekako Plan Bereziaren antolamendu esparru ia osoa, Pokopandegi,

Aldaratxarreta, Erortza, Atsegin Arri, Uniketa, Erlaitz, Arramastegui, Lurpeondo, Burkalleko Gana, Trabaleku, Malkorra eta Oretetako Muinoaren inguruak.

Era berean, lurrak berak Barne Azalera Horizontala edo Azalera Konikoa gainditzen dituenen egoera horretan sartzen ditu Zoru Urbanizaezineko Sistema Orokor gisa kalifikaturiko zorua, Elatzetaren Iparraldean dagoena, Lindaberriren Hego – Hegomendebaldean, Ibarrolaren Ipar-mendebaldean, Olagarairen Ipar-ekialdean eta Punttaren Mendebaldean. Eta baita ondoko hauetan zoru urbanizaezinean dauden Ekipamenduak ere: Iparragirre Urtegian, Elordiko Araztegian, Txingudiko Zerbitzuetan, Matxalagaineko Urtegian, Aldebeko Gasbidean, Txingudi Tenisean, San Martzialeko Tiro Zelaian, Siutz Ikastetxean eta Harrizurreta Urtegian, AHTaren sarearen zati batean, Elatzeta inguruetan, Altamirako Gainean, Ibarrolako Mendebaldean, Olagarain eta Punttaren Mendebaldean.

Ondoren, beste lur eta esparru batzuk aipatzen ditu Txostenak, itsas mailatik gora lurrak dituen kotak, eskura dagoen kartografiaren arabera, eta aireko zortasunen kotak aintzat harturik, eta aurreikusi diren edo jasotako dokumentazioaren arabera baimen litezkeen eraikuntza eta instalazio guztien altuerak aipatzen ez badira ere, pentsa daitekeelako horietan eraikuntza eta instalazio horiek gaindi ditzaketela aireko zortasunak.

Egoera horren barnean dago halaber Larrazuri, Gaztelu, Arribillaga, Urdaine, Azken Portu, Artiga, Ibarrola Bordaren mendebalde, Harrobiaren mendebalde, Arbesen iparralde, Mendibil, Larreaundi, Gurutzearen Alaben ekialde, Irun Colon geltoki, Lapitze, Belaskoenea, Lorategi Hiriaren iparralde, Katea, Jaizkibel Urbanizazio, Animazarren mendebalde, Landetxeren ipar-ekialde eta Erromerita, Eskortza eta Pinudi inguruetan dagoen Hiri Zorua.

Ondoko Hiri Zoruko plangintza esparru hauetan dauden edo baimendu daitezkeen eraikuntzek eta instalazioek ere aireko zortasunak gaindi ditzaketela kontsideratzen du halaber: 0.2.01 Geltoki Ingurua, 1.2.01 Tesa, 1.2.02 Araba Mendebaldea kalea, 1.2.06 Andrearriaga, 1.2.13 Katea Erdialdea, 1.2.14 Araba Ekialdea kalea, 1.3.1 1 Arretxeko Malda, 2.2.03 Wagon–Lits, 5.1.01 Lopez de Becerra, 5.2.06 Arizmendi Almirantea, 5.2.10 Artaleku, 5.2.16 Aldapeta, 5.2.08 Kasinoa, 5.2.09 Ikust Alai, 5.3.10 Fermin Calbeton, 5.3.1.1 San Juan-Etxeandia, 6.1.01 Lartzabal, 6.2.02 Oña, 6.2.08 Alei, 6.3.01 Alarde, 8.1.05 Jose Maria Franco, 8.2.03 Ernautenea, 8.2.06 Gazteluberri, 8.2.07 Gaztelu, 8.1.07 Gazteluzahar. Honako Zoru Urbanizagarri Sektorizatu gabeko sektore hauek ere egoera berdinean daudela esaten du: 1.1.10 Araso Iparraldearen Luzapena, 2.1.08 Zabaleta eta 9.1.01 Urune, eta baita aurreko egoeran aipaturiko Hiri Zoru, Zoru Urbanizagarri eta Zoru Urbanizaezineko gainditze inguruan ere.

Egoera horiei dagokienean, Txostenak onartzen du Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenak behar bezala jasotzen dituela, Hirigintza Arauetan nahiz plangintza Esparruen Fitxetan, aireportu alorrean araudia beteko dela egiaztatzen duten xedapenak Hiri Zoruko, Zoru Urbanizagarriko eta Zoru Urbanizaezineko esparruetan eraikuntza edo instalazio berriak egiten badira.

Osagarri gisa, esaten du Irungo Udalak egiaztatu duela, tramitean dagoen Plan Nagusiaren Berrikuspenak ez duela, indarrean dagoen plangintzarekiko, Hiri Zoruko

hainbat eremutan onartutako eraikuntzen altuera gorena handituko luketen birsailkapenik egingo, Irungo Udalak 2013ko ekainaren 26an aurkeztutako Egiaztapenean zehatz esaten den bezala.

Hori horrela izan arren, Txostenak esaten du aireko zortasunak gaindi litzaketela Hiri Zoruan IC-2" eta "IP-2" kalifikazioa duten hainbat eremutan proposaturiko eraikuntzek, besteak beste, Kateako eta Belaskoeneako inguruetan.

Dokumentuaren zuzenketa horrekin loturik, eta Egiaztatze osagarrien idatzi batean, Irungo Udalak eremu horietarako osagarri moduan egiaztatzen du "*Besteak beste, Katea inguruan eta Belaskoenea inguruan "IC-2" e "IP-2" gisa kalifikaturiko Hiri Zoruko eremuak Hiri Zoruak direla indarrean dagoen udal plangintzan eta ez dela handitzen onartutako eraikuntzen altuera gorena (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta horien oina ere ez dela handitzen indarrean dagoen udal plangintzarekiko"*

Era berean, Txostenak esaten du, 6.2.06 Txenperenea plangintza esparruari dagokionean, esparru horretan lurrak berak gainditzen baitu Barne Azalera Horizontala, dagokion Hirigintza Fitxak baldintza gisa jasotzen duela proposaturiko eraikuntzen altuerak ez duela 78 metroko kota gaindituko itsas-mailatik gora. Hala eta guztiz ere, ez da berariaz egiaztatuta geratzen kota hori ezin izango dutela gainditu eraikuntzek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta horregatik, dagokion Hirigintza Fitxa aldatu egin beharko da, eta honela geratuko da:

2. atalean.- 6.2.06 Txenperenea Fitxako Antolamendu Irizpide eta Helburu Nagusiak, zera esaten zuen lekuan: "Aireko zortasunetatik etorritako baldintzak errespetatu, altuera …. eta abar mugatuta", dokumentu hori zuzendu da eta horren lekuan honako testu hau jarri da:

"Aireko zortasunetatik etorritako baldintzak errespetatzea, eraikuntza aprobetxamenduaren altuera mugatuz (eraikuntzen kota gorena, haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste.) 78.00 metrora itsas-mailatik gora, lursailetan etorkizunean eraikuntzak egiteko baimena bermatu ahal izateko."

3. atalean.- 6.2.06 Txenperenea Fitxako bereko Hirigintza Erregimen Estrukturala, zera esaten zuen lekuan: "Proposaturiko eraikuntza berriek ez dute 78 metroko kota gaindituko itsas mailatik gora", dokumentu hori zuzendu da eta horren lekuan honako testu hau jarri da:

" Proposaturiko eraikuntza berriek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak,

kartelak, apaindura erremateak eta beste) ez dute 78 metroko kota gaindituko itsas-mailatik gora."

Era berean, aipaturiko esparru horretako Hirigintza Fitxa horretan bertan jaso egin da Zuzendaritza Nagusi honen 2007ko apirilaren 10eko txostenean adierazitako baldintza, eta zera esaten duen lekuan: "Balizatu egingo da multzo osoko eraikuntza, argi-paldo edo antena altuena", dokumentu hori zuzendu da eta horren lekuan honako testu hau jarri da:

"Balizatu egingo da multzo osoko eraikuntza, argi-paldo edo antena altuena NAZEren 14. Eranskinaren 6. kapituluan xedaturikoaren arabera (eguneko balizatzea: A motako intentsitate handiko distira duten argiak; gaueko balizatzea: 5 motako intentsitate ertaineko argiak)."

Hurbiltze Azalera, Aireratzeko igoera Azalera eta Trantsizio Azalera

Azalera mugatzaile horiei dagokienean, Txostenak esaten du, ondorio horietarako eta jasotako dokumentazioaren arabera, izaera orokorrez ezezkoa emango zaiola birsailkapenari edo, hala behar badu, birkalifikazioari, hurbiltze azaleraren, aireratzeko igoera azaleraren eta trantsizio azaleraren kotak gainditzen diren edo kota horietatik hurbil dauden eremuetan altuerak handitzen baditu, edo eraikuntzen, zutoinen, antenen, kartelen eta abarren altuerak azalera horiek gainditzen baldin baditu.

Ondoren, Txostenak esaten du Irungo udal barrutiko eremu batzuetan lurrak berak gainditu egiten dituela Hurbiltze Azalera, Aireratzeko igoera Azalera eta Trantsizio Azalera, eta eremu horiek aipatzen ditu, honako hauek, besteak beste: Erromeritaren Hego-ekialdean eta Ipartxiki inguruan dagoen hiri zorua (2.1.05 Urdanibia-Zubieta plangintza esparruren mugan), 2.1.05 Urdanibia-Zubieta Zoru Urbanizagarri Sektorizatuaren sektoreko zati bat, Zoru Urbanizaezina Artia, Mokorrotz, Etxeberri, Antoju, Elatzeta eta Blaia eremuetan, Zoru Urbanizaezineko Sistema Orokor gisa kalifikaturiko zorua Etxeberriren Iparraldean eta Mokozorrotzen inguruetan, eta AHTaren sarearen zati bat Artia inguruetan.

Era berean, eta kontuan izanik lurrak itsas-mailatik gora dituen kotak, eskura dagoen kartografiaren arabera, aireko zortasunen kota, eta aurreikusitako edo baimen litezkeen eraikuntza eta instalazio guztien altueren erreferentziarik ez izan arren jasotako dokumentazioan, ulertzen da eraikuntza eta instalazio horiek gaindi ditzaketela aireko zortasunak, honako esparru hauetan, besteak beste: Mendeluren hegoaldean dagoen Hiri Zoruko zati batean, Pinudiren mendebaldean, San Migeleko Urbanizazioaren inguruetan, Anakan, Ipartxikin, Urdanibia Errotan, Puianaberrin, Soroxarretan, Belaskoenean, Eskortzan, Erromeritan, Katean eta Txingudi Merkataritza Gunearen mendebaldean.

Era berean, esaten du, plangintza esparruetan aurreikusitako edo baimen litezkeen eraikuntzek eta instalazioek aireko zortasunak gaindi litzaketela Hiri Zoruko esparru hauetan ere: 1.1.02 Araso Iparraldean, 1.1.13 Atalaian, 1.1.14 Semezarrengo Maldan,

3.1.01 San Migel-Anakan, 4.2.05 Santiago Urtizberean, mendebaldeen dagoen eremuko lurrak zehazki, eta baita 1.1.12 Araso-Sasikoburua Zoru Urbanizagarriko sektorean eta aurreko egoeran adierazitako Hiri Zoru, Zoru Urbanizagarri eta Zoru Urbanizaezinaren inguruetan ere.

Txostenak adierazten du halaber, komeni litzatekeela jasotzea, bere garaian aurrera eramango dena, dagokion Jabetza Erregistroak beharreko oharra jarrita, ekainaren 20ko 2/2008 EDLren 51. artikuluan, dekretu horrek onartzen baitu Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratua, eta 1093/1997 Errege Dekretuan xedaturikoaren arabera, aireko zortasunen eraginpean dagoela honako termino hauetan:

“Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dago finka hau, eta beraz, altuera txikian dabiltzan aireontzien hegaldien eraginpean dago, Aireportuko instalazioetatik hurbil dagoelako eta Aireportu horretan dabiltzan aireontzien maniobra-ibilbideen azpian dagoelako. Hori dela-eta, bertan egingo diren eraikuntzek, instalazioek edo plantazioek ezin izango dituzte, inolaz ere, zortasun horiek aplikatu ondoko altuerak gainditu”.

Aurreko zehaztapen horiei dagokienean, Txostenak onartzen du Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenak behar bezala jasotzen dituela, Hirigintza Arauetan nahiz plangintza Esparruen Fitxetan, aireportu alorrean araudia beteko dela egiaztatzen duten xedapenak Hiri Zoruko, Zoru Urbanizagarriko eta Zoru Urbanizaezineko esparruetan eraikuntza edo instalazio berriak egiten badira, eta gainera, Irungo Udalak 2013ko ekainaren 26an aurkeztutako Ziurtagirietan egiaztatzen da tramitean dagoen Plan Nagusiaren Berrikuspenak ez duela, indarrean dagoen plangintzarekiko, Hiri Zoruko hainbat eremutan onartutako eraikuntzen altuera gorena handituko luketen birsailkapenik egingo.

Hori horrela izan arren, Txostenak esaten du aireko zortasunak gaindi litzaketela Hiri Zoruan IC-2" eta "IP-2" kalifikazioa duten hainbat eremutan proposaturiko eraikuntzek, besteak beste, Belaskoeneako inguruetan.

Dokumentuaren zuzenketa horrekin loturik, Irungo Udalak eremu horietarako osagarri moduan egiaztatzen *du "Besteak beste, Katea inguruan eta Belaskoenea inguruan "IC-2" e "IP-2" gisa kalifikaturiko Hiri Zoruko eremuak Hiri Zoruak direla indarrean dagoen udal plangintzan eta ez dela handitzen onartutako eraikuntzen altuera gorena (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta horien oina ere ez dela handitzen indarrean dagoen udal plangintzarekiko”.*

Era berean, Txostenean esaten da, 3.1.01 San Migel-Anaka plangintza esparruari dagokionean, dagokion hirigintza fitxak berariaz adierazten badu ere "(...), hirigintza fitxa honen dokumentuan sartu da AZZNk 2012ko otsailaren 15eko txostenean egindako aireko zortasunen proposamen planoa”, egiaztatu dela plano hori ez dela sartu.

Dokumentuan egin beharreko zuzenketa horri dagokionean, zuzendu da oker hori eta 3.1.01 San Migel-Anaka plangintza esparruaren Fitxan sartu da aplikatu beharreko Aireko Zortasunen planoa.

Irrati-instalazioen altuerak mugatzeko azalerak

Azalera mugatzaile horiei dagokienean, Txostenak esaten du, ondorio horietarako eta jasotako dokumentazioaren arabera, izaera orokorrez ezezkoa emango zaiola birsailkapenari edo, hala behar badu, birkalifikazioari, irrati-instalazioen altuerak mugatzeko azaleren kotak, altueran elementu bakar batek ere pasa behar ez dituenak, gainditzen diren edo kota horietatik hurbil dauden eremuetan altuerak handitzen baditu, Aireko Zortasunei buruzko 584/1972 Dekretuaren 15. artikuluaren arabera, edo eraikuntzen, zutoinen, antenen, kartelen eta abarren altuerak azalera horiek gainditzen baldin baditu.

Esaten da Irungo udal barrutiko hainbat eremutan lurrak berak gainditu egiten duela distantziak neurtzen dituen ekipoaren eta oso frekuentzia handiko irratifaro ez direkzionalaren Altuerak Mugatzeko Azalerak (DMEIDVOR) MENDIBELTZ inguruan, zehatzago esateko Landa eta Baso Zoru (RUFO) kategorian Zoru Urbanizaezin gisa sailkatutako lurrek.

Halaz ere, Txostenak onartzen du, horren inguruan, Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenak Hirigintza Fitxetan jasotzen dituela aireportu alorrean araudia beteko dela egiaztatzen duten xedapenak Zoru Urbanizaezineko esparruetan eraikuntza edo instalazio berriak egiten badira.

Aireontziek jarduteko aireko zortasunak.

Aireko zortasun horiei dagokienean, Txostenak esaten du, ondorio horietarako eta jasotako dokumentazioaren arabera, izaera orokorrez ezezkoa emango zaiola birsailkapenari edo, hala behar badu, birkalifikazioari Aireontziek Jarduteko Azaleren kotak gainditzen diren edo kotetatik hurbil dauden eremuetan altuerak handitzen baditu, edo eraikuntzen, zutoinen, antenen, kartelen eta abarren altuerak azalera horiek gainditzen baldin baditu.

Ondoren, esaten du, IAC3 maniobraren Hurbiltze Azalera Frustratuak, IACI eta IAC maniobraren Tarteko Hurbiltze Azalerek eta IAC3 maniobraren Tarteko Hurbiltze Azalerak ukituriko esparruen artean daudela, besteak beste, udal barrutiaren hego-ekialdean dauden hainbat Zoru Urbanizaezin mota, eta zehatzago esateko Landa eta Baso Eremua (RUFO) eta Babes Bereziko Landa Eremua (REP).

Hala ere, kontuan izanik itsas mailatik gora lurrak dituen kotak, eskura dagoen kartografiaren arabera, eta aurreko paragrafoan aipaturiko esparruetan aireko zortasunek dituzten kotak, eta aurreikusi diren edo jasotako dokumentazioaren arabera baimen litezkeen eraikuntza eta instalazio guztien altuerak aipatzen ez badira ere, bada kota nahikoa, hasiera batean bederen, eraikuntza horiek Aireko Zortasunak gaindi ez ditzaten. Nolanahi ere, eraikuntza horiek zortasun horien azpitik egongo dira betiere, haien elementu guztiak barne (esate baterako, antenak, tximistorratzak, txi-miniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta baita eraikuntza garabiak eta antzekoak ere.

Irrati-instalazioen segurtasun eremuak

Segurtasun Eremu horiei dagokienean, Txostenak esaten du, Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenaren zehaztapenek eragina dutela Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuaren barnean dauden hainbat lurretan. Eremu horietan eraikuntzak, edo lurraren osaketaren, lur horren edo gainean dauden elementuen azaleraren behin-behineko edo betiko aldaketak debekatuta daude, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA) aldez aurretik horretarako baimena ematen ez badu, Aireko Zortasunei buruzko 584/1972 Dekretuaren 15. artikuluaren b) atalaren arabera.

Distantziak neurtzen dituen ekipoaren eta oso frekuentzia handiko irratifaro omnidirekzionalaren (DMEIDVOR) segurtasun eremuak neurri batean hartzen dituen beste esparru batzuen artean dago Etxeberriren hego-ekialdean “Babes Bereziko Landa Eremua (REP) Zoru Urbanizaezina, Olaberria-Morkozorrotzeko Plan Bereziak hartzen duen antolamendu esparruaren barnean”.

Halaz ere, Txostenak onartzen du, horren inguruan, Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenak Hirigintza Fitxen 5.1.13 artikuluaren 5. atalean jasotzen dituela aireportu alorrean araudia beteko dela egiaztatzen duten xedapenak Zoru Urbanizaezineko esparruetan eraikuntza edo instalazio berriak egiten badira.

Beste kontsiderazio batzuk

Txostenak bere eskumeneko beste kontsiderazio batzuk egiten ditu ondoren, eta lehenbiziko esaten du, beste aldi batzuetan jakinarazi den bezala, ikusi dela badela energia elektrikoa banatzeko aireko sare bat udal barrutia zeharkatzen duena. Egurmendi, Gorroaga, Zabate Enea, Altamira, Beko Errota, Ibarrola, Olagarai, Botenea eta Puntta inguruetan lurrak berak gainditu egiten ditu trazatuaren gehienean Barne Azalera Horizontala eta Azalera Konikoa. Era berean, banaketa sareek Hurbiltze Azalera, Aireratzeko igoera Azalera eta Trantsizio Azalera gainditzeko arriskua dago, besteak beste, Lerinenea, Soroxarreta eta Puianaberri inguruetan.

Lurrak berak aireko zortasunak gainditzen dituen eremuetan edo aireko zortasunak gainditzeko arriskua dagoen eremuetan aurretik baziren elementu horiei dagokienean, ez da elementu berririk onartuko eta ezta zeudenak aldatzea ere altuera handitzen bada.

Onartu eta argitaratu denez 297/2013 Errege Dekretua, Aireko Zortasunei buruzko 584/1972 Dekretua aldatzen duena eta Interes Orokorreko Aireportuen eta haien Zerbitzu Guneen Antolamenduari buruzko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzen duena, eta Txostenean agindutakoan oinarriturik, dokumentuaren zuzenketa hau dela-eta, aldatu egin dira Hirigintza Arauetan 0.2.11-2, 0.2.11-3 eta 5.1.13-7 artikuluetan nahiz plangintza esparruen Fitxetan jasotako xedapenak, eta horrenbestez, aurreko testu hauen lekuan:

“Irungo udal barrutia Aireko Zortasun Eremuen barnean dagoenez, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko iritzia eskuratu beharko da, 584/72 Dekretuaren 29. eta 30. artikuluen arabera bere egungo erredakzioan, edozein eraikuntza edo egitura egin ahal izateko (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne- eta abar), eta haiek eraikitzeko behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko”.

“Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikuntza egin ahal izateko, eta haiek eraikitzeko behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko, aldez aurretik aldeko txostena egin beharko du Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA), Aireko Zortasunen inguruko 584/1972 Dekretuaren 29. eta 30. artikuluen arabera.

Honako testu hauek jarri dira:

“Irungo udal barrutia Aireko Zortasun Eremuen barnean dagoenez, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko iritzia eskuratu beharko da, 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 30. eta 31. artikuluen arabera, edozein eraikuntza edo egitura egin ahal izateko (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne- eta abar), eta haiek eraikitzeko behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko”.

“Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikuntza egin ahal izateko, eta haiek eraikitzeko behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko, aldez aurretik aldeko txostena egin beharko du Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA), Aireko Zortasunen inguruko 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 30. eta 31. artikuluen arabera”.

Bigarren, Txostenak jasotzen dituen beste kontsiderazioen artean dago Plan Nagusiaren Berrikuspenaren araudian Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 10. artikuluaren erredakzio berria aipatu behar dela dioena.

Dokumentuan egin beharreko zuzenketa horri dagokionean, epigrafe osagarri bat erantsi zaio Araudiaren 0.2.11-2 artikuluari, eta hartan jaso oso-osorik Txostenean agindutakoa, honako testu honekin:

“Aireko Zortasunen inguruko 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 10. artikuluak aurreikusitakoaren arabera, jarduerak mugatzeko zortasunaren eraginpean dago Donostiako Aireportuko aerodromoaren eta irrati-instalazio aeronautikoen zortasunen eremuko lurraren gaineko proiekzio ortogonalaren barnean dagoen azalera, eta haren arabera, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESA) debekatu, mugatu edo baldintzatu ahal izango ditu haren barnean egokitu nahi diren jarduerak, aireko jardueretarako edo irrati-instalazioen funtzionamendu zuzenerako arriskua badakarte.

Jarduera horiek ezartzeko edo aurrera eramateko ahalmena ematen duten zoru erabileretara zabalduko da aukera hori, eta honako hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Turbulentziak eragiteko moduko eragozpenak eraiki beharra berekin daramaten jarduerak.
b) Argiak erabiltzea, arriskua eragin dezaketen edo nahasmena edo okerra ekar lezaketen laser proiektoreak edo igorleak barne.
c) Azalera handiak eta oso islatzaileak behar dituzten jarduerak itsualdia eragin dezaketenean.
d) Aerodromoko mugimendu eremuaren inguruetan faunaren jarduna susper dezaketen jarduerak.
e) Ikusten ez diren erradiazio iturriak ezarri edo jardunean jarri beharra dakarten edo aireko komunikazio, nabigazio eta zaintza sistemen funtzionamendua oztopatu edo haietan eragin negatiboa izan dezaketen objektu finkoak edo mugikorrak behar dituzten jarduerak.
f) Kea, lainoa edo aireontzientzako arriskua dakarren beste edozein fenomeno eragin ditzaketen instalazioak ezarri edo jardunean jarri beharra berekin daramaten jarduerak.
g) Kirol jardueretarako edo beste edozein eratako jardueretarako aireko propultsio edo euste bitartekoak erabiltzea".

Irungo Udalak aurkeztutako ziurtagiriak

Azkenik, Irungo Udalak 2013ko ekainaren 26an aurkeztutako Ziurtagirien idatzia du mintzagai Txostenak, eta adierazten du hainbat zehaztapen egin behar direla hartan ageri ez diren eremu batzuen inguruan. Horrenbestez, Ziurtagiri osagarrien idatzi batean, eta dokumentu hori zuzendu behar dela-eta, Barne Azalera Horizontalari eta Azalera Konikoari buruzko kontuak aztertu ditugunean lehen adierazi den bezala, Irungo Udalak osagarri gisa egiaztatzen du "*Besteak beste, Katea inguruan eta Belaskoenea inguruan "IC-2" e "IP-2" gisa kalifikaturiko Hiri Zoruko eremuak Hiri Zoruak direla indarrean dagoen udal plangintzan eta ez dela handitzen onartutako eraikuntzen altuera gorena (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste), eta horien oina ere ez dela handitzen indarrean dagoen udal plangintzarekiko*.

Aurrerago Txostenak esaten du, Irungo Udalak ez balitu aurreko puntu horiek ziurtatu, arestian aipaturiko "IC-2" eta "IP-2" zoru horiek bete egin beharko dituztela Aireko Zortasunek ezarritako mugak.

Zuzenketak

Txostenak bere testuan zehar aipatzen dituen zuzenketa guztiak, izen hori duen epigrafean ageri direnak, eta Ziurtagiri osagarriak, aipatzen dira Memoria honetan, Txosteneko epigrafe bakoitzaren erreferentzia egin delako, eta logikoa denez, dokumentuan beharreko ataletan ere jaso dira, eta horrenbestez, Plan Nagusiaren Berrikuspen dokumentu berria behin-behinean onartu ondoren, Ziurtagiri osagarriarekin batera, AZZNra bidaliko dira behin betiko onarpenaren aurretik, erakunde horrek

egiazta dezan zuzenketa guztiak egoki egin direla eta zuzenketa guztiak ondo eginak daudela.

Aireko Zortasunen alorreko baimenen inguruko araudia

Txostenak zera esaten du azkenean: *"hirigintza plangintzaren inguruan esandakoaz gain, gogora ekarri nahi da, Legezko Aireko Zortasunen eraginpeko eremuen eta esparruen barnean dagoenez Irungo udal barruti osoa, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko iritzia eskuratu beharko dela, 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 30. eta 31. artikuluen arabera, edozein eraikuntza, instalazio (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne- eta abar) edo plantazio egin ahal izateko, eta haiek eraikitzeko behar diren bitartekoak (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne) jarri ahal izateko, eta gorabehera hori jaso egin beharko da plangintza dokumentuetan"*.

Zera gehitzen du gainera "*Salbuespen gisa, 584/72 Dekretuaren (297/2013 Errege Dekretuak aldatua) 33. artikuluaren arabera, eraikuntzak edo instalazioak eraikitzea onartu ahal izango da, aireko zortasunek finkatutako mugak gaindituta ere, egiaztatzen bada, AESAren iritziz, ez dela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregulartasunean, edo pantailatuta geratzen direla. Ondorio horietarako, segurtasun azterketa aeronautikoa aurkeztu ahal izango dute sustatzaileek. Aireko Zortasunak gainditzen dituzten jarduerak planteatzen badira, plangintzan berariaz baimentzen ez direnak izanda ere, baimen eskaerak berekin eraman beharko du segurtasun azterketa aeronautikoa, egiaztatu ahal izateko Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) iritziz ez dela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregulartasunean. Eskumena duen teknikariak sinatu behako du azterketa aeronautiko hori".*

Ondorioa.

Adierazitako guztiaren ondorioz, AZZNko Zuzendaritza Zentroak aldeko iritzia eman dio Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenari Aireko Zortasunei dagokienean. Nolanahi ere, Irungo Udalak beharreko ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, eta plangintza dokumentuan beharreko zuzenketa eta gehitze guztiak egingo ditu, Hirigintza Arauen edozein xedapenekin kontraesanean egonez gero, aireko zortasunen alorreko estatuko araudiak xedaturikoak lehentasuna izango duela egiaztatu ahal izateko.

IRUNGO HAPNaren BETIKO ONARPENAREN AURRETIKO TXOSTENAK

BETIKO ONARPENAREN AURREKO TXOSTENEN SARRERA

Irungo Plan Nagusiaren Berrikuspenaren Betiko Onarpen Dokumentua, udalbatzaren osoko bilkuraren akordioaren ondoren, eta legeriaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolakuntza Batzordeari aurkeztu zaio beharreko txostena egin dezan eta Etxebizitza Publikoak eta Hornidura Bizitokiak eskualdatzeko ziurtagiriak lortu ditu, eta baita Ingurumenaren gaineko Eraginaren Betiko Txostena ere.

Lurralde Antolakuntza Batzordea, bestalde, hainbat erakunderi bere kabuz eskatu zizkion txostenez baliatu da Irungo Plan Nagusiaren dokumentuaren alderdi batzuk baloratzeko. Halatan, Batzordearen akordioaren ziurtagiriak, lortu dituen txosten horietara jotzen du alderdi jakin batzuk baloratzeko orduan, eta txosten horiek ere aurkeztu ditu.

Bestalde, arloko legeriaren betetzea dela-eta, dokumentuak aldeko iritzia jaso du Kosta eta Itsaso Zuzendaritzaren betiko onarpenaren ondoren, eta baita Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarena ere, dokumentu honetan adierazten den bezala.

Horrenbestez, Irungo Udalak, ondoren adierazten den bezala, baloratu eta aintzat hartu ditu Plan Nagusiaren berrikuspenaren betiko onarpena dela-eta egindako txosten horietan jasotako zehaztapen guztiak.

AD-1

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

EAEko Lurralde Antolakuntza Batzordea.

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Lurralde Antolakuntzaren alorreko balorazioa

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

Lurralde Antolakuntza Batzordearen (aurrerantzean EAELAB) egitekoen artean dago Hiri Antolamendurako Plan Nagusien inguruan duen iritzia ematea. Plan Nagusia, behin-behinean onartu ondoren, EAELABi aurkeztu behar zaio beharreko txostena egin dezan eta txosten hori loteslea da Plan Nagusia lurralde antolakuntzarako tresnetara eta, aplikatu beharreko araudien eta onartutako udalaz gaindiko proiektuan arabera, Estatuko Administrazioaren edo autonomia edo foru administrazioen eskumenekoak diren arloko alderdi guztietara egokitzeari dagokionean, ingurumenaren gaineko baterako ebaluazio txostena barne.

Plan Nagusia inolaz ere ezin izango da betiko onartu EAELABen txostenik gabe. Hala ere, epez kanpo (hiru hilabete baino gehiago) egindako txostena aintzat hartu gabe utzi ahal izango da betiko onarpenean. Nolanahi ere, EAELABek epearen barnean egin zuen Plan Nagusiaren berrikuspenari buruzko txostena, 2014ko uztailaren 23an, hain zuzen ere.

EAELABek Irungo Plan Nagusia baloratu du hainbat gairi begira, eta horretarako, udalari igorri dion dokumentua prestatzeko, hainbat arloko departamentu eta administraziori bere kabuz eskatutako txostenez baliatu da.

Lehenbiziko atalean, Irunerako proposatzen den **Lurralde Eredua** baloratzen du txostenak.

Lehenengo, **Ingurune Fisikoa** du aipagai eta aldeko iritzia ematen du zoru urbanizaezinaren zonifikazioari eta babes erregimena duten espazioen erregulazioari dagokienean. Nolanahi ere, *Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren Txostenera* jotzen du betiko balorazioa egiteko. Ingurumenaren gaineko Eraginaren Betiko Txostenaren testuinguruan dokumentu honen ondorengo ataletan emango da horren berri. EAELABek eskatzen du lurzoruari buruzko Legearen testua sartzeko hitzez-hitz zoru urbanizaezineko eraikuntza berriko lizentziei dagokienean. Era berean, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LAParen betetzea baloratzen du eta esaten du errekek ukituriko esparruen fitxetan jaso egin behar dela dagozkien erretiroen distantzia zehatza. Azkenik, *Uraren Euskal Agentziaren Txostenera* jotzen du uholde arriskuak ukituriko eremuen inguruko balorazioa egiteko. Txosten hori ere azalduko dugu geroago.

Ondoren, ***Trenbide Azpiegituren*** inguruko proposamena du mintzagai, eta honako txosten hauetara jotzen du haren balorazioa egiteko: *Trenbide Azpiegituren Zuzendaritzaren 2014ko ekainaren 19ko Txostena*, *Trenbideen Zuzendaritza Nagusiaren 2014ko maiatzaren 29ko Txostena*. Horietan lehenengoa, administrazio autonomikoarena, "euskal Yari" dagokio, eta esaten du dokumentuak jaso egin behar duela sare berriaren mugaketa, eta baita haren erreserba zerrenda ere indarrean dagoen Lurralde Planaren arabera trenbide sistema orokor gisa kalifikatuz. Nolanahi ere, geroago eta udalak eskatuta, administrazio autonomikoak beste txosten bat egin du gaur egun etxebizitzak nahiz jarduera ekonomikoak dituen hiri zoru sendotua trenbide sistema orokor gisa kalifikatzeko obligazioa kenduz. Gainera, ETSren lineari dagokionean, Arason, Katean eta Kostorben izango duen eragina aipatzen du; hala bada, eskatzen du babes eremua errespetatzeko eta Trenbide Jabari Publikoko esparruetako proposamenekin bateragarri egiteko, baina hori jada jasoa dago Planean. Gainera, ohartarazten du administrazio honek ez duela geralekuen bategitea aurreikusten Katean. Horri dagokionean, udalak, hiri ikuspegitik begiratuta hobekuntza adierazle gisa sartu du bategite proposamena, hura egiteko eskumena trenbide administrazioek izan arren.

Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak, estatu administrazioak, txostena egin du Geltoki Inguruko proposamenari begira; horren harira, ohartarazten du Sustapen Ministerioak ez dituela bere azterketa teknikoak bukatu, eta ez dutela esku hartzeko behin betiko proposamenik, eta horrenbestez, ez da bidezkoa lurren hirigintza kalifikazioa aldatzea. Planak jada esaten zuen hartan jasotzen ziren zehaztapenak adierazleak zirela eta ministerioaren azterketa teknikoen zehaztapenen baitan zeudela. Nolanahi ere, azken txostenaren ondoren, Planak mantendu egin du trenbide sistema orokorra, eta gero kalifikazio globala egiteko aukera azaltzen du.

Espazio Libreei eta Ekipamenduei dagokienean, EAELABek aldeko iritzia eman du zonifikazioari eta haien azalerei dagokienean. ***Bizileku Eremuei*** dagokienean, berriz, *Bizileku Ereduaren eta Kuantifikazioaren* aldeko iritzia eman da, eta baita *Babes Publikoko Erregimenarekin loturiko Etxebizitza Erreserbari* begira ere. Nolanahi ere, Etxebizitza Sailburuordetzaren txostenera jotzen du azken balorazioa egiteko. Sailburuordetza horrek 2014ko azaroaren 21ean aldeko txostena egin zuen aurrerago ikusiko den bezala.

Azkenik, Lurralde Ereduaren balorazioaren barnean, EAELABek txostena egin du ***Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruari*** dagokionean. *Antolamenduari eta Kuantifikazioari* dagokienean; lehenengo, uste du Geltoki Inguruan jarduera ekonomikoetarako jasotako lurzoru erreserba ez dela aski; eta bigarren, Araso Iparraldearen Luzapena esparruaren mugaketaren aurkako iritzia ematen du gaur egungo eraketari dagokionean. *Merkataritza Ekipamendu Handien Antolamenduari* dagokionean, merkataritza erabileraren aurkako iritzia eman du Araso Sasikoburua esparruan, eta merkataritza ekipamendu handi bat hartzeko moduko Jarduera Ekonomikoen eta Plataforma Logistikoen esparruak mugatzeko eskatzen dio udalari, horri begira aplikatu beharreko araudian jasotakoaren arabera.

Horren harira, **Lurralde Ereduaren** inguruko balorazioak eginak geratzen dira, **izaera ez loteslea duten bi alderdi** aipatzen baditu ere; lehenengo, kontsideratzen du Urune eta Epeleko esparruen mugaketak ez datozela bat Olaberria haranaren natur balioekin,

aurreko ataletan Planeko zonifikazioaren aldeko iritzia eman badu ere eta haran horretako Plan Bereziaren planteamenduari dagokionean iritzi positiboa azaldu badu ere; eta bigarren, ondorio tekniko hutsetarako, kontsideratzen du egokiagoa dela jada gauzatu diren hiri zoruko esparruen fitxak jasotzea, beste udal batzuek hautatu duten beste aukera bat aipatuz, Irungo Plan Nagusiak, berriz, 1999. urteko ereduari jarraiki, kalifikazio xehean mailak ezartzea erabaki duen bitartean, hori ere baliozkoa baita.

Garrantzitsua da esatea Lurralde Antolakuntza Batzordearen iritziz, bere txostenaren baloraziotik etorritako aldaketak sartu ondoren, udalak behin betiko onar dezakeela Plan Nagusia berriro ere txostena egiteko beharrik izan gabe.

Aurreko ataletan, txostenak, **Abiazio Zibilaren, Trenbideen, Garraio Azpiegituren, Uren, Kostaldeen, Nekazaritza eta Abelazkuntzaren, Ingurumenaren eta Etxebizitzaren** alorretan, alor horietan eskumena duten administrazioek, kasu honetan EAELABek eskatuta, egin dituzten txostenetara jotzen du balorazioa egiteko garaian.

Abiazio Zibilaren alorrean, Sustapen Ministerioko Zuzendaritza Nagusiak EAELABi txostena bidali zion (2014ko ekainaren 10ean) eta aurrez Irungo udalari helarazi zion hura (2013ko urriaren 21ean), eta hartan aldeko iritzia azaltzen zuen aurretik jarritako baldintza guztiak betetzen zirela egiaztatu ondoren.

Trenbideen alorrean, Sustapen Ministerioko Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak txostena egin zuen maiatzaren 29an, aurreko paragrafoetan jada adierazitako terminoetan.

Garraio Azpiegituren alorrean, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak txostena egin zuen 2014ko ekainaren 19an, aurreko paragrafoetan jada adierazitako terminoetan.

Uren alorrean, Urak, Uraren Euskal Agentziak, txostena egin zuen 2014ko ekainaren 16an eta aldeko iritzia eman zuen halako baldintza batzuk kontuan harturik. Plangintzak ibai ibilguen eremuetan eraikuntzak edo erabilerak antolatzeko aukera jasotzen zuen paragrafoa arauetatik kentzeko eskatzen zuen. Eskatzen zuen halaber Erakunde Kudeatzaileak (Txingudiko Zerbitzuak kasu honetan) adostasun idatzia egiteko planeko proposamenetatik etorritako behar berriak jaso eta bideratzeko tokiko sareak aski direla justifikatuz, eta azkenik, esaten zuen jabari hidraulikoetan edo itsas-lehorrekoetan, nahiz babes eremuetan, aurrera eraman beharreko esku hartzeek beharreko baimenak eta kontzesioak behar dituztela.

Kostaldeen alorrean, Kostalde eta Itsas Zuzendaritza Nagusiak txostena egin zuen 2014ko uztailaren 24an, eta hartan esaten zuen administrazio horri txostena eskatu behar zitzaiola betiko onarpenaren aurretik, eta horrenbestez, irailaren 25ean udalak dokumentazio berria bidali zuen betiko baloraziorako. Geroagoko atal batean garatuko dugu Kosta zuzendaritzaren balorazioa, eta eginiko kontsiderazioei emandako arreta.

Nekazaritzaren eta Abelazkuntzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak txostena egin zuen 2014ko ekainaren 25ean, eta ondoko atalean azalduko dugu hura Ingurumenaren gaineko Eraginaren Betiko Txostenaren testuinguruan.

Ingurumenaren alorrean, Ingurumen Administrazio Zuzendaritzak eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintza Zuzendaritzak txostenak egin zituzten 2014ko uztailaren 8an, eta ondoko atalean azalduko dugu hura Ingurumenaren gaineko Eraginaren Betiko Txostenaren testuinguruan.

Etxebizitzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak txostena egin zuen 2014ko uztailaren 18an, eta ondoko atalean azalduko dugu hura babes publikoko etxebizitzen eta hornidura bizitokien estandarren balorazioaren testuinguruan.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Plan Nagusiaren dokumentuak jaso ditu azaldutako balorazioetatik etorritako zehaztapenak. Halatan:

Planaren araudiak Lurzoruari buruzko Legearen testu espezifikoa transkribatu du zoru urbanizaezineko eraikuntza berrien lizentziari dagokionean; aipatzekoa da dokumentuak jada jasotzen zuela horren harira Legea betetzeko obligazioa, testua Plan Nagusian berriro jasotzea komenigarritzat hartu badu ere EAELABek.

Errekek ukituriko esparruen fitxetan jaso dira Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak adierazitako erretiroak. Kasu honetan, era berean, fitxek adierazten zuten LAParekiko afekzioa dagoela esparru horietan eta haren araudia bete behar dela zioten: hala ere EAELABek esaten du kasu bakoitzean distantziak zehaztu behar direla.

Uren alorrean, eta eskumena duen erakundeak egindako txostena aintzat hartuta, globalki ibai ibilgu gisa kalifikatutako eremuen erregimen juridikoaren erregulazioak kendu egin du eremu horien hegaletan edo zorupean jabari publiko edo pribatuko erabilerak edo eraikuntzak antolatzeko aukera aipatzen zuen paragrafoa. Kanalen gainetik erabilera publikoko, oinezkoentzako edo ibilgailuentzako zubiak bezalako kontuak jasotzeko sartu zen paragrafo hori. Nolanahi ere, eta ezarritako baldintza hori betetzeko, kendu egin da testu hori. Horrenbestez, kasu bakoitzean, eta era honetako obrak egiteko beharra sortzen bada, une horretan indarrean dagoen legeriaren arabera bideratuko dira.

Arauak oso espezifikoak dira halaber jabari hidraulikoetan eta Kostetan aplikatu beharreko araudiarekin, eta plan hidrologikoak ukituriko fitxek testu berria dute araudia betetzeko eta arloko administrazioekin ados egoteko.

Trenbide afekzioen ondorioz, dokumentuak sistema orokorraren kalifikazio globala jaso du zonifikazioari gainjarritako baldintza gisa; gainera, Araso-Sasikoburua eta Geltoki Ingurua esparruetan Trenbide Sistema Orokor gisa kalifikatu dira ukituriko azalerak. Era berean, Kostorbe esparruaren fitxa osatu da trenbide jabaria bere sarbideekin bateragarri egiteko.

Azkenik, kontuan izanik Jarduera Ekonomikoen proposamenen inguruan EAELABek egiten duen balorazioa, dokumentuak proposatzen du Araso Iparraldearen luzapena

esparrua bertan behera uztea eta kendu egiten du Araso-Sasikoburua esparruan merkataritza jarduera ezartzeko aukerarekin aintzat hartzen zen alternatiba.

Era berean, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua sortzeko eta Merkataritza Ekipamendu Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana betetzeko, mugatu dira Merkataritza Ekipamendu Handi bat hartzeko moduko Jarduera Ekonomikoetarako poligonoak eta Plataforma Logistikoak. Hala bada, aipaturiko LAP horrek jasotzen dituen merkataritza mugak ezarri dira Irungo hirigunean ez dauden eremuetarako, beste plano bat eginez eta horren inguruan araudia osatuz.

AD-2

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Etxebizitza Sailburuordetza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Babes Publikoko Etxebizitzen eta Hornidura Bizitokien estandarren alorreko balorazioa

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

Etxebizitzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak txostena egin zuen 2014ko uztailaren 18an, eta esaten zuen esparruen fitxek jaso egin behar dituztela bizileku eraikigarritasuna handitzeari buruzko datu guztiak, etxebizitza publikoaren nahiz hornidura bizitokien estandarrak behar bezala kalkulatu ahal izateko.

2014ko azaroaren 21ean, Sailburuordetzak beste txosten bat egin zuen, kasu honetan aldeko iritzia azalduz etxebizitza babestuen eta hornidura bizitokien estandarrei buruz jasotako zehaztapenei begira.

Azkenik, jaso dira Planak proposatzen duen esparruetan estandarrak betetzeko eskualdaketa baimentzen duten ziurtagiriak.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Sailburuordetzaren lehen txostena, uztailaren 18koa, aintzat harturik, indarrean dagoen egoerari dagokionean bizileku eraikigarritasunaren hazkundea izan duten esparruen fitxetan jaso dira hazkundearen datuak, etxebizitza babestuen eta hornidura bizitokien estandarrak kalkulatzeko zenbaki guztiak ager daitezen.

AD-3

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Ingurumen Sailburuordetza

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Ingurumenaren gaineko eraginaren Betiko Txostena.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91. artikuluaren arabera, Irungo Udalak du Plana onartzeko funtsezko gaitasuna. Horrenbestez, 3/1998 Legearen 44. artikuluak xedaturikoa aplikatuta, Autonomi Erkidegoko ingurumen organoari dagokio ingurumenaren gaineko eraginaren txostena egiteko lana, ingurumen ondorioetarako bakarrik, planaren inguruan eta etorkizunean plan hori gauzatzean, bere iritziz, hartu beharko liratekeen prebentzio, zuzentze edo konpentsazio neurrien inguruan duen iritzia azal dezan.

9/2006 Legearen, 3/1998 Legearen eta 183/2003 Dekretuak araututako prozeduraren arabera egin da Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspeneko Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2014ko azaroaren 25ean emandako Ebazpenarekin amaitu da. Haren bidez, Irungo Udalak sustaturiko Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren berrikuspeneko **Ingurumenaren gaineko Eraginaren Behin betiko Txostena** (aurrerantzean **IEBT**) gauzatu da.

IEBTak, **aintzat hartutako Helburu estrategikoei eta Alternatibei** dagokienean, oso positibotzat hartu du Olaberria esparrua baztertu izana jarduera ekonomikoetarako, baina esaten du bizilekuetarako edo jarduera ekonomikoetarako eremu batzuen garapenak (Jaizkibel Bizilekua, Ernautenea, Araso Iparraldearen Luzapena, Zabaleta, Urdanibia Zubieta) beharbada ez diola lagunduko “mugikortasun iraunkorra bultzatzeko” irizpideari.

Gainera, uholdeak izateko arriskua duten esparruen garapenari dagokionean, esaten du garapen xehea eta proiektuak izango direla URAk ezarritako lurzoruaren erabilera irizpideak aintzat hartu behar dituztenak haien uholde arriskuaren mailaren arabera.

Urdanibia-Zubieta esparruaren garapen xeheari dagokionean, IEBTan errepikatu da Hondarribiko HAPNaren ebaluazio estrategikoan egiten zen gomendioa.

Txostenak errepikatzen du udal plangintzak beharreko babesa eman behar diela udalerriko interes handieneko multzoei, BBE kategorian sartuz, eta bereziki aipatzen du Oiantzabaletaren Luzapena, Araso Sasikoburua eta Jaizkibel Bizilekua esparruetan antolamendu xeheak zuhaizti multzoak babesteko beharra jaso beharko litzatekeela.

Aztertutako Planei dagokienean, esaten da, Natur Baliabideak Antolatzeko Planean eta haren Kudeaketarako Plan Gidarian jasotako zonifikazioa eta erregulazioa hartu

behar direla aintzat Aiako Harria Parke Naturalerako, edo bestela, haietara jotzeko esaten duen kategoria orokor bat ezarri. Era berean, gomendatzen da, Espazio Natural Babestuetako Baldintzatzaile Gainjarrien araudiak berariaz jasotzea Natura 2000 erregimena, eta paisaiari dagokionean, erreferentziako Dekretua aintzat hartzeko, paisaia integraziorako azterketak egiteko eskatuko duena hirigintza plangintza izango dela dioena.

Apo lasterkariari dagokionean, esaten da argitu egin beharko dela apo lasterkariaren babesaren eta Urdanibia Zubietako proposamenaren arteko bateragarritasuna eta gomendatzen da esparru horretako araudi partikularrak ziurtatzea flora katalogatuaren identifikazioa eta definitzea hartu beharreko neurriak.

Era berean, esaten du, Azterketa Geomorfologiko Analistikoen Inbentarioko **interes geologikoko eremuak** identifikatu beharko direla.

Alternatiben azterketari dagokionean, IEBTak egokitzat hartzen du egindako azterketa eta justifikatu egiten ditu hala bide trazaturako nola bizilekuetarako eta jarduera ekonomikoetarako garapenerako hartutako soluzioak. Eraginen identifikazioari eta balorazioari dagokienean, azpimarratzen da baztertu egin dela Plaiaundi okupatzen duen bide soluzioa.

Afekzio akustikoaren tratamenduari dagokionean, esaten da jaso dela zonifikazio akustikoa eta kalitate akustikoaren helburuak bete daitezen arduratu beharko duela udalak, Planean eta garapenetan burubide zehatzak jasota, kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez diren eremuetan etorkizunean ezin izango direla garapenak egin gogoratuz.

Bestalde, IEBTak egokitzat hartzen ditu prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurriak, eta baita ikuskatze programa ere.

Atalase onargarria gainditzen duen eragina izateagatik birdefinitu edo kendu behar diren esku hartzeen artean, IEBTaren arabera ezezkoa eman behar zaio **Araso Iparraldearen Luzapena** esparruaren garapenari.

Azkenik, garapen plangintzan HAPBBaren Erreferentziako Dokumentuan jasotako ingurumen jarraibideak bultzatzea gomendatzen da.

IEBTaz gainera, ingurumenarekin loturiko alderdiak aztertzerakoan, kontuan izan behar da Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolakuntza Batzordek uztailaren 23an egin zuen 3/2014 Osoko Bilkuran arloetako txosten batzuk erantsi zirela eta horiei ere erantzuna ematen zaiela atal honetan.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Ingurumenarekin loturiko zehaztapenak HAPNaren berrikuspenaren hasiera-hasieratik jaso dira. Parte hartze prozesuaren eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako prozeduraren fruitu, Ingurumen Iraunkortasun Txostenak (IIT) ingurumen

irizpideen balorazio kualitatiboa eta erreferentziazio partikularizatua egin zituen, hori guztia Plan Nagusiaren eskalan aplikatuta.

Horren harira, ulertzen da HAPNaren proposamenak koherenteak direla Irungo Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planarekin eta ez dator bat IEBTan adierazitakoarekin, hauxe da, Jaizkibel Bizilekua eta Ernautenea bizileku eremuen eta Zabaleta (esparru ez sektorizatua) eta Urdanibia-Zubieta jarduera ekonomikoetarako eremuen garapenek "*ez dutela laguntzen mugikortasuna bultzatzen*", horiek guztiak egungo hiri sarearen barnean geratzen baitira eta jadanik dauden azpiegituretan oinarritzen baitira, kasu bakar batean ere berariazko sarbide berriak egiteko beharrik izan gabe, horietako batzuek (Ernautenea eta Zubieta) garraio publikoa izateaz gainera.

Betiko onarpenerako dokumentuan, uholde arriskua duten garapen berrien esparruetan (Urdanibia-Zubieta, Blaia eta Lastaola Postetxea) jaso egin da antolatzen diren erabilerak uholde arriskuaren mailaren arabera bateragarri izateko beharra, Uraren Euskal Agentziak (URA) ezarritako irizpideei jarraiki.

Urdanibia-Zubieta esparruaren garapenari dagokionean, eta Irungo Udal Barrutian dagoen aldean, esan behar da ez dagoela intereseko faunarako (Apo lasterkaria (Bufo calamita), benarrizak edo lertxuntxoak) Interes Bereziko Eremurik. Nolanahi ere, esparru horren fitxan jaso da esparruko antolamendu xeherako araudi partikularrak flora katalogatuaren presentzia identifikatzeko eta, hala behar badu, beharreko neurriak hartzeko gomendioa. Hala ere, Urdanibia-Zubieta esparruko antolamendu estrukturala bi udalerrietan garatuko duen etorkizuneko Bateragarritasun Planaren eta haren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren esparruan aztertu beharko da hirigintza garapen berria intereseko faunaren babesarekin bateragarria den ala ez den eta beharreko neurriak hartu beharko dira, fauna horri, padurari eta uholde arriskua duten eremuei begira.

HAPNak Babes Bereziko Zoru Urbanizaezina kategorian sartzen ditu intereseko landaredia multzoak eta Oiantzabaletaren Luzapena, Araso Sasikoburua eta Jaizkibel Bizilekua esparruen fitxetan jaso da, ahal den neurrian bederen, esparru horietan dauden baso multzoak kontserbatzeko beharra.

Aldiz, Aiako Harria parke naturalean ez ditu sartzen Natur Baliabideak Antolatzeko Planean eta haren Kudeaketarako Plan Gidarian jasotako zonifikazioa eta erregulazioa, Plan Nagusiak definitutako zonifikazio sistematikarekin bat ez etortzeagatik, baina udal zonifikazioarekiko baldintzatzaile gainjarri gisa jaso dira Plan horiek, eta araudiak adierazten du esparru horren hirigintza erregulaziorako erregimena jaso egin behar dela arestian aipaturiko Natur Baliabideak Antolatzeko Plan horretatik eta haren Kudeaketarako Plan Gidaritik.

Ildo beretik, HAPNak bere araudian Babestutako Espazio Naturaletarako baldintzatzaile gainjarri gisa espresuki jasotzen du Natura 2000 Sareko espazioetan aplikatu beharreko prebentzio erregimena, eta Aiako Harria eta «Txingudi-Bidasoa» Kontserbazio Bereziko eremuekin loturiko kontserbazio neurrietara jo behar dela esaten du halaber.

Era berean, baldintzatzaile gainjarrietan erantsi dira “Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoaren Aurreproiektuan” jasotako paisaia katalogatuak eta paisaia Apartak (“Pagogaina”, “Endara”, “Pagogainako Gotorlekua” paisaia aparta). Era berean, interes geologikoko puntuak eta lekuak ere jaso dira.

Zaratari dagokionean, Udalerriko zonifikazio akustikoa jaso du HAPNak. Gainera, garapen berriak egin behar diren esparruen fitxetan jaso da, tramitatzen diren garapenerako planekin batera, eragin akustikoaren azterketak egiteko betebeharra, kalitate akustikoaren helburuak beteko direla bermatzeko.

Ingurumenaren gaineko Eraginaren Betiko Txosteneko eta EAELABen txosteneko kontsiderazioak jasorik, birdefinitu edo kendu behar diren esku hartzeei dagokienean, Plan Nagusiaren Berrikuspenaren betiko onarpena bertan behera uztea proposatzen da 1.1.10 Araso Iparraldearen Luzapena esparruan, gaur egungo eraketari dagokionean. Horrenbestez, esparruak mantendu egingo du 1999ko Plan Nagusian ezarritako lurzoru urbanizaezinaren hirigintza erregimena, eta beste antolamendu tresna bat tramitatu eta onartu beharko da, hirigintza zehaztapen berriak jasoko dituena, adierazitako kontsiderazioak aintzat harturik.

Iraunkortasunari buruzko itunetan eta azterketetan jasotako ingurumen jarraibideei dagokienean, HAPNaren berrikuspeneko araudian jaso da irizpide horiek garapen plangintzan sustatzeko gomendioa.

Azkenik, eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesuan eginiko txostenetan aipatutako beste alderdi batzuei dagokienean, IEBTan berariaz jaso gabeak horiek, azpimarratu behar da baldintzatzaile gainjarrietan jaso direla Onura Publikoko Mendiak eta higatu daitezkeen eremuak, eta HAPNak proposaturiko hirigintza garapenek dauden nekazaritza ustiategietan izan dezaketen eraginaren balorazioa egin dela, eta atera den ondorioa izan da Irungo HAPNaren berrikuspenean jasotako hirigintza garapen berriek nekazaritza sektorean izango duten eragina arina izango dela, eta horrenbestez, nahikoa eta aski dira Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean planteatutako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak.

AD-4

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Aireko Zortasunen alorreko balorazioa

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

Azkenik, Plan Nagusiaren berrikuspena dela-eta, azken txostena egin zuen Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2014ko maiatzaren 24an. Txosten horretan esaten da eskatutako alderdi guztiak jaso dituela Planak, eta halatan, haiek guztiak betetzen direla ziurtatu ondoren, aldeko iritzia jasotzen du txostenak.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Planaren behin-behineko onarpenaren ondoren, aireko zortasunen inguruan ez da inolako kontsideraziorik jaso behar izan dokumentuan.

AD-5

TXOSTENA EGIN DUEN ERAKUNDEA:

Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusia

GAI OROKORRA / KOKALEKUA:

Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren, Zortasunaren eta Afekzioen alorreko balorazioa.

TXOSTENAK AZTERGAI DITUEN KONTUAK:

Irungo Plan Nagusiaren berrikuspenari dagokionean, Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak txostenak egin zituen 2009ko martxoaren 27an eta 2011ko ekainaren 7an; azken hori aldekoa, babes zortasunaren eremuan planteatzen diren erabilerek Kosta Legearen 24. eta 25. artikuluek xedaturikoa jasotzeko baldintzarekin.

Ezarritako baldintzak bete ondoren, 2014ko uztailaren 24an, Zuzendaritza zentroak txostena egin zuen EAELABen testuinguruan, eta hartan esaten zuen udalak Planaren betiko onarpenaren aurretik txostena egiteko eskatu behar ziola administrazio horri. Hori dela-eta, irailaren 25ean udalak ministerioari dokumentazio berria bidali zion betiko balorazioa egin zezan.

Azkenik, eta ezarritako 2 hilabeteko epetik kanpo, 2014ko abenduaren 23an aldeko txostena egin zuen Kosta Zuzendaritzak, ministerioko zerbitzu teknikoek eskatuta udaletik helarazi zitzaion dokumentazio osagarria ikusirik.

Azken idatzi horretan, eta aurreko txostena aldekoa izan arren, berriro aztertu ziren Planeko dokumentazioa eta zehaztapen guztiak, eta hainbat aldaketa egiteko eskatu zuen Kosta Zuzendaritzak. Alde batetik, esaten du, A1 planoan “Kosta Legearen afekzioak” itsas erribera lerroak, itsas-lehorreko jabari publikoaren eta babes zortasunaren eremuaren artekoak, islatu badira ere, lerro horiek sailkapen eta antolamendu planoetan ere islatzeko.

Aplikatu beharreko araudi orokorrari dagokionean, 2014ko urriaren 10ean beste Kosta Araudi Orokor bat onartu zen, ordura arte indarrean zegoen Errege Dekretua indargabetzen duena, eta horren berri ematen da Planean eguneratu dadin.

Gainera, 1988ko Kosta Legearen 30. artikulua aplikatuz, eskatu da Urdanibia-Zubieta esparruan, berrikusten ari diren Hondarribiko Plan Nagusiak egiten duen bezala, etorkizuneko Bateragarritasun Planaren esku uzteko hirigintza eraikigarritasuna.

Azkenik, beste bi kontsiderazio eransten ditu, lehenengoa, kasu honetan Planean deskribatzen diren “natur ibilbideak” egiteko beharreko baimenari dagokio; eta bigarrenak, berriz, ohartarazten du Kostasek ukituriko esparruen fitxek ez dituztela azken kontzesioak eguneratuak, kontsiderazio horiek Plan Nagusiaren mailako zehaztapenak ez badira ere.

AINTZAT HARTU ETA PLAN NAGUSIAN JASOTZEA:

Kosta Zuzendaritzaren aldeko txostena egiaztatzeko, udal zerbitzu teknikoek beharreko dokumentazioa bidali zioten ministerioari, erakunde horrek jarritako azken baldintzak betetzen direla justifikatu ahal izateko.

Horren harira, Planak proposatzen duen zoru urbanizagarri sektorizatuko esparruen eraikigarritasuna aztertzen zuen dokumentazioak. Esparru guztien batez besteko eraikigarritasuna kalkulatuta, egiaztatu zen itsas erriberako eragin eremuak ukitzen zituztenek (eremu hori 500 metro barneratzen da erribera lerrotik) batez besteko globalaren azpitik geratzen zen eraikigarritasuna zutela. Hori horrela izanik, bestelako ezaugarri bat du Urdanibida-Zubieta kasuak, Hondarribiko udalerriarekin partekaturiko esparrua delako eta udalerri horretako Plan Nagusia gaur egun tramitean dagoelako (hartan Irungo Planean bezalaxeko baldintzetan jaso da esparru hau), hauxe da, kasuhonetan ez da hirigintza eraikigarritasuna finkatzen, etorkizuneko Bateragarritasun Planaren esku uzten delako haren zehaztapena.

Gorabehera hori dela-eta, Kosta zerbitzuak beharrezkotzat hartu du eraikigarritasunarekin loturiko zehaztapenak Hondarribiko Planarekin berdintzea, hauxe da, Irungo Plan Nagusiak etorkizuneko Bateragarritasun Planaren esku uztea hirigintza eraikigarritasunaren zehaztapena. Horrenbestez, Urdanibia-Zubieta esparruaren fitxatik kendu egin da hirigintza eraikigarritasunaren zehaztapena, etorkizuneko Plana izango delako, betiere, betiko onartuko duena.

Azkenik, eginiko eskaerari erantzuteko, Lurzoru Sailkapenaren eta Plangintza Esparruen Planoan jaso dira Kosta mugatzen duten lerroak, afekzioen A1 planoan nahiz antolamendu xehearen planoen koadernoan jada islatuta bazeuden ere erakunde horren oniritziarekin.